

Antonio Zavala
Joxemari Iriondo

Mattin eta Xalbador





Mattin Treku bertsularia 1916.11.1 In sortu zen, Lapurdiko Ahetze herrian. Gazterik bertsu kantari hasi eta urte ainitz egin zituen herriz herri gure probintzi guzietan gaindi, Xalbador lagun zuelarik. Euskal Herri guzian hain ezaguna eta maitatua zen bertsularia, 1981.07.22an hil zen. Haren bizitza, bere alargunak idatzia, harek paperean eman bertsuak eta jende aitzinean kantatu bertsu andana bat, liburu huntan aurkituko ditu irakurleak: *Mattin eta Mari Treku: Mattin bertsularia*, (Auspoa 298, 2006). Eta bai egungo liburu huntan ere: *Mattin eta Xalbador*, (Auspoa 301, 2006).

* * *

Xalbador bertsularia, Fernando Aire izen deituraz, Baxenabarreko Urepelen sortu zen, 920.06.19an. Gazterik bertsu kantari hasi eta Euskal Herri guzian urte askoan bere ahotsa entzun arazi zuen, Mattin lagun zuelarik, Urepele bere sort herrian betirako isildu arte, bere omenaldiaren egun handian, heriotz hori euskaldunentzat "ihurtzuri bat bezala" izanik.

Berak paperean eman bertsuak *Odolaren mintzoa* liburu zoragarrian ditu irakurleak. Horregatik esanen zion Mattinek:

Jesukristo bezala mundutik baha,
ondokoeri utziz ebanjelioa.

Liburu horrek lau argitaldi ukan ditu dagoeneko: 1976, 1989, 2003 eta 2006an.

126 65970

BO-12258

Antonio Zavala
Joxemari Iriondo

Mattin eta Xalbador

Auspoa Liburutegia

301



EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA

Mattin eta Xalbador / [biltzaileak], Antonio Zavala, Joxemari Iriondo. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza Nagusia, 2006.

384 or. : argk., mus. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 301)

Aurkibidea

L.G. SS 1205-2006. - ISBN 84-7907-528-7

I. Treku, Mattin, aut. II. Xalbador, aut. III. Zavala, Antonio, comp. IV. Iriondo, Joxemari, comp. V. Gipuzkoa. Dirección General de Cultura, ed. VI. Serie 821.361-1"19"

© edizio honena: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 84-7907-528-7

Legezko Gordailua: S.S. 1205/06

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Antonio Zavala
Joxemari Iriondo

Mattin eta Xalbador



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

Donostia-San Sebastián, 2006

Aitzin solasa

Mattin eta Xalbador bi izen ezin bereziak dira. Berdin da bat aitzinetik ezarri edo bestea ezarri. Guk, Mattini aurea emateko, arrazoi bakarra izan dugu: bietan zaharrena bera zala, Ahetzen, 1916.XI.11n, San Martin egunean jaioa zanez. Bere herriko bestetan munduratu zen, beraz. Xalbador, berriz, Urepelen, 1920.VI.19an, sortua zen.

Bikote hori nola osatu ote zen? Orain berrogei ta hamar bat urte, Teodoro Hernandorena jauna zenak Bidasoaz iparraldeko bertsolaritza berpiztutzeko asmoa hartu zuen. Ekin zion han eta hemen bertsu-saioak eta txapelketak antolatzeari. Iriarte, Zubikoa, Errexil, Etxahun-Iruri eta abar orduan azaldu ziren. Hauen artean bai beste bi bertsulari ere, bata Lapurdikoa eta bestea Baxenabarrekoa: Mattin eta Xalbador. Bi izen hauek izan ziren beste denen artean aparra bezela gora igo zirenak.

Ez, ordea, beren alderdi hartan bakarrik; baita hegoaldean ere. Hemengo antolatzaileak berehala hasi ziren hango bikote horri deitzen. Bertsu-saioen osagarri eta apaingarria zen bi aurpegi hoiek agertzea eta bi eztarri hoien kantua entzun ahal izatea

Haienezako ez zen erreza beren herritik Gipuzkoara, Nafarroara edo Bizkaira etortzea. Xalbadorrentzat, batez ere. Halako mendi-zokoan dago, izan ere, Urepele. Denborarekin biek kotxe edo auto bana erosi zuten. Harrezkeroztik, Urruñan leku jakin batean elkartzen ziren, handik biak batera behar zan tokira joateko.

Bertsulari-txapelketak Hegoaldean hasitakoan ere (1960, 1962, 1965, 1967), biak etortzen ziren Iparraldeko bertsularien izenean. Jaialdi ospetsu hoietan agertzearekin ezagunagoa egin zuten beren burua.

Era hortan, inor ohartu gabe, bertsutan egiteaz gain beste-eginkizun bat betetzen zuten: ordezkari edo enbajadore izan ziren haiek urte mordoan, iparraldetik hegoaldera eta hemendik hara. Pedro Maria Otañoren iritziz, gure Euskal Herria zera omen dugu:

Zazpi aizparen gai dan oiala
ebakirikan erditik.

Mattin eta Xalbadorrek ekin zioten, beraz, handik hona eta hemendik hara ibiliz, jostorratz txorrotxak balira bezela oihal ebaki hori ahaleginean josten. Jostorratz hoiien haria ez zen, ordea, politika, hortan sartzen ez zirenez, baizik eta gizatasuna, kultura, hizkuntza, elkarren ezaguera, eta, batez ere, maitasuna. Haiek baino ordezkari maitatuagorik izan al da, izan ere, inoiz eta inon?

Era hortan, bi bertsulari hauk izan ziren Bidasoaz hango eta hemengo bertsularitza, berak jin arte bi puska eginik zegoena, bat egiten hasi zirenak.

Joxe Mari Aranalde zenak zera esaten zuen: Xalbador eta Mattin zirela Euskal Herriko Don Kijote eta Santxo. Esaera hortan ez dago burla edo iseka arrastorik, esan zuena bikote horren miresle purrukatua zenez. Bai, ordea, maitasuna, umore pittin batekin.

Mattin bera ere ondo jabetuta zegoen bikote hortan nor nor zen, eta bere lagun Xalbadorri eskeinitako bertsu-sail batean honela dio:

Hau beti gizon seriozago, ni berriz arrailerian,
Besta batean bikote ona biek egiten genian.

Dena dela, zalantzan jarri ez ditekena zera da: bikote hori, hasieran adierazi dugunez, inola ere ezin berezia dela.

Bi izar hoiek itzali ziren, ordea. Gazteena lehenengo, Xalbador, 1976.11.07an, bere omenaldiaren egun haundian; eta

Mattin hurrengo, 1981.07.22an. Omenaldirik egin izan zaie geroztik; bainan bakarka. Bataren edo bestearen izenean, beti ere elkarrekin ibili ziren bi izen haiek elkarrekin lotu gabe, alegia.

Orain, berriz, urteen buruan, Mattinen heriotzaren 25gn urteurrenean, asmo berria hartu dute Xalbadorren sorterria den Urepelen: urteroko beren bertsu jaialdia, orain arte beren herriko bertsulariari bakarrik egin izan dena, aurten bieie eskeintzea.

Hurrengo burutapena zer izango zen igertzen erreza zen; bien izenak lotuko dituen libururen bat agertzea; *Mattin eta Xalbador* izenburua izango duen liburua argitara ematea. Horixe da, beraz, irakurlearen eskuetara gaur ekartzen duguna; eta bera nola osatu dugun adieraztea izango da gure oraingo zer egina.

Liburu honek bost zati ditu. Lehenengoa *Mattin eta Xalbador elkarrekin* deritza, eta biek bata besteari kantatu bertsuetatik mordoska edo aukeratze labor bat eskeintzen du.

Bigarrenak, *Mattin bakarka* izenarekin, Ahetzeko txoriak han eta hemen bertsu-saioetan bakarka kantatu bertsuetatik sortatxo bat biltzen du.

Gauza bera egiten du hirugarren zatiak, *Xalbador bakarka* izenekoak, Urepeleko artzainak bakarka kantatu bertsuekin.

Horrelako beste bertsu batzuk ere badaude, noski, Mattinen eta Xalbadorren orain arteko liburuetan: *Mattin bertsularia* (Auspoa 298, 2006) eta *Odolaren mintzoa* (Auspoa 290, 2004).

Laugarren zatian, *Mattinen omenez* deritzan hortan, bera goratzearren Bidasoaz bi aldeetako bertsulariak kantatu eta bertsu-jartzaileek eman sailak biltzen ahalegindu gera, naiz eta, tamalez, bat edo beste gure eskuetara gabe geldituko bazan ere.

Bostgarrenean, *Xalbadorren omenez* izenekoan, berdin egin dugu.

Bi zati hauek argi eta garbi erakusten dute bi bertsulari hoiek zenbateraino estimatuak eta maitatuak izan ziran bai beren alderdian eta bai Bidasoaz beste aldean ere. Bertsu-jar-tzaile hoiek gogotik saiatzen dira Ahetzeko eta Urepeleko txorien merituak eta dohainak azaltzen. Hori eginez, batere ohar-tu gabe, literatur aldetik kritika antzeko bat idatzi zuten. Me-reziko luke sail hoiek bertszuz bertszu arretaz aztertzeak. Hor ikusiko genduke zer-nolako bertszugintza eskatzen duen bertszuzale jator batek.

Zer gehiago esan genezake? Mattin eta Xalbador, edo-ta Xalbador eta Mattin, pisu haundiko bi izen izan genituela XX mendeko bertszularitzan. Ahaztutzerik merezi ez dutenak, nos-ki. *Tempus edax rerum* esaten zuten, ordea, eta arrazoi haun-diz, antzinako erromatarrek. Denborak dena jaten duela, alegia. Bai; hala izango da. Baina zera nahi genduke: bi izen hoiek elkarri ondo lotuta denbora luzean irautea gure artean. Inoiz ahaztuko balira, izan ere, bildur naiz ez ote litzaken izango gure Euskal Herri hau esan nahiaz gabetu eta hustu de-lako, bai *euskal* bezela eta bai *herria* bezela ere.

A. Z. eta J. M. I.

**Mattin eta Xalbador
elkarrekin**

Bertsularien sariketa Parisen

Teodoro Hernandorenak antolatuta, bertsularien sariketa egin zen Pariseko Euskal Etxean, 1958ko maiatzean, Basarri, Mattin, Xalbador eta Uztapiderekin. Gaiemaile eta aurkezle Hernandorena bera izan zen.

Bertsu jaialdia radioz eman zuten zuzen-zuzenean; baina ez zituzten jaso hango bertsu denak. Jaso zituztenak Euskaltzaindiaren Azkue Liburutegian utzi zituen Jokin Zaitegi jaunak.

Pariseko saio haren hastapenean, bina bertsu kantatu zuen bertsulari bakoitzak gai bati buruz, Mattin eta Xalbadorrenak bakarrik aipatuko baditugu ere hemen.

Mattin:

Bertsu lanari hasi behar dut, zabal dituzte atearak,
eta ni ere bortxatua nau dazkidanak erraiteak.
Eskualdun seme eta alabak zaizte batzu ta bertzeak,
Euskal Herriko amodioa bihotzak ongi beteak;
nere partetik agurtzen zauzter, anai arreba maiteak.

Bakar batzuek hemen begira, eta urrunen bertzeak,
denak batean bagine hemen ez laizke gure kalteak.
Ameriketara zenbait baditu gure anaien parteak,
nere bihotza kasik lertzen du hek hemen ez izaiteak...
Radioan bidez agurtzen ditut batzuek eta bertzeak.

Xalbador:

Gaur hemen eman behar nituzke kanta batzu bereziak,
tudana ahalan ttipitzen arren nondikan ezin hasiak;
hargatik ere haste hastetik guztieri goraintziak,
agurtzen ditut hemengo euskaldun eta etxean utziak,
bat ere berex ereman gabe munduan dauden guziak.

Ene bihotza zabal baneza hartuko nuke atsegin;
herabez nago urturik eta nai dizuet egun ezin.
Oi euskaldunak, egin dezagun gure botu edo gaur zin,
ez du inporta bat hemen eta bertzia han bizi dadin,
bihotzez bederen elkaturik eskuara bat egin dadin.

Ondoren beste gai bat eman zien, bina bertsu kantatzeko:
Oxobi.

Mattin:

Oxobi zer zen nik eztut segur irakurtu liburuan,
hameka aldiz gertatu bainaiz apezaren inguruan.
Hori ikusita gaiztoa al zela ja askotan nindaguan,
baina segurki probatua dut ongi ikusi onduan,
bihotz hobeko gizonik baden nik eztut uste munduan.

Jainkoak emanik gizon bakotxak baitu bere alderdiak,
partikularrak izandu ditu gure Oxobi handiak.
Eskuara maite zuela dakit, ta maite bertsulariak;
hortaz oroitzuz orain hemen bustitzen zaizkit begiak,
ez tzagula, otoi, hiltzerat utzi eman dizkigun argiak.

Xalbador:

Oxobi zena maiz ikusi dut ospakin edo hiletan,
bertsuak ere egin izan tut ber harek eman gaietan.
Haren erranak kunplitu ditut betidanik lehietan,
haren soinua oraino ez da deuseztu beharrietan,
zure itzala ez da joanen nehoiz Eskual Herrietan.

Lehen lehenik zure aurrean nintzan bertsutan ni ari,
eta oroit naiz zer gai zuk ere zineraudan ezarri.
Zu ikusteko so egin behar dugu orai zeruari,
orainik ere zure laguntza gainetik bedi etorri,
zaude zerutik, Oxobi zena, gure urratsen gidari.

Hirugarren gaia: Zer egin litekean euskararen galtze izigarri honetan, eta zer egin litekean holako itxura txarretik goratzeko, altxatzeko edo berpizteko.

Mattin:

Pena haundia eman lezake eskuara honen galtzeak;
hontan ari nahi zaituztet orai, guraso maiteak.
Kargatzen zauztet eskualdun gisa hunen irakusteak:
lehenik euskara trebe zazute otoitzean haur maiteak.

Nik ere ondo konprenditu dut Basarri hunen errana,
bainan eskuara nere gustuko lehenik gurasoen lana.
Gaurko eskolak bertze lekutan izpiritua derama,
lehengo haietan erran litaike hoin goxoki: «Ai, ama!».

Xalbador:

Frantsesez mintzo entzunetarik ezin naiteke kontsola.
Bai, eskuara salba ditake, erranen dautzuet nola:
haurrak eskuaraz mintza ditezen, beren sehaskan daudela,
gure umian beti aisago berdatzen baita arbola.

Oi, eskuara, gauza ederra nola baitzira gurea,
gaur arazoak jahal a(r)azteko ez errailerik badea?
Zuri hurbildik jarrai dabilan Jainko Jaunaren legea,
bai, eskuara galdu litake lur hau ez balu berea.

Binaka ofiziotan, puntutan eta abar egin zuten hurrengo saioa lau bertsulariek. Bainan ondoren banaka jarri zituen berriro ere Hernandorena jaunak, gai hau emanik: Euskal Herritik kanpo, beren etxea utzirik, Parisera edo Ameriketara dijoan seme bateri zer kontseilu eman lezaizkioken, Xalbador hasita.

Xalbador

Etxeko nahiz beiratzan baina uzten zaitut azkenean,
oi, seme, zure amentsak dire aspalditik urrunean.
Ez duzu egon nahi izango geiago euskal lurrian,
zure burraso ta senideak utzi tuzun leku berean.

Ene, semea, tristatzen nauzu, erraiten dautzut egiaz,
eta nondikan alegra daiken oroitu bedi ahalaz.
Aments ederrik eginen duzu lotan zaudelarik gauaz,
han ondo bizi eta oroitu beti Eskual Herriaz.

Mattin:

Aita batentzat latza ditake seme baten partitzia,
lan askon lekuan gizon batek egin dezake bizia.
Bainan goguan hartu, semia, aitak erakutsia:
bihotzan barna atxik dezala burrasoak eta etxia.

Seme bat partitzen delarik aita baidago penetan,
ez baitula berriz hor ikusiko instant bateko egunetan.
Bainan gaur agur egiten dio, nigarra du begietan...
«Eskualdun zintzo ibili hadi, seme, leku guzietan».

Xahakua ta kaikua

Mattin eta Xalbador, Luzaideko plazan, 1959-07-28an. Bertsu hauk *Luzaide* aldizkarian argitaratu ziren, 1960-ko otsaillean. Mattin xahakua zen; eta Xalbador, kaikua.

Mattin:

Bikarioak laster egin du suietaren hautatzia:
ni xahakua eman nau eta kaikua berriz bertzia.
Jende maitiak, ikusiko'zue gu bien diferentzia:
ni xahakua deitzen naiz eta Xalbador arno-untzia.

Xalbador:

Mattinendako da xahakua eta kotxua neretza,
jaun bikarioak agertu du suiet jostagarri gaitza.
Nik deraukat hortxe esne garbi, honek kalte eta gaitza,
ene axala xuri dago ta honen barnea beltz-beltza.

Mattin:

Nik beti daukat preferentzia nere xahakuarentzat,
eta eztaikit hunek zer dion bere kaikuarentzat.
Nik trukatuko niokela hori ez dezala pentsa,
xahaku hortan atxikitzen da bertsularien ezantza.

Xalbador:

Mattinek ainitz erraiten dauku eginez gero bi trago,
hau xahakua deitzen da eta ni beti kaikuan nago.
Nik jauntto hori ezagutzen dut zuek baino lehenago,
bi litrakua da naski bainan atzo bazuen geiago.

Mattin:

Xalbadorrek zernahi errain du orai xahakuaren gatik,
bainan hartarik duelarikan berak edaten gogotik.
Ez bide du, ez, hainbertze trago egiten horrek kaikutik,
hainbertze esne edan balu zurituko zen gargoitik.

Senar emazteak

Bertsu hauk ere Luzaideko plazan, 1959.07.28an, Mattin eta Xalbadorrek kantatuak dira: Mattin, emaztea; Xalbador, senarra. Mañetofonoz Jose Maria Satrustegi jauna zenak hartu zituen. *Luzaide* aldizkarian, 12gn zenbakian, 1960.06an, argitaratu ziren.

Mattin:

Jende maitiak, eman daukute orai suiet bat berria,
bat bertziaren kitzikatzeko oraintxe da tenoria.
Bikarioak erran du eta senar-emazte baigia,
urrikari da halako gizona etxian duen andria.

Xalbador:

Andre maitia, gizon guziak desohoratzen gaituzu,
nehurriz kanpo hitz egitea nehorentzat ez da haizu.
Egun bederen elgarrekilan, etzauku gertatzen usu;
nik beti ongi maite zaitut ta emaizkidazu bi musu.

Mattin:

Ageria da urrikalduta jarria dela etsian,
onbore ona ez du, ez, beti arratsian ta goizian.
Lanian bakan ari da eta bestan al duen guzian,
barkamendua nei eskatzen du muxkurtzen zautan guzian.

Xalbador:

Ene andreak bizimoduak ez ditu ongi ikasiak,
hunen gantikan emenda laizke bertzen bazterrian sasiak.
Emanen dazkot arrazoi batzu nik orai gazi gaziak:
hunek aisasko gastatzen ditu nik nekez irabaziak.

Mattin:

Gu nola bizi giren etxian esplikaturzen has gaiten:
goizian mezara juaiten da eta gauaz betea da jiten,
handik oihuka bortan eginda: «Andrea, otoi, jeiki zite!»
Gauzaren bortxaz ikasia dut moxkor saldaren egiten.

Xalbador:

Ene andriak hazi gaiztuak munduan baitu erainak,
berak ere erten tu bainan entzunen ditu ordainak.
Gure etxian zikinak daude bai azpiak eta gainak,
ganbaran sartzian bat hil nahi du piz untziaren usainak.

Mattin:

Errepustaren emateko nik idekiko dut ezpaina:
andre gaixua mespreziatzen du egin nahian alaina.
Hau beti zer nahi erranka, ni lanian ai naiz baina;
ez dago bada ainitz hobea mozkor hatsaren usaina.

Xalbador:

Ene falta da hautatu badut, etzaitezela asaldatu;
bide txarrian sartu naiz eta orai ez naike aldatu.
Bere ofizioko lan onenak garbitzia ta salda tu;
badu urte bat hunek ez duela zaia azpikua aldatu.

Mattin:

Nik errepusta emanen zaitut, senarra, gustu gustuan,
andria beti izan behar baidu beti onbore prestuan.
Zaia azpikorik ez dut aldatu zeren ordainik ez tuan,
haren sariak nere senarrak uzten ditu ostatuan.

Xalbador:

Gazte denboran hau izan nuen nik nihauren andregai,
galdia nihaurek egin nion ta hunek laster erran baia.
Beti zikinak hortxe daduzka mantala bai eta zaia,
atsetan horrekin etzateko gizonak behar du emaia!

Ezkondua eta donadua

Xalbador, ezkondua; Mattin donadua. Hauk ere Luzaideko plazan kantatuak dira, 1960ko Santiagotan. Suiet emaile eta bertsu biltzaile, Jose Maria Satrustegi jauna zena.

Xalbador:

Kontseilatuko zaitut, ene lagun Mattin,
sinisten baninduzu banuke atsegin.
Ni gostura bizi naiz andre ta hurrekin,
ta zuk bertze hainbertze noiz behauzu egin?

Mattin:

Bertsu bat botako dut, Xalbador, hortarik,
kasik ernatu bainaiz oraintxe lotarik.
Nik ez dut deusik nahi andre hoietarik,
ez naiz ezkondu nahi ez baitut doterik.

Xalbador:

Alta, beti zabilta hemen bestaz besta,
horren konprenditzea denentzat errez-ta.
Zu ere ezin zaizkela ezkontzeat herresta,
bainan ez bide duzu hanbat errekesta.

Mattin:

Xalbador, ari zira gauza hortan gaizki,
andregaiak banuzke nik sei edo zazpi.
Hau karkulatzen baitut nik partikularzki:
andre hoietan badela malurosik aski.

Xalbador:

Donado urosa're oraino ez da jina,
harek ere falta du zonbait atsegina.
Zuk ez duzu hortako bokazione fina,
hal'etzira haragiz ta hezurrez egina?

Mattin:

Hori erranen dautzut, Xalbador, kuxian,
karkulan egon gabe denbora luzian.
Ni moxkortuta ere joaiten naiz aisian,
andria etzaut aitzen neri erasian.

Xalbador:

Donado gelditzerik, Mattin, ez desira,
erori baitzaizke zu gainetik azpira.
Moxkorra heltzen etxeat erortzen bazira,
andriak altxatu faltan hantxet hilen zira.

Mattin:

Gogorik ez dut izan bein ere ezkontzeko,
nere idaia izan da trankil bizitzeko.
Pena ederrak baitu zureak hartzeko,
zu bestan zailaiek harek behiak deizteko.

Xalbador:

Zure erran guziak baginitza adi,
baginuke arrozoin erteko elgarri;
neskek ezkondu baino naio dute sehi,
gero hunek erten du ez duela nahi.

Mattin:

Hemen kantatzen tugu legun eta latzak,
gauz hau entzun zazue zuek, gaizo neskatxak:
hobe duzue hartu senar aberatsak,
bainan bertsularirik ez hartu senartzat.

Xalbador:

Gu ere norbait gira, ez mintzatu hola;
kusten duzue Mattin donado dagola.
Eta ez dukezuia Jainkoaz axola?
Iduri duzu fruitu gabeko arbola.

Mattin:

Hortan e zorionik ez bide da nihun,
neskatxak, nahi dautzuet hauxet erran egun:
koblari hartzen bauzue zuen bizilagun,
zonbeit gau beharko'uzue pasatu alargun.

Esneketaria eta ostalerra

Luzaiden 1960ko Santiagotan kantatuak. Xalbador, esneketaria; Mattin, ostalerra. Suiet emaile eta bertsu biltzaile, Jose Maria Satrustegi jauna zena.

Xalbador:

Hauxet adi dezala ostaler semeak,
nik ere izaiten ditut tentazioneak.
Gaurkotzat ere egin baitaiku eneak,
edatera heldu nitzaizu saldurik esneak.

Mattin:

Xalbadorrek salatu du oraiko puntuan
frango abila dela letxero kontuan.
Ni hunen begira nago bai gustu gustuan,
egun guzietan da nere ostatuan.

Xalbador:

Urrikalgarria naiz nabilan maneran,
malurosagorik baden ez ditaike erran.
Nola maiz sartzen nizan jaun hunen tabernan,
esne purra saldu eta ura frango edan.

Mattin:

Bere burua salatzen ari da ederki,
uraren negozioa berak e badaki,
Jende batzuk erraiten ari zauzkit beti:
esnia irakituta're ez da juaiten goiti.

Xalbador:

Leku txarretik tutzu gauza hoik jakinak,
orai erranen dautzu untsa badakinak.
Nik beti saltzen ditut material finak,
ez du goiti joan behar esne irakinak.

Mattin:

Zure berriak badazkit, zaude zu deskantsu;
zure letxerokuatik sobera espantu.
Berri berritan famak baditut nik aitu:
burra kendu ta uraikin emendatzen baitu.

Xalbador:

Etzauden jende on hauk gauz horren aiduru,
dozena bat aski eta ukan hamahiru;
zuk aisa egiten duzu, jauna, hoinbertze diru;
botoila batetarikan eiten tuzu hiru.

Mattin:

Gauza horren berriak lagunak badazki,
bera holakua dela ageri errexki.
Orai aitortu nai diot hemendik preseski:
sei pinta erosi eta saltzian baitu zazpi.

Xalbador:

Zure edaria ez da hoik baino hobe,
beharrik nik ezagutzen baidautzut ordea.
Zure botoila beltzian han dago gordea,
eniak berriz bistan dauka kolorea.

Mattin:

Ur pixka bat ematen dut, ari naiz aitortzen,
naiz berari gauz bera baitzaion gertatzen.
Gure etxian ardura baita jaun hau sartzen,
arno txarra dudala ta halere moxkortzen.

Xalbador:

Zure arnoak ez deraut, ez, pizten barrena,
hortan arrangura naizen ez naiz ni lehena.
Zure desohoratzeak emanikan pena,
batzuetan egiten dut moxkortuarena.

Mattin:

Karrikarat etortzen da hau beti argiko,
eta bero beroa ina eguardiko.
Orai're gaizki ari da nere iduriko,
ardo txarra banu nik elitzak'etorriko.

Xalbador:

Hortaz emanen dautzut nik azken bertsa,
etzaitela izan, Mattin, hoin urgulutsua.
Bertze mundurako ona da zuk duzun kasua:
urez itzaliko duzu ifernuko sua.

Kontseilari hautatua eta baztertua

Heleta, 1964.05.17

Mixel Labeguerie: Duela bortz urte izugarrizko gudua egin zenuten plaza hunetan. Xalbador Urepeleko kontseilari hautatua izan zen; eta Mattin, Ahetzekotik kanpora gelditu. Heldu den urteko hauteskundeetan presentatuko ote da Mattin berriro?

Mattin:

Orai kondu zaharretan ezarria naute,
nik gelditu nahi dut hortatik aparte.
Presentatzeko eztut ideiarik bate,
lehen frogatu baitut ez nautela maite.

Xalbador:

Etsitua duela aitortu du orai,
kargu hortarako gaur ez omen dela gai.
Ez du indarrrik eta ez du hanbat kurai,
badaki herritarrek hau ez dutela nai.

Mattin:

Gauzaren esplikatzan ari naiz kantari,
eta erran behar dautzuet Heletan denari:
ni ez nitake fida emazte hoieri,
hoiek boza emate'ute gizon politeri.

Xalbador:

Bozetan galdu bainan ez zen hau kezkatu,
behin hutsegitea ez zela bekatu,
Bere andreak ere egin zion afruntu:
hau senar izan baina bertzentzat bozkatu.

Mattin:

Batzuek atsegin ta bertzeak penetan,
gorabeherak hola badira benetan.
Nola duzuen jaun mera Karlosa Heletan,
hoi nahi duena frango bada hemen andretan.

Xalbador:

Lehenik ez daiteke bozarik atera,
ni triste izan naike, Mattin alegera.
Jende frango joanik gure bozkatzera,
zu triste gelditu ta ni hor alegera.

Mattin:

Xalbador, ez zaitela hortakotz kezkatu,
zure bertsua ez zaut batere gustatu.
Zu kontseiluko zauzte herrian onartu,
alta eztute denek zuretzat bozkatu.

Xalbador:

Zu lagunen gaizkitzen beti zira trebe,
nik neure arrazoina hor diat halere.
Nire alderdi dena polit ez bada're,
zuk bi dohain hoitarik eztuzu batere.

Mattin:

Bere ustez ari da neri atakatzen,
nik ere hasi behaut honen esplikatzen.
Xalbador kontseiluko aise pasatu zen:
denak beretzat zitun, kontrariorik etzen.

Xalbador:

Mattinek Xalbadorri hori erran dio,
kasik esplikatzea ezpaitu balio.
Norbaitek eman beza zuri emendio,
aski azkarrarentzat nor da kontrario?

Mattin:

Urepele herria ezpaita pobrea,
kontseilukoik ez zaiken hau baino hobea.
Hor ere egiten du bakotxak berea:
herriak egin dio etxera bidea.

Xalbador:

Hori pasatu zela badu zonbait urte,
gauzaren iragaitiak balioko luke.
Mattin gizagaizoa, zu bozaren eske!
Ttipia zirelakotz baztertu zaituzte.

Boto eske

Uztaritze, 1964.10.10

Etsexuri jauna: Herriko bozketak, hauteskundeak dira. Mattin Xalbador lagunarengana doa boto eske; baina Xalbadorrek bertze bati hitza emana diola adierazten dio. Mattin hasita.

Mattin:

Xalbador, ezagutzen baitzaitut nik ontsa,
galde bat egiteko egun ez naiz lotsa.
Probatu nahi nuke gaur zure bihotza,
ia emanen dautazun igandean boza.

Xalbador:

Aitortu behar dautzut tronpatzen zirela,
bertze bati lehenago egina dut hela.
Orai ez naike joan nehondik gibela,
nik ez nakien, Mattin, listako zinela.

Mattin:

Xalbador, hartu zazu hortan deskantsua,
lehen ere gertatu da holako kasua.
Lehengo hitza ez da gero ezin ukatua,
errozu laundu beaüzula lehenik auzua.

Xalbador:

Gauza horren erraitiak ematen daut lotsak,
galduko zauzkitala ardi ta bildotsak.
Ez nau, Mattin, ni hortara laguntzen bihotzak,
ez dezake on ekar gaizki eman bozak.

Mattin:

Hau konprenitu beauzu, ez bait zira gazte,
karkulan hasi zaite igande ta aste.
Lagun urrungo hoiek tronpatuko zauzte,
ta gero nerena jin laguntasun eske.

Xalbador:

Ainitz enganamendu bada mundu huntan,
erran nahia daukat mihiaren puntan.
Ez dakit zer demontre irabazten dutan,
baldin sartzen bazeraut auzoa kargutan.

Mattin:

Badakizu nola den munduko bizia:
auzotik urrunera da diferentzia.
Baldin gertatzen bazaut kargutan sartzia,
segur goratuko dut kartier guzia.

Xalbador:

Mattin, ezarri dautazu zuk gogoa beltza,
auzoa zaitut eta ez zaitut arrotza.
Bainan zuk beranduxko agertua hortza,
lehen hitz emanari emanen diot boza.

Mattin:

Hortan ez zabilta gero, lagun, zuzenian,
nik ere erran behar dautzut orai azkenian:
kontzientzia baduzu hurrenen gainian,
askoz leno joanen zira zerbait beazunian.

Astronautari deia

Urruña, 1966.02.13

Iñaki Eizmendi Basarri, Jose Lizaso, Xalbador, Mattin, Zubikoa, Txomin Ezponda, Aintziart eta Xanpun ziren bertutan; eta Lourdes Iriondo kantari.

Jean Irazoki: Errusiarrek ilargira bidali duten astronauta da Mattin; eta Xalbadorrek telefonaz deitzen dio lagunari.

Mattin:

Kantatu behar diagu bana edo bira,
ni orai hasiko nauk tirahala tira.
Rusiatik igorria nautek ilargira,
hi harat etortzeko ez ahal haiz fida?

Xalbador:

Telefonaz mintzatu zaut joan den gabian,
tarte haundia zagon gu bien artian.
Harat heldu orduko gibelat abian,
arnorik ez bide duk, Mattin, ilargian.

Mattin:

Rusiatik ilargira partitu naiz zuzen,
ni hor joan nintzela etzen iruditzen.
Sudur haundi batzuek zituzten bilatzen,
Xalbador joan balitz laster sartuko zen.

Xalbador:

Ilargira heltzea ez omen zen aisa,
Mattinek zonbait ordu joaten ditu pasa.
Hemendik igorri ta ilargian pausa...
Berri gutti jakin dugu Mattin dela kausa.

Mattin:

Berri horren entzuten munduko jendiak:
ilargiak baditik sudur ta begiak.
Bainan jakin behar dik munduan erdiak
harek falta ditula hire bedarriak.

Xalbador:

Igorriko ninduten ni ere horrela,
bainan gure Mattini egin dute hela:
pizu gutxiko norbait Ahetzen bazela,
ilargia eroriko zitzaukun bertzela.

Mattin:

Ilargira joan naian mundutik ihesi,
erran dute han ere norbait dela bizi.
Hemen ez gaituzte nai gehiago ikusi,
bertze kolpian gu biak harat bagoazi.

Aita semeak ito beharrez

Sara, 1968.05.19

Teodoro Hernandorena: Orain dela bizpahiru hilabete itsas-untzi bat hondatu zen Donibane Lohizunen, eta lau gizon ito ziren. Zuek, Xalbador eta Mattin, aita semeak zerate, untziko bi gizon.

Xalbador:

Bizi beharrak ibilki eta hau da datorkigun lana!
Gure ontzia hondatua da, doa itsasoan barna.
Seme maitea, gure izaite guzia urak derama,
Gero nola biziko zaizkigu seme alabak eta ama?

Mattin:

Aita, zurekin ni itsasorat abiatua gaztian,
anai arrebak eta ama ona han utzirikan etxian.
Eta uste dut laster giraden biak zeruko atian...
Aita maitia, sartu nai nuke hantxe zurekin batian.

Xalbador:

Hau izandu da ne' ametsetako itsasoaren emaitza...
Oi, hau da bizi kiretsa eta hau bizi uzte garratza!
Ama ta umek gutan zaukaten bizitzeko esperantza,
ustez gutan sustengua eta gutarik datorke gaitza.

Mattin:

Anai arrebak eta amak zuten gurekilan atsegina,
eta uste dut hemendik goiti duketela bihotz mina.
Azken orena, aita, zurekin nerea orai da jina,
gorputza urera doake baina eskain dezagun arima.

Xalbador:

Itsaso gauza liluragarri, itsaso gauza faltsoa!
Ai zer uztarrak ematen tuen irudigatik maltsoa!
Nik hil gabea abisatu nai nuke, ba, seme gaixoa:
geio nigarrrik izan ez dadin uka dezan itsasoa.

Mattin:

Gure munduko biziak eztu denentzat berdin irauten,
ni oraino gazte nintzen baina hunek ez dauka iraupen.
Anai arrebak eta amak naute pena haundia ematen...
Bainan nai nuke sakrifizio hau heiek balia dezaten.

Aita semeak

Elizondo, 1969.07.20

Mariano Izeta zena: Xalbador eta Mattin aita semeak dira: eta, aunitz aldiz gertatzen dena, aitak dirua egin eta semeak jan. Xalbador, aita; eta Mattin, semea. Seina bertsu. Aitak hasiera.

Xalbador:

Semea zer den ikasteko nik honekin izan dut jasta, aurrerat doa bere hartan ta nik ezin eman arrasta. Kusi guziak erosi behar, dena dantza eta besta, gure etxeko modua hau da: nik egin ta hunek gasta.

Mattin:

Horra nola den, jende maitiak, zahar horien gradua: beste gauzarik ez dute maite, bakar bakarrik dirua. Gaztiak berriz ez dute nahi zahar hoiengulua, diruarekin guk nahiago dugu kurritu mundua.

Xalbador:

Bai, gastatzaile segurrak dira bainan ez langile finak; aita ta seme asko ikusten dira egun ezberdinak. Diruarentzat errespetu ez, goza beren atseginak, berek eginik ez daukate ta gastatu bestek eginak.

Mattin:

Nik aspalditik kurritzen ditut zahar horien etxeak, eta berdinak ikusten ditut batzuek eta bertzeak. Diru iteko hortxe dagozi gehienak erdi goseak, bertzela bizi nahiak dira gaur eguneko gazteak.

Xalbador:

Gaurko gazteak urguiluz bete ari direla abiltzen, mundu guziak ikusten ditu zer modutan derabiltzen. Gasta bakarrik eta hor kurri, ta ez baduzue biltzen, zure semeai gostako zaio zuk bezala erabiltzen.

Mattin:

Aita maitea, zure erranik nik eztut nahi sinetsi, eta hortako nabila beti zure erranetik igesi. Baserri ona daukagu eta maxina berriak erosi, zuk baino aiso lana eginez semiak nai baitu bizi.

Xalbador:

Guk ere lehen landu ditugu pentzeak eta alorrak, ta egun ez daukagu damurik ibilirik lan gogorak. Bainan zuek hor asmo horrekin gehienetan moxkorrak, ta gero zeinek pagatuko tu tresnetan zuk egin zorrak?

Mattin:

Bein ere enaiz akort ibiltzen ni hoietan aitarekin, hunek dirurik ez balin badu berak ez daki zer egin. Semia ezta batere lotsa tresnan egin zorrarekin, tresna hura pagaturen du beraikin ein lanarekin.

Xalbador:

Zenbait gisatan lan egitea ez genduke guk makurrik, bainan semeak ez du ikusten gaur beste bide laburrik. Diozu: «Tresnak eroskitzu ta biziko gira gu urrik». Bainan berak ez du nai hunkitu ez traktor ta ez aitzurrik.

Mattin:

Zuk ez nauzula ni konprenitzen hauxe da gure makurra, gaurko gaztiak maite baititu motorra eta trakturra. Hau berriz beti hementxe dago dirudun gogo laburra, nik sasira botako ditut gaur bai sega eta aitzurra.

Xalbador:

Segarekin ta aitzurrarekin lan egiten ginueno,
zorrik ez ginuen nehondik eta osasuna ere sano.
Naikoa esana dautzut baina hau ere entzun oraino:
dirua gastatzen aisago da metara biltzea baino.

Mattin:

Burua gogortu zaio aitari orai semiak sinesteko,
nik beti hauxet erraten diot: hoiek gogotik uzteko.
Azkenian hauxe erran behar diot hobeki konprenitzeko:
hau beti pobre biziko dela gero aberats hiltzeko.

Parise, 1969ko abendua

1969 urteko abenduan, bertsu saio berezi samarra antolatu zuten Pariseko Euskal Etxean.

Teodoro Hernandorena jauna izan zen aurkezle eta gai emaile, eta parte hartu zuten bertsulariak Lopategi, Azpillaga, Mattin eta Xalbador izan ziren.

Huna orai hemen Mattinek eta Xalbadorrek nola kantatu zuten lehen agurra.

Mattin:

Nere bihotza arindu baitu Pariserat etortziak;
hemen direnak nik ez nituen denak leheno ikusiak.
Eta atsegina ematen baitu hola batera biltziak,
kasik hemen ikusten dira egun zazpi probintziak.

Xalbador:

Bere herria bortxaz utzirik etorri denaren gisan,
bizi huntako zorion oso hemen ez daiteke izan.
Eskual Etxea, zuk badakizu gu zazpi nola gabiltzan.
arren ta arren jar gaitzazu, ba, zazpiak zure gerizan.

Teodoro Hernandorena jauna zenak sujet edo gai hau eman zien lehen agurraren ondoren: Gaur huna neska pulit asko etorri da, ikusi duzueenez. Zuek neskatxa horiei bertsu bana.

Mattin:

Orai jolasten hasi nai nuke neskatxa horiekin,
gogoia kanbiatzen baizaiote Pariserat jitearekin;
ta esposatu behar ba'uzue ezkont eskualdunarekin.
Omoriakin bizi nai ba'uzu senartzat har zazu Mattin.

Xalbador:

Neskatx xarmegarria aurrean zaudena,
zoin izan ote da ama izartto horrena?
Zu ikusita pozten zait eni barrena;
zu izaiten ahalik gaur Xalbadorrena,
ni nindaike gizonik zoriontsuena.

1969ko abenduan Parisen egin saioan, Hernandorenak gai hau jarri zien: Xalbador sendagilea da; Mattin, ijitua, buhamia. Sendatu ostean kontua galdatu eta oilasko bat bidali dio midikuari, ordainez. Baina sendagilea berehala konturatu da oilasko hori berari ebatsia dela orai hamabortz egun.

Mattin:

Denek dakite Euskal Herrian buhami hoiien kontua:
lan gutti eiten dutela eta hoik nekez aberastua.
Sendatu nau eta ordaindu behar orain midikua,
atzo igorria zaitut nik hitzeman nun oilaskua.

Xalbador:

Sendatu nuen ene poderez ijitoak zaukan mina;
dirurik ez ta on hartu nuen erregalotan ordaina.
Igorri deraut oilaskotto bat lehen ene etxetik jina.
Inposible da, arraza hau ez da gure Jainkoak egina.

Mattin:

Midiku jauna diruduna ta bizi zirade deskantsu;
ni eriturik naukazu eta zугanat etorri nauzu.
Eta oraitxe nik ofreiturik oilaskotto bat baduzu;
nundik heldu den kasuik in gabe, ona da eta jan zazu.

Xalbador:

Aunitz galkatu izan ezpanu etzen biziko sekula,
ta fagorea ordaintzen hunek horrenbertze disimula.
Badakit hola hunen gogoia ez dela hanbat ahula;
ijituaikin midiku batek bizirik ezin nihola.

Mattin

Midiku on hau izan ezpalitz irriskuan nik bizia,
eta oraintxet atsegin dut nik gaitz hortarik sendatzia.
Ta oilaskoa eman badiot lehen berari ebatsia,
gaizki egina turnatu diot, trankil dut kontzientzia.

Xalbador:

Atrebituko ote zira ba berriz ere etortzera?
Afruntu hori etzait ahaztuko aldi batetik bertzera.
Baldin berriz eritzen bazera lurpean sartuko zera,
egin derautan afruntua gatik utziko baitut hiltzera.

Ondoren beste gai hauxe jarri zien Hernandorenak: Pert-
suna asko daukagu egun bere herritik kanpora. Batzuk beren
gogoz lan bila atera direlako; baina bertze aunitz bortxaz,
beren herria maite izan dutelako, euskaldun izan eta iraun
nahi dutelako, beren etxea, familia eta herria utzi ta ihes egin
behar izan dute. Horiek denak dira erbestetuak.

Xalbador:

Ai, Hernandorena jaunak guri eman du gai bat tristea.
Euskaldun denak egun badaki zer ote den erbestea.
Bere herria maitatu eta handikan kanpo gaztea,
utzi duenak berak badaki zer den herri baten uztea.

Mattin:

Guztiak bizi ezin ditezke sortuak diren etxean,
nahiz ta haren amodioa duten bere bihotzean.
Nik pentsatua aitortu behaut hemen egun arratsean:
amodioa doblatzen dela etxetikan urruntzean.

Xalbador:

Gisa askotara herritik kanpo gaur euskalduna dabila.
Parisen bertan izango dira horietarik bi mila.
Hau da agintariiek egiten duten izate zirtzila,
norbait ibili delakotz herri maitasunan argi bila.

Mattin:

Etxetik urrun joanak daude, gaur guri hemen aditzen. Batzuk badire Ameriketara, bertze hauk berriz Parisen. Etxetik kanpo joan eta da geienian asko sofritzen, sortu etxia zoin goxoa den orduan da estimatzen.

Xalbador:

Egun herria maitatu baino hobe litaike gaitzetsi, orduan ez litaike herritik joaierik ardietsi. Joaite hori pena da baina bihotza ez galerazi; noizpait batera bilduko gira; anai arrebak, ez etsi!

Mattin:

Etxetik urrun asko etorri zaizte hunat Parisera; hantxe neketan bizi zinezten, ustez ongi bizitzera. Bainan gauza hau sartu nai nuke bakotxaren bihotzera: urtian behin beden etorri bakantz onak pasatzera.

Behin batean Xalbadorri gertatua omen zen gai hauxe eman zien ondoren Hernandorena jaunak. Irungo etxe batean atea jo du Xalbadorrek, eta bederatzi urte inguruko mutiko bat irten zaio. Xalbador espainñolez mintzatzen hasi zaio, eta muti-koak erran dio: «Ez al dakizu euskaraz mintzatzen?».

Xalbador:

Hernandorenak erran duena da neroni gertatua; txarretik eta onera hantxe nik egin nuen tratua, baita're ene lotsa guzia umeai entregatua. Geroztik asko damutu zeraut egin nuen bekatua.

Mattin:

Hameka aldiz hau gertatzen da gaurko euskaldunarekin, ta Xalbadorri hoi gertatuta ez da harrিতua Mattin. Zonbat euskaldun gaur Pariserat ote da bizitzera jin? Bere euskasra ahantzi eta frantzesik batere ez jakin!

Xalbador:

Euskara bera gazteen faltan asko ditugu ikusten,
horiek gure mintzairatikan ai gaituztela biluzten.
Gazteak zerbait baditugula han hasi nintzan sinesten,
han kusi nuen gaztetxo bat nik zaharrerri erakusten.

Mattin:

Ainitz herritan ez direla, ez, gauza berdinak gertatu,
ta Xalbadorrek nahi gabea han egin zuen bekatu.
Baina gaztia euskaraz mintzo, huni zitzaion gustatu.
Gure euskara salbatzekotan gaztek behaute salbatu.

Xalbador:

Gertatu zena aitortzeko ni nihaur nauzute bermea;
bai gazte harek bete zuela han obligazionea!
Euskaraz eni hantxet aitzintzen ait'erdaldunan semea,
eskualdun ume frantxin batentzat hori da leitzionea!

Mattin:

Xalbador hunek orduan hartu zun eskuararen gradua,
eta orduan hau mintzatu zen espainolian galdua.
Bainan poztu huen hire bizian mutil koskorran ahua;
hark bere baitan hau erran zuen: Huntan duk salbamendua!

Ondoren, gai bera eman eta bakarka jarri zituen bertsulariak. Gaia: Epailearen aurrean zaude, baina ez dizu eskuaraz hitz egiten uzten, eta erdaraz deklaratu beharko duzu. Hiruna bertsu, bakarka kantaturik.

Xalbador:

Maitetasuna zer kostatzen dan izanen dut ikusia,
herria maite izan dudala enetzat dago auzia.
Hontaratuta hauxe da gauza egin dirotan guzia:
hunen aurrean jokatu behar gezurra edo bizia.

Ez naiz bizirik aterako ni auzitegi hortarikan;
hori badakit, bainan halere ni ez nago geldirikan.
Hunat etorri eskuara eta herria maitegatikan,
eta bizirik ez dut on hartzen gezurra esategatikan.

Gure aldean aspaldiskoan auzi makur asko dabil,
bainan burua gora dabila, ez nagoke hortan umil.
Hemen okerrik esan baino len naiago dut egon isil,
gezurra erran baino naiago baitut nik askoz ere hil.

Mattin:

Kondenatuen gisa orai bait nauzu tribunalian,
eta holaxe mintzatu behar juje horien aurrian.
Nere ustean ibilia naiz beti bide zuzenian,
eta zuri're mintzatuko naiz nire eskuara garbian.

Eskuaraz orai mintzatuko naiz, jujeak, egin dut zina,
nik haur denboran ikasi baitut eskuarazko katixima.
Eta goguan hartua daukat San Inaziok zin egina:
mundu guzia zertarako da galtzen badugu arima?

Bertze hizkuntzik eztut eginen juje hauen inguruan,
eskuara bakarrik ibili baitut sortuz geroztik munduan.
Eta otoitzak ikasi ditut aita ta amaren onduan,
eta eskuaraz otoitz eginez sartu nai nuke zeruan.

Monagilloa ta apeza

Donostiako *Astoria* antzokia, 1971.03.19, Manuel Lasarteri omenaldia.

Basarri: Orain Mattin eta Xalbador. Toki askotan aitak semea ezagutzen duen baiño obeto ezagutzen dezute zuek alkar. Ainbeste urtean zabiltzate alkarrekin. Ta derizkiozutenak esan alkarri. Bide jartzera etorri da Basarri.

Mattin:

Gaia norberak aukeratzia ez baita gauza errex, ene laguna, pentsatzen ai naiñ bainan ez naiteke presa. Bainan nik gaia haxe banuke memento huntan bientza: iduri dugu hemen gaudela monagillo ta apeza.

Xalbador:

Len ezagutu detan gizona bera gaur ere Mattin hau; astakeri bat erran du orai, erranen ditu bertze lau. Bera monagillo ta ni apez lehen bertsean jarri nau, hunen burua ikusi eta hau jar ditake kapillau.

Mattin:

Nere laguna beti ari zait sartu beharrez zakuan, bainan nik ere zirikatuko dut pixka bat gaurkuan. Goardiak ere ohartu zaizkit pasatzean zubi onduan, paperik ere ez naute eskatu txikia naizelakuan.

Xalbador:

Umore onaz besterik egun behar genduke agertu, jaun andere hauk ez ditezela parrez bakarrik lehertu. Halaxeko eguna da eta hau ez dezagun baztertu: behar genduzke anai arrebok bihotzetikan eskertu.

Jostuna eta neskatilla

Errenteri, 1971.07.25

Mikel Ugalde: Bertso saioetan amaika ofizio jasoko zenu-
ten, noski. Baiñan gaurko au ez dakit berria ez ote dan izan-
go. Zu, Xalbador, jostuna zaitugu; eta Mattin, berriz, soñeko
bat egin nai duan neskatilla. Zuk, Xalbador, neurriz ondotxo
ipiñi nai dezu; eta Mattin, berriz, ez det uste iritzi orretakoa
danik. Asiera Xalbadorrek emango dio. Iru bertso.

Xalbador:

Nik jostungotik egiten baitet nerea eta bizia,
Mattin, arropa josiko dizut, har zazu pazientzia.
Bainan lenengo komeni laike negurrik ondo hartzia,
gero patxaran edukitzekotz zure gorputzean jantzia.

Mattin:

Zuk arropa bat josi bear nauzu, gizon jostuna, gaur neri;
bainan gogokoa eingo nauzula ez zaut iduritzen neri.
Nai duen bezalakoa ein biar da berak pagatzen duenari,
neri arropa gustatuzen zait motxa, izterrak agiri.

Xalbador:

Holako motxak eginak ditut beste batzuk berrikitan,
eta pentsatu ea horiek kontent gelditu zaizkitan.
Arropak ongi nai badituzu zuk eduki negurritan,
hunkitzen utzi beharko nauzu ipurdia ta tititan.

Mattin:

Neronek behaut aukeratu arroparen negurria,
nola orai egiten baitu bero ikaragarria.
Holakoetan hobeto dago neska izter agiria,
eta bestalde arropa eiteko aski telaren erdia.

Xalbador:

Esango dizut, neska gaztea, zer dagon diferentzia;
zuri arropa bat egin behar, hola nunbait naiz hasia.
Nahiz nik ene ofizioa lendik ondo ikasia,
ez da erreza ondo egiten gorputz txarreko jantzia.

Mattin:

Nere lagunak betitik nai du jostun onaren gradua,
bera famatzen ari da eta ez du galduko burua.
Bainan nik ere arroparekin nai dut ein nere gogua,
eta zuri zer inporta zaizu eman ezkeroz dirua?

Haurrik ez edo haur sobera

Hazparne, 1971.03.12

Mixel Itzaina: Xalbador eta Mattin, zuek zirezte bi emazteki. Xalbador, zuk haurrik ez duzu; ez dezakezu ukan. Eta zu, Mattin, aldiz, ama zira, bainan zuk baduzu sobera haur. Nahi baino gehiago. Beraz, kantatuko dautzute Xalbadorrek haur gabearen malurra; Mattinek, haur soberakinaren karga.

Xalbador:

Ene trantzea agertuko dut nik bertsu bat gorabera, nik daukaten trantze hori baino Mattinen hori hobe da. Jainko Jaun ona, zer ari zira? Haundi da zure kolera, nik bat ere haurrik ez dut eta Mattinek berriz sobera.

Mattin:

Xalbador hunek aipatzen baitu beti kasua bertzena, ta hunek nola merexi du gaur ama on baten izena? Hunek bat ere ez dauka eta nik berriz badut dotzena, hamabi haur polit tut nik eta heiekin kontent naizena.

Xalbador:

Ene burua amatzekotan nuen nik estu arazi, gure sehaska haurtxorik gabe urte luzeak doazi. Zeruko Jauna, nahigabe hau nola behar dut iretsi? Ama izaiterik ez ote nuen zure gandikan merezi?

Mattin:

Xalbador hunek bota gaitu gaur ama on baten oldarra, eta berari nik ezin erran falta duela indarra. Bular guttiko ama da eta gorputzez ere meharra, zuk ere hartu beharko zinuen nik bezalako senarra.

Xalbador:

Ai, Jainko ona, ni gai naiz eta egin derautzut otoitza,
enekin seme edo alaba munduan dezadan goza.
Ene otoitzik ez duzu entzun. Hau ondorio mingotsa!
Nik horretako zendako ditut bularrak eta bihotza?

Mattin:

Zu amatua ez bazirade hau behar duzu sinetsi:
ni hamabi hurrekin naiz eta zu bat ere gabe utzi.
Dotzenerdi bat emanen zaitut, otoi, ez zazula etsi,
alokazioneak nik altxa eta zuk nai badituzu hazi.

Herriak hustutzen

Tolosa, 1975.07.12

Juan Jose Uria: Orain Xalbador eta Mattin. Zuek, Ipar Euskal Herrian bizi zeratenak, badezute zenbait problema. Problema nabarmenetako bat hauxe da: herri asko poliki poliki hustutzen ari da. Euskaldun gazte asko, lana aurkituko badu, herritik urrutiratzen ari da. Nola ikusten duzue zuek problema hau? Bi bertso, Mattin hasita.

Mattin:

Problema hoi nola dagon errez ditake ikusi,
asko haurrek beren aita eta ama behar utzi.
Kanpo aldera juaten dira Euskal Herritik ihesi,
lurra leku idorra dela ta han ezin ditazke bizi.

Xalbador:

Zapaldua den herriak ikusten tu komeriak,
gure menean lantegi batzu ez baitira jarriak.
Hustutzen ari dira etxeak, hustutzen ari herriak,
hori guzia gure agintari horien maltzurkeriak.

Mattin:

Baserria berdin dela uste da mundu guzian,
herritikan alde ein behar lantegien eskasian.
Ai zer pena gelditutzen den ait'et'amen bihotzian!
Hain maite duten ume gaixoa ezin iduki etxian!

Xalbador:

Herri hortan lantegirik ez daukute nahi egin,
beren bizi beharrakin jendea urrundu dadin.
Bai maltzurkeri haundia, haundiagorikan ezin,
horrengatikan gure herriak beharko baitu desegin.

Mattin neskatxa batekin

Zestoa. 1976.02.07

Joxe Mari Iriondo: Orain Mattin eta Xalbador. Oraingo hontan Xalbador hasiko da bertsutan. Mattin neska batekin ikusi duzu eta hori bere andreari ez kontatzeko beiñepein eskatu dizu. Hiruna edo.

Xalbador:

Ez zuen uste Mattinek bainan ene begitan erori,
ez zuen nahi ibillera hoi jakin arazi nehori.
Ikusi ditut baratze baten barru aldean bi txori,
bainan hik, Mattin, erradak, otoi: nor debru hin neska hori?

Mattin:

Lagun, badakik gizasemeak gu asko nola gabiltzan,
baratzean ere ibiltzen gaituk, ez gaituk beti elizan.
Nexka batekin ni ibili nauk beste asko dabiltzan gisan,
hik gauza hori ikusi'uk baina emazteari ez esan.

Xalbador:

Ez diat uste hor sekreturik baden eduki beharra.
baratza hortan ikusi baitut nik oso pareja txarra.
Neskatx gaztea ta liraina zen, bainan Mattin da baldarra,
harek larrosa iduri zuen ta Mattinek berriz laparra.

Mattin:

Aitortu behaut neskatxarekin nola naizen ibilia,
era hortantxe ibiltzen baita gaur eguneko jendia.
Eta oraintxe sentitzen det nik hunek duen inbiria,
eta beldur naiz abisatuko ote dun nere andria.

Xalbador:

Neskatxa hura han sartuko zen baratzera zerbaiten zai,
ez zela hunen gana joana gogoratu zeraut orai.

Harek edertasuna ugari, zuk zar seinalea nasai,
zure andrea egon ditaike pekatu horrengatik lasai.

Mattin:

Nere lagun hau ni ikusita han hasia zen kezkatzen,
neskatxa hura nerekilan han huni ez zaio gustatzen.

Bere gustora hau inguruan ni baino ederrago zen,
bainan delako neskatxa harek gizon txikia maitatzen.

Mattin

Bakarka

Banaka

Elizondo, 1969.07.20

Mariano Izeta: Orain Mattinek Baztango mutilzar ta nes-
kazarreri bertsoa.

Mattin:

Baztango neska ta mutilzarrak, hauxe da nere idaia,
eta zueri esplikatzeke egin dut gaurko bidaia,
Bestak hurbiltzen ari dira ta zuek har zazue kuraia,
nik ere herriko bestetan egin nuen andregai.

* * *

Azpeiti, 1969.11.09, Txapel zenaren omenaldia. Lehen
agurra:

Gaur Azpeitira etorria naiz ni ere Txapel goguan,
ta pentsaketa egotua naiz nere lagunen onduan.
Ezagutzeko zorionikan nik ez dut izan munduan,
bainan desira nik egun batez ezagutzia zeruan.

* * *

Errenteri, 1969.12.07, Xenpelar hil zaneke ehungarren
urtemuga.

Basarri: Mattin, kanta zuk ere derizkiozuna ta une ontan
burura jaiotzen zaizuna, gure Xenpelar bertsolari aundiari
buruz.

Mattin:

Deseatzen det zeruan dela guri begira jarria,
herri maite huntan jaio izan zen gure Xenpelar haundia.
Ez da agortu zu bataiatu zinituen iturria,

oraino ere senditzen dugu zure euskal egarria,
aspaldi joan ziñan zu bainan bizi da Euskal Herria.

* * *

Elizondo, *Antxitonea* pilotalekua, 1971.06.16

Mariano Izetak: Orain, berriz, bakarka. Bakotxak bertso bana Andres Narbarte zenaren omenez. Badakizue Narbarte goizuetar bertsolariak, joan den urtarrilean, bere baserriaren ondoko mendietan sasi erretzen ari zelarik, nola galdu zuen bere bizia. Goian bego. Orain lau bertsolariak bertso bana Andres Narbarte zenari.

Mattin:

Nik lehenago kantatu izan dut Narbarteren inguruan,
geroztik hunat haren itxura beti hemen dut goguan.
Purgatorioak pasatu ditu bizi zelarik munduan,
desiratzen dut haren arima gerta dadila zeruan.

* * *

Tolosa, 1971.12.05, Zepai zenari omenaldia.

Mattin:

Nik Zepairekin kantatu nuen behin Irungo herrian,
lagun gisa eguna pasa gendun onbore onian.
Bihotzak jira egin zautan hori jakin nuenian,
inork ez daki zer sofritzen den lagun bat galtzen denian.

* * *

Donostia, Pelota Elkartearen 50gn. urtea, 1975.12.14
Lehen agurra:

Agurtzen ditut nere partetik adiskide, ezagunak:
beti gogozko izaten dira era huntako egunak.

Pelota zela kasua eta egun etorri naiz hunat,
bihotz bihotzez agurtzen ditut pelotari euskaldunak.

Joxemari Aranalde: Bidezkoa dan bezela, lehenbiziko bertsoak pelotariari kantatzeko eskatuko diegu. Beraz, bertso bana kantatuko dute, pelotaria gai dutela. Hildakoak, bizi diranak, etorriko diranak. Pelotaria.

Mattin:

Euskal Herria ezaguna da bere pelotaren gatik,
lenago ziran zahar on heiek joanak ziran mundutik.
Baina orai haiek pozez begira egoki dira zerutik,
zeren gaztiek jarraitzen dute hek erakutsi bidetik.

Joxe Mari Aranalde: Bertsolariek hau dute orain bertso bana kantatzeko gaia: haur bat pelota eskuan duela. Hori da gaia. Bertso bana.

Mattin:

Nik gauza horri pentsatuaz in dut zonbeit pentsaketa,
ume koxkor bat ikusitzian bere eskuan pelota.
Ta esan nion: «Zu hori gabe ez zaitez, ez, juan lota,
pelota horren etorkizuna gaztien eskuan dago ta».

* * *

Donostia, Lazkao-txikiri omenaldia, 1976.01.25

Lehen agurra:

Joxe Miel Lazkao, kantuko laguna,
zu bisitatzearren etorri naiz huna.
Ohoratu nai nuen gaur zure eguna,
koblarien izarra deitzen zaizuna,
Euskal Herri osoa argitzen dezuna.

* * *

Lesaka, Migel Arozamenari omenaldia, 1976.05.23
Lehen agurra:

Arozamena agurtu nai det berakin asko egonik,
eta bein ere ez dut pasatu hau bezalako egunik.
Eta Lesakan jaio denai ta maitetasuna badet nik,
Mattinek ez du bein e ukatzen zu bezalako lagunik.

X. Mujika: Zortzi bertsolariak orain bertso bana. Gaurko egunez hoinbeste entzuten dan Euskal Herri kontu hontan zer eskatzen diozute gure herriari?

Mattin:

Oi, Euskal Herri maitagarriak ez ditu oaindik azkenak,
nahiz gureztat orain artean ez dauden bide zuzenak.
Zazpi senide bizi girenak, hau senditzen du barrenak,
elgarrengana gu ezin bildu zazpiak Ama batenak.

Dionisio Mujika: Berriz zortzi bertsolariek bertso bana gai bati buruz: aurten hainbat entzuten dan Bilintx donostiarra, hura hil zala ehun urte aurten dirala ta. Beraz, bertso bana Bilintx zanari.

Mattin:

Nik ezagutu banu ez nuke kaltian,
maitasuna zun harek bihotzan erdian.
Pasatzen uzten banau San Pedrok atian,
bertsutan aiko gera zerura joatian.

* * *

Donostia, 1977.01.16, Joxe Lizasori omenaldia.
Azken agurra:

Lapurdi eta Gipuzko biak gerade elkarren auzo,
eta herri huntara jitea nik arrapatzen det gozo.
Ai, Gipuzkoa maitagarria, zu ederra zera oso,
hau da paraje zoragarria, dana mendi ta itxaso,
eta hor dagoen lorerik ederrena zu, Lizaso.

* * *

Donostia, 1979.02.11, Joxe Agirrerri omenaldia.

Lehen agurra:

Joxe Agirre, iritxi da ba zuretzat ere eguna,
bihotz bihotzez euskaldun denek estimatutzen deguna.
Toki guzitan ez da bilatzen zu bezalako laguna,
bertsularia punta puntakua eta gainera gizona,
euskal odollik zainetan duena, bihotzez maite duguna.

Herriko beztitzailea

Donostian, 1962.12.30, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketa.

Alfontso Irigoien: Mattineri gaia hiru bertso kantatu ditzan. Hor aurrean daukazu herriko beztitzailea, hildakoak janzten dituen, eta hiru bertso bota behar dizkiozu.

Mattin:

Nere lagunak orai eman nau frangotxo sujet iluna,
orai aipatu behar dudala hil eta beztitzen duna.
Horrekin bakan izaten baita segur umore huna,
ala aixago pasa behar degu al bada gaurko eguna.

Ofiziu hola du eta behar zaio errespetu,
ogiaren irabazteko bertze biderik ezpaitu.
Guk ere noizbait bearko dugula hortan badugu irrisku,
guri malura gertatu eta beztitzailea aberastu.

- Gaizki erranik baldin badiot ahal nau gaur barkatuko,
nere erranak ez ahal ditu segur penarik hartuko.
Baina hauxe diot bihotz bihotzez nik horri desiratuko:
Donostiarat etorri eta ez ahal naiz behartuko!

Andre zekena

Donostia, 1962.122.30, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketa.

Alfontso Irigoien: Etorri, mesedez, Mattin. Hiru bertso kantatu behar dituzu gai hau gogoan hartuta: Gabon gabeen etxerik etxe eskean ibili ziñan zure lagun batzuekin. Eta etxe batean, luzaroan kantatu ondoren, oso diru gutxi, oso eskupeko txikia, eman zizuten. Etxe hartako andre zekenari, esku legorrari. hiru bertso bota behar dizkiozu.

Mattin:

Etxekoandria, pena baitugu oitura zarren galtzea,
pentsatu dugu zure etxera ere hola etortzea.

Bihotza baitut nik eskaintzeko zorionez betea,
zerbeit xanpun emateko ireki zazu atea.

Lagun hauekin Gabon gabian nabil omore onian,
urte guziez hola nabila joan daneko aspaldian;
ta egun hemen aurkitzen nauzu, andrea, zure atian,
amoina pixkat Gabon huntako emain duzula agian.

Ni kantari ari naiz bainan eztu ireki atia,
hemen luzaro kantuz aitzia neretzateko kaltia.
Halere huni eskaintzen diot urte luzeren bizia,
Zeruko Aitak erakuts bezoz zertsu den karitatia.

Munduko ogibiderik zaharrena

Bilbo, 1964.12.20, Euskal Herri guziko bertsolari-txapelketaren aurrekoa.

Alfontso Irigoien: Bi bertsotan esaiguzu zein dan munduko ogibiderik zaharrena.

Mattin:

Lanbide horri lotu behar det esan nauenez kasuan,
lehen gizona Jainkoak eman zuen baratza dohatsuan;
eta heiek bizi beharrak ziren hantxe deskantsuan,
suge debruak emakumia enganatu ezpazuan.

Bainan geroztik huna gizonak beti nekez bizi dira:
baratzia han utzi eta lanera joan behar mendira.
Armak hartuta ofizioa heiek basa ihizira,
eta heien ondokoak berriz naski artzain egin dira.

Lanera hastera doan semeari

Donostia, 1965.01.01, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketa.

Alfontso Irigoien: Zure seme gaztea gaur lehenengo aldiz dijoa lantegira. Aita zeran aldetik zer esaten diozun, hiru bertsoetan kantatu behar dezu.

Martin:

Egun lanerat abiatzen zait seme on eta prestua,
fabrikarako izatu baitu ttipi ttipitik gostua.

Hauxe, semia, goguan har zak zinez ta justu justua:
lagunekilan beti atxiki etxeko errespetua.

Nolazbeit ere behar baitugu irabazi guk bizia,
atsegin diat taller horretan ofizioan hastia.

Kontseilu batzuk hale on dituk nola hi haizen gaztia:
maitetasuna beti atxiki len aitari ikasia

Aizak, semia, kontseilatzen haut nola baihaut hi laguna,
zortzi orenez bukatuko duk tallerrian den eguna.

Betidanik hi izan hadi guziendako ona,
eta gainera gero irakutsi hi haizela euskalduna.

Haurrak nola datozen mundura

Donostia, 1965.01.01, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketa..

Alfontso Irigoien: Antzematzen diozu zure seme txikia kezka batekin dabillela: haurrak nola datozen mundura. Zerbait erakutsi beharrean arkitzen zera, eta hiru bertsoan kantatzen diozu.

Mattin:

Nere semiak jakin nahia ezin kendu du burutik,
gure Jainkuak lehen pertsonak egin zitian lurretik.
Ta hori dena ondo ikasitzeko oino denbora baduk hik,
beste guziak etorri gaituk Adan ta Ebaren ondotik.

Bainan halere hau jakin gabe nere semea ez da bizi:
mundura nola etortzen diran nunbeitik nai du ikasi.
Bide pixka bat eman gabe nik ezpaitut nahi utzi,
zerbeit e gisaz hau esplikatzen laster beharko dut hasi.

Nere semia, gazte haiz eta deraukak buru argia,
hunuen pentsatzen asko egunez goguetan ibilia.
Ikusi al dituk bein e elkartzen inun arra ta emia?
Heiek bezala ibili eta etorritzen dek umia.

Bildurra

Donostia, 1965.01.01, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketa.

Alfontso Irigoien: Orain bildurrari bi bertso.

Mattin:

Ni beti hola izatua naiz jaioz geroztik lurrian,
nere gogua hola izan da beti omore onian.
Beti berdiña agertzen naiz ni bai bestan ala lanian,
txikia arren ez naiz bizitu ni nihoren bildurrian.

Nik eskatzen dut kuraje horrek beti dezala aguanta,
eta haxe're esplikatzeke oino ez dago beranta.
Arratsaldian huna jina naiz bisteka ederra janta,
eta gogua alaia daukat *Las Campanas*-a edanta.

Emazte hil zenaren soiñekoa

Donostian, 1965.01.01, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketan.

Alfontso Irigoien: Orain zure emazte hil zenaren soiñekolari bi bertso.

Mattin:

Gai batetikan besterat hunek gaizki ekarri nau huna,
len arpegia alai nuena ezarri bainau iluna.

Hau da gauza bat bihotzetikan esplikatu bear deguna:
nik maite nuen arropa hauiek ibiltzen zituen laguna.

Maite nuela nik esan nion andreari esposian,
geroztik hunat biak ederki bizitzen ginen etxian.
Hura hil zan ta orai bizi naiz sekulako triste zian,
arropak hemen daduzkat bainan pertsonaren eskasian.

Urrezko eztaietan

Donostia, 1965.01.01, Euskal Herria guziko bertsulari txapelketa.

Alfontso Irigoien: Orain kontatu iguzu hiru bertsotan izkirimiri bat, txiste bat. Ez du ajolarik gordin samarra bada ere, baldin txukun kontatzen badezu. Minutu bat daukazu txistea aukeratzeko.

Mattin:

Juan den astian izatua naiz ni urrezko eztaietan,
berroitamar urte ezkondu ziela zauden presuna hoietan.
Ni bertsulari deitu naute ta hara juan naiz lorietan,
gaztetasuna ikusten bainuen zahar hoien begietan.

Nik banakien bolada hori lengo berdiña etzela,
larogoi urtetaraz geroz presunek baute itzala.
Bainan gogua gazte zaukaten hek biek ere oxala,
bainan besta egin nahi zuten gazte denboran bezala.

Emazteari oherakuan hau etorri da gogora:
«Zu nereganat etorri gabe ni ez naiz juango nihora.
Berroitamar urte dituela presatua zinen, horra,
eta orai ez duzu presarik, hartze'uzu naiko denbora».

Penizilina

Donostia, 1968.02.04 eta 11, Anoeta pilotalekuan, ehun milla pezetako sariketa:

Joxe Mari Iriondo: Mattin, bi bertso bota behar dizkiozu, nahi badezu *Uso zuria*-ren doinuarekin eta nahi badezu *Ameriketako Esne-saltzalea*-renarekin, penizilinari.

Mattin:

Erremedio hori daukat nik jakina
hemendik aintzina:
zer indarrekua den gaur penizilina.
Ederki sofriturik hunat bainaiz jina,
hola kantaz aitzia ez da atsegina,
neri ez nau sendatu biatzeko mina.¹

Sofriturik kantari egun Donostian
ai bainaiz goizian,
delako erremedio horren eskasian.
Menturaz atxemain dut sarri aratsian,
pentsamentu horixe daukat bihotzian,
galdatau behar baden hemen farmazian.

¹ Mattin beatza edo erhia lotuta etorri zen, aurreko egun beaten min hartuta.

Sudur haundia

Donostia, 1968.02.04 eta 11, *Anoeta* pelota lekua, eun milla pezetako sariketa.

Joxe Mari Iriondo: Orain ondoren jakiñeko doinuan kantatu beharko dute bertulariek. Gaurko ere lehengo igandeko doinu berberak aukeratu ditugu. Bi doinu dira: *Uso zuria* kantaren doinua edo *Ameriketako esne saltzaillea*-rena. Nolanahi ere, lehengo igandean bezelaxe, bertsulari batek berttua amaitzen duanean, ondorengo itzulpena, ondorengo errepika egitea eskatzen zaizue danoi, batere bildurrik gabe.

Ondoren Mattin. Mattiñek bi bertsu bota bear dizkio sudur haundi bati.

Mattin:

Hemen sudur haundi duna
aipatu behar duguna.

Era hortako kristaua baita Xalbador nere laguna,
hortarik aise seinale baita egiazko euskalduna.

Izan dut gai bat bitxia,
balio du aipatzia,

Gizonarentzat itxurazko da delako sudur luzia,
eta hortarik seinale baita euskaldun baten eitia.

Andregai beltza

Donostia, 1968.02.04 eta 11, *Anoeta* pilotalekua, ehun milla pezetako sariketa.

Joxe Mari Iriondo: Mattin, begira: neskatz beltz bat maite dezu eta jendeak badarabilki zer esan ugari. Neskatz beltz bat maite dezu, aren ondoren zabilta, jendea marmar ari da. Hiru bertso.

Mattin:

Gaia etorria da oraintxe neretza,
hau nuen ametsa:
neskatxa bat beharko nuela andretza(t).
Nik ez det ajolarik, ez, jendearentza,
igual du izanta're neskatz bat beltza,
baldin zuria badu ber harek bihotza.

Jolasen egon gira biak elgarrekin,
nai duenak jakin,
harekin ezkontzeko konforme da Mattin.
Biziario ditake andre onarekin,
ta esperantza dut hala eitia harekin.
Beraz, beltza, ezkonduko zerade nerekin.

Hola nola diraden gure alderdiak,
orain etorriak:
esposatzera guazi beltza eta biak.
Zerbait balioko du gure omoriak,
haurrak etorriko die biak iduriak,
nai duena esan dezala kanpoko jendiak.

Gonamotx edo minifalda

Donostia, *Astoria* antzokia, 1969.09.21, Xalbadorren omenaldia.

Basarri: Zorioneko gonamotx edo minifaldak dirala-ta, amaika gurasok badituzte naigabeak beren alabekin: itxuraz janzteko, erropa geiago erabiltzeko... Baiña alperrikako jardunak. Zu, Mattin, minifalda oietako bat zera. Zer arraio zabilta gurasoak samintzen eta negarrez urtu erazten? Adierazi bi bertsoan.

Mattin:

Moda zarreko guraso hoiek ez naute uzten bakea,
heiek nai dute lenez bezala alaba gaur beztitzea.
Ez al dakite hobia dela modaren kanbiatzea?
Neri ez zait, ez, gaitz iduritzen iztarrak irakustea.

Urtetik urte ai dira beti munduan modak berritzen,
minifalda hoik gaizki direla neri ez zaut iduritzen.
Guraso onak, zuek esatia, gauza horrek nau harritzen,
apezak ere gaur ez dirade lehen bezala beztitzen.

Gaurko mundua

Azpeiti, Txapel zenaren omenaldia, 1969.11.09

Basarri: Mattin, ni Zarautzen bizi naiz; eta Zarautzen ere udara partea naiko nabarmena izaten da. Ainbeste aldakuntza izan ere mundu xixtrin ontan eta ain urte bakarretan. Baiña nik badakit ondo Zarautzik zuen eskualdera alde aundi samarra dagoela. Zu Biarritzik bost kilometro ingurura bizi zera. Nik Biarritz, Donibane, Baiona ta oiek ondo ezagutzen ditut, iru urte inguru an egiña bainaiz. Badakit zure etxe inguruan kanpin eta klase oietatik asko samar dala. Badakit joko etxe famatuak Hendaian, Donibanen eta Biarritzen badirala. Eta dirudun jendea, eta bizio orrekin ondo igurtzita dagoen jendea, beren txanponak jokatzerara aruntz joaten dala. Badakit milla aldrebeskeri ikusten dirala, eta elizgizonak egundoko deadarrak egiten dituztela: «Nora goaz? Au zer da?». Zer derizkiozu zuk, Mattin? Esan iru bertsotan ango pasadizoa.

Mattin:

Pasakizunak kondatutzeko orain eman nau lanian, gure tokian nola gabiltzan udara heldu denian. Joko etxetan dabilan jendea diruduna geienian, ta ni bezala etxean egoten dirurik ez duenian.

Batzuek alai bizitzen dira, beste batzu tristezian, diru duena beti bestan da, diru gabea etxian. Beztimenta're ibiltzen dute frangotxo labur klasian, ez dira hola beztituko, ez, datorren ilbeltzian.

Ta eskatzen nau apez jaun hoiek zer dioten elizan, hoiek sermoia egiten dute ikasia duten gisan. Nik ez dut nahi horien kontra orai hizketan arizan, hoiek esanak egin banitu ni zerura juango nintzan.

Kalean nahiago

Azpeiti, Txapel zenaren omenaldia, 1969.11.09

Basarri: Mattin, atoz. Egun baserriarrik geienak kalean bizi dira. Geienak edo asko, beintzat. Zergatik ote da ori, Mattin? Esan zaiguzu bi bertsoan.

Mattin:

Zuk badakizu gazte guttixko dagola gaur baserrian,
gazte jendiak naiago baitu mendian baino kalia.
Eta geienek hauxe pentsatzen dute naski geienian:
kalera joan da ordu guttio egiten dela lanian.

Neskatxak ere lan guttirekin dira kalera juanta,
andre gazteentzat baserriko lan hori zikina baita.
Kalean beti bizimodua ere hobiago dala-ta,
lehen baserrin bizitzen ziren taloa ta patatak janta.

Euliak

Añorga, 1971.03.07

Joxe Mari Aranalde: Mattini jartzen diogun gaia: euliak.

Mattin:

Oraintxet hemen emana naute euriékilan lanean,
eta nik hoiek aipatuko tut orai onbore onean.

Euliak lagun txarrak baitira nik uste gehienian,
erretora hau're ardura kexu euliekilan denean.

Euliak gauza onak direla askotan baitu iduri,
eta ez dakit zertako tuen Jainkoak hunat igorri.
Jendea minbera izaten dela hortan ez gintake harri,
zirika gutxi egin behar da euliekilan denari.

Eta hauxe nik esan behar det orain onbore onian,
gauza politik ezin egin da euli horien gainian.
Eta geienak minberatutzen baitirade azkenian,
gu ere berdin izaten gera euliekin girenian.

Kapitala

Donostia, *Astoria* antzokia, 1971.03.19. Manuel Lasarteri omenaldia.

Basarri: Atoz, Mattin. Gaur egunean ez da errez gauzak ixillean pasatzen. Jakin berri degu Mattin onek, Donostira etortzeko deia duenean, ia ez duela begirik ixten. Izan ere, emen bere etxean ez dagoenik ez du inoiz pentsatuko. Ala uste degu, beintzat. Adierazi zazu bi bertsotan au egia dan ala ez. Donostian zer tankeretan arkitzen zeran.

Mattin:

Bertsutako deia izan dudanian,
joan den aspaldian,
beti honuntz banator onbore onian.
Afizione baitut kanpoko lanian,
partikulazki hola laguneren erdian,
Donostian uste dut nagola herrian.

Beti atsegin baitut hunen ikustia,
ez da itsusia,
jin gabe pasatu dut denbora luzia.
Jende maitekorra da t'arraza gaztia,
hemen egoteko hartuko'ut etsia:
euskalen kapitala daukat Donostia.

Bakezko urtzo maitea

Usurbil, 1971.07.03

Antton Aranburu: Bigarren parte hontako gaiak baditeke norbaiti raro xamarrak iduritzea. Alegia, nik gai hauekin ez nuke lotu nahi bertsolaria. Nik emango diot, gaia ez, esaldi bat da; eta esaldi horrek bere barruan duan oihartzuna entzun ondoren hasiko da abesten bertsolaria. Gutxienez bi bertso kantatuko ditu; eta hortik aurrera nahi dituanak.

Mattini:

Pakearen urtxoa, oi urtxo eztia,
hegalez kubri zazu lur zabal guztia.

Mattin:

Oi, bakiaren urtzo maitea, ni nago zuri begira,
beti hegalez hor baizabiltza zelaietatik mendira.
Eta, bakezko urtzo maitea, nun ote ibiltzen zira?
Eta, zu bakezko urtzoa, etorri Euskal Herrira.

Zuri begira egoki bainaiz, bakezko urtzo maitea,
desira nuke lehen bai lehen zu honuntzat etortzea.
Bakea hemendik juan zaigulako euskaldunentzat kaltea,
lehen bai lehen etor zaite ta ekarri guri bakea.

Kalabazak

Errenteri, 1971.07,25

Mikel Ugalde: Mattini gaia: dantzara joan eta neskak kalabazak, poteak eman dizkizu.

Mattin:

Nik ere bestak zirela eta nahi bainuen gozatu,
neska polit bat ikusi eta dantzarako dut eskatu.
Eta nigana etorri partez nitarik da apartatu,
horrelako mutil txikiakin eztula nahi dantzatu.

Ta berriz ere eskatu diot, ez bait nezaken bertzela;
aintzinetikan esaten nion dantzari ona nintzela,
jakin ezkerro zoin ona nintzen pozik etorriko zela;
harek esan nau ni baino hobiak hemen askotxo direla.

Haren onduan eskari huntaz Mattin ezpaita egondu,
azkenerako bertsu koskor bat neska horrek entzun biar du.
Ni errezatzen egotua naiz haren aurrean bi ordu,
ta nahi nuke mustur haundi bat sarri arrapatzen balu.

Herriko bestak

Oiartzun, 1971.08.05

Juan Mari Lekuona: Agurra bezela eginaz, gaia au izango da, gai zabala: herriko festak.

Mattin:

Pozak txorutzen nago ni hemen jende hoieri begira:
besta egunian danak kalean, gutti juaten da mendira.
Eta nai degu denek atera jendia dagon tokira,
besta egunetan zaharrak ere pixka bat piztutzen dira.

Herriko bestak oroitu eta gazteak daude kezketan,
ni ere berdin ibilia naiz segur lenago gaztetan.
Eta ordukoaz oroitutzian orain ere ametsetan,
nik ere andregaia horrela in nun herriko bestetan.

Oillo ederra galdua

Oiartzun, 1971.08.05

Juan Mari Lekuona: Mattiñek kantatuko ditu orain hiru bertso, eta gaia au izango du: bart gauean, zure baserrian, ijito batek oilloak ostu dizkizu, ebatsi dizkizu. Ori da gaia. Iru bertso, nai duzun bozean.

Mattin:

Oraitxe triste dauka Mattinek gogua,

Mattinek gogua:

etxean nadukan oillo ederra galdua.

Bihar aurkituko zait ezin bazkaldua,

gosiak egon bihar gauza segurua,

ijitoak ereman nau etxetik oillua.

Hoiek egiten tuzte gauza itsusiak,

gauza itsusiak;

neonek hoik etxian ezin ikusiak.

Gauetan hor dabilta hoik erdi gosiak,

ta erematen tuzte nai tuzten guziak;

ijitorik ez du maite Mattinen etxiak.

Ijito hoieri're behar dut nik kanta,

behar dut nik kanta,

hoiek gonbertitzeko ez baita beranta.

Besta egin nai eta oillua nik falta,

haragi egosteko dirurik ez dauka,

errukitu al zaizkit ama eta aita!

Hiru penitentzi

Hazparne, 1972.03.12

Mixel Itzaina: Orai Mattini galdatuko diot, horri ere behar baitugu lanean ar arazi pixka bat, zein diran, apez balitz eta orain garizumakari, emazteri eman lezazken hiru penitentziarik bortitzenak.

Mattin:

Orai hastera noa ni gustu gostuan,
ni gustu gostuan,
konfesatzen hasten naiz apezten kontuan.
Mutxurдин batzuk huna jin direlakuan,
hoiek ere erortzen dira bekatuan:
ez erran zer pasatzen zaizuen auzuan.

Mutxurдинek entzuten dituzte kontuak,
dituzte kontuak,
entzuteko're dira deliberatuak.
Hoiiek ezin eginik gizonen tratuak,
hortxe dagozi ezin, ez, kontsolatuak;
konfesatzen dituzte bertzen bekatuak.

Penitentzi ematen behar nuke hasi,
behar nuke hasi,
haundixkoa ere naski baitute merezi.
Egia erranen dut nai baute sinetsi,
bertzen berri kondatzea lehen bai lehen utzi,
nahi balin badute zerua irabazi.

Lana

Donostia, *Anoeta* pilotalekua, 1972.04.30

Joxe Mari Iriondo: Mattin, mesedez aurrera. Batzuek diote lanak gizona egin egiten duela. Baita zapaldu ere. Zure iritzia zer da? Zure iritzia esan hiru bertsutan.

Mattin:

Horrek e eman nauen gai hori nik biharko det segitu,
lana gauz ona dela guretzat neri ez zait iduritu.

Goizian lanian hasitzen denak azkar nai luke gelditu,
nik ere lanak geiegi ditut, hartako ez naiz hazitu.

Lana gauz ona da askorentzat, hortaz ez daukat dudarik,
gero're zerbait gelditzen baita lana egiten delarik.

Bainan lanian ere askotxok ez baitute negurririk,
lanian geiegi ari ta ez da pentsatzeko denborarik.

Nik aspalditik ezagutzen tut lanian ari direnak,
bainan hek pobre gelditzen dira naski gutti gehienak.

Bainan lanian ere berdin ez dira aritzen denak,
langile txarrak ikusten ditut nik gizonik haundienak.

Jan ta lo

Tolosa, 1975.07.12

Juan Jose Uria: Gizon onek, Mattin, ez dauka planta txarrik eta berari ere hona esan behar diotena: jan ta lo. Bi bertso.

Mattin:

Hori egia dala ez zaut iduritzen,
ez zaut iduritzen,
gai hori ematiak gaur nau ni harritzen.
Neri gustatzen baitzait ernaia ibiltzen;
beti ase eta lo gelditu banintzen,
ni askoz gehiago haundituko nintzen.

Neri're gustatzen zait lan ta lo eitia,
lan ta lo eitia, ¹
oherakuan eta ohean zer pakia!
Geldi geldo egonta neretzat kaltia,
ez baitzait gustatzen geldo egotia,
halere gelditu naiz ni gizon txikia.

¹ Gaia *jan ta lo* eman zioten. Bainan Mattinek *lan ta lo* esaten du.

Egundaino ez txapeldun

Donostia, Pelota Elkartearen 50gn. urtea, 1975.12.14

Joxe Mari Aranalde: Badakizute Mattin pelotari ona izana dala. Bainan etzala egundaino txapeldun izan. Jakin nai genduke zer fallo zuan Mattinek txapeldun ez izateko. Bi bertso.

Mattin:

Ni're pilotan aitzeko nintzen lenago sortu mundura,
gazte denboran pilota hortan jokatzen nuen gustura.
Bainan bein ere ez naiz iritxi txapeldunaren gradura,
begi zorrotza banaukan bainan besoa oso laburra.

Ni're pilota joko horretan aitua arren gogotik,
txapeldun gradura ez naiz heldu txikia izana gatik.
Tanto ederrak egiten nitun jokatutzian aurretik,
baino kankailu pilota hori pasatzen zuten gaiset.

Ama

Zestoa, 1976.02.07

Joxe Mari Iriondo: Mattinen eta zenbaiten borrheroak, dudarik gabe, gai emaleak izan gera beti. Gaur Mattini eskatu nahi dizkiot hor jendartean dagoen larogei ta bi urteko Marijan (Maria Juana) andreari bertsuak.

Mattin:

Larogoi urte eta bi dauzkan delako Maria Juana, horrek ez du esan, ez, baiña hori duzu nere ama. Orai duela hiru hogoi urte ni mundurat nau emana, ta orai ere kontsolatzeko beti nator zuregana.

Umiendako beti ama bat maitekor izan ditake, eta ni neriak nola naukan esatea baita neke; ta ezin esan ama batek semia nola duen maite, bere semea salbatzarren bizia eman lezake.

Zorionean bizi naiz, ama, zure semea izanik, bizi guzian orroitzapena zuretzat izanen dut nik. Zar ta gaztiak, entzun zazue egun Mattinek esanik: ez da munduan emakume bat ama ordain dezakenik.

Zer kendu edo zer jarri

Hondarribi, 1976.01.06

Joxe Mari Aranalde: Lau bertsolari orain: Mattin, Lazkao-
txiki, Kosme Lizaso eta Xanpun. Hauentzat honela da gaia,
bina bertso kanta dezaten: zer kendu edo zer jarri munduan
pake gehiago izan dedin.

Mattinek kantatuak honako hauek izan ziren:

Aspaldixkoan jakinik gaude mundu huntako kontua;
bilatzen bainan ezin atxeman delako pake santua.
Nik daukadana pakearentzat hau nere pentsamentua:
ugaritu behar litake alkarren errespetua.

Pasatu berri berria dugu guk Eguarriko pausoa,
gu zorionean jartzea gatik jaio baitzen Jaungoikoa.
Bainan inundik ezin bilatu delako pake gozoa,
ibilki gera nola mendian zakurra eta otsoa.

Nun da zure laguna?

Donostia, 1977.01.16, Jose Lizasori omenaldia.

Joxe Mari Iriondo: Orain ondoren Mattin bertsularia. Nik ez det esango zenbat bertso, lehengoan esan ez dedan bezela. Nahi dituenak nahi dituenak bota ditzala. Hori beti esan izan det eta nahiago det horrela. Mattini galdea: nun dezu zure laguna?

Mattin:

Hauxe da gaia izan dedana: nun detan nere laguna.
Lenago nere Xalbadorrekin sarri etorri naiz huna.
Bere herrian omenaldian hil eta zerura juna,
geroztik huna hemen nabila, ematen dut alarguna.

Ni harekilan etortzen nintzen bertsutan hasiz gerozti,
eta harekin bertsu lanian aritzen nintzan gogoti.
Hura lehenik jua zaigu eta Arozamena ondoti,
desio nuke gaur heiek biak beira daudela zeruti.

Betiereko zoriona're ez da izaten munduan,
gau ta egunak pasatzen ditut nere lagun hoik goguan.
Gure Jainkoak eman ahal tu biak alkarren onduan,
leku txiki bat gorde zazute Mattinentzako albu.

Oiartzungo omenaldia

1981eko ekainaren 14an

Gaitzeko omenaldia egin ninduten Oiartzunen joan den igandean. Hogoita hamabortz urtez ibili bainaiz han ere kantuan, eta hek orroitu dire. Oso besta ederra izan zen. Jendea erruz eta denak omorean.

Hasieran, Juan Mari Lekuonak bortzpasei minutuz hitz egin zuen, nere lehenagoko liburua eskuan zuela: ni zer izana nintzen, nola ibilia, beti omerekoa eta abar; eta, bestalde, aieka hau nik errepresentatu dutala Gipuzkoan.

Hamasei bertsulari baziren. Lehenbizi, denek bertsu bana kantatu zuten neri buruz. Gero, gaia jarrita, zortzi bertsularik aintzinetik. Hurrena, hamar minutuko pausa, eta beste zortziek ondotik. Oso bertsu saio ederra izan zen.

Dirua ondo bildu zen, eta erregalo asko izan nituen. Aranaldek, gauzen ekartzeko bi buelta egin beharko nituela erran zuen. Bainan hemendik ere kotxe asko ginen eta buelta batekin aski izan zen.

Gero, bazkari ederra. Berrehun ta hamar lagun izan omen ginen. Omorean zen jende dena.

Beste bertsu saio bat egin zuten han bertsulariek bazkaltean; eta bukatzeko *Gernikako arbola* eta *Agur, jaunak* kantatu ginuen, denek batera, xutik jarrita.

Ni pixka bat nekatua nintzen bazkal denboran, siesta egiteko ohidura baitut. Bainan gero pasatu zitzaitan.

Goizeko saioaren bukaeran, neronek bortzpasei bertsu kantatu nituen, jende guziari eskerrak emateko.

Beste bertsulari denak airosago ikusten nituen, saltoka-ta ibilki. Bainan Uztapide eta biak han ginen xahartuak, laguneri ezin segi.

Berak etxean hiru bertsu idatzi eta hango mutil batek kantatu zituen. Eta nik ere batto berari kantatu nion eta malkoak espakatu zitzaizkion.

Hona nere bertsuak, *Sort lekua utziz geroz aidearekin*:

Pozez xoratzen nago gaur galdu arren osasuna,
nola goretsi liteke hemengo edertasuna?
Odolak beti tiratzen bainau hunat errex Oiartzuna,
sustraiara ere bertakoa daukat: Lezoko nuen aitona.

Oraindikan gazte nintzen hemen hasi nintzenian,
hoinbeste kotxe ez zegoen plazaren aldamenian.
Bizikletian etxetik parti, topoan edo trenian,
halere pozik etortzen nintzen deia izaten nuenian.

Gipuzkoako herriak geienak tut ezagunak,
denetan bilatu ditut bihotzeko euskaldunak.
Eta gaur agurtu nahi nuzke nik bertsulari lagunak,
denak bihotzez maitatzen ditut, denak izan dira onak.

Uztapide lagun nuen esposatu aintzinian,
berdin gabeko pertsuna hori gizontasunian.
Hameka aldiz kantatua det beraren aldamenian,
aitarekin iduri zuen horrekilan nintzenian.

Denbora luze doa ta utzi beharko lanari,
nere bihotza zuekin dago gain huntarikan kantari.
Erranen zauz tet besterik gabe eskerrik asko deneri,
bizi zaitezte denak ondo ta egin zazue bazkari

Mattin Treku: *Etxe xokotik kantari*, Auspoa 151, 1981
Mattin eta Mari Treku: *Mattin bertsularia*, Auspoa 298, 2006

Xalbador

Bakarka

Banaka

Donostia, 1962.12.30, bertsulari txapelketa. Honako suieta ezarri zuen Alfontso Irigoien zenak:

–Orain sei bertsolariei gai bera emango diegu eta banabanaka kantatuko dute, baiña bertso bat bakarra izango da... Sei bertsulariok or aurrean daukazute bixigu fresko-fresko bat, oraintxe bertan arraparrillan errea, eta baita olioarekin, ozpiñarekin eta barazuriarekin maneaturako salda beroa ere. Bertso bat bakoitzak.

Xalbador:

Bixigoa hor dago parrillan gainean,
jateko tenorea jin da azkenean.
Hori ikusi eta jarri naiz lanean,
jus goxo bat jarri da ene mingainean.

Alfontso Irigoienek saio-bukaeran: Euskal Herriko hirugarren, Xalbador. Mugaz alderdi hontako zure anaiei kantatu zerbait.

Xalbador:

Ni zorionez bete bete hemen naiz umil umila,
ez nuen uste gain hartarika nindagon horren hurbila,
Ez pentsa gero jina nintzenik sari eder hauen bila,
bainan eskaini dauzkitanari bihotzetik esker mila.

* * *

Elizondo, 1969.07.20

Mariano Izeta: Orain Xalbadorrek dantza eta dibertsioak aipatuko ditu.

Xalbadorrek:

Gure mundu hau Jaungoiko onak duenez geroz egina,
dantzako moda hori lurrera zerutik ote den jina?
Segi zazue, gazte maiteak, oitura horri aintzina,
ta zarrek ere hobe genuke dantzan hasiko bagina.

* * *

Azpeiti, Txapel zanaren omenaldia, 1969.11.9

Xalbador:

Txapel zan hori ez zan agertu ene begien argira,
ni hemen hasi baino lenago egin baitzun erretira.
Bainan egun nola dagoen zerutik guri begira,
lagun guziak gida gaitzala bera dagoen tokira.

* * *

Errenteri, Xenpelarren eriotzaren ehungarren urtemuga,
1969.12.07

Basarri: Aurrez adierazi bezela, gaia, Xalbador maite,
Xenpelar dezu zuk ere, aurreko adiskide danak izan duten
bezela. Nai dezun doiñu bat artu eta kanta Xenpelarri buruz
bertso bat.

Xalbador:

Xenpelar jaunak obratu zuen bere dohain berezian,
sekulakoa egin baitzuen oso denbora gutxian.
Harek esanak gaur ere gora dabiltz gure herri guzian,
zuk hilda hainbat ez du eginen mintzo den honek bizian.

* * *

Añorga, 1971.03.07

Joxe Mari Aranalde: Beste bost bertsolariak nai nuke nik
bakoitzak bertso bana eskeintzea Manuel Lasarteri.

Xalbadorrek kantatua hau izan zan:

Ene Lasarte, hartu zindudan nik bihotzaren muinean,
eta lagun bat guk zu bezala maitatu izan dugunean.
Zutzaz orroitzen naiz hemen eta ene leku urrunean,
eta zurekin izan nahi dut omenaldi-egunean.

* * *

Oiartzun, 1971.06.06

Juan Mari Lekuonak: lehen agurra egiteko, lehengo urtian
egin genduen bezela, baita ere aurten, bertsolari bakoitzari
gaia bezela zer edo zer jarriko zaion, bertsolari bakoitzak en-
tzuleari gauza bat opa edo desiatuaz.

Urrena, Xalbador. Desiratu guztiei eguneroko ogia.

Xalbador:

Jaun Zerukoak eman dezaukun kantatutzeko argia,
guk esanetik etor dadien entzulendako ongia.

Esango dizutet, jaun-andreak, bihotzetikan egia:

Jaungoiko onak eman zaukula eguneroko ogia.

* * *

Tolosa, 1972.12.05, Zepai zenari omenaldia.

Lehen agurra:

Nik ezer asko ikusi ez bainan halere nadukan anai,
haren aldeko goralpen asko entzuten bainuen non-nai.
Zuhaur bakarrik egun batean joan zira hemendik, Zepai,
ez ote zinan egoiten ahal apur batean hemen zai?

* * *

Donostia, Pelota-elkartearen 50gn. urtea, 1975.12.14

Joxe Mari Aranalde: Lehenengo bertsoa pelotariari kanta-
tzeko eskatuko diegu. Bertso bana, pelotaria gai dutela. Hil-
dakoak, bizi diranak, etorriko diranak. Pelotaria.

Xalbador:

Aizu, pelotari gazte maite, zu ere berdin, aitona:
zuri beha ni loriaturik zonbat aldiz naiz egona!
Kargu haunditan da plaza hoitan hor jokatzeko dagona,
zure eskutan baitago beti herri hunen omen ona.

* * *

Joxe Mari Aranalde: Bertsolariak hau dute orain bertso
bana kantatzeko gaia: haur bat pelota eskuan duela.

Xalbador:

Haurra, eskutan pelota hori hartzen dezun bakoitzean,
bera ganako amodioa hartu ere bihotzean.
Maitatu eta lagundu zazu haur txiki baten antzean,
bertze haur batek ibili dezan zu ni bezala zartzean.

* * *

Donostiako *Karmelo Balda* pelotalekua, Lazkao-txikiri
omenaldia, 1976.01.25

Lehen agurra:

Hau da urtarrilaren hogoi eta bortza,
Jose Migel, kanpoan fresko zen gaur goiza.
Bainan gure herria ez zegoen hotza,
zuri egin nahizik maitasun aitortza;
nik ere zurekilan badaukat bihotza.

Gernikako arbolari agurra

Bertsu hauk Saran 1948 urtean kantatu zituen Xalbadorrek, bertsulari txapelketa batean. Lehenengo saria izan zuen. Gaia zen baxenabartar batzuek Gernikara joan eta arbolari egiten zioten agurra. Bainan Xalbadorrek idatziz igorri bertsuak ditugu.

Xalbador:

Oi, ama ona bizitzen dena bere umetarik urrun!
Orai artean senditzen bainan ez dugu ikusi nihun.
Bainan huna gaur zure aldean amultsuki zonbait lagun,
denen bihotzak juntatu eta agur bat egin dezogun.

Eskual umEEK ez dezakete beren ama disimula.
O, ama ona, sustenga zazu ene gogo ahula.
Badakit sortu zinen ordutik etsaiak izan tuzula;
denen gantikan bizi zira ta etzaitela hil sekula.

Soroetako mamua

Donostia, 1962.12.30, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketa.

Alfontso Irigoien: Xalbadorri gaia: aurrean daukazu mamu bat, txorimalo bat, eta hiru bertso kantatu behar dizkiozu.

Xalbador:

Nik egun hunat etorririkan ez dut, ez, hartu damua,
ta gauza berri bat ikusirik kontenskorikan banua.
Aurrean hortxe zer ote zen ba? Infernutik jin debrua?
Eta gero antza eman diot: soroetako mamua.

Norbaitek ongi egin dauzkizu barnea eta azala,
pozez zinauden lurran gainean oxtion zabal zabala.
Norbaitek zutaz egin izan du beretzat egin ahala,
txori gaiztoak izuzkizu ba ni egin nauzun bezala.

Oi mamu itsusi lotsagarria, orai egiten dut irri,
zerbaitetako bide zaituzte soro hoietan ezarri;
eta grazia ematen diot ezarri zaituenari,
gure uztaiaren bipilak urrunxko zitzu igorri.

Sorgina

Donostia, 1962.12.30, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketa.

Alfontso Irigoien: Xalbadorri gaia hiru bertso kantatu ditzan, gai hori gogoan hartuta. Xalbador, bart Joxeri, etxera zijoala, sorgin bat atera zitzaion, ta tiratu zion harria ta sorgiñak karraxika ta buruari helduz iges egin zuen. Baiñan gaur goizean auzoko Mikela burua lotuta agertu da. Zu zera Joxe, sorgiñari harria bota zeniona. Hiru bertso kantatu behar dituzu Joxeren izenean.

Xalbador:

Huna mutil bat eta hura ni, gauak etxerat derama,
hantxe pausatu behar nuela oihanean hartu zama.
Sorgin bat hortxet atera zeraut, ene maitearen ama,
bazuen harek lendikan ere sorgin haundiaren fama,

Gero zonbaitek erraiten dute orai ez dela sorginik,
huna ni zuer mintzo hasia pruebak ontsa eginik.
Ez da, ez, sorgin horietan Mikela horren berdinek,
bi harri ere botako nazkon hilko nuela jakinik.

Mikela, ez ahal zaizu dolutu bart egin duzun ertera?
Hobeko duzu hemendik goiti etxean egoiten bazera.
Zurea pasatu zen eta hola ibiltzia kalte da,
zuhur baduzu berriz ez jalgi amoros baten bidera.

Itsasoa

Bilbo, 1964.12.20, Euskal Herri guziko bertsolari txapelketaren aurrekoa.

Alfontso Irigoien: Itsasoa zer den esanez, bi bertso.

Xalbador:

Mendi kaskoan sortu naiz ni ta beti han bizi gaizoa,
ardiekilan pasatzen baitut ene denbora osoa.

Badakit zer den halarik ere erran dezun itsasoa,
lan egitea gauza horretan ez al da gauza gozoa?

Zer gertatzen den itsaso hortan askotan entzunik nago,
bizia hortxet utzi duenik badago eskualdun frango.

Aurrerat, otoi, izan zaite, ba, lehen baino eztiago,
eta ez zazula iretsi, otoi, eskualdun gehiago.

Bildurra

Donostia, 1965.01.01, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketa.

Alfontso Irigoien: Bildurrari bi bertso.

Xalbador:

Alfontxo, ene gaurko kasua nondikan duzu zuk jakin?
Bildurra delako gauza txarra batek badauka berekin;
eta erraiten ahal nuke nik nihauren buruaz berdin,
ene barnean daukat gaur eta ez du nai hunek aldegin.

Jainko Jaunari egiten diot otoitz kartsu ta beroa,
beldur sobera ez dadin izan altxa dezagun gogoia.
Bainan beldurrak ere badauka nunbaitik bere erroa,
batere bildurrik ez duena ere deitzen da eroa.

Doairik premizkoenak

Donostia, 1965.01.01, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketa.

Alfontso Irigoien: Xalbadorrek, bertsulari on bat izateko doairik premizkoenak zeintzuk diran esango digu hiru bertsoetan.

Xalbador:

Ni erantzuten zuri, Alfontxo, orai bainago hasia,
Jainkoak eni ere eman daut bertsularizko grazia.
Gauza bat bada denen aurrean hortako premi hartzia:
segurtamena bere buruaz ta gainera ausartzia.

Bertze bat ere erranen nuke banerauka ahalmenik;
ote da hemen nik baino hobeki gauza hori dakienik?
Bertsulariak umila izan behar bailuke maizenik,
eta bertzeri ahalaz ez esan entzun nahi eztuenik.

Nik bertsulari ederra franko denboran badut entzuna,
eta beti nik bilatu izan dut heiekin alkartasuna.
Bertsulari bat ezpada ere indarrez handi ta huna,
ez bedi izan, Jainkoaz otoi, bere eletan lizuna.

Adixkide ona

Oi, adixkide onak tuztenak dirade gizon urosak;
adixkideak ezagutzen tu bere lagunen bihotzak.
Harek ez ditu, ez, berexiko ez beroak eta hotzak,
penarekilan ikusten ditu bere lagunak ez ontsak,
eta barkatzen ere badaki guk egiten tugun hutsak.

Adixkideak kalitateak izan baitezazke mila,
zur'inguruan zu beti ontsa kusi beharrez dabila.
Berdin hasarre izana gatik zuretzat beti umila,
mintzatu behar baluke ere egonen isil isila...
Bainan delako adixkidea nun ote ditaike bila?

Sortuz geroztik beti nabila ni ere hor bidez bide,
eta jartzen naiz aipatzen dugun adixkidearen alde.
Berdin bilatzen dugu ba nunbait bainan guziak debalde,
pasaturikan ere zonbait goiz bai eta zonbait atsalde;
nahiko nuke nihaurek izan horrelako adixkide.

Amaizuna

Bertsuak eta adierazpena, Xalbadorrek berak idatzi eta igorriak:

Beste hauk izango dira, ni umezurtza, amaizunari hitz egi-tea gaitzat hartu ta jarritakoak.

Xalbador:

Mundu hunetan ez naiz luzaro gozatu ama maitean,
sortu orduko arkitu bainaiz zoritxarreko atean.

Ta bere ordain utzi zaitu zu amak zerurat joaitean;
dohakabe naiz, laztan nezazu zure besoen artean.

Badakit ez nauzula ekarri, andre, zure sabelean,
Ama Birjinak ere ez gaitu inoiz ekarri berean.
Halere haren umetzat gauzka bere bihotz zabalean,
zuk ere hala har nezazu ni Jainkoaren izenean.

Gure Jainkoak bidaltzen digu zerutik hainbat abisu:
zorigaiztoak jota daudenez ager gaitezen amultsu.
Haren aurrean ume ta ama arkitzen gera ni ta zu,
maitatzen ahal ez banauzu're erruki izan nezazu!

Emazte zenaren soiñekoa

Donostia, 1965.01.01, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketa.

Alfontso Irigoien: Orain zure emazte hil zanaren soiñekoari beste bi bertso.

Xalbador:

Pentsa zazute alargundu bat ez daike izan urusa,
dolamen hunek, oi!, ez dezala ainitz gehiago luza.
Orai urtea ziloan sartu andreñoaren gorputza,
haren arropa hantxet dilindan penaz ikusten dut hutsa.

Geroztik nihaur ere nabila guzia beltzez jantzirik,
ez dut pentsatzen nigar eiteko ene begiak hesterik.
Ez pentsa gero, andre gaizoa, baden munduan besterik
zure arropa berriz soinean har dezaken emazterik.

Izkirimiri bat, txiste bat

Donostia, 1965.01.01, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketa.

Alfontso Irigoien: Eta, azkenez, kontatu iguzu hiru bertso-tan izkirimiri bat, txiste bat. Ez du ajolarik gordin samarra bada ere, baldin txukun kontatzen badezu. Minutu bat dezu txistea aukeratzeko. Beraz, minutu batean zai egongo gera.

Xalbador:

Ahezko hortan lenago omen da apaiz haundi bat izana, jendeari par einarazteko nehoiz beldur etzana.

Bein batez ere egin baitzuen hark izigarrizko lana: prozesiora mendira joan ta han gelditu zen etzana.

Ez dela egia dirudi horrek, kasik ez daike sinetsi;
zer parrak ere zituen gero jenderi egin arazi!
Mendi gainean etzanta ditu harek bi begiak hetsi,
lokartu zen ta artzain zar batek zapetak dazko ebatsi.

Goizean lokartu zen eta iratzartu zen atsaldez,
akidurarik haundienean aurkitzen baitzen herabez.
Gero so egin bere anker ta zapatarikan baterez,
hasi zen artzainer ea hura zen herriko apeza ala ez.

Erromako zubia edo ortzadarra

Donostia, 1967.06.11, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketa.

Alfontso Irigoien: Xalbador, zuk hiru bertso kantatu behar dizkiozu Erromako zubiari, ortzadarrari; oztartsua ere esaten zaio.

Xalbador:

Euskal Herritik Erroma aldera ni abiatu beharra;
denek dakigu, han omen dago zubi haundi bat ederra.
Dena su itxurazkoa da, iduzkia eta garra;
benetan deitzen diote horri Erromako ortzadarra.

Ez det ikusi, bainan zubia ez omen dala txikia
entzun izan dut, eta buruan betiko det atxikia;
hortarako jarria zare zu, or daukazu aitzakia,
mundu guzira zabal zaguzu hor daukazun iduzkia.

Egun on batez nik ikusi dut ortzadarraren itxura,
zoratu ninduen benetan, ederra zen une hura.
Ortzadar hori Jainkoak jarri bere gostuko lekura,
hortikan zabal zadien gero denen argizat mundura.

Ortzadarra

Hurrengo adierazpen eta bertsuak Xalbadorrek berak idatzi eta igorriak dira. Gipuzkoan *Erromako zubia* esaten zaiotzari, Baxenabarren *ortzadarra* esaten diote. Hala, Xalbadorrek ez bide zuen ongi ulertu bertsulari txapelketan, 1967.06.11n, eman zioten gaia:

Ondoren datozen hauk, berriz, dira Donostian Erromako zubia aitatu zautatelakotz egin nuen okerra gogoratuaz, biharamonen, etxerat nindualarik, berriz haste balitz nolatsu kanta nezakean hasi ta jarriak.

Xalbador:

Ortzadar hori agertzen zaiku bi erasoren tarteko,
bere zerutar koloreakin zillarrez eta urrezko.
Edertasunez ez dakioke begiratu bekoz beko,
mingain urrea behar litzake ber'hartaz hitzegiteko.

Maizenik udan ikusten degu, etzaio gustatzen negu;
mirari bat hor ez ikusteko itsu zoroak gera gu.
Esan litake aingeru danak bertan daudela testigu;
zerua zer dan erakusteko Jainkoak bidaltzen digu.

Zerbait gogortxo esaten noa, hau bihotzaren pilpira!
Ene barruan sartu ote da ortzadarraren dirdira?
Erasoaren bukaerako seinale baldin bazira,
eskatzen dizut, ai, ortzadarra: noiz zatoz Eskual Herrira?

Salatzaile bati

Donostia, 1967-06-11, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketa.

Alfontso Irigoien: Xalbador, beste hiru bertso kantatu behar dizkiozu salatzaile bati, *denuncia* sartu duen bati.

Xalbador:

Mingain gaiztoak gu hontaratzen gaitu nola edo hala,
hioen mingainak arkitzen baitu beti lanpide zabala.
Bazinakiten baserri baten prestu zintzo nindagoala,
min gaizto batek salatu omen du kontrabandan nindailala.

Anai arrebak, gogoan hartu emango dedan bertsuari,
egia zerbait izango baita aurkitzen naizen kasuan.
Lengo batean salatzaile hoi bide makurretik zuan,
bere burua salbatzeko nau ni hor ezarri putzuan.

Zeruko santu guziak eni ari zaizkit errepikan:
salatze horier sekula santan ez eiteko kasurikan.
Hoiek bota nai izana gatik egon gaitezen zutikan,
hioen esanak ez du balio mundu huntako baizikan.

Kontzientzia

Donostia, 1967.01.11, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketa.

Alfontso Irigoien: Orain hiru bertso kantatu behar dizkiotzu kontzientziari.

Xalbador: Nere kontzientziari?

Irigoien: Kontzientziari. Nai dezunari.

Xalbador:

Kontzientzia, izen haundia, orai datorkit gogora,
zu zer zaren nik pentsatzeko pasatu detan denbora!
Ustez ezer ez zaren zu eta zu igotzen beti gora,
kontzientzirik guk ezpagindu bizi gindezke gustora...

Kontzientziarekin orroitzen naiz Kainez eta Abelez:
kontzientziak Kain lurpean ezarri zuen ahalgez.
Nik ere ongi izateko ta zerbait egitea errez
nai nuke, bainan kontzientziak beti erraiten nau ezetz.

Kontzientzia daukanak badu, ez duenak ez daduka;
ene lekua halarik ere hartan ez nezake truka.
Gauza beharra mundu huntako, hori ez ditaiké uka;
kontzientzia gaurko egunean zoin kristauek ote dauka?

Irria

Donostia, 1967.01,11, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketan.

Alfontso Irigoien: Eta, azkenez, bertso bi parrari, irriari.

Xalbador:

Geure izakera gordetzen degu gizasemek geienetan;
arrazoirikan ez izanda're iduri dugu penetan.

Oi, irria, zu bizi huntako beharra zira benetan;
sor dakigula maiz irri hori beti gure ezpainetan.

Irria beti ez ditaikela bihotz barnetikan egin;
gogorik ez balin bada ere hori egin daike berdin.
Nahiz irria gezurra izan eta berari eman min,
bederen beti eginen dautzu bere inguruan atsegin.

Negarrez jaio

Donostia, 1967,06.11, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketa.

Alfontso Irigoien: Xalbadorrek beste hiru bertso, zergatik haurrak, jaiotzen diranean, negar egiten duten esanaz.

Xalbador:

Haur maite horrek berak zer daki, ez baiterauka indarra?
Aingerutxo maite horrek beti dauka lagundu beharra.
Bertzerik ezer ez daki eta berak lenengo negarra,
maiteak ez derauka pasturik mundu huntako hondarra.

Inoiz negarrez haurtxo txiki bat albotikan dut hauteman,
aitak entzun ez zezan gero du amak gelarat ereman.
Oi, haur maitea, hasi parrez zu, ez ba negarrari eman,
naiz ez jakinean zaudela zu negarraren erresuman.

Haurtxoa sortu den ordurako heltzen dio negarrari;
bera pozetan balin bada're lanbide horri da ari,
zeren Jainkoak bere jaiotzan errana dion haurrari:
gure mundu hau tristeza dela, benetako negargarri.

Ijitoa, Bankuko kobradore

Donostia, 1967.06.11, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketa.

Alfontso Irigoien: Orain gai bat: ijito mutil gazte bat, zuk dirua daukazun Bankuko kobradore izendatu omen dute. Zer deritzazu? Bi bertso.

Xalbador:

Aizu, Alfontso, ni ez nezazu zure gai txarrekin ito;
ni menperatu beharrez hemen aria zira askito.

Gauzak horrela direla bainan ni ez naiz horrekin kito:
dirua irabazlea ni ta haren jabea ijito.

Narras kusten dut nik hortan ere gaur naguen ingurua;
ez dago hain leitu erreza mundu huntako liburua.

Ijitoa jabe jarri da nekatu gabe burua,
esku onetan eroria da gaur Xalbadorren dirua!

Ohatzea

Donostia, 1967.06.11, Euskal Herri guziko bertsulari txapelketa.

Alfontso Irigoien: Eta, azkenez, Xalbador hiru bertso oheari, ohatzeari.

Xalbador:

Ohea bezain zer baliatzen ote da gure bizitzan?

Leku pausakor hobeagorik nehon ez ditaike izan.

Handik kanpora ertetzen gira egin beharren peskizan; astia izanez goizean ere geiago egonen nintzan.

Ohe maitea, zurekin badut nik egundainoko hartze, nahiz artetan ematen duzun kolpeño bat edo bertze.

Bizitze onik zu gabe ez da, hortaz beti dut aditze.

Ez ziradea zuhaur izan zu maitasunaren ohandze?

Ohe gaixoa, zu maitagarri, zutaz ez nitaike ixil;

zutaz behartu gabe egun bat munduan ez daike ibil.

Denak horrarat datoz azkenean izanikan ere abil;

zutan sortu ta zutan haziak zutan behar degu guk hil.

Orreagako Ama Birjinari otoitza

Jose Mari Satrustegi zenak, 1967.07.30ean, Hernanin, *Xalbadorren ohoretan* izeneko hitzaldian:

Orai nik esango ditudan bertsuak duela lau urte Luzaideko plazan entzunak dizkiot. Doinu sendigarri eta tristean emanak dira. Aitortzen dut nigar malkoak bazirela plazan.

Gaia: Xalbadorri haur bat kolpatu dio automobilak. Frango gaizki da. Aita badijoa Orreagako Ama Birjina otoiztera. Lau bertsutan Ama Birjinari otoitza.

Herria aldizkarian, 1967ko azaroan agertu bertsuak.

Xalbador:

Mundu hunetan bizitzen dena ez da leku ederrean, beti kezketan gabiltza eta beti gaude lanjerrean. Ni hurrekilan hain goxokian bizi nintzaden artean, batto goizean autoak zauritu dauku bide bazterrean.

Pentsa zazue aita batentzat hau ez dela atsegina, ezin jasanez hemen daukat ene bihotzeko mina. Oi, haur maitea, ene ustean ene zoriontzat jina, ez dadien gal otoizten zaitut, Orreagako Birjina.

Bizi huntarik ez da bertzerik: egun eta gau gudian; hauxe da pena ta naigabea gaur ere ukana duan. Ama Birjina, zu boteretsu hor baitzeraude zeruan, egizu ene haur maite hori bizi dadien munduan.

Nehondik ahal balin baduzu zure Semeain bitartez, lāgun nezazu herstura huntan tronpa ez nadien atez. Baldin hola beharrak badira zerbait gisan gerta bitez, nahiago dut nihaurek hilik ene semearen partez.

Txistua

Donostia, *Anoeta* pilotalekua, ehun milla pezetako sariket-
tan, 1968.02.04 eta 11

Joxe Mari Iriondo: Xalbador, zuk ere berdin: nai baldin
badezu doiñu batean edo bestean, txistulariei bi bertso.

Xalbador:

Orai kantutik txistura
euskaldun zarren modura.

Ai soinu alaigarri polita hoiek jotzen duten hura!
Ekentzen dauku tristura,
baita ere sumindura,
etor baitziren mundura.

Pozez gaude txistuari
ni beti horren egarri
Alaitasuna daukute beti gure arterat ekarri.
Jarrai oitura zarrari
eta poz asko ezarri
gure guztien pozgarri.

Etxahun

Donostia, *Anoeta* pilotalekuan, ehun milla pezetako sari-keta, 1968.02.04 eta 11

Joxe Mari Iriondo: Xalbadorrek hiru bertsu bota behar dizkio Etxahuni; Etxahun, mugaz beste aldeko Euskal Herriko kantaegille zaharrari.

Xalbador:

Ai, Etxahunek pasa zituen munduan orenak ilun,
harek bezanbat sofriturikan gu tartean ez dago inun.
Bertsularien zaindari gisa juzkatzen zaitut, Etxahun,
ta nik zuri zor dizut hementxe arkitzen banaiz gaur egun.

Etxahun hori da Euskal Herrin dizdira duen argia,
eta ni zuri begira nago, gure ispilu garbia.
Zuk bezanbat nork zerbitzatu du, ai, ene Euskal Herria,
hanbat sofritu eta kantatu dezun bertsularia?

Zure bertsuek beti jendea ez dute izan alaitu,
Etxahunek sofritzen zuena guri kantatu baigaitu.
Oraino ere bizi zera ta Xalbadorren deia aitu:
zure bidetik naiko degula zure lagunok jarraitu.

Itsuari

Donostia *Anoeta* pilotalekua, ehun milla pezetako sariketa, 1968.02.04 eta 11

Joxe Mari Iriondo: Orain ondoren jakineko doinuan kantatu beharko dute bertsulariek. Gaurko ere lehengo igandeko doinu berberak aukeratu ditugu. Bi doinu dira: *Usa zuria*-ren kantaren doiñua edo *Ameriketako esne saltzaillea*-rena. Nolanahi ere, lehengo igandean bezelaxe, bertsulari batek bertsua amaitzen duanean, ondorengo itzulpena, ondorengo errepika egitea eskatzen zaizue danoi, batere bildurrik gabe.

Azkenik, Xalbador. Xalbadorrek bi bertso itsuari bota behar dizkio.

Xalbador:

Galdu zinuen begia,
ez da gauz ederregia.

Zure trantzea izan behar da estremitate haundia;
gauza hortaz zaite balia
eskuratzen alegia
beste munduan argia.

Nik begira itsuari
malkoak ditut isuri,
behingoz agur egina baitu hain behar den argiari.
Begira nago ni zuri,
aitona on bat iduri,
ainitz zaitut urrikari.

Lanera datorren mutil bati

Donostia, *Anoeta* pilotalekua, ehun milla pezetako sariketa, 1968.02.04 eta 11

Joxe Mari Iriondo: Xalbador, hiru bertso bota behar dizkiozu Erdal Herritik honera lanera etorri dan mutil bati.

Xalbador:

Euskal Herria izan behar da nunbait leku egokia, hunaratzeko edozeinek du errez hartzen aitzakia. Nik, erdalduna, ez dizut beltza ezarriko bekokia, errespetuan egon ezkeroz bada denentzat tokia.

Errespetua eskatu dizut, besterik ez daike galda; horrekin dena badaukagu guk zu ganikan e du bada. Lan egizu hemen gostura eta gu tartean pasa gaba, bainan euskaldunak ezer eta inoiz ez gitzula traba.

Zure bizi behar samin horrek zintuan hunat azaldu, jendeak nunai bizi izaten eskubidea're badu. Euskaldun gisa egiten dizut bihotzetikan erregu: bai, zurea egin zazu bainan otoi gurerik ez galdu.

Gizona

Donostia, *Anoeta* pilotalekua, ehun milla pezetako sariketa, 1968.02.04 eta 11

Joxe Mari Iriondo: Xalbadorrek hiru bertsu bota behar dizkio gizonari. Gai bezela, gizona. Hiru bertsu gai oni.

Xalbador:

Munduko lenen oihua ere gizonak baitzuen entzun , gizona, orroit ote zira gaur Jaunak zer agindu zizun? Eginbideak gorde dauzkazu nola len eta bai egun, ondo begira agindu hoiek ongi betetzen dituzun.

Jainkoak egin zuen gizona, ai, izaite atsegina, gure izenaren eraberan beti biziko bagina. Bainan ez degula huni pentsa hau ikusten det lastima: gorputzaz gira maizenik orroit ahanzturikan arima.

Entzun dezala Euskal Herriak, entzun beza Gipuzkoak, gauza horiek adierazi behar lituzke gaurkoak. Gizona zer den jakin ta isuri izan ditut nik malkoak, gero betiko bereganako eginak gaitu Jainkoak.

Andregaiaren aita

Donostia, *Anoeta* pilotalekua, ehun milla pezetako sariketa, 1968.02.04 eta 11

Joxe Mari Iriondo: Bigarren gaia beste hiru bertsu botatzeko honela da, Xalbador: neskata bat maite dezu eta honekin ezkontzea nahi zenduke. Bainan neskaren gurasoak ez diote uzten zurekin ibiltzen. Hain zuzen, atzo etorri zitzaizun neska esanaz baimena eman ziotela; bainan aitarekin hitz egitera joateko. Pozaren pozez joan zera tabernara, bi baso ardo edan dituzu ta hirugarren baso ardoa an zegoen gizon serio bati kolkotik behera bota diozu. Joan zera biharamonean aitarekin itzegitera ta orduan konturatzen zera zuk ardoa botatako gizona neskataren aita dala. Hiru bertso.

Xalbador:

Neskata polit maitagarri bat bihotzez maite nuen nik, aitaren baia ez nuen izan egun artean orainik.

Orai dolu dut baso arnoa zuri papurat emanik, aurretik ez nuen nik uste hain arlotea zinanik.

Hobe genduke hasi baino len kontuan ibil bagineza, pauso guziak ongi egiten ez da izaiten erreza.

Zu zaitut hola despreziatu ta zutan behar baitza, une txar hortan lotu baitut nik bidaren zorigaitza.

Zinez damu dut ene gogoia modu horretan utzirik, egin banu ongi pentsatuta ez nun merezi bizirik.

Baina horrek ez du, aita maitea, gu baitan zer ikusirik, ez naiz berriz horrela hasiko, edukazu sinetsirik.

Mingaina, mihia

Bertsu hauk Añorgan, 1969.07.18an, kantatuak dira. Gai-emale eta magnetofonoz bertsu-biltzale: Joxe Mari Aranalde jaun apeza zena. Gaia: hiru bertsu mingainari, mihiari.

Xalbador:

Gure Jaunkoiko maite maiteak baitu kristaua egina,
hoinbeste oni guk nehoiz itzul ginezokea ordaina?
Asko gauza esan laike hortaz, berez hain ona da baina,
gaizkian ez ebiltzeaz geroz ez da gaiztoa mingaina.

Gai horrekilan eman nezazke nik ez dakit zenbat bertso;
mingaina nuen herenegun ta mingaina ere nik atzo.
Mingainak erran izan baiteraut eni hainbertze hitz goxo,
andreak ere mingainaz deraut maitatzen nauela oso.

Gai horretatik hainbat bertze gai ginezake guk estali,
eta nik diot hau erran gogo hainbeste gizon herbaili:
Jainkoak dauku mingaina hori ahoan eman zintzili,
bainan ez ginuke behar nihoiz hori gaizki erabili.

Eskerrak

Donostia, *Astoria* antzokia, 1969.09.21, Xalbadorri egin zitzaion omenaldia. Berak eskerrak emanez kantatu bertsuak.

Basarri: Orain Xalbador aundiak, Urepelgo izar dizdiratsuak, eskerrak emanez, bi bertso.

Xalbador:

Ez zen enetzat egun arina, ori gauza nabarmena,
bere barruan ezin kabituz gaur ene tokian dena.

Bainan, Gipuzku, zurekin naiz gaur, esaten dizut aurrena:
gure arbola zar horrek daukan adarrikan ederrena.

Inoiz lorerik erori bada hau lorezko erauntsia!

Alde huntarik dagon jendea ez da gaizki ikasia.

Nik ezer onik baldin badaukat ez da alperrik utzia,
ta bihotzetik zuer eskaintzen dut dadukadan guzia.

Ondoren irudi baten oparia eskeini zitzaion Xalbadorri,
eta hunek bertso batekin eskertu:

Bizi guzian orroituko zait gaur hemen egin sarrera,
gauza guziak iragan dira zerutako arabera.

Donostiako herri hau dator eni hunen emaitera
zurekin ez naiz zorrez ttipitzen lehengoaren gainera.

Odol emalea

Azpeiti, 1969.11.09, Txapel bertsolaria zenaren omenaldia.

Basarri: Zuk badakizu, Xalbador, oso eri den bat, gaixo den bat, ardura, sarri edo maiz bertzeren odol bearrez izaten dala. Au dala-ta, Azpeitin odol emaleen bazkuna sortu da. Oraintxe asi da lanean. Egizu kontu, Xalbador, gizon bat zure odolaren premian dagoela une ontantxe bertan, Lasaitu ezazu zure laguntza eskeñiaz. Esan zaiguzu, alakorik balitz, zer jokaera artuko zenuken, bi bertsotan.

Xalbador:

Zuk esan duzun gauza hori da askoetan ikusia: odola galdu eta zalantzan jartzen da baten bizia. Nik odola sendo baitaukat gertu nago hor jantzia denaren ez emaitera bainan bai badirotan guzia.

Premia hori arkitutzen da ta ez leku bakanetan, odola faltan hiltzen dagona nola ez jarri penetan? Ekarri hori ase emaitera Xalbadarren odol hontan, ene odola ibili dadin kurri zure zainetan.

Maita beharrak

Usurbil, 1970.07.04

Gaia nork eta nola eman zion ez zuen magnetofonoak jaso. Maita behar ditugun gauzak zein diran edo holako zer-bait emango zion gaitzat Xalbadorri, eta honek bertso hauekin erantzun:

.¹ bidean gaudela eta ontzen ari da belarra,
bainan neguak emaiten digu gure zainetan daldarra.
Eta eni hona zer gauzak ekartzen daitan negarra:
gure lurra ez degula maite, hobeki maita beharra.

Zure galdeak izan zezaken bertzelako erantzunik,
eta ez pentsa bertsulariek begiak legor ditugunik.
Hainbeste gauza alde guztitik hainbeste urtean entzunik,
pena ematen dit ez daukagula behar laiken batasunik.

Bai, bertsulariak berekin badu jaso ahalako zama,
gure bihotza zeru aldera hau sentitzeak derama.
Hainbeste gizon gure artean eta horrenbeste dama,
ez dugunak aski maitatzen gure Euskal Herri Ama.

¹ Hemen behar luketen hitzak, magnetofonotik entzun eta ezin ulertuak. Puntu zerrenda batek hori esan nahiko du aurrerantzean ere.

Amaren sabela

Añorga, 1971.03.07

Joxe Mari Aranalde: Xalbadorrentzat gaia: amaren sabela.

Xalbador:

Ama, eduki nauzu toki epelean,

ni bederatzi ilez zure sabelean.

Gero goxo goxoa zure magalean,

ordaindu nahi zaitut egin ahalean,

Jaunak uzten naueno mundu zabalean.

Ni izan nintzan zure sabeleko zama,

andren eginkizunak hortarat derama.

Nik hainbat oren hantxe zutan eremana,

goxo goxoa hantxe eduki zuk, ama,

ereman nezazu, ba, gero zuregana.

Munduan hainbeste haur badakit daudela

amaz pentsatu gabe egun ni bezela.

Orroitzea bera da amantzat epela,

ai hainbertze umetxo munduan direla

ez dakitenak zer den amaren sabela.

Donostiari

Donostia, *Astoria* antzokia, 1971.03.19, Manuel Lasarteri omenaldia.

Basarri: Atoz, Xalbador. Aurreko urtean, ez duzu noski aaztua edukiko, zure omenaldia izan zan emen bertan. Xalbador, entzuleak egin zizuten egun artako arrerarekin kontentu gelditu ziñan ala ez adierazi bear diozu erriari bi bertsoetan. Aukeratu zeuk nai duzun doiñua.

Xalbador:

Orain urtetsu zuen aurrean nindagola Donostian,
bihotzean dadukat oraino eta maitasun bizian,
Bai, egun hura alai zitzautan Jaungoikoaren grazian,
ta ez zaituztet nik ahanztuko nere bizitza guzian.

Mundu huntako bi gauza dira argia eta iluna,
ez zen iluna izan neretzat omenaldiko eguna.
O, Donostia, zoragarria! Oi lagunarte kutuna!
Beti gogoan edukiko det enetzat egin dezuna.

Lur emalea

Oiartzun, 1971.06.06

Juan Mari Lekuona: Urrena, Xalbador. Eta honen gaia sakona da, beti jartzen diogun bezela. Xalbador urte askoan aritu da hildakoeri lurra ematen. *Enterradore* esaten diogu hemen. Zure pentsamenak azaldu.

Xalbador:

Ez nuen nik aukeratu baina hala agindu zidaten,
lan hori egin behar nuela bestek zidaten esaten.
Guziek hemen hartze duguna heik ere izan dezaten,
ni aritzen naiz hildako gaizoei gainerik lurra ematen.

Zerk bada mundu errebes huntan ez du emaiten beldurrik?
Nork ez du mundu trixte huneri noizbait eman bear agurrik?
Hor agerian ez dedin geldi gero neronen hezurrik,
neretzat izango ahal ote da emailerik eta lurrik?

Ez bego bertsu haukien gatik bihotz hori goibeldua,
gaia da hola etorri eta ni gai horrerik heldua.
Bainan badakit izango dela ahanztutzeko modua,
lur emateko laster baidator neretzat ere ordua.

Arnasa, hatsa

Usurbil, 1971.07.03

Antton Aranburu: Xalbadorrek hiru bertsu kantatzeko
gaia: arnasa edo, hauek esaten duten bezela, hatsa.

Xalbador:

Zeruan arkitzen naizela gaur iduritzen zeraut kasik,
Jaungoiko maiteari ez diot egiten otoitz hau baizik:
ez da Usurbil den bezain herri euskaltasunez aberatsik,
hau berriz ere ikusi arte ez bezaut eken arnasik.

Mundura jaiotzen gira bainan hau da bizimodu latza!
Nihundik ezin obra zakegu buruan dugun ametsa.
Jainko maiteak lur trixte huntan ezarri zun zorigaitza,
bertzek pozoinez betetzekotan zendako eduk arnasa?

Herria maitatzen jarduten det bihotza bete betean,
gauza asko hor ikusi arren nik gure guzien kaltean.
Eduk nezazu, Jaungoiko ona, gure Euskal Herri maitean,
hau bakarrikan baitut maiteko arnasa detan artean.

Xoria

Usurbil, 1971.07.03

Antton Aranburu: Bigarren parte hontako gaiak baditeke norbaiti raro xamarrak iduritzea. Alegia, nik gai hauekin ez nuke lotu nahi bertsularia. Nik emango diot, gaia ez, esaldi bat da; eta esaldi horrek bere barruan duan oihartzuna entzun ondoren hasiko da abesten bertsularia. Gutxienez bi bertso kantatuko ditu; eta hortik aurrera nahi dituanak. Xalbadorrenak honela dio:

Hegoak ebaki banizkio nerea izanen zen;
etzuen alde egingen.

Bainan honela ez zen gehiago txoria izango,
eta nik txoria nuen maite.

Xalbador:

Xoria gatik eduki det nik makina bat nahigabe,
ene menetik bere hegokin egin izan baitu alde.
Hegoak moztu izan banazkio etxian zegon debalde,
bainan nik xoririk ez det nahi hegoak berekin gabe.

Enekin ez zegon gostura ta ihes joan da gaizoa,
hain maite nuen bainan hola da: eskapatu zait urtzoa.
Hegoak moztu banazkio nik harentzat nuen altzoa,
izaitekotan xoria nahi nuen nik oso osoa.

Ametsa

Tolosa, 1975.07.12

Juan Jose Uria: Xalbador, zuretzat aukeratu dutan hitz hau da: ametsa.

Xalbador:

Ametsa asko egin izan det nik batere lokartu gabez,
bainan bardakoa lotarikan egina dut barda gauez
Oi zein ona zen atzoko gaua, dena izan baitzait amets!
Gizon guztiak eginak ginen guztiak elgarren babes.

Ai, amets horrek ez deraut eni ondoren onik ekarri,
bainan une bat bai zoriontsu igaro arazi neri.
Gero mundurat itzuli eta hoinbertze gauza lazgarri,
hobeko nuen amets hortarik inoiz ez banintz atzarri.

Lazkao-txikiren malkoeri

Donostiako *Karmelo Balda* pilotalekua, Lazkao-txikiri omenaldia, 1976.01.25

Joxe Mari Iriondo: Xalbador, bertsu bat, bi, hiru, nahi dituzunak, Lazkao-txikiren malkoeri.

Xalbador:

Grazia eman bekit zeruko Jainkoak,
onak izan ditezen nik botatakoak.
Gure Lazkao-txiki maitatutakoak
hunkiturik dauzka gaur bihotzain xokoak;
lasaitu, Joxe Migel, ixuri malkoak.

Aurrean ikusirik hoinbertze euskaldun,
negarra edo zerbait egin behar zendun.
Zure lagunok zonbat maitea zaitugun,
inoiz ez bazenduen senti edo entzun,
horra begien bistan froga non daukazu.

Ametsa

Zestoa, 1976.02.07

Joxe Mari Iriondo: Xalbador orain. Beharbada zuretzat ez da ona izango: bart arratseko ametsa konta dezaiguzun eskatzen dizut.

Xalbador:

Mundutik gora jasotzen nau ni ene zoriontsu naiak,
bardarratsean eginak ditut nik amets gozo alaiak:
alkartasun osoan gu bizi girela arreba anaiak,
ta alkartasun hori ikusirik etsi duela etsaiak.

Nehoiz atzari ez banintz hortik enetzako zen hobe,
amets ederrik munduan bada ai zein ederra nerea!
Zerukoaren gisa mintzo zen dener gure erregea:
gauden lasai, izanen zuela hemen bakoitzak berea.

Hori entzunez mundu guzia jarri zen ixil ixila,
hola bada ondorio hori laster gugana dadila.
Gorrotorik gabe ginen denak gordeak umil umila,
jaio berri hori goersten guk ahantzia ginun hila.

Mattinen omenez

Mattin eta Xalbadorri

Airea: Uxo xuria, errazu

Adixkide pertsulari hoberen eta maiteak,
neure bihotza deskantsatzen du pertsu batzu kantatzeak,
eta ere gehiago zuen zonbeit leitzeak.

Pertsulari hoberenak zuek, Mattin eta Xalbador;
nork ez zaituzte kantuz aditu noizpeit han hemen edo hor?
Hunaindi huntan ez baita zuer nausi denik nihor.

Ai, zer loria ni ere pertsulari sortu banintz!
Behar dudala kantuz ikasi, bai, deliberatua niz.
Zuen argi zonbeitekin treba baintake hainitz.

Iragan zaukun urtean, gure kazeta maitean
koblari asko egotu dire Mattinen pertsu guaitean.
Segur niz hasiko dela Bazko hoiek pasatzean.

Mattinek nahiko dauku gazteri eman kontseilu;
ez dakienak norbeiten ganik jakin nahi izaiten du.
Denen gostua dezake egin kantatuz bi pertsu.

Pertsulari gehienak bizi gare laborari;
sasoinak egin dauzkun malhurak oi zein diren izigarri!
Nihor ote da gu bezen trixtezian denik jarri?

Huntan akabo dut neure egungo kanta aldia.
Behar litake ongi sustatu gazte den pertsularia,
kantatuz ohora dezan aberri Eskual Herria!

Larreko
Herria, 1956.03.15

Mattini bi pertsu

Berri handi bat dut nik aste huntan jakin,
ximiko bat baiteraut bihotzean egin.
Mobimendua bazen nun nahi bozkekin;
kanpo gelditu zauku Ahetzeko Mattin.

Aurten asko lekutan bazen moda berri,
kostatu gabekorik guti baita herri.
Frango langile dira kanporat igorri,
nehor berexi gabe, xuri ala gorri.

Nik uste gure Mattin ez den hain gaixtoa,
atxikitzen ahal zen gizon halakoa.
Zertako da Ahetze fama handikoa?
Mattin koplari baita herri hortakoa.

Gaztetan guti dira pertsuetan ari,
ikasten ahal dute Mattin bat gidari.
Nor nahi beha daike haren kantuari;
zikinik ez da lotzen haren irriari.

Gizon handi bati da ardura gertatzen:
kanpokoek gorago dute estimatzen.
Aurten gure Mattini hori da gertatzen:
semetan handiena Ahetzek ukatzen.

Ahertzetik urrunxko han da Urepele,
herri hortaz denboraz erran baita ele!
Nor nahi izan zadin hango botzemaile,
Xalbadorri agertu dira begirale.

Xalbador kontseiluko du Mattinek kanpotik,
beren planak dituzte eginak engoitik.
Lehen kurutzaldian jinen naiz gogotik;
pullitik entzunen da bein hasiz geroztik!

Azken pertsu batean: zuk, Mattin, barkatu,
ez duzu nik erranez behar hasarretu.
Kontseiluko etzira Ahetzen pasatu,
bainan Eskual Herriak ez zaitu ukatu.

E. B.

Herria, 1959.03.26

Mattin Aheztarra

Airea: Izan naiz Barkotxen

Kanta zazu, Mattin,
boz oxen horrekin,
eskualduna dadin
liberti zurekin.

Goizean has eta arats arte berdin,
pertsu berri eta kanta zaharrekin,
zure konpañia denentzat atsegin!

In behar denian
besta bat herrian.
betiko usaian,
omore onian,

Mattin dugularik gure konpañian,
denbora badoa ohartu gabian,
besta bururaino da alegrantzian.

Jaun laboraria,
biribil, joria
eta kantaria,

mundu zabaliam kurri ibilia.
Jainkoak emana du dohain haundia,
bertsutan artzeko goizeko haizia.

Nahiz kanpañarra,
zeren lapurtarra
da gizon superra.

Baita balin bada eskualdun zilarra,
holako ainitzen ginuke beharra.
Biba pertsulari Mattin aheztarra!

Panpilli, *Herria*, 1966, 849 alea

Pertsulariak Parisen

Doinua: Mixel Larralderen kantua

Mundu hunek baditu laster hogoi mende,
ttipi ta handi bada iraganik jende.
Ez ttipi ta ez handi, ni ere hor naude;
norbait izaiteko da behar kalitate,
jiterik ez duenak ikastea hobe!

Primaderan xoria goizetik kantari;
iturri onetik da ura heldu garbi.
Nik ere zonbeit pertsu egun egin nahi;
maluruski ez banaiz sortu pertsulari,
barkatu hemen hutsak badira ihaurri.

Parisen igandean hiru pertsulari,
xapelketa batean behar zuten ari.
Aditzaileak ziren bakarrik jujari;
halako gudu batek biltzen du behari,
jende ainitz bildu da, eskerrak Jaunari.

Laugarrenak huts egin, bai, lastima baita,
esperantza ginuen Bizkaitik Enbeita,
eritasunak jorik jin ahal ez baita.
Diotenaz, semiak balio duke aita,
nik jujatuko baitut behin entzun eta.

Nork ez du ezagutzen Mattin Aheztarra?
Arraileriako da munduan bakarra.
Asetzeko're badu zerbaiten beharra,
tailak ez du egiten norbeiten indarra,
maleziaz bete du botatzen putarra.

Nun baita Mattin aipa han duzu Xalbador;
sekail aire bat badu, bainan ez da konkor.
Alkitik xutitzeko balinbada gogor,
pulikiño moldatuz zonbeit pertsu sarkor,
irina marazten du, hoi dezagun aitor.

Mugaz bertzaldetik zen jina Mitxelena,
lehoi bat bezain azkar eta botz gizona,
pertsutan ere segur alderdi duena.
Jaun Agirrerri harek agur ederrena,
hau konprenituz geroz ez zen ahulena.

Gudukatu ondoan, jenden bozak bildu;
punduz puntu jujatzen lanak eman ditu.
Gauza hortan behar da zerbait konprenitu,
bainan preferentziak bihotzak baditu,
hortako aldi huntan Mattin nagusitu.

Xuberoko mintzaira nik doi bat ezagun;
Etxahun bizi deno galtzetik da urrun.
Ezti eztia mintzo, boza beti legun,
bihotza hunkiz geroz laster iten lagun...
Holako koblaririk ez dut entzun nihun.

Agur eta milesker, jaun Hernandorena!
Zuk egin duzun lana ez zen errexena.
Zerbeit berri in nahi, hoi zure zuzena,
bainan nahi baduzu xapelgo xuxena,
bego entzulen boza, hobe da jujena.

Otoi ez juja pertsu hauk, irakur bakarrik;
zer erranen ote du gaixo Etchemendy-k?
Hura ixilik eta da mintzo hemendik...
ez ahal da gelditu afruntu harturik?
Aldi huntako aski, agur bihotzetik.

J. S. Herria, 1969, maiatzaren 26koa

Mattin eta Xanpun

Elgarrekin egun,
bat bertziaren lagun,
pertsutan tut entzun
Mattin eta Xanpun,
bi gizon xarmantak, balin bada nehun.
Gorputz eder eta arpegia legun,
eskualdun sorturik egoiki eskualdun.

Zeren hor sortu zen
Mattin da Ahetzen,
maiz kurri ibiltzen
pertsuen kantatzen,
besta egitia baitzaio gustatzen.
Behar den denbora nasaiki du hartzen,
gauza den lekuan errexxi laketzen.

Mattin, gizon gaitza,
oi, zonbat urusa!
Badu laborantza,
ibilki du ontsa.
Ontasan on hortan nasai heldu gauza:
mahats, ogi, arto, porru eta aza...
Ongi jan edanez artatzen gorputza.

Hasi ta ezin geldi
Xanpun da aspaldi.
Arrantzari haundi,
itsasoan gaindi
untzia badoa urrun zonbeit aldi,
arraina ekartzen nasai eta lodi,
freskuran ezarriz ez dadien fundi.

Asko herrietan
entzun tut frangotan
hoik argi pertsutan;
ostatu saletan
jendea biltzen da hoitara purrustan.
Alegrantzia da bihotz guzietan,
denbora pasatzen hor uste gabetan.

Hoik hola ikusiz
karkulan egon niz:
horietarik ainitz
sortzen ahal balitz,
Eskual Herria gora laite berriz,
besta ta omore denetan ezarriz,
hoiekin entzuten lorietan irriz.

Gizon hoiek biak
estimagarriak,
ongi ikasiak,
dohainez betiak,
xoratzen dituzte zahar ta gaztiak.
Hola ditueno jaun pertsulariak
bestak eginen tu Eskual Herriak.

Jean Pierre Zubiria, *Panpilli*.
Herria, 1970eko agorrilaren 27koa.

Mattinen omen egunean

Negu beltzean usai bereziz or Ahetzeko lorea,
euskal baratza apaintzekotan nun billa leike ohea?
Biotz biotzez opa dizut nik, lagun zar paregabea,
urte askoan gorde zazula gaur daukazun umorea.

Ainbat illunpe argitzeko zu dizdizka zauden izarra,
maitasun labe dezu biotza, ezpaiñetan irriparra.
Ain aundia da inbiri eta gorrotoaren indarra,
gaurko munduak badauka, Mattin, umorearen bearra.

Tentatzen dezu gizon gordiña eta berdin neskatilla,
denbora gutxiz bizkor kantatuz sekulako bertso pilla;
ate danentzat billatzen dezu komeni dan maratilla,
triste daudenak alai jartzeko, Mattin, zu zera mutilla!

Etenik gabe plazarik plaza or zabiltz jendea pozten,
parre txikirik zeuk utzi gabe bestiei egiñerazten.
Berez etorri bear du orrek; au zeñek ez du ikusten?
Zure alderdi on oiek, Mattin, ez dira dendan erosten.

Urte batzuek bizkar gaiñean baiña barrendik ain gazte,
zirikalari jostalaria, beti jolasaren eske.
Txarretik ezer ez dezu eta onetik neurriak bete,
orrenxegatik maite zaitu zu Euskal Erriak ainbeste.

Jardunak jardun zintzo ta sendo dakizu lagun irauten,
iritxitako toki danetan beti gizon erantzuten.
Nik ondo dakit ortako danak nola balio ez duten,
zuk bietara dakizu ondo: esaten eta entzuten.

Ai, Ahetzeko lore mardulak menderatu du negua,
usai gozotan kutsutu ere Donosti ta ingurua.
Noizpait irixten danean, Mattin, emengo azken ordua,
amaika pesta goxo jarrita utziko dezu mundua.

Basarri

La Voz de España, 1972.01.16

Zeruko Argia, 1972.01.23

Sortu zaizkidanak, Auspoa 112, 1973

Nere bordatxotik, 1992

Ahetzeko Mattin

O, Mattiñ biotz biotzekoa, zugana nator kantari.
al dedantxoa erantsi nairik laister dezun omenari.
Ta zer eskeiñi, ni ez bezela, doaiz betea danari?
Poz apurtxo bat berak ainbeste poztu oi gaituanari.

Amaika bider jarduna zera gure plazetan bertsotan,
ta ainbat aldiz zuri entzunaz murgildu gera gozotan.
Aspalditikan bagiñan ere omen bat egiñ asmotan,
begira nola Euskal Erriak artzen zaitun gaur besotan.

Umore onak ez ote zaitu, Mattiñ, zu bere jabea?
Bertso alaiak bizkor jaulkitzen zein da beste bat obea?
Bildurrik gabe baiña gizonki, txikia baiña trebea,
euskal arraza ondratzen dezun pikaro gaitzik gabea.

Danok dakigu sentimentuak azaltzen badakizula,
eta gai alai jostalariak ere maite dituzula.
Jakiñ ezazu zure irterak txit pozgarri zaizkigula,
ta zure gatz ta piperrik gabe xaltzarik ez daukagula.

Zure irudi irripartsua guretzat ain da xamurra,
algaraz nola baretzen duan gure kopeta zimurra!
Orretarako asko da entzun zure lenengo agurra,
Mattiñ, zu zera gure biotzak osten dizkigun lapurra.

Lagun artean apala zera, bertso saioetan berdiñ,
giza legea nola bear dan ondo dakizu zuk, Mattiñ.
Mundu koxkor au zure jardunak biurtzen du zeru urdiñ,
zorioneko aingerutxo bat sortu zalako Lapurdiñ.

Zurekin alai izan diteke bat noranaira joanik,
nola ez bada, zeran bezela, alaitasun uts izanik?
Eta gaiñera ez degu uste gure anai ez zeranik,
euskaldun bakar bat bai ote da zu maite ez zaituanik?

Mundu onetan bizi bearrak beti du zerbaiten arra,
illunaldiak ere sarritan dago igaro bearra.
Baiña zuk jarrai, Mattiñ, ixiltzen lagun urkoen negarra,
kezka askoren estalgarria nola degun irriparra.

Bakoitza bere arazoetan egon arren murgildurik,
gure biotzak ez daude beintzat oraindik oso zaildurik.
Laister gaituzu maitale danok zuregana urbildurik,
gure omena laztan eskeintzen an Donostian bildurik.

Artu ezazu bada biotzez gure omen maitekorra,
euskaldun danok opa bezela izan dedilla jatorra.
Euskal Erriak au egitea zuan oso derriorra,
ea onela ordaintzen degun guztiok dizugun zorra.

Inozentzio Olea

Zeruko Argia, 1972.01.16

Xenpelar saria 1972, Auspoa 111, 1972

Otemotxeko arnasa, Auspoa 173, 1984

Donostiako omenaldia

Donostia, 1972.01.16, Mattinen omenaldia.

Joxe Mari Iriondo: Hamahiru bertsulari dira eta bakoitzak lehenik agur eta omen egingo dio Mattini. Nahi baduzu, Lasarte, hasi zuk eta exerita zaudeten bezela segi.

Lasarte:

Jaunak egun on, atsegin da gaur zuen artean egona, badakizute omenaldi au Mattini eskeintzen zaiona. Urte askoan izan dezala pakea ta zoriona, au da Lasartek barren barrendik Mattini opa diona.

Lopategi:

Haunditu nahi zaitugu Mattin, ttipi, polit, atsegina, bertze aldean ernea baida sarri gureganat jina.

Ahetzeko pospolina,

Donostiko danbolina,

ta emakume jaio bazina duda gabeko sorgina.

Jose Lizaso:

Nolaz ez degu guk maitatuko or Mattin, gure laguna?

Orren ondoan oroitu gabe igarotzen da eguna.

Begiratu ta ezagun digu ez dala gizon illuna,

grazi aparta badauka orrek guk bestek ez daukaguna,

erdi illian gabiltzanak e parrez ipintzen gaituna.

Joxe Agirre:

Nai duen danak ez du izaten, ez, Mattinek duen grazirik, orrek ez baitu ezagutuzten tristuraren desgazirik.

Iñoiz ez diot nabaitu izan umorean eskasirik,

ori aparteko gizon bat dala nago pentsatzen asirik,

urte askoan birtute ori gorde dezala bizirik.

Lazkao-txiki:

Mattiñen berri badakizute, nik zertarako itzezin?
Alaz ta guztiz bere berriak goizin baditut utsegin.
Bera ezagutuzten duen batek maite duela dio fin,
biotz aundi ta umoretsua naiz gorputzez izan pittin,
anai bixki bat banu bezela biotzez maite det Mattin.

Xalbador:

Ai, Mattin, zure lagun izana bainaiz kantuan bostetan,
badakit beti ez dela murgiltzen tristeak diren gauzetan.
Umoretsua agertu beti arratsetan ta goizetan,
jarrai ba beti poza ezartzen euskaldunen bihotzetan.

Imanol Lazkano:

Mattin au zer dan ikusi gabe ezin diteke sinetsi,
tristurarikan, goibeltasunik orrengana ez da iritxi.
Gizonak nola degu munduan orrenbeste diferentzi?
Asma diteke orren gorputza zergatik azi dan gutxi:
biotza ain du aur da gaztea ta azten ez dio utzi.

Arozamena:

Gu bezelaxe euskaldun askok gaur Donostiko bidia,
lendik jakiñan nola baizan gaur Mattiñen omenaldia.
Gizon bezela jatorra da ta bertsolari dotoria,
danon artean gora dezagun Euskal Erriko loria.

Uztapide:

Bidasoaren arunztik gendun gizon bat etortzekoa,
zein izango ta or azaldu da Mattintxo Ahetzekoa.
Makiñatxo bat broma eder emen bere gisan jartzekoa,
aspaldi ontan egiña zuan egun onen artzekoa,
garaia zala iruditzen zait gizon au eskertzekoa.

Mitxelena:

Ardi guztien artean emen Mattin daukagu bildotsa,
beti bezela parra, irri ta gaur etorri da onontza.
Guk ere egin nai genioen maitasunezko aitortza,
ikusitzen du anai guztiak eskeintzen die biotza,
gaur badirudi emen degula gure Jesusen jaiotza.

Gorrotxategi:

Auxen da auxen omenaldia Mattiñi nekien truke,
egia esan, au baiño askoz geio merezi zenduke.
Au bezelako amar bat zine gutxiñez bear lirake,
Mattin maitatzen duten guziak etorriko balirake.

Azpillaga:

Bestek esana ia guztia, nik ez daukat zer esanik,
baiñan Mattiñi ematekoak milla zorion dauzkat nik.
Danak diote txikia dala, azten ez duela lanik,
berdin gabeko euskalzalea eta alaia izanik,
Euskal Errian ba ote iñor Mattin maitatzen ez dunik?

Txomin Garmendia:

Amabik aurretik kantatu dute, ni naiz amairugarrena,
jaialdi klase au Uztapidentzat izandua zan aurrena.
Urte banatan Xalbador eta Lasarte ziran urrena,
botoz alaxe erabaki ta Mattin degu laugarrena,
uste det egiten diogula ondo merezi duena.

Mattinen omenaldia

Airea: Ttiki ttikitik

Mila bedatzi ehun hirugoi hamabiko urtarrila,
sujet ederrak gogo barnean egun baderauzkat mila;
Donostiako besta ederraz nola ez dezaket bila?
Holako egun xoragarri bat berriz e gerta dadila.

Hamaseian zen delako erran dutan besta eder hori,
ordu artean nik ez nakien kobla zoin zitaken jori;
hamabi ziren Mattin agurtuz harat direnak etorri
omenalditan ederragorik egin duteia nehori?

Agurra egin ondoan denak kanpora ginen atera,
zombait denbora elgarrekilan ezagutzen egitera;
memento batez pertsulariak utziz ongi pausatzera,
bigarreneko hori finituz joan ginen bazkaitera.

Urbia deitzen den ostatuan eman dute bazkaria,
memento gutiz bildu da jende oste ikaragarria;
nasaiki bazen dener emana jana eta edaria,
oraino ezin ahantziz nago, hain zen estimagarria.

Holako egun ederrik ez dut ikusi sortuz geroztik,
miresgarri da nola jendeak entzuten tuen gogotik;
pertsulariak kantuz hastean denak ixilik albotik,
sagu bat ere entzun litake pasa baladi ondotik.

Bazkaldu eta jendetan bazen grazia eta omere,
pertsu maiterat deitu gaituzte eginez asko ohore;
erranez nola behar dituzten pertsulariak gero're,
Euskal Herriek izan dezaten orai bezenbat podore.

Orroitgarria enetzat hura, egun hartan egin dena,
lehenbiziko ikusi dutan omenaldi ederrena;
hori gertatu da Donostian, lapurtar seme batena,
Ahetze herri xoragarrian bizi zaukun Mattinena.

Mattin berari zor diozkat gaur ene partez goresmenak,
ez baitira, ez, nolanaikoak horrek egin dituenak:
Euskal Herrian tu kontsolatu zori txarrean zaudenak,
eta frangotan ahantz arazi bihotz askotako penak.

Hunek derauzkan sentimenduak baitira atseginezko,
holako baten beharra dugu etsenplu on emaiteko;
luzaz gazterik egon zaitela oraiko idai bereko,
zure dohainak bat egin gaitzan elgarren besarkatzeko.

Bizi hunetan izanik ere jendeak ainitz irrisku,
luzaz bizirik zaude agian, mundu huntan bada leku;
gure artean Euskal Herrian Ahetzeko Mattin Treku,
atseginaren zaintzale eta trixteziaren mediku.

23.01.1972

Jean Arrossagaray, Aintzile.

Egilearen andreak idatzi kahierra.

Herria, 1972.01.27.

Mattin Aheztarra

Airea: Ai, ai, ai, mutila

Berri on bat ikasi baitut egun hautan,
hola irakurturik kazeta hoietan:
Mattin izan zaukula ohore haunditan,
ai, ai, ai, mutila, Mattin Aheztarra! (*bis*)

Arrangoitz, Arbona ta bertzea Ahetze,
segidan Getaria, bai eta Bidarte;
itsasoa aldean eta Miarritze,
ai, ai, ai, mutila, Mattin Aheztarra! (*bis*)

Donostian in dute besta bat ederra,
ainitz pertsulari ta jendetze leherra,
ohoratu beharrez Mattin Aheztarra,
ai, ai, ai, mutila, Mattin Aheztarra! (*bis*)

Besta hortan ohore eta kunplimendu,
denen ganik Mattinek gaindika izan du;
prima ederra ere bere ganat bildu,
ai, ai, ai, mutila, Mattin Aheztarra! (*bis*)

Pertsu, kantu ta irri eta ixtorio,
bazkaltzeko denboran bazen bozkario,
denen ganik ukan du ainitz laudorio,
ai, ai, ai, mutila, Mattin Aheztarra! (*bis*)

Ahetzen sortu eta Ahetzen da bizi,
hor haunditu zen eta lanean ikasi.
Ontasun eder baten hor dago nagusi,
ai, ai, ai, mutila, Mattin Aheztarra! (*bis*)

Ederki apaindua xarmanteko jauna,
beti partitzeko prest hup arin arina,
denetan badabila nola pinpirina,
ai, ai, ai, mutila, Mattin Aheztarra! *(bis)*

Denetarik Mattinek segur badu galde,
pesta eder guti da iten hori gabe.
Guziak horri beha xoratuak gaude,
ai, ai, ai, mutila, Mattin Aheztarra! *(bis)*

Bazter orotan hola pertsuetan ariz,
gehienak jorratzen tu xehe eta larriz.
Gaitzak erraiten bainan oro beti irriz,
ai, ai, ai, mutila, Mattin Aheztarra! *(bis)*

Pertsulariak beti orai ta lehen
Eskual Herrian dira izan egundaino.
Bertze bat ba ote da hobe hoi baino?
ai, ai, ai, mutila, Mattin Aheztarra! *(bis)*

Gazterik ukan zuen pertsutan dohaina,
Eskual Herri guzian haundia du fama
irri inarazteko dela oberena,
ai, ai, ai, mutila, Mattin Aheztarra! *(bis)*

Denendako atsegin Mattin konpainian,
beti omere ona pertsua darian.
Luzaz hola aiko da oraino agian,
ai, ai, ai, mutila, Mattin Aheztarra! *(bis)*

Panpilli
Herria, 1972.03.02

Mattiñ bertsolariari

Iparragirreraren doiñuan

Aurten ilbeltzan amaseia bai gendula zoragarria,
esan ziteken loraz jantzita zegola Euskal Erria,
Egun ortan Donostin
zure omenez, Mattin,
jaialdi bat zan jarria,
zuri tokatzen zaizun bezela, benetan arrigarria.

Jaunak emanda badezu, Mattiñ, bestek ez duen almena:
ingurun biltzen diran guztiai alaitutzeko barrena.
Lendik ere banekiñ
nola zendun zeurekiñ
irriparrik gozoena,
naigabez dauden biotzak ere pozez jartzen dituen.

Oparitxoak artu ondoren asi ziñanen kantari,
biotza lertzen jarri zenien ango entzule danari.
Aiek negar malkoak
pozaren pozezkoak
irten zitzaizkigun guri!
Emen zenigun une goxoa guk nola ordaindu zuri?

Zer alaitasun ote zegoen, Mattiñ, zure barrenean
ikusirikan ainbeste lagun bildurik aldamenean?
Bostekoak batetik,
besarkadak bestetik,
maitasun ederrenean;
urte askoan jarrai olaxe pake ta zori onean!

Pedro Artetxe, Lasarte

Príncipe de Viana, 1972.04

Xenpelar-saria, 1972. Auspoa 111, 1972

Xalbador eta Mattini

Airea: Apexa eta lorea

Kantuak irakurri baiditut kazetan,
berri hau ikasi dut nik uste gabetan:
Mattin eta Xalbador direla penetan;
lausengatu nahi tut hemen biak betan.

Ezin haundia dela hoiien bihotz mina,
etxetik partiturik semetan lehena.
Horrela berextea da gauza samina,
zeren etxean baitzen leku hoiien dina.

Pertsulari haundiak Xalbador ta Mattin,
jendea jostatzen da beti jaun hoiekin.
Denetan alegera ikustiarekin,
nola pentsa zutela hoik bihotzean min?

Primaderan xoriak iten du kafia,
amodioz artatzen bere familia.
Gero umatu eta indarrez betia,
airetan partitzeko jiten gutizia.

Landa hegian eder gerezi ta eltxaur,
lehenago gazteak izan gu're guhaur.
Zaharren errana dut erreberitzen gaur:
umeak ez direla beti egoiten haur.

Bertzentzat atxemaiten errex kontseiluak,
horrek eztu sendatzen bihotz zaurituak.
Nahiz etxetik diren ainitz urrunduk,
oroi biak direla orai gizonduak.

Bihotza triste eta arpegia ilun,
semeak partituak etxetik hoin urrun.
Desira hau bieri, oi, egin dezagun:
laster meta dezaten hor zenbait miliun.

Batean pena eta bertzean malura,
guretako munduan hoi baita ardura.
Adixkide maiteak, ez trista sobera,
zuen semeak berritz etxerako dira.

Panpilli
Herria, 1974.08.08

Ahetzeko Mattin

Mutil gazte ttiki bat, boz fier batekin,
bertsu emaiten ari entzun nuen behin;
xori hori nor zagon bainuen galdegin,
erran zautaten zela Ahetzeko Mattin.

Kontrario bati so fermu eta segur,
ageri zuen etzen ez kexu, ez beldur;
errepustuia fite, zorrotz eta labur,
nahi zuena bake, nahi zuena samur.

Jadaneko Mattinen bertsutako karra
ohartu nintzen fite etzagola txarra;
bertsua heldu nola sutikan pindarra,
etzauzkatela eskas gatza ta biperra.

Nere zortia zer zen konprendi dezagun:
Euskal Herrietarik igorri nau urrun;
Mattinez oroituta halaik ere egun,
nere gogoa han da ta ez beste nihun.

Nik Mattin kusiz geroz pasaturik dago
mende laurden bat eta poxi bat gehiago;
ordian gazte ginen, bainan hortan bego;
haren berri jakinik plazerretan nago.

Ahal den bezala dut bildu *Ahal dena*,
liburu ttikitto bat Mattinek egina;
lehenago kusia gazte ta lerdena,
orai kaskoa zuri, eman deraut pena.

Lehen irabazia xapel bat polita,
kanpeon zen bertsutan, hura jauntzi eta;
galdua ote duen nago pentsaketa,
zeren kusten diotan burian boneta.

Anixko bertsulari badut aditurik,
bainan halere guti haren parekorik;
arno ona hobetzen zahartzen delarik,
Mattin ere hola da, ez daukat dudarik.

Entzun nuen gaztian berdin ona zela,
hegaldun horietan, bertsutan bezala;
neure buriari so, egin dut karkula
hortan ez doakela arnoa bezala.

Arranguran Mattinez pentsatzen arizan,
ikusteko plazerrik ez dezatan izan;
otoitz eginen diot Jaunari elizan,
elgarrekin zeruan biak ezar gaitzan.

Pedro Juan Etxamendy
Príncipe de Viana, 1975, I
California'ko bertsolari eta musikari, Auspoa 288, 2004

Mattin Aheztarra

Airea: Gazte nintzelarik

Kanta zazu, Mattin, boz ozen horrekin,
euskalduna dadin liberti zurekin.
Goizean has eta arats arte bardin,
pertsu berri ala kantu xaharrekin,
zure konpainia denentzat atsegin.

Ahetzen sortua, berapenekua,
apal gelditua, haundi talendua.
Ontasun ederra badu nahikua,
horren artatzeko gaitzeko gostua,
hor aise bizi da Mattin Ahezkua.

Jaun laboraria, biribil joria,
da pertsularia eta kantaria.
Mundu zabalean kurri ibilia,
Jainkoak emana du dohain haundia,
pertsutan artzeko gaitzeko aisia.

Zeren den plaxenta etzaio inporta,
nun nahi den besta hori beti presta.
Ezin akitua pertsu ala kanta,
behin hasiz geroz ezin da arrasta,
holako gizona nundik ezin maita?

In behar denean besta bat herrian,
betiko usaian, omore onian,
Mattin hor delarik gure konpainian,
denbora badoa ohartu gabian,
besta bururaino da alegrantzian.

Gonbita ukanik, hoi beti kontentik
partitzen etxetik, golkoa beterik.
Horren omoreak ez baitu parerik,
zahar ta gaztentza badu denetarik,
irriz asetzeko ez dago hoberik.

Hortz eta agina maite du mahaina,
jan eta edana, apetitu ona.
Bestan iganik e gau eta eguna,
segidan airoski baderama lana,
lan ona iteko gaitzeko fazoina.

Betea talenduz, erne izpirituz,
beti bardin gostuz ariko da kantuz.
Nor nori dohana xarmanki moldatuz,
batian lauda ta bertzean mendratuz,
zirto batzu gaitzak artetan botatuz.

Pentsu ta karkula aspaldi zuela,
ainitzek bezala muntatu familia.
Andrea atxeman berak behar bezala,
emazte xarmanta prestu eta ixila,
bertze bat hoberik ez dakit badela.

Nahiz kanpañarra zeren lapurtarra,
da gizon superra, gorputzez gotorra.
Batto balinbada euskaldun zilarra,
holako ainitzen ginduke beharra.
biba pertsulari Mattin aheztarra! ¹

Panpilli

Herria, 1975.07.17

¹ Hamar bertsu hauen aurretik eta izenburu berarekin, badu Panpilli delako hunek beste sail bat, lau bertsuakoa. Hango 1, 3, 2 eta 4 bertsuak hemento 1, 3, 5 2 eta 10gnak dira.

Mattin nigarrez ikusi dut

Gure Mattin ezagutzen duten guzier, nik uste, hartaz orroitzeak berak irria ekar arazten diotela; ezpainetaraino ez bada ere, bihotzerat segurik. Berak ezpainetan irria du beti, eta mihian ere irri gaia. Hola agertzen zauku beti Mattin.

Bainan hola jokutzen da guri atsegin egitea gatik, nehon min hartzen ez balu bezala. Aski estimatzen ote dugu gauza hori? Bainan Mattinek ere baditu bere zauriak, eta horietarik batean jo zuen behin Aranalde apezak Añorgan, galdegin zio-larik Pariserat joana zuen semeari hiru pertsuren kantatzea.

Ni gibelean nintzan; ez nuen Mattinen aurpegia ikusten. Bainan ohartu nintzan etzezakela kanta; uste nuen zintzurrean zuela zerbait traba. Ba, egiaz traba zuen: bihotza eta zintzurra hestutzen ziozkan gainditu zitzaion nigarrak.

Horra Mattin, gure ustez bihotz sendoko gizona, haur bat bihurtua!

Gutik egin zuen nihaur ere ez bainintzan nigarrez hasi. Hainbertzetaraino ikutua nintzan.

Biharamunean berean egin nituen *Mattin nigarrez ikusi dut* deitu nituen pertsuak.

Horra ere hemen Mattinek zertsu kantatu zuen gai hortaz. Bainan ez da errez entzutea nigarren artetik datorren kantua, eta ez ditaizke ongi hartuak. Zerbait holatsuko izan behar zuten, eta Mattinek barka dezaukula huts zerbaitekin agertzen badira.

Xalbador: *Odolaren mintzoa*

* * *

Aranaldek: Zuek ez dakit badakizuten, nik bai: Mattinek seme bat du eta seme hori Parisera joan zaio; lan beharrez edo, behintzat etxetik Parisera joan da. Ta nik nahi nuke Mattinek seme horri hiru bertso kantatzea.

Mattinek:

Oraintxe gaia etorri baitzait hemen neri bat batera,
hala beharrez, nere semea, hi juan haiz Parisera;
bainan aitaren esan hau beti hartu behauk bihotzera:
urte batzuek hor pasata're etorri behauk etxera.

Nik bazakiat hi ez haizela Parisa joana gogotik,
pena haundia huen partitzia ait'et' amaren ondotik,
bainan bizitzeko gizonak asko ikusi behar dik;
hire bihotza bein ez urrundu hik, otoi, Eskual Herritik.

Herri txikitik partitua haiz Parise herri haundira,
ait'eta ama haretxetikan hor zaudek hiri begira;
urte batzuek hor pasata're Parisen itzul ta bira,
ait'amengana etor hadi ta lenbailen Euskal Herrira.

* * *

Mattin, zu atzo arte irriaren giltza,
gaur euskal mingainetan kurri zabiltza;
izpiritua duzu argi ta zorrotza,
jend'artean omore pitzarazle gaitza;
 gainerako gauza
 ginaukazun hotza,
 zure nigar otsa
 ginuen arrotza;
atzo ikusi dugu zure bihotza.

Atzo ere zinuen arrai aurpegia,
eman dautzuten arte sujet berria;
harek zaitu ezarri galdurik irria,
nigar bero batekin bustirik begia;
 ixtripu guzia
 zagon ikusia:
 zure sarraskia
 zutela hunkia,
gorderik zineraman zauri bizia.

Aranalde apezza gai emaile fina,
hark dautzu jauz arazi nigar zotina;
semeaz kantatzea zautzun galdegina,
nola Paris alderat dautzun aldegina;
 ez bada burdina,
 atzotik aintzina
 daukate jakina
 zonbat den samina
seme urrunduairen aitaren mina.

Mattin, ni ere nauzu naigabeen lagun,
nola biek semeak urrun ditugun;
Jainkoak berak daki nor garen hobendun,
ala guhauren faltaz urrundu zauzkigun;
 hola gau ta egun
 egon gabe ilun,
 aztertu dezagun
 joan aintzin hoin urrun
hartze zuten laguntzik eman diegun.

Horra, ikusten duzu, etzira bakarrik,
zama hau har dezagun bi aldetarik;
bainan, laguna, otoi, ez egin nigarrik,
gure semek ez dute tristura beharrik;
ez dute hargatik
desterru hartarik
ahazten aitarik
ez eta amarik;
urruntzeak hortako ez du indarrik.

Ez dezagun eduki horrenbertze dolu,
semeak itzuliko baitzerauzkigu;
herria ez uzteko hoinbertze aholku
gure kantaldietan emanik badugu;
uda eta negu
euskal semer oihu
egin diotegu;
zer medikuak gu
gaitza etxean sartzen balitzerauku!

Euskal haurrak etxetik urrun joaitea
da mendeak dakarren ezin bestea;
jakinik baduela zorion partea,
hura ezin bilatuz dabila gaztea;
gure gizartea,
herria, etxea,
semetaz hustea
zer gauza tristea!
Urrikal zakizkigu, Jainko maitea!

Atsegaberik baizik ez dago munduan:
ait'amek ezin beira haurrak onduan,
urrundu denak berriz herria goguan;
errazu zoriona non dagon orduan;
 lurreko guduan
 gaiten hau buruan:
 aintzin alde jua
 sineste fermuan
saria badaukala Jaunak zeruan.

Xalbador

Odolaren mintzoa, Auspoaren sail berdea, 1976

Odolaren mintzoa, Auspoaren sail berdea, 1989

Odolaren mintzoa, Auspoa 290, 2004

Mattinen omenaldia Miarritzen

Mila bederatzi ehun eta hirur'hogoi t'hamazazpi,
euskal omenaldi bat aipatu nai nuke partikulazki.
Aheztar Mattin koblariari ertea ez laike gaizki:
zor diogun estimuarentzat ez da egin besta aski.

Gauza bat ongi hantxet entzun dut berak bertsutan erranik:
kasu hoietan agertzen dela maitale ainitz badenik...
Etzaut batere iduritzen hor gauzak dagotzin zuzenik,
Euskal Herrian ote da Mattin maite ez duen gizonik?

Aldiz *Euskal-Jai* barne hortako jendea kusi ondoan,
Miarritzen ez zaut kanbiatu lehen nuena gogoan.
Iparraldean euskaldungoaz ez gira arta beroan,
barnea ongi beteko baitzen izan balitz Gipuzkoan!

Jende gutixko izanik ere bazuen koblari lagun,
sasoin gaitzeko bertsulariak denak baitziren ezagun.
Han egin dutan pentsaketa hau gogoan dut berriz egun:
bertsularitzak gure euskara salbaraziko deraukun?

Bertsularitza agertu zeraut arras joko kuriosa,
eta Mattinek joko zail hori beretua dauka ontsa.
Gure hizkuntza maitearentzat zer zerbitzu baliosa!
Bertze mintzairek aldiz galdua dute bertsulari hatsa!

Zure omere on hori, Mattin, zeraut hain estimagarri,
Euskal Herrian egin arazten baituzu hameka irri.
Zu bezain gizon atseginik ez kusten karriketari kurri,
bertzer emaiten duzun plazerran hartzen al duzu hazkurri?

Zorigaitzez hor badira ainitz, Baionan ta Miarritzen,
euskaraz eta zure dohainez ez dakite baliatzen.
Bertsuzaleek bide on hortan jakin bezate segitzen,
besta berri bat zuri eskainiz bainan bertzean Ahetzen!

Fermin
Herria, 1977.07.14

Ahetzeko Mattini

Bihotz atepak zabaltzen dira nahi bada hitzarekin,
sua iduri muga guziak erretzen ahal harekin.
Bertso itea on dela beraz aspaldi danik dut jakin,
hortakotz nik e bide berdinak hartzen ditut lumarekin.

Bertsolaritza ari zerauku urte hotan aberasten,
xaharrekin bat gazteak ere hor dira bipilki hasten.
Aska hitzaren mezulariak baititut beti miresten,
lehen bait lehen abiako naiz Mattin Trekuren goستن.

Lapurdin daude herri pollitak, bai eta ezagutuak;
hemengo ziren itsas errege deitu lapur famatuak.
Larrun gaisetarik aditu dira laminen soinu kantuak,
zeren Ahetzen Mattinek ditu erro ta toki hautuak.

Gur'Euskal Herri menditsu huntan ba dira leku trixtiak,
bainan Lapurdin holako guti lagundurik eguzkiak.
Urrungo bixta, pentze, mahasti, zonbat bihotz pitzgarriak!
Pozetan diot: «Nolako toki ta halako nagusiak!».

Bertso milaka Xalbadorrekin gure Mattinek eman du,
haren gogo zoin samurrarekin arras ontsa zen konpondu.
Izanik ere hain desberdinak bien artean ez zen mundu,
Xalbador atzo zendurik eta Mattin zauku alargundu.

Kanta zuk, Mattin, oraino luzaz zure boz ozen horrekin,
euskaldun haurra jostatu dadin irria ezar errekin.
Bestak omere ta arrakasta du Mattinen bertsuekin,
izpiritu bat erne ta bizi denentzat baita atsegin...

Euskal Herrian Mattinek ez du nehoiz izan, ez, parerik,
bai dohainaren aldetik eta bai hoin ttipi gelditurik.
Zahar ta gazten, haur emazteen, ba du denen denetarik,
irri'turria heldu da beti Mattinen ezpainetarik!

Mattinek baitu bere bertsotan botatzen euskal oldarra,
hura iduri hamar bederen baginduke guk beharra.
Biba zu, Mattin, bertsolaria! Biba Mattin Aheztarra!
Gaur segur gira biziko dela lerden ipartar abarra...

Itxaro Borda
Herria, 1977.07.21

Ahetzeko omenaldian

1978ko apirilaren 30ean

Mixel Itzainak: Orai bertsulari guziek bertsu bat kantatuko dute Mattini.

Azpillaga:

Jendea ainitz izango zela, emen ez da jende faltik.
Mattin zer degun jakiña dago juan daneko aspalditik.
Jira galanta egin da gero Ahetzen nago Bizkaitik,
Parisera ere juango nintzen Mattin besarkatzeagatik.

Lazkano:

Mattinentzako gure biotza ta berdin gure mingaiña,
omenaldi au izan dedilla lan luze baten ordaiña;
omentzen dana eta erria txikiak dirade baiña
txalotutzeko gaia badute beste aundi askok aiña.

Ezponda:

Berrogoi urtez badu lan ainitz eginik,
irriaren aldera aitu da maizenik;
zazpi probentzietan ez da eskualdunik,
Mattin bertsulariaz deus ez dakienik.

Agirre:

Beren neurrian dirade onak bai poza eta bai pena,
nere kristauak, gaur ez al dago geiegizko txoramena?
Biotza daukat pozaren pozez bere onetik ertena,
Ahetze onetan noizpait sortu zigutena,
ezagututzen duten guziak benetan maite dutena.

Lazkao Txiki:

Gure Mattin au txikia danik iñork ez dezala uste,
txikia balitz toki au nola bear zun oinbeste bete?
A, Ahetzeko gure laguna euskaldun guziak maite,
aingeru baten doai guziak berak baditu nunbaite,
arrosatxoak eguzkiaren antzera maite zaituzte.

Jose Lizaso:

Aterpe ontan alkartu gera gure zazpi probintziak,
ni bezelaxen Mattin ttxikia agurtzera etorriak.
Or ikusten da zenbat maitatzen dituan Euskal Erriak,
gaur ez daduka milagrorikan eiterik bertsolariak,
Mattinengatik erranak daude erran litazken guziak.

Egileor:

Ogei ta zortzi urte badira Mattin ezagutu nula,
zuretzat geroztik maitasunik nik ez det galdu sekula;
gorputz txikiko gizona baiño memoriz oso mardula,
Jaun Zerukuak urte askuan olaxe lagun deizula.

Hori aitortu behar zen

Ahetze, Mattinen omenezko jaialdia, 1978.04.30, hona Xanpunek bere lagunari kantatu bertsuak:

Ez zakienak jende maiteak orai bederen badaki:
zerbeitetako Jaunak eginak gaitu haundi eta txiki.
Mattinek deraut nere gaiaren bidea orai ideki;
uli txikiak mando haundia Ahetzen zuen ausiki
eta gainerat aurdiki.

Aitor dautzuet konparazio gisa dugula hau hartzen.
Ez al zarezte, anai arrebak, egun zuek hor ohartzen?
Mattin ttipia dugu alturaz, bizi zaukuna Ahetzen,
gaur ez ote da gizon ttipia haundien hura agertzen?
Hori aitortu behar zen.

Mattini

(Omenaldirako eginak)

Airea: Oilarra kukuruka...

Otoitz egin dezagun Zeruko Aitari,
beha zagus lurrerat gaur euskalduneri;
bihur dezagun ospe Mattin maiteari,
Jainko graziaz baita sortu pertsulari.

Pertsu bat kantatzea egun da komeni,
ohore egiteko Ahetzen Mattini.
Nahi diogu egun eder hau eskaini,
horren axkiden hatsa ez baita, ez, fini.

Ahetzeko herrian zer bestaburua!
Pertsularientzat da gaur hemen zerua.
Erdian dugularik Mattin aingerua,
zorionean dago gure ingurua.

Euskal Herrian badu Mattinek ezagun,
oi zer andana garen hunat bildu egun!
Gure lagun haundia gaur gorets dezagun,
pertsutan ar litake, Mattin, gau ta egun.

Agian ainitz urtez berriz Ahetzera
gu etorriko gera Mattinen aldera,
kantatuz: «Gora Mattin, bai eta euskara,
gora Ahetze eta Eskualtzalen Biltzarra!».

30.04.78

Larreko

Herria, 1978.07.06

Zorionak, Mattin

1978an egin zioten Mattin ttikia baiña bertsolari aundiari Ahetze bere errian omenaldia. Bolara artan naiko ondoezik nenbillen, eta ez nuen izan joaterik bertara, baiña *Goiz-argi* aldizkarian bertso auk bialdu nizkion egun ortan bertan. Bai eskertu ere egin zizkidan benetan urrena ikustean.

Baldin egiak badira beintzat entzun ditugun berriak,
Mattin Trekuri badatozkio ordu gogoangarriak.
Danen aurrean azaldu nairik maitasun ezaugarriak,
omenaldi bat eskeintzen dio Ahetze bere erriak.

Erria zutaz oroitzeakin etziñan gutzi poztuko,
ta poz geiegik zure bizia ez al du beintzat moztuko.
Zureganako maitasunikan etzaigu iñoiz oztuko,
euskera bizi dan arte zure izenik ez da aztuko.

Maitasunaren ezaugarri dan betiko irri-parrean,
azaldutzen da gizon au beti gozotasun ederrean,
gorrotoaren kabi beltza dan gizarte onen aurrean.
Ez ote gaude onen antzeko geiagoren bearrean?

Euskaldunontzat atsegin dira, Mattin, zure umorea
eta biotzak alaitutzeko dadukazun adorea.
Iparraldeko euskaldunentzat aintza eta ohorea,
Egoaldetik gaudenontzako orko enbajadorea.

Zorionean azaldu ziñan egun batean Zarautzen,
bitartean nik entzutez baizik etzintudan ezagutzen.
Zer arratsalde zorionsua, etzait beiñere aztutzen,
geroztik emen zabilta gure biotzak bertsoz poztutzen.

Nori etzaio gogoko, Mattin, zu bezelako laguna?
Zein atsegin dan zure ondoan igarotzea eguna!
Zirikalari egokia ta kantuz eztarri leguna,
negu ta udara zimeltzen ez dan lore usai gozoduna.

Bolara ontan gaixo antzean arkitzen naiz osasunez,
orregatikan nere agurra ez dizut emango itzez.
Neronek ala nai izan arren ezin egon or gorputzez,
baiña sinistu zure ondoan nadukazula biotzez.

Egun eder bat igarotzea opa dizut nik batetik,
luzaro orain arte bezela jarraitutzea bestetik.
Maitasunikan jatorrenean bialduak Lasartetik,
artu itzazu milla zorion Urdanetaren partetik.

Pello Artetxe “Urdaneta”
Lasarte

Mattinen omenaldiaz

Airea: Zerua eta lurra egin zituena

Primader' apirilain hogoi ta hamarra,
laudorio ohore, Mattin Aheztarra.
Zu zaitugu euskaldun guzien izarra;
zu bezalako ainitz ginuke beharra.

Irria ezpainetan zer gizon xarmanta!
Omore emaiteko hoberik ez baita.
Boza oxen batekin pertsu eta kanta,
plazer du egitia Mattinekin besta.

Gazte gazte zelarik pertsutan hasia,
geroztik hunat badu ainitz ikasia.
Jainkoak emanik du dohain berezia:
pertsuen moldatzeko gaitzeko aisia.

Urrun hedatua da gizon horren fama,
kurritua ere du mundu gehiena.
Ameriketan ere doi bat da izana,
laguntzat zuelarik jaun Xalbador zena.

Euskaldun sortu eta euskaldun egonez,
euskara lagundu du pertsutan aizanez.
Zerbitzu egilea beti bihotz onez,
hortako dago Mattin maitatua denez.

Andrea hartu zuen arpegi xabala,
emazteki prestua, bai behar bezala.
Ez du, ez, ene gisa, haundia familia:
seme bana bakotxak doi doia dugula.

Labeguerie jauna ta jaun kalonje Lafitte,
biak mintzatu zaizko bihotz bihotzetik.
Ezagutzen dutela aspaldi badakit,
zenbait urrats eginik hoikien ondotik.

Nonbre haundian ziren jaun pertsulariak,
muga bi aldetarik horrat etorriak.
Trenpu gaitzean ere batzu ta bertziak
ateratu dituzte zazkiten guziak.

Eskualzaleen biltzarra, Ahetzeko herria...
Aspaldian besta hoi zuten in nahia.
Hortarat bildu dira zazpi probintzia,
Mattini emaiteko merezi saria.

Hiru eta lau, zazpik batto egin nahiz,
Mattinek kantatua dauku ainitz aldiz.
Atxikimendu hori dener erakutsiz,
urrundik etorria bazen jende ainitz.

Errespetu, ohore eta bozkario,
horrentzat egun bazen ainitz amodio.
Ene bihotzak ere hau erraiten dio;
aintzina segi dezan zahartu artio.

Euskal Herriak zaitu egun ohoratu,
ongi egin guziak betan sariztatu.
Amodioz ni ere nahi naiz juntatu,
kantu xume haukien bidez besarkatu.

Panpilli
Herria, 1978.05.11

Gora Mattin!

Agur eta ohore, Ahetzeko Mattin,
zerbait erranen dizut nai baduzu jakin.
Egun handia nuen zure omenakin,
esplikatuko dizut patxara onakin.

Zure omena eta nik egun handia,
horren konprenitzeko prest ote jendia?
Lehenez bixita dut ifartar sendia,
amentsak ere inoiz bihurtzen egia.

Promes egin da nengon, kezkatu alare,
txorien atzemaiten dago hainbat sare.
Betiko ote nintzen promes hitzen jabe,
muga igarotzea pasaporte gabe.

Oraingo irabazi dugu apustua,
betiko behar luken sententzi justua.
Kendu dute lehen zen lege txar prestua,
euskaldunok genduen ataka estua.

Pasaporte behar zuen euskaldunak,
Euskal Herrian zehar ibili nahi zunak.
Euskaldun batentzako zer kontu ilunak!
Orain gabe bagabiltz harat eta hunat.

Hego eta ifarrak Ama baten haurrak,
hesiaz banaturik zer une makurrak!
Hori jasan izan du Euskal Herri lurrak:
baimenaren menpean anaien agurrak.

Baina ni zer ari naiz nire kantuakin,
zu aipatzea ia ahantzirik, Mattin?
Nik zer sentitu nuen behar duzu jakin,
Ahetze utzi nuen pena handiakin.

Meza nagusi eder bikain dotoriak,
Ahetzeko elizan denak kantariak.
Baziran txistulari eta dantzariak,
Hego aldetik berriz huts bertsolariak.

Horretxek eman zidan halako tristura,
nolabait hausten zuen han zegon bilkura.
Naiz ta zuk ez agertu horren errenkura,
etzenduen merezi, ez, hutsune hura.

Festa antolatu zen zure omenetan,
ondo merezitako gauza bat benetan.
Irripar txit gozoa zure ezpainetan
esker onez agertzen zendun ordainetan.

Jende gehio zugana bildutzerik etzen,
hainbeste automobil bide ta saietsen.
Horixe erraten zen batean ta bertzen:
«Hau da kristau pillua dagona Ahetzen!».

Gerora agertu zen bertsolari frango,
bertso ederrik nola ez gendun entzungo?
Agur Mattin lehenez, Ahetze urrengo,
berriz elkartu arte gauden denok ondo.

Xanti Zabala "Lexo"
Zeruko Argia, 1978 maiatza 21

Ahetzeko bertsolariari...

Galdeka nago bertso ederrak nola dituzten moldatzen,
iduri dute hitzarekila ari direla jostatzen.

Nereendako goiko laguntza belauniko dut galdatzen,
zeren segurki poesia zait asko izerdi gostatzen.

Horiatarik bat deituko dut, hoberena da Lapurdin,
bai eta ere dohain osoaz lehen lehena Euskadin.
Haren bertsoek gure zerua begiratzen dute urdin,
Mattinek errauts bihurtzen baitu inguruetakoko burdin.

Gaurko munduak egun dakarren tristura nekeaz nahas,
arima zati bizi nahia euskaldunek dugu eskas.
Beraz guziak gero gintazke bertsolari mailean has,
Ahetzen sortu den Mattinekin badugulako zer ikas...

Ahetze, zure bezalakorik lurrean zear al daite?
Ardura ez da bati gertatzen holako haurrik emaite.
Euskal Herrian hor urgulutan oraindaniman sar zaitte,
beldurrik gabe derrautzugula: «Ahetze, zaitugu maite!».

Larrun gainean aditzen dira sorginak eta laminak,
zauriturikan ura begian, bihotz barnean suminak.
Baina betiko Mattinek egun euskal herri bizi minak
sendako ditu, goxa araziz guzien auhen saminak.

Gorputzez ttiki dela, orde haundi haundi du bihotza,
irri bertsoak urt baitlezake mendiko elurren hotza.
Mattinek gorde nahi digun min hura ez zaigu arrotza,
gaur zure botza izan dadila gure ezpata zorrotza!

Nun dabil orain Urepeleko Xalbador, bertso artzaina?
Zu, Mattin, egon zare alargun bakarrik haren ordaina.
Xalbadorrek du edertiz jantzi euskararen buru gaina,
zuk aldiz eman diozu behar beharrezko zuen zaina.

Garbi da garbi alor berdean pausatu den goiz ihintza,
gauetik dator ur horren pare gure askapen agintza.
Denak batera gogo indarrez has dezagun herrigintza,
Mattinekilan segituz beti bertsolarien egintza.

Zu, Mattin Treku, iparraldeko irria eta negarra,
hego hatsean zuetan gorri gorria dagon sugarra.
Udaberrian zuregaitan gure arbola zaharra,
sapa biziaz muskildu zaigu: ez da legortu abarra!

Itxaro Borda
Maiatza 1
Herria, 1978.06.01

Mattin bertsolariari

Omenaldi sutsua egin zitzaion Mattini Oiartzunen, 1981.06.07an.
Hari zoriona ematearren, bertso hauk moldatu zituen Uztapidek

Gaur omendutzen degu Mattin Aheztarra,
denbora baten etzan bertsolari txarra.
Abots onekua ta memoriz azkarra,
gaur ezbear batekin bajatu indarra,
bestela oraindikan ez da gizon zarra.

Lenbizi ezagutu giñan biok Beran,
geroztik beti kezka nola ote zeran.
Garai artan bertsuak giñuzen aukeran,
jarritzen giñanian bear gendun eran;
ez dakit ontaraño nola jetxi geran.

Sarri entzun ditut nik, Mattin, zure sonak:
gutxi txarrerakuak, geienian onak.
Gu sarri alkarrekin pozikan egonak,
ortarako doaia bear du gizonak.
Beragatikan artu nere zorionak.

Manuel Olaizola, Uztapide
Oiartzun urtekaria, 1982
Berriz plazara, 2001

Oiartzungo omenaldian

Oiartzun, 1981.06.07, Mattini omenaldia Gipuzkoako bertsozaleek. Bere bertsuetan ageri denez, Xanpun berandu samar heldu zen saiora, Parisetik zuzenean zetorren eta. Halere, hunako bertsu hunkigarri hauk kantatu zizkion Mattin bere lagunari.

Paris aldetik, aitor dautzuet, ez naiz nai orduko jautsi;
eta segidan Oiartzunerat etorria naiz ihesi,
denek bezala Mattin maitea nahi bainuen goretsi.
Zoin maite dugun Oiartzun huntan nai diogu erakutsi.

Barkatu, otoi, berant aidean badut gaur hemen erantzun.
Bai, bihotzetik mintzo naiz eta, Mattin maitea, hau entzun:
ikusten duzu zuk inguruan zonbat haurride daukazun.
Hau moldaturik ere eskerrak aitor dautzuet, Oiartzun.

Oiartzungo omenaldirako

Omoreak Oiartzunen baldin badu oihartzuna,
zuek guztiekin dago Alkaten iluntasuna.
Ezin bertzeak hartze du gaur zordun baten maitasuna,
goretsi nahi baitut nik ere Mattinen handitasuna.

Mattinek axal gutti du bainan nasaia da mamiz,
gorputz nekatu batean bihotza du beti irriz.
Zenbat euskaldun poztu dituzu itxaropen eta argiz,
eguneroko kezka guziak omere onaz estaliz?

Agur, hegoko anaiak, agur Mattin maiteari,
guri geiegi emanik pentsa dezala berari.
Jaunak luzaz begira dezan bere xokoan kantari.
Euskal Herriak hartu guziak itzul ditzan etxeari.

Mattini Oiartzunen egin omenaldirako
Ernest Alkatek igorri bertsuak.

Hileta elizkizuna

Ahetze, 1981.07.25, bertako plazan egin ehorzketa.

Apez jaunaren hitzak liturgiaren barnean:

Hain maite ginuen Mattin aheztar bertsulariak biltzen gaitu plaza erdian, aratsalde huntan. Zonbat eta zonbatetan ez gaitu bildu egun arte, eta bere bertsuez eta kantuez argitu eta alegeratu! Bainan egungo biltzarre hau ez da bertzeak bezalako. Mattinen alderako amodioz bilduak gira, ahal bezenbat gure tristezia agertu gabe, huni afrunturik ez egiteko. Bainan bilduak gira egun otoitzako. Berak urte berriz irratiaren bitartez eskualdun guziori galdatzen zuena guretzat galdatzeko: zoriona eta bakea. Bai, betiereko zoriona hil honi, otoi, eman Jauna.

* * *

Dugun otoitz egin: Jesus Jauna, ikusten duzu gure nahigabe ezin jasan ahala, ez dugularik onartzen ahal ere Mattinen hola joaitea, Zureganat itzultzen gira. Zuk ezagutzen baigaituzu eta Zuhaur iragan baitzira konpreni ez ditaken kurutzeko heriotzean barna. Egizu konpreni dezagun zure amodioaren aberastasuna. Heriotzetik eramaten baigaitu bizirat menderen mendeetako.

* * *

Apez jaunaren predikua:

Haurrideak: Ez dut erran beharrik, denek badakigu Euskal Herrian, Lapurdi, Baxenabarre, Xuberoan, Bizkai, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoan, orotan ezagutua, aditua, aipatua eta maitatua zela Mattin, gure bertsularia.

Hemen diren apez zonbaitek erran lezakete, nik baino hobekiago, nor zen, nor izan den gure Mattin. Iduritu zaiote herriko apezari zela ehorzketako mintzaldiaren egitea. Hemen Euskal Herritik, Euskal Herriko zazpi probintziatarik etorriak diren guziek barka dezatela, beraz, orai erran gogo dutenaren eskasa.

Bertzalde, meza ondoan bertsulariek aipatuko dute Mattin zenaren omore ona; haren trufa polita; eta ahantzi gabe haren dohain eta bihotz aberatsa. Segur bere adixkide bertsulariek zor diotela azken agur baten pereka.

Jadanik berek ekarri dute honaraino; berek eremanen dute azken egoitzaraino, Mattinek berak galdegin bezala. Segur gogo onez onesten duela hoin maite zituen bertsularien ganik azken urrats horren goxoa.

Harrietan sortua, duela hirurogoi ta bortz urte. Ahetzen baitaiatu eta komuniatua; Ahetzen ezkondua. Beti Ahetzen bizi izan da. Hemen pausatuko da bere aitama eta adixkideen ondoan. Zoin maite zuen sorterrria, Ahetze maitiarentzat eman izan dituen bertsuetarik ageri da. Hona hetarik bat:

Jiten direnean hiritar kanpokuak,
mezan kausituta dagotzi harrituak:
eliza kantuak
eta predikuak
guk euskarazkuak.
Segi, mutikuak,
fede haundikuak,
lagunt gaitzan Jainkuak

Euskalduna zen Mattin sortzez eta hitz eta ere odolaz. Maite zuen Euskal Herria. Maite oroz gainetik sorlekua. Beti erakusterat emaiten zuen Euskal Herriaz kantuz hasten zelarik. Hain beroki, hain kartsuki goستن zituen hemengo lurrak, hemengo ohidurak eta mintzaira, denek ezagutzen ginion boz eder ozenarekin. Beti euskararen alde eta euskaldu-

nen alde kantatuz konpreni arazi nahi zuen euskararik gabe ez dela euskaldunik.

Euskal Herri guzia kurrutu izan du Mattinek. Herri guziak, ttipienak ere, ezagutzen zituen, bertze gutik ez bezala. Dene-tan kantatzen zuen aise, airoski eta goraki herriaren eta herri-tarren geroa. Eraileak hazia bezala erain du Mattinek bere euskara eta euskaldungoa. Arta berarekin behar ginuke orai hazi hori galbidetarik eta aize gaiztoetarik begiratu, ostu ber-deak ekar ditzan eta eman fruitu ederrak. “Eman ta zabal za-zu munduan fruitua”.

Euskalduna, bainan ere euskalzalea, euskararen sustatzai-lea. Ongi barna sartua zuen bihotzean gure mintzaira xaharra dugula gure izaitearen gakoa. Euskara galtzerat uzten badugu aberastasunik ederrenetarik bat galtzen dugula. Euskara eta euskaldungoa gora ezartzen bazituen Mattinek, Jainkoa eta erlisionea, giristino fedea ez zuen sakelan ezartzen. Ez zuen sekula gordetzen.

Edozoin biltzarretan zoin ateraldi hunkigarriak ez zituen egiten familiaz, hurrez, fediaz, doluaz mintzatzen zelarik! Zoin barna atxematen zituen batzutan aditzaileak! Eta zonbai-tek orduan nigarra hurbil hurbil zuten!

Huna hetarik bat. Xalbador bere adixkideari, adixkide hu-ra galdu zuenean, eman ziona:

Alargun bat bezala naiz zu galdu eta onduan;
bakarrik bezala orai ni gelditzen naiz munduan.
Pentsatzen nago zoriontsu zaudela orai zeruan;
neretzat ere toki bat beira zadazu zure onduan.

Ez zen, ez, baitezpada, igande guzietz Ahetzeko elizan aur-kitzen. Zer nahi duzue? Beti nonbait zen. Eta galde egiten nio-nean:

–Mattin, eta gan den igandean?

–Ba, han nintzen edo hemen nintzen.

Han edo hemen beti nonbait zen. Bazakien ahatik, nik bezin ongi, edozoin giristinok bezin ongi, igandeetako meza baitzepadakoa dela. Giristino izaiteko mezan behar dela ibili. Bazakien mezan duela giristinoak kausitzen sokorri eta hazkurri. Hiltzeko bezperan, baitzakien zertara zohan, erraiten zuen han zen bati:

–Nere ehorzketako meza kantatuko nauzue meza eder bat.

Meza guziak ederrak dire fedea duenarentzat. Zer errandio oraino hari berari, eta galdegin:

–Hil ondoan holakoen edo halakoen ondoan ezarriko nauzue. Etorriko zare enetzat emanak izain diren mezetarat?

Otoitzak galdegiten zituen, beraz, Mattinek. Ongi ikasia baitzuen meza saindua dela otoitz guzietan haundiena, ederrrena eta baliosena.

Euskal Herri guziari hainbertze aipu eta ohore eman dion Mattin gure adixkideak mezu bat uzten dauku: «Izan zaizte euskaldun. Maita zazue Euskal Herria. Atxik fedea. Otoitz egizue enetzat.»

Hori da orai erakutsi daukun bideari jarraikitzea. Bainan gizona gizon baita, izanik ere aipu haundikoa, Mattin, gutarik bakotxa bezala, bekatorosa zen. Gure otoitza segituko dugu, beraz, haren arimaren fagoretan. Bai, segi dezagun meza saindua, bihotzetik parte hartzen dugula familiaren doluminetan.

Eta oixtian kantatu baitugu “Zure etxera goaz, Jauna, hau xe da gure zoriona”, Jainko Aitak aita on batek bezala onar dezala Mattin, bere zerbitzaria, bere etxean. Ta han aurki dezan bere aitamekin, haurride eta adixkideekin, Xalbador eta bertsulari lagun guziekin, hoin ederki bilatu duen zeruko erresuma, betiereko bizia.

Eta nahi nuke, finitu baino lehen, kantatu oraino Mattinen azken bertsuetarik bat, berak, Urepelerat ezin joanez, Ahetzetik igorria, Xalbador zenaren orroitzapenetan, hunen hiltzearen laugarren urte mugakari. Eta erraiten dauku hemen ere gure Mattinek mundu hau ez dela pasaia bat baizik; behar dugu-

la elgar maitatu, elgar sustatu, elgarren orroitzapen onak gure bihotzetan ongi finkatu:

Zuen otoitzak joanen dira zeruetarat menditik,
eta ni berriz umil umila hasi naiz itsas hegitik.
Xalbadorren orroitzapena ez zait joaiten burutik.
Mundu hau uso pasaia bat da, hoi ere ongi badakit,
Mattinen partez agur deneri bihotzain erdi erditik.

* * *

Zeruko Aita, onar zazu orai Mattinen bertsulari lagunek egiten zaituzten otoitza.

Ezponda:

Bere denbora bukatu dauku Mattin lagunak munduan,
hoinbeste omore ta irripar hark zabaldurik bazuan.
Egun penaren malko beroa daukagu begi xokuan,
lurrean bezenbat adixkide izanen duke zeruan,
gure Jainkoak hartu dezala bere lagunen onduan.

X. X.:

“Senar bat galdu, aita bat galdu” erraiten dugu hainbati,
gure bihotzan esperantza bat dezagun denek eduki.
Ez ginen hemen hainbat bilduko betikotz galdua balitz,
gu tronpatzeko alegia lo kutxan gordea da irriz,
bai segur ikusiko dugu berriz.

X. X.:

Herri huntako izar eder bat badoa egun zerura,
iduzkia ere etorri da gure denen agurtzera.
Euskal Herria, Jauna, Zuk lagun nigarretik nigarrera;
berex bagauden hoinbertze anai bildu gitaizke batera,
denek herria maite balute guk Mattin zana bezanbat,
gu Mattin zanak bezanbat.

Mixel Xalbador:

Mundu guzian erabilia zu hainbertze bidez bide,
gaur egiaren bidea dela bururat heldurik zaude.
A lagunaren maitatzea zuk baitzinaukan eginbide,
zure kantuko lagunek ezin gaur beren tristura gorde,
zeruan ere otoitz egizu zure lagun tristen alde,
zure lagun tristen alde.

Mattin il zaigu!

Itzali zaigu bein da betiko ain izar dizdiratsua,
amaika bider zabaldua zan barrenen zeraman sua.
Gure artean bat izan bada uraxe umoretsua!
Bere doairik berezienak: alaia ta paketsua.

Jostalaria zan berez eta ateraldietan trebe,
entzule danak parrez jartzeko askotan bera errege.
Asarreturik, kopeta beltzez, etzan ikusi beiñere,
esaten zekiana zan baiña bai gero entzuten ere.

Gure artean ez da aztuko, ez, Ahetzeko semea,
ainbat gozamen emanda joan dan langille bizkor ernea.
Zuretzat ere iritxi, Mattin, lurreko azken unea,
ez da makala Euskal Errian utzi dezun utsunea.

Sarri egoten nintzan ni, Mattin, zurekin bildu egarriz,
Bidasoaren bi aldetan gu kantatuak ainbat aldiz.
Danak txoratzen zenituan zuk etengabeko par irriz,
ezin sinistu etzaitudala ikusi bear nik berriz.

Samintasuna nagusitu da zu lur ontatik joatean,
jakin dedanez, zure gorputza gaur sartzen dute lurpean.
Mattin maitea, murgildu zaite zorion bete betean,
zeru goietan kanta gogotsu Xalbadorrekin batean.

Guk ez daukagu kemenik eta guk ez daukagu indarrik,
Jaunak deitzean joan egin bear, ez dago esan bearrik.
Mutututako txori zar biok gelditu gera bakarrik,
otoitz orduan beti gogoan izango zaitu Basarrik.

Basarri

El Diario Vasco, 1981.07.25

Goiz-Argi, 1981.08.01

Príncipe de Viana, 1981-VII-IX

Kezka-giroan, Auspoa 169, 1983

Herria, 1987.12.31

Nere bordatxotik, 1992.

Ikus arte, Mattin

Doinua: Apexa eta lorea

Euskal Herria dugu ainitz penatua:
bere seme bat berriz betikotz galdua.
Euskaldun haundi bat zen denez maitatua,
ez da berriz entzunen Mattin Ahezkoa.

Gazte gaztea baitzen pertsutan hasia,
boz xarmanta ta maite kantutan artzia.
Zerutik ukan zuen dohain bat haundia:
pertsuen ezartzeko gaitzeko aisia.

Kantari eder eta zer pertsularia!
Laster hedatzen zuen bere omoria.
Bisai gozo batekin erreki irria,
zonbat etzuen maite euskaldun herria!

Guretzat herioa dena misterio,
gure adimenduak konpreni ez dio.
Elgarrentzat dezagun izan amodio,
gure azken orena etorri artio.

Horren galtzeak gaitu ezarri penetan,
ez dugu ahantziko nehoiz mundu huntan.
Zeruan jarria da pertsulari tropan,
Jainkoa kantatzeko menderen mendetan.

Berriz ere galde bat, adixkide Mattin,
konprenituren duzu hitz laburrez berdin:
otoitz zazu Jainkoa errespeturekin
pertsulari berriak nasai detzan egin.

Mattin hola galtzeak gaizki gaitu utzi,
guretzat oino luzaz behar zuen bizi.
Gure beharren jabe Jainkoa da nausi,
ordainak jinen dira bihar edo etzi.

Ez baitago dudarik, jinen da ordaina,
esperantza horrekin gaitezen engana.
Ordaina izanik e ahal bezen ona,
luzaz egonen zaiku, Mattin, zure mina.

Bizkaia, Gipuzkoa, Alaba, Nafarra,
Xubero, Baxenabar, ni naiz Lapurterra.
Ahetzen egin dugu zazpiz bat bakarra,
ongi ohoratzeko Mattin Aheztarra.

Errespetu. ohore eta laudorio
Euskal Herri guziak Mattini zor dio.
Jainkoari eginez ainitz gomendio,
agian zeruetan ikusi artio.

Panpilli

Herria, 1981.08.13

Mattin lagun zenduari

Doinua: Galerianoarena

Trixtura aipatzera gaurkoan banoa,
bihotza serioa ta kexuan gogoa;
berriki galdu dugu lagun arraroa:
denek maite ginuen Mattin delakoa.

Ezin ahantzia da holako trixtura,
eskualdun aurpegia zurekin histu da;
berriz bagindu Mattin kusteko mentura,
laster akabo laike gure minen duda.

Omore ona zuen Mattinek lehenik,
irria ezpainetan baitzuen maizenik;
bere denboran gizon alai izanik,
badea nehor hartaz orroitzen ez denik?

Aizu, Mattin, zurekin iragan denbora
maiz oraino etortzen zerauta gogora;
laster airatu zira Jaunaren ondora,
guk ordaindu gabean ginaukazun zorra.

Gau eta egun zutaz nago pentsaketan
zure obrak gelditzen direla jendetan;
irakurtua zauden aldi guzietan
biziko zira, Mattin, gure bihotzetan.

Ahetze herria gaur zorbatez dagon hits,
zure galtzeko mina senditzen du bortitz;
bere seme izarra maite zuen ainitz,
zer atsegina luken berriz baladi pitz!

Joana joan dela gogoan nindagon,
sobera xangrinetan ez gaitezen egon;
bizi zelarik Mattin alaia baitzagon,
zeruan ere badu nahiko zorion.

Gu bezain uros dela pentsatzen dut egun,
Mattinen arima noiz izana da ilun?
Berekin tu zeruan hiruzpalau lagun:
Xalbador, Zubikoa, Errexil, Etxahun.

Ahaztera nindoan lagun bosgarrena,
hura zuen Mattinek bat Arozamena,
Xalbadorren urtean itzalia dena;
gutan geldituko da zuen orroitmena.

Nola zeru zolatik izarrak erortzen,
koblariak berdintsu zaizkigu agortzen;
euskaldunen lurra da hasia idortzen,
Jauna, lagun gaitzazu fruitu berri sortzen.

Nahi dugu ordainak ditezen atera,
denak itzaliz nun da herriko manera?
Etsia daukatenak zaitezte bolera,
koblaria sekula ez baita sobera.

Bizia akabo guk ere ixtantean
dugula orroituta pentsatzen hastean,
ene nahia laike, Mattin, gu jitean
beha kausitzea zu zeruko atean.

Jean Arrossagaray, Aintzile.
Egilearen andreak idatzi kahierra.
Herria, 1981.08.27.
Olerti aldizkaria, 1982.

Mattin izar berria edo Inoiz itzaliko ez den irria

Doinua: Galerianoaren kanta

Hura berri samina, latz eta isila
etorri zitzaiguna ezkilaz ezkila:
Mattin Ahetzekoa genuela hila
edo agian joana Xalbadorren bila.

Geratu ginenean ai, Mattin, zu gabe,
gaua egin zitzaidan bihotzaren jabe.
Kezkati hasi nintzen galde eta galde
irriak betiko egin ote zigun alde.

Itsasoari joan nintzaion galdezka.
Hitz gozoz kendu zidan bihotzeko kezka:
«Umorea estaliko duen lurrik ez da,
nonbait jarriko zuen Mattin horrek festa».

Pozez galde egin nion mendiari orduan:
«Ikus al duzu Mattin zeure inguruan?».
Honela esan zidan erantzun moduan:
«Festa hotsa sumatu nuen bart zeruan».

Zeru aldera begira nintzen gaez jarri
eta illargia nuen keinuka igarri.
«Hemen denok dakigu Mattin horren berri:
izar artean dabil bertso eta irri».

Pozgarri izan zitzaidan hura jakitea
eta bilatzeari gogoz ekitea.
Zeru erdian zaude zu, Mattin maitea,
izar txikia baina dirdiraz betea.

Geroztik egunero iluna heltzean,
zure bila jartzen naiz gauaren beltzean.
Zerura begiratzen dudan bakoitzean,
taupaka hasten da irria nire bihotzean.

Ezin gaitezke, beraz, heriotzaz mintza:
bizirik dugu Mattin, irriaren giltza;
izarrak berarekin algaraz dabilta,
hara gora begira, triste bazabiltza.

Pello Esnal
Zarautzen, 1981eko abuztuan
Herria, 1981.11.26
Itzuliko naiz, Auspoa 229, 1995

Mattin bertsulari zenari

Doinua: bertsularien bat. Azkena: Mutil koxkor bat

Nere aldian kantatu nahi nuke Ahetzeko Mattin,
zure aldetik jin berri hitsak dener eman du bihotz min.
Zazpi probintzi hoietan zinen zu ezagutua berdin,
eta gogoan egonen zira oraino luzaz gurekin!

Euskal jendea egun sendi dut egiten ainitz intzirin,
zu gabe gure Herria ez da berdina izanen behin.
Gure zerua noiz zaiku bada berriz agerturen urdin?
Zure gisako lore berriak noiz ikusiko Lapurdin?

Zu bezalako bat ukaitea guretzat zen fagorea,
paregabeko izana baita beti zure omorea.
Zurekin bestak hartzen zuela laster bere kolorea,
bihotz partetik diren alderdi hoiek balio urrea!

Xoko pollit bat Ahetze dela, hor baitzinuen kabia.
Keinka hits huntan agurtuko dut apal zure familia.
Zure oihua ez ote hauxe: «Zuen dohainez balia»?
Zeru ta lurren artean hola egin ditaikie zubia...

Zure lagunen orroitzapena ere hunela badator,
berriz kausitu bide dituzu Etxahun eta Xalbador.
Maitasunaren arabera dut zueri otoitz ainitz zor,
bainan zeruan ez bazerate izango ahal da nehor?

Nere penaren gatik jostetan ari naiz naski oraino,
gure artean zuk bertzerik ez zinuen nai egundaino.
Hementxe gaude Euskal Herri hau altxa nahiz zeruraino,
eta bihotzez orai derautzut, Mattin, ikusi artino,
goxoagorik ez da izanen itxaropen hauek baino.

Fermin. *Herria*, 1981.09.10

Mattin zendu zenean

Xalbador zenak ziona “irriaren giltza”,
Mattinen aurpegia zoin bekan zen hitsa!
Gaur ere gaiten, otoi, zurekilan mintza,
juana zirela ezin sinetsiz gabiltza.

E. Alkat

Egutegia, 1982

Hodei guzien artetik izar

Ahetzen, 1982ko uztailaren 18an, Mattinen oroitzarrezko jaialdia egin zen, bere heriotzearen urteurrenean. Xanpun, Jon Enbeita, Mixel Xalbador, Azpillaga, Lazkao Txiki, Ezponda eta Joxe Lizaso izan ziren bertsutan. Gaiak Joxe Mari Iriondok eman zizkien.

Xanpunen lehen agurra:

Anai arrebak, zuek agurtu naian gaur bihotzez nago,
nork ez ote du Ahetze huntan bateratze hori gogo?
Gaur Mattin dugu eskas ta ezar dezagun denez gorago,
anai arrebak bildu baigaitu batera aldi bat geiago.

“Mattinek irria zuen maite” gai emanda, hunako bertsu hau kantatu zituen Xanpunek, Mattinen gorantz:

Ez dugu egun guk jarri nahi sentimendu arrotzetan,
gaur berotasun bera baitago bai batzu eta bertzetan,
Mattin maitea, zu baitzinauden Euskal Herriko etxetan,
gaur seinale du berdin jarria zinden gure bihotzetan.

Guk Mattinekin ukan dugu hau: poza edo atsegina.
Berekin zaukan triste zeudenak alegeratzeko dina.
Iduri zuen bere irriaz estaltzen zuela mina;
gorputz txiki bat, bihotz handi ta bozkarioez egina.

Lagun on horrek eman gaituzki, bai, zinez zonbat atsegin!
Jaunak deitu zuen ordutik hemendik du ihes egin.
Bainan dezala gaur gure ganik, ez bazakien, hau jakin:
hodei guzien artetik izar egonen zaukula Mattin.

Mattin zenari

Urepele, 1981.11.07, Xalbadorren omenaldi batean

Gaia: Mattin zenari hiru bertso.

Lazkao Txikik:

Mattin ni bezela ttipia zan, oroituko da jendia,
txikia baiña zerbait bazuen: espiritua aundia.

Ura're joana degu mundutik, bistan daukat aurpegia:
pentsatzen nago: zero goietan biak kantatutzen dia.

Irri egiten genuen denok, orain oroitutzen gera;
amaika biotz ura iltzean gelditu ziran minbera.

Nik sarri diot: «Gure Mattin oi betiko illa ote da?»
Baiña zeruan kantari dabil lagun denekin batera.

Il zitzaiguen, baiña sinisten badaukagu naiko lana;
bikote ori amaika une goxo ta eder emana.

Gu ere laixter nai edo nai ez bagoatza zuengana,
zeuen ondoan gorde zazute guretzako toki bana.

Liburu berria

Mattin, nere gizona liburu berria eskuetan hartzean, beraren alargunak eta liburuaren egileak, Mari Trekuk, eman beratsuak:

Gaur eskuratu izatu baitut nere liburu berria,
adixkideak irakurtzeko emana dut ageria.
Mattinen potret xarmagarria axalean ezarria,
hau idaztean begietarik zonbat nigar ixuria,
kontsolatzeko eskaintzen zauzter behatzearen irria.

Nere biziko izar ederra neretzat zinen izana,
urte osoak bake goxoan elgarrekin iragana.
Liburu huntan agertzen ditut zure irri eta pena,
tonba gainean grabak bezala emanik zure izena,
jakin dezaten bizi naizeno: Mattin da nere gizona.

Mattinekin amets

Irungo jaialdi batean, “Mattinekin amets egin duzu bart” eman zioten gaitzat Lazkao Txikiri. Onek bertsu hauek kantatu zituan:

Joan zan asteko egun batean amets bat egin det, Mattin;
leno bezela erri batean bertsoan gu alkarrekin.
Bata besteai zail da izaten biok ainbeste maitemin,
esnatutzean falta ziñan zu, ta nik sinistatu ezin!

Ene Mattin, zu lagun aundia, alaia ziñaden egiz;
biotza ere lertu zitzaizun zeure atsegin geiegiz.
Ezin aztu naiz ainbeste bertso boteak gu alkar aldiz,
itxaro degun egun aundian bilduko gerade berriz.

Esaten dute: zeru aundia aingeruz jantzia dago;
gu oraindikan ementxe gaude ta zu joan ziñan lenago.
Ta zeru ortan tokirik edo errukirikan badago,
guretzat toki bat gorde zazu aruntz goazenerako.

XV Xalbador egunean

Urepele, hamabostgarren *Xalbador Eguna*, 1991.11.03an. Xanpun, Lazkao Txiki, Mendiburu, Azpillaga, Peñagarikano eta Euzkitze bertsutan. Gaijartzaile eta aurkezle, Joxe Mari Aranalde. Hunek, Xalbador hil zen egunean Mattinek Urepele kantatu bertsu hauxe kantatu zien:

Biak bertsutan ibili gira aspaldi Euskal Herrian,
hemendik kanpo ere gu biak izanak Kalifornian.
Hau beti gizon seriosago; ni beti arrailarian.
Besta batean bikote ona biek egiten genian.

Ondoren, honela kantatu zuten Xanpun eta Lazkao Txikik:

Xanpun:

Zonbat kontseilu ta jestu eder horien ganik ukanik?
Entzule onak, behar nuzke gaur dozenaka kantatu nik,
emana nauten gauza ederrez eskertu nairik lehenik.
Xalbador eta Mattinik gabe izanen al zen Xanpunik?

Lazkao Txiki:

Azken aldian nolatan giñan oraindik daukat goguan:
azkenengoa Usurbillen zan, ni ere antxe nenguan.
Biok berdiñak giñaden soñez jarritakoan albuian...
Mikrofonua gora ta bera gabe kantatzen genduan.

Xanpun:

Orai zerutik galdatu nai dut ea zer dezaken egor;
eta hemendik galdatu nai dut, otoi, gu ez giten eror.
Hik otoiztu zak beraz Mattin ta nik inen diat Xalbador.
Erran bezate Euskadiri guk oraino zenbat dugun zor.

Lazkao Txiki:

Oraindik ere oroitutzen da ego aldeko jendia...
Gure Mattin il zitzaigula ere amar urte juan dia.
Gorputzez zuen, nik bezelaxe, txiki baten irudia,
baiñan benetan aitortutzen det: bere izatez aundia.

Xanpun:

Bai, Mattin eta Xalbadorrekin noiztenka ginen gertatzen,
ta dakizue hoiere artean zuzen ibili behar zen.
Makur biderik hartu ezkeroz laister baitziren ohartzen,
bainan gaituzte erakutsiak jendea errespetatzen.

Lazkao Txiki:

Erri ontako Xalbador, berriz, aundia ziñan benetan,
zure izena bizirik dabil ia lurrik geienetan.
Zure izatea egiñik dago neretzat iru pusketan:
Jaunak zeruan anima eta bertsoak biotz denetan.

Beso jakina

1996.11.03an, Joxe Mari Aranalde zenak idatzitako *Xalbador pertsularia* liburuaren aurkezpena egin zen, eta bertsulari horren heriotzeko hogoigarren urtemuga ospatu, Urepeleko elizan.

Bertsu saioan, Mixel Itzainak “Mattin” gai jarri eta huna Xanpunek bota zuen bertsua:

Lehen zenduak gaur aipatzeak eman dezake atsegin,
bainan hortako behar dautzuet hemen zerbeit urrats egin.
Xalbadorrenak erran ditugu, ta gainerat behar jakin:
Xalbadorrentzat beso jakina beti izan zela Mattin.

Agur, Ahetzeko Mattin

(Elkarrizketa hau, Emil Larrek Mattini egina, *Herria* astekariak argitaratu zuen, 1977.11.01ean. Ahetzeko bertsulariari buruz argibide ainitz ematen baititu, merezi du liburu huntara aldatzea).

Mattin han eta Mattin hemen, batean omenaldi, bestean kantaldi, gehienetan bertsualdi, bainan nor da Mattin bertsularia? Ahetzera joan eta, ez ginuen nehuri galdatze beharrik. Beste nor nahi bezala, maiz izan gira Ahetze Mulienean, Mattinen galdez, holako tokian, holako eguneko.

Etxea, bizkar batean, bere lurren erdian. Auzoekin gasaila-biderik ez, hauk, bat haratxago eta bestea oraino beste zenbait besogainen bidean, polliki banakatuak baitira, iduri eraille batek barrastaka erainak, Ahetzeko bixkar eta trunbilo berdatuetan. Egia erraiteko, denak lerrokatuak edo metatuak izan balira ere Ahetzeko etxeak, ez zuen Mattinek nehorekin kalapitarik izanen: xixtak eta zaflakoak mihizkoak ditu bakarririk Ahetzeko bertsulariak, eta mihiz ere, begiak kliskatuz. Ez da gizona min egiterat ari; auziak baino laketago zaio solas jostakina.

Hots, ilun nabarrari orentsu bat, landan hatxeman dugu gizona, etxerat heldu ere gabe. Arto sortu berria; nahiz uztaila zen, bigarren eraitziakoa egia erran, aurten holako manerak baitziren hor ere bestetan bezala, ilar eraiten ari zen han hemenka aintzurraz.

Irriño bat ezpainetan

Lehen solasetan beretan aintzurra bizkarrera emanik etxerako bidea hartua baitzuen, «ez dira bada gurekin ere zure

lanak aintzinatuko» egin ginion jendetasunez. Mattinek ere badu bere jendetasuna, gauzak heldu diren bezala hartzea. «Lanaz duzu axola? Izanen da beste egun bat ere lanaintzat».

Hain xuxen Jean Pierre semea, Parisen postetan dena eta ahal guzietz etxekoen laguntzerat eskapatzen, heldu zen nunbaitik trakturrarekin. Eta huna, Mari, emaztea, beti irriño bat ezpainetan hau ere Mattin bezala, nik ez baitakit, zeinek duten hortan bestea kutsatua.

Gure euskal etxetan ohi den bezala, laster sukaldeko mahain inguruan ginen, baso bat aintzinean. Behingoan ez ginen koblariaren galdez etorriak baina bekatoros ez zen baten kofesatzera: gure irakurleek hau eta hura nahi zituztela Mattinez jakin. Hortan ere ez zuen otoizterik gure gizonak.

Aitatxi Lezokoa

1940an jina da Mattin Mulienerat: hau aitak lehenago eresia. Aitaren aita aldiz Gipuzkoa Lezotik etorria zen denboran Ahetzerat.

Gero nahi lukete zenbaitek muga batez berexi gure Euskal Herria! Huna, urrunago joan gabe, bi kasu famatu: Mattinek aitaxi gipuzkoarra zuen, Xalbadorrek amatxi nafartarra bezala (kantuetan dionaz Aurizberrikoa).

Etxetiar etxe batean sortu zen Mattin Treku 1916an, Ahetze-Harrietan. Ama bizi du Mattinek, eta bizi baino gehiago ere: emazte xuriño ttipi bat, begia pindarra dariola, ezagutzen dute segurki Donibane Lohizuneko merkatuan, astean behin eta berdin bietan ere, lore beharretan diren eroslek.

Eta ama lorezalea

Lore egiten baitu Mattinen amak bere gostua: haziak, zer nahi mota, nun nahitik ekar araz, hek artatu eta zeinek ederrago beste saltzaileen aldean erakuts! Eta norbaitek erraiten badio: «Zer? Zure adinean holako lana ibiltzen?», laster ihar-

desten omen du, irri karkaila batekin: «Neri etzait iduritzen sekulan hil behar dutala ere!».

Zenbat urte dituzten ez dute gordetzekoa alta, ez amak eta ez semeak. Huna zer kondatu didan Mattinek:

–Gan den urtean in zuten Ahetzen arratsaldeko askari bat herriko zahar, edo hirugarren adineko, orai erraten den bezala, guzientzat. Eta han ama semeak gertatu ginen biak, zaharrena eta gazteena: amak 83 urte eta nik 60».

Gau bat osoa irakurtzen

Gehiago ere jakin dugu amaz, baitu hunek ere bere balioa, semearen konprenitzeko. Amak beraz izigarriko afizionea omen du irakurtzen. Besteak beste, ba omen dazki nihuneko “vedette” direlako horien ixtorio mixterioak. Ez da mirakulu horien pareko zerbait atera baitu ere bere semea!

–Eta zuk, Mattin, baduzuia holako gostua irakurtzen?». Baietz, noiz nola eta «gostukoa balinbadut» eta hola hasia zelarik ihardesten, huna nun emaztea aintzintzen zaion:

–Ez dakizu zer egin duen halako batez? Bazuen erdarazko liburu bat, nobela edo halako ixtorio pollit bat... Aratsean hasi zen irakurtzen eta gau guzia jarraiki zuen eta, batere etzan gabe, goizeko dena irakurri!

Eta Mattinek:

–Nahi nuen jakin nola zen bururatuko, eta ez nuen barkatu dena pasatu arte!

Eta Marik aintzina:

–Ba, eta nigarra begian zuen Mattinek, hain baitzen hun-kigarria ixtorio hura!

Nahiago irri egin

Hortan ni ere orroitu Xalbadarren kantu famatuaz: “Mattin, nigarrez ikusi dut”. «Beraz, zu ere, Mattin, ez zara jendek uste

duten bezalakoa? Zenbaitek uzten zioten bihozmingarri eta gogoetagarri zen guzia Xalbadorri. Mattini, aldiz, begote irri karkaila eta gai ezazolak!... Hor ikusten dugu, Mattin, zu ere beste bat bezain sendikorra zarela?

Mattin ez da holako galdeari, bere buruaz harturik, espantuka hasiko zaitzun gizona. Mattinek bihotz bat baduela ohar-tu bazare, hobe! Ez du balio bera has dadin baietz eta baietz erraiten. Eta galde hortan hau ihardetsi digu deplauki:

–Nik nahiago dut irri egiteko kantatu. Trixtezia, bera etor-tzen da aski goiz. Beraz, maiteago dut atakan, arrazoinka, batailan!

–Halere pentsu dut, Mattin, ataka eta batailak ez direla arras berdinak ainitz entzuleren aintzinean eta bertsulariak bakarrik zireztenean zuen artean?

–Ez! Behar da behatu nun zain!

Plaza ondoan hazia

–Eta nola hasi zinen zu, Mattin, bertsutan? Zure baitarik ala norbaitekin ikasi?

–Ikusten duzun bezala, bada hemen Ahetzeko plazatik Mulienerat bide pitta bat. Ni, ttikian, plazan bizi nintzen. Eta plaza ondo guzietan badakizu nola den: ainitz okasione! Ni, 12 urtetako, han izaten nintzen parada heietan guzietan.

Adin hartan deneri behatzen da, denak entzuten eta batzue-tan zerbait erraten. Orroitzen naiz orduko zahar batzue-z. Bazen Gilen senperrara: bide berriaren erdian, ez baitzen orai-ko pasaia, ikusten ginuen lur-rean jarria, botoila ondoan; bazen makiñun bat ere, maiz ostatuan ikusten ginuena, eta holako asko aitzen ziren orduan pertsutan, pitta bat edan eta. Badauz-kat ere batzuek gogoan; esne ixtorio bat eta... eta...

Goizetan saltzeko esnea gure herrian ekartzen zuten 5-etako plazarat. Eta han bi auzok beren untziak bi tokitan pau-

satuak zituztelarik, batek ebasten zion besteari eta bere untzian ezartzen. Bestea etorri, eta esnea eskas! Norbaitek zaindu zituen eta ikusi jokoa. Harek argiturik, galdu zuenak eman zuen pertsu hau, orroitz naiz:

Hartzen zuen pitxarra ongi giderretik,
eta bertze eskuaz segidan zolatik,
xurrusta bat berera emanez geroztik
itzultzen zen etxera xixtuz ai zelarik.

Lagunek airean ereman

–Odolean zinuena bertsularigoa?

–Odolean ez dakit. Nere aitain aitak kantuz afizione zuen. Badakit Azkainera gaten ginela biak bestetarat, oinez, Senpereko oihanetan gaindi. Bide guzian gaten ginen kantari, kantu ikasten.

Baina bertsutan, zahar hek ikusiz eta gazten artean berdin, lehenik a eta o eta rima errex batzuekin hasi nintzen. Eta egun batez gertatu nintzen Sarako bestetan. Goizean eguerdi arte arbi jorran aizanik gana nintzen bizikletan. Han ari zen Luhu-soko Panpale bakarrik: oraiko gazteak hau eta hura zirela, edaten eta besterik ez.

Nik hoi aitu-ta erran nuen laguner: «Ni berriz ez dutalakotz aski edan, ez nauk atrebitzen». Lagunek, hartan, hartu ninduten eta airean ereman. Hasi nintzen, ekarri zuten edatera, piztu nintzen, eta aitu! Geroztik, gerla artio, urte guziz ekar arazi ninduten Sararat (beraz 1933 tik eta 1939 ra). Etxez etxe xamarrarekin, musikarekin, egiten ginuen eskea, nik koblak emanez. Soldadogoan ere hola aitu nintzen, baiginen euskaldun alde bat.

Geroztik urak bide egin

–Eta laguntzailerik ukan duzia?

–Hernandorenak bildu zituen bertsulari guziak 1946an, Donibane Lohizunen. 16 bildu ginen. Xalbador han ezagutu nuen. Baziren ere Zubikoa, Kattabil Uztaritzekoa, Iriarte-Bersinanto Bankakoa, Etxahun, Larramendy bi semeak, Xetre, Intsaby, Mañex Iriart eta beste...

1947an aldiz Paul Dutournier Sarako auzapezak ereman gintuen Zarauzko xapelketarat. Geroztik urak bide egin du. Han ere badugu zernahi galde. Denek ezagutzen naute mugaz haindian!

–Beste galde bat: zein dira zure orroitzapen hoberen eta txarrenak?

–Ez da aise erratea halako eguna edo holakoa dela. Bai, egun bat badut ezin ahantzizkoa: Saran kopa Basarriri kendu niolarik. Ez dut deusik Basarriren kontra, egun ederrik badugu elgarrekin izanik, baina hura goren gorenean zen. Saran beraz kopa baten jokatzean, gertatu ginen biak berdinean ponduz ondarrean. Eta berexteko ezarri ginuzten biak senar emazteak: ni senar edalea, eta hura ene emaztea. Aldi hartan nahi bezala itxulikatu nuen, eta kopa irabazi.

Jendea gustura uztea

Egun ederrak eta egun txarrak? Frangotan sartu naiz etxerat neure buruaz ez satisfos, ez nahi bezala jostatu, ez aise kausitzen. Beste batzuek berriz lorietan: jendea gustura utzi dudanean.

Eta hor Mattinek, bai eta Xalbadorrek ere erraiten zuen bezala, erran digu: nahiz egun onak eta txarrak badiren beti, hortan ere, ofizio bat dela bertsularitza eta ikastea eta trebatzea galdatzen duela ofizio guziek bezala. Bakan ariago eta nekeago, trebetuago eta aiseago ari.

–Beraz, gazter zer kontseilatzen duzu, Mattin?

–Aitzeko! Ariz ikasten dela. Orai plazer bat da ikustea; bertsulari gazteak hasi dira ederki; denbora batez Xalbador

eta bigak lotsatuak ginen gurekin fini ote zen. Eta beha! Herriko bestetan ere bertsulari galdatzen hasi: Banka, Armen-daritze, Bidarra, Ixturitze eta beste... eta jendea biltzen!

Zorionak

–Azken galde bat, Mattin. Eta izkirioz, Mattinen bertsuak? Noizko?

–Izkirioz ez da berdin, Bai, handik eta hemendik, ezkon-tza batentzat, xahar urteburu batentzat, ikasle batzuek beren erakasleentzat eta hola galdatzen nauzkite. Hek egiten ditut josteta bat bezala... Baina bertze izkiriozkoak: kasetetako eta liburu-tako, itekotan ez dire nola nahikoak aski eta ez dut maite holako buru haustetan aitzea: beti pentsatzen ari behar da, beti xuxentzen, gauazko loak eta guziak galtzeraino. Horra zertako ez dudan maite.

–Azken hitz. Milesker, Mattin, zure ele onentzat. Zurekin ikasi dugu beti alegera balin bazira, munduaren alegeratzea gatik egiten duzula hori, batzuetan zure buruari bortxa eginez orobat. Ikasi ere bertsularitza ez dela bakarrik josteta bat, zuretzat ere; ez duzularik ongi kausitu, kezkatua zaudela; haatik zoriona hedatu duzularik zure inguruan, zuhauk ere atsegin duzula. Izan zaite luzaz gure herritarrentzat itsas aldetik heldu zaikun izar zorionezkoa.

Emile Larre.

Xalbadorren omenez

Xalbador

1965eko urtarrilaren 24an honela idatzi zuen Iñaki Eiz-mendi *Basarri* bertsolariak, *Zeruko Argia* astekarian:

«Egundo gure denboran kristauaren aotik entzun ditugun bertsorik onenak txapelketa egunean Xalbadorrek Anoetan kantatutakoak izan ziran. Emazte zanaren soñekoari kanta-tzeko agindu ziotenean jaulki zituenak.

Bertsolari aundietan aundia da Xalbador. Irudimen berezia du berekin, biotzondoan taupada aundiak ematen daki.

Senti bezela nai du Basarrik guzia garbiro aitor:
bertso bi ezin molda ditezke zuk orduan bezin jator.
Irakurri ta ausnartu ondo; ezta pranko badator...
Zu aundietan aundia zera, lagun zar maite Xalbador.

Xalbadorrek lau puntuko bi bertсотan ustu zuen barrengo ontzi dena. Andik aurrerako puntuak edertu baiño itsusitu geiago egingo zituzten aapaldi zoragarri aiek.

Eztakienik iñor balego orra garbi erakutsi;
bide zuzena artu al bada ta okerrekoa utzi.
Bertsolariak goiko maillara nai baldin badu iritsi,
itz gutxirekin esan asko ta ez itz askorekin gutxi.

Zeruko Argia, 1965.01.24.

Xalbador bertsolariari

Mugaz arunztik bizi zeraden Urepeleko Xalbador,
gaur ez gatozti txistuak joaz, gaur ez gatozti saltakor.
Sinista zazu pekatu ura aitortzen zaizula jator,
ta erruaren barkapen eske biotz apaldu bat dator.

Izkeraz alde aundia dago zureagandik gurera;
jakiña, zure esan nai askoz ezin konturatu gera.
Beraz, itxuan pausoak nola bota genitun aurrera,
orregatikan iritzi asko erori ziran lurrera.

Zalapartazko barrunda gabe, patxaraz eta geldiro
zure bertsoak irakurri ta aztertu dira berriro.
Eta, Xalbador, ikusten degu ongi baño obekigo
mailla ortara etziñala zu meriturik gabe igo.

Urte batean zure aurrean sortu zan giro zazarra,
paketutzeko zu izan ziñan gizon argi ta azkarra.
Bertso batean erten zitzaizun itz eztitsu bat bakarra,
eta aretxek paketu zuan ango purrusta zakarra.

Gure erria maitasunean iñoiz ez dedin atzendu,
zure biotzak gurearentzat ikasbidea jartzen du.
Egin genduan okerra errez ezin ziteken zuzendu,
gure antzeko biotz kaxkarra agertu izan bazendu

Askorengandik naiz esker txarra beste gauzarik entzun ez,
zitalkerizko purrusta gabe erantzun ziguzun onez.
Beraz, Xalbador, ikasgai ontan erakusten diguzunez,
indarrez ezin diteken asko diteke goi-maitasunez.

(1967) Teodoro Mujika

Errekaldeko intxaurraren itzala, Auspoa 235, 1996

Zumarragako omenaldia

Egun hartan, 1967.12.10ean, omenaldia egin zioten Xalbador bertsolariari Urola garaiko bertsozaleek, Zumarragako *Itzalon* aretoan, herri meza eta bertsu saio eder batekin. Bertsu saioaren ondoren larogei bat bazkaldar edo gehiago bildu ziren herriko *Urola* jatetxean, lagunarte ederra eginez. Basarri ere hantxe zen egun hartan, eta ez zuen isilik egon nahi izan. Honela hasi zen bertsutan, bazkal ondoan:

Negu beltzean txori alaia gertatu leike ain itun:
mendi-basoak elurrez zuri, lurmenik ezpaitu iñun.
Ikusi det nik Xalbador onek gaur zer malko bota ditun...
Egin zaizkitzun guzti-guztiak ondo merezi zenitun.

Xalbador:

Nik gizon onen artian sekula ez det pasa une txarrik;
lagun jatorrak banituen gaur, hor ez nindagon bakarrik.
Baina ene bihotzak eztu urtzeko askoin beharrik.
Maite nazue, lagunak, baina ez egin hartaz nigarrik.

Basarrik:

Berriro ere, Xalbador maite, gu ain lagunak izanik,
eztet pentsatzen egun batean ni diskuidatu naizenik.
Zeru erdira garamazkizu zure bertsoak entzunik.
Berriro emen sortuko ote da zu bezelako gizonik?

Uztapide:

Xalbador, ez al dek pentsatuko zurikeitan ai naizenik;
mingaiña eztek ari izketan, biotzez esaten dit nik:
zein i bezela bertsolari ta i bezain gizon zuzenik?
Oraindik ere ez ditek eman merezi dekan izenik.

Xalbador:

Ni egun oroitzgarri huntaz niz pozez ta lotsez lehertu,
baina geroko ene bidea hunek asko du edertu,
Orai kezka bat etorri zeraut, hau ez dezaket baztertu:
nik ez baitakit zuen bihotza ala Jainkoa eskertu.

Basarri:

Berriro ere jarraitu bear asi dan festa oneri,
sotanadunak, bertsolariak ala esan didate neri.
Etzaio ezer asko kostako meza eman duanari...
Kandela ori luza zaiozu or Orbegozo jaunari.

Beste momentu batean Basarrik hitza hartu zuen, bazkal-
darrak isilaraziz, eta honela hitz egin zuen, Xalbadorren go-
rantzan, prosa errimatuan:

Lazkao Txiki maitagarriak eman du zure berri.
Ta urrengoan zu, Mattin, arrebarekin etorri,
ea bion artean sortzen dezuten egitazko euskal kabi.
Beste jaialdi bat egingo genduke ori gerta al baledi.
Ta goazen gaurko egunaren aztarnak ematera.
Etxera abiatu bear ta azken itzak noa esatera.
Gaur mendi ta baso elurrez zuri.
Bearbada ekaitzak kanpotan indar,
baiña euskaldunen biotzak Zumarragan su ta gar.
Egunaren ederra nork konta ote lezake?
Beste eun aldiz jarrita ere etorriko nintzake.
Zaude, Izazpi, zaude, Beloki, zaudete,
mendi maiteok, zeuen tokitan;
baiña al bada olakoak izan ditzagula sarritan.
Izan ditzagula Euskal Erriaren anima eusteko;
auek ezpaitira, anai maiteok, bazter batean uzteko.
Ta ni azkenik biotz zabalez, gordinki eta jator,
bein eta berriro, anaia, zugana nator.

Urepelgo seme azkar, bertsolarien argi dizdizari,
Xalbador maite, besarkada bat eskeiñi bear zuri.
Ona emen beti ta betirako zure adiskide maiteak.
Zabal-zabal arkituko dituzu Gipuzkoako ateak.
Egun batean txistu jo zizutenak damuturik daude;
ta damu duenari barkatu egin bear, dudarik gabe.
Zure biotzak nola barkatu ez? Barkatu eta geiago,
zer egin eztaquilla dago, ta ni ori ikusten nago.
Esan zazute gaurko egunaren berri, esan emen eta or:
gizon jatorrik iñun bada, bat emen dala: Xalbador!

Xalbadorren omenez

1969.09.21an, omenaldi sutsu bat eskeiñi zitzaien Xalbadorri Donostian. Ordurako bertso auek moldatu zituan Basarrik

Piztu da biotzetan maitasun su-garra,
zein txori kantaria dan urepeldarra!
Egalari degu gaur gure lagun zarra,
Donosti argitzera datorren izarra.

Nork daki orren gisa kanpoaren berri?
Bazka onaren billa eztu gutxi korri.
Baso, mendi, erreka, ardi, abelgorri,
danak esaten zerbait gure Xalbadorri.

Egun santu batean bertsolari jaiio,
doai arrigarri bat nabarmentzen zaio.
Mingain utsak ezpaitu geiegi balio,
Xalbadorri biotzak itz egiten dio.

Kantu ta txistu gozoz gañetan nagusi,
izadiarekin bat egiñik an bizi.
Sasi ta larrak ere ez titan igurtzi,
bertsoa zuk biurtu diguzu poesi.

Gipuzkoa zurekin aspalditxo zordun,
eztakit gaur zor ori ordainduko degun.
Ondo konturatzeko ordua bagendun
artzai bertsolariak zenbat balio dun.

Iñaki Eizmendi, Basarri

La Voz de España, 1969.09.21

Zeruko Argia, 1969.10.19

Sortu zaizkidanak, Auspoa 112, 1973

Nere bordatxotik, Auspoaren sail nagusia, 2, 1991

Xalbadorren omenaldian, Donostian

Donostia, *Astoria* antzokia, 1969.09.21, Xalbadorri omenaldia. Bertsolari laguneren lehen agurra.

Basarri: Bertso-jaialdiari asiera emateko, bertsolari guziorri auxerregutzen zaizute: bertso bana guziok gaur omentzen degun Xalbador bertsolari argia aitatz eta, bide batez, entzuzteratorri diran bertsozale zintzoak agurtuz. Bertso banatan sartu nola Xalbador eta nola entzuleak. Asi bedi Lasarte.

Lasarte:

Xalbador, nola zeran zu txori bikaiña,
kantuz edertu dezu gure arbol gaiña.
Entzulea're asko da, etzan uste baiña,
nekez bada're artu nekien ordaiña.

Mattin:

Nere bihotza poztua da gaur Donostiara etorriz,
ni're bertsutan aizana bainaiz Xalbadorrekin ibiliz.
Zuen aurrean kantatu dut nik horrekilan ainitz aldiz,
Mattin etzen, ez, bertsulari izain Xalbador izan ez balitz.

Mitxelena:

Zerbait esan nai det ondo badet nere buruko zentzoa,
Xalbador degu garia eta Xalbador degu pentsoa.
Orren aldera begiratuta ez degu gizon otsoa,
bertsoengatik emanik dauka or bere gorputz osoa.
Pena da ori ez daukagula bear bezela jaso:
oain urtebete utzi genduen mintsua edo gaixoa.
Baiñan oain guztiok zabaldu ber baigenioke besoa,
pentsaturikan bera degula bertsolarien gurasoa;
edo obeto esatekotan beste guztien maisoa.

Gaur ere onek merezi zuan bai onen egun gozoa.
Argatik onuntz inguratu da bere erriko auzoa,
naiz ez emen eon merezi ainbat gaur Euskal Erri osoa.

Uztapide:

Nere txanda're iritxi da ta nua lanari lotzera,
oinbeste jende nundik bildu da bertsolaien abotsera?
Une onetan zirraratxo bat etortzen zait biotzera.
Ongi etorri, anai-arrebok, Xalbador zoriontzera.

Txomin Garmendia:

Guk zu, Xalbador, maite zaitugu ezagutu ezkerozti,
ta zenbat saio egin dituzun Bidasoaren onunzti!
Zure bertsuak entzun da ainbeste arpegi malkotan busti,
azkenerako portatu zaizu Gipuzkua ta Donosti.

Arozamena:

Euskaldun danak agurtu naiez Arozamena emen dator,
ikusirikan anai-arrebak ementxe umil ta jator.
Bertsolariak anai gerala guziok dezagun aitor,
nere zorionik beroena eskeintzen dizut, Xalbador.

Jose Lizaso:

Xalbador maite, ondo dakigu zer eginkizun daukagun,
Euskal Erriai botea dio makiña bat bertso txukun.
Gaur ikusten da lurralde dana egiña daukala lagun,
merezi du ta anai jator au
merezi du ta anai jator au orain txalotu dezagun.

Lazkao-txiki:

Paradisoan antzean dago Astoriaren barrena,
gizon jator bat omentzearren bildu zaigu emen dena.
Izanez ere zerutar baita Xalbadorrek dakarrena,
bertsolarien ortzean degun izarrikan ederrena.

Gorrotxategi:

Au baiño egun ederragorik ezin leike izan askoz,
ainbat euskaldun ona etorri eta guztiak ain gogoz.
Au ikusita, Xalbador maite, zuk artu bear dezu poz,
Anoetako pekatariok barkazio eske gatoz.

Lazkano:

Xalbadorrentzat agur goxo bat neri eskatzen dirate,
nik bezelaxe nere lagunak au pozikan egin dute.
Anai bat bezin lagun on degu, aita on bat bezin maite,
gaur familiko festa degu ta, Xalbador, alaitu zaite.

Basarri, bertso-saioaren bukaeran: Gaurko gai-jartzaillea
Manuel Matxain izan da. Eta jaialdi ontan, berak ere zerbait
egin nai luke ta bi bertso kantatuko dizkigu.

Matxain:

Xalbador onek ederki daki Kristoren dotriñen berri:
masailleko bat guk eman eta berak bestea azkar jarri.
Oju egin eta txistu egin guk Anoetan berari,
maite giñula ala ere esan biotzetikan danori.

Omenaldirik merezi eta egin bazaio iñori,
antzoki ontan egin zaiona gaur goizean berorri.
Ta orain azkenik emen zaudeten ainbat euskaldun jatorri:
urrengo urtean, Jaunak nai badu, al dezutenak etorri.

Jaialdiaren bazkaria *Urbia* jatetxean egin zan. Bazkalon-
doan bertso hauek kantatu ziran:

Uztapide:

Zuk esan gabe denak zekiten zarrentxona ni naizela,
utsegiterik egiten badet Jainkoak barka nazala.
Koadrilla ontan ni jarri naute fameliko aita bezela,
lendabiziko au esaten det: janak on egin dezala.

Basarri:

Janak on egin eta gaude gu poztuak,
anaitasunez emen txit aberastuak.
Omen au merezi zun ain jaun prestuak,
zuretzako biotzak, beso ta eskuak,
Xalbador, maite zaitu gure Gipuzkuak.

Xalbador:

Enetzat egun haundi izan da gaurkoa,
nitaz oroitu baita gure Jaungoikoa.
Huni erantzuteko nik banun gogoa,
bihotz beratz batekin ni bainaiz jaioa,
nik ere maitatzen dut gure Gipuzkoa.

Mitxelena:

Xalbador, lengoa ta gaurkoa ez da berdin,
zuretzat emen jende asko baidago pin.
Len pasa bazendun e orrenbeste samin,
len arantza uste ta gaur zaude krabelin,
geio guregatikan ez negarrik egin.

Jose Lizaso:

Fernando, entzun zazu esaten dedana:
nere biotza ere dijua zugana.
Euskal Erri danetan egin dezu lana,
emen ez da aztuko, ez, zure izena,
berriz ere etorri al dezun maizena.

Mattin:

Egun Donostiara ni're naute deitu,
maite dut herri hau ta azkar obeditu.
Nere anaieri nik nai nuke segitu;
eta gure euskara nai bada haunditu,
holako egun baten premiak baditu.

Xalbador:

Horrenbertze hitz samur denen oroigarri,
pentsatzeko Anoetan pasatu zenari.
Hari're egin nion nik ongi etorri,
denak eni txistuka horrenbertze xori,
geiago maitatzeko gertatu zen hori.

Lazkao-txiki:

Xalbador, nai nizuke nik gauza bat aitor,
barruaren sentia esatera nator.
Omenaldi au zuri lendik genizun zor,
mugaz arunztik zera bertsoen salbador.

Arozamena:

Donosti ontan bildu gerade ainbat zaar eta gazte,
Xalbador, zure anai guziak ola maitatzen zaituzte.
Altxa ezazu zere burua, gu zertako egon triste?
Ez dakit ala egingo gendun merezi dezun ainbeste.

Lasarte:

Xalbador, asko maite zaitugu, maitagarria ain zera;
Jaun Zerukuak bialdu ziñun gure lur on au zaintzera.
Entzule-talde batekin gatoz aingeru batzun antzera,
Xalbador aundiaren eguna biotzez zoriontzera.

Lazkano:

Gaurko egun au Xalbadorrentzat ez da izango gazia,
beragatikan eskeintzen diot pozez nere eresia.
Gaur zuretzako ospatutzen da emen egun berezia,
gaur eskutara etorri zaizu aspalditik merezia.

Gorrotxategi:

Ene Xalbador biotzekoa, poztu ta alaitu zaitea,
zu omentzeko leku onena gure Donosti maitea.
Len *Astoria*, orain *Urbia*, dana puntaño betea,
dirutan ere ez da ordaintzen olako lagunartea.

Txomin Garmendia:

Ara, Xalbador, goxua zera eta ondo itzegiña,
zure ondoan dagon guztiak sentitzen du atsegiña.
Gizontasunez sobre daukazu eta bertsolari fiña,
ainbeste jende etzan bilduko petral bat izan baziña.

Joxe Agirre:

Bertsotarako nik ez dadukat batzuek ainbeste kemen,
taldez kanpoko ardiak emen gelditzen gera nabarmen.
Baiña Xalbador maite detala egin nai nuke aitormen,
Astoria-ko txarrak giñanak kantatuko degu emen.

Patxi Larrañaga, Azkoitiko:

Toki askotan ikusi zaitut eta beti oso jator,
bear zanian bere garaian guztiai egiñaz gogor.
Len portamenen ordaiñekoa orain *Urbia* ontan dator
nere zorion beroena gaur jaso ezazu, Xalbador.

Imanol Uranga. Itziarkoa:

Egun eder au allegatzeko ia ordua genduan,
gure Xalbador maitagarria emen daukagu onduan.
Ai, Gipuzkuak erantzun dio maitasun on da senduan,
omenaldi au oain baiño leno, Xalbaor, merezi zenduan.

X. X.:

Nere biotzak ere itzezin nai dio gaur Xalbadorri,
iñoiz bertsorik kantatzezkeroz gaur merezi zaio orri.
Gure Gipuzkua alaitu du gaur bezela orrek sarri,
biotzez maite zaitu emen da sarriagotan etorri.

X. X.:

Xalbador maite, agertu zera oitura jatorrizkuan,
nere biotza gaur alaitzen da estadu izugarrizkuan.
Bertsolariak maixu bear da badaukagu Gipuzkuan,
aurrerantz ere orrela jarrai zazu zuk urte askuan.

Inozentzio Olea, Legazpi:

Frantzi aldeko anai maite bat besarkatu nairik nator,
gurekin nola portatu oi dan beti gizonki ta jator.
gaur Olearen agur bero au maitetasunetik dator
orren zalantzik etzazu izan: kuttuna zaitut, Xalbador.

X. X.:

Tramankulu bat jarri dirate orain ezpaiñen ertzean,
nik ere uko ezin eingo det ingurura ekartzean.
Xalbador maite, lo egiña zera zuk dakizun ohatzean,
zuretzat berdin gordetzen degu lekua gure etxean.

Jose Insausti, Segura:

Aspalditik guk Xalbador auxe omentzeko egarria,
ta ni bezela txit ona dala jende asko igarria.
Eon zaitetz lasai txalok entzuten pozez beterik jarria,
usai gozoa besteik ez dezun lirio maitagarria,

Sebastian Lizaso:

Pozez txoratzten arkitzen da gaur bildu geran jende dena,
nabarmen dago jaialdi eder au dala gure senidena.
Agurtzen degu Frantzi aldeko bertsolaririk onena,
orregatikan eskeintzen baida eskeintzen zaion omena.

X. X.

Ai, Gipuzkuak aztuta etzaitu sekula ere lagako,
jaialdi ontara etorria da zu maite zaituna pranko.
Zure ondoan ixuria da pozezko ainbeste malko,
mugaz arunztik biziagatik anai artea olako.

X. X.:

Omendutzeko aukeratua ziñan bertsolai-taldetik,
naiz ta an bizi maitale asko baidezue sbeste aldetik.
Azken agurra eskeiñi gabe ez nua zure ondotik,
milla zorion bein ta berriro Gipuzkoaren partetik.

Xalbador:

Denak maitatzeko jaio nintzan, nik inor ezin gaitzetsi;
bainan bertsoak entzunak ditut batzu gozo, bertzeak gazi.
Gaur Xalbadorrek minkorkeririk nehondik ez du merezi,
nik denak berdin maite zaituztet, ez daike nehor berezi.

X. X.:

Ontara ezkerok guk ere egin bearoko degu legia,
era ontako egun goxoak gutxitan izaten dia.
Aizu, Xalbador, zugana nator, ai, oso lagun maitia
aruntz juan gabe nere partetik bertan gelditu zaitia.

X. X.:

Norbaitek izar izendatu du guztiz izketa ez-tian,
nik ere berdin izendatzen det zerbait esaten astian.
Argiagorik bai ote dago eguzkiaren azpian?
Argi ta argi segi olaxe zere bizitza guztian.

Jose Lizaso:

Itz egitea atsegin baita gaur emen dagon giruan.
zer esan asko inguratzen da bertsolarian buruan.
Euskal Erria aspaldi dago ardi galduan moduan,
saia biegu denon artean ia indartzen deguan.

Mitxelena:

Lizaso orren bertsoa daukat biotz barruan sartuta,
Euskal Erria ote daukagu emen pixkat bakartuta?
Ardi galduan moduan gaude danok erdi elbartuta,
aber indartzen degun pixka bat Xalbador artzai artuta.

Mattin:

Xalbadorrekin ibilkia naiz ni joan den hoitabost urtian,
Eskual Herrian bezala naski Amerikako partian.
Nevadan ere izan ginen ta geiago Kalifornian,
bainan han baino ohore geio dezu egun Donostian.

Basarri:

Batzuk aitatu eta besteak nola ba ixilik laga?
Bertso au ere entzun zazute alaxe komeni bada.
Urepeldikan gaur etorria irutasun ederra da,
orain txalotu Xalbador orren emaztea ta alaba.

Uztapide:

Nik gaur goizean, oroitutzean pasako ziñala mukan,
bai al dakizu pozaren pozez zer malko bota ditudan?
Sinistu zazu zeru alai bat daukazula emen ta ez dudan,
zuk etzenduke pentsatuko're nik zenbat maite zaitudan.

Xalbador:

Ene lagunen esatean nik badut fede ta sineste,
ordaiñez ere esan diotet len gauza bat edo beste.
Hitz horrekin zu gaur, Uztapide, ene maitasunain eske,
bainan nik ere maite zaituztet, bai, zuek beste hainbeste.

Lazkao-txiki:

Pozaren pozez anai guztiak kantari ari zaizkizu,
sinista zazu danak biotzez ta iñor ez da berritsu.
Pentsatu zazu Jainkoak ere orrenbeste maite dizu,
lenago laiño zegon zerua zugatik zabaldu dizu.

Arozamena:

Ainbeste izkuntza ibiltzen dira mundun batetik bestera,
eztakienik baldin badago nua esaten aстера.
Gure Jainkuak eingo baluke mundu berria ostera,
gure izkuntza maitatzen du ta jarriko luke euskera.

Lasarte:

Guztiok triste gelditzen gera Xalbadorrek aldegiñik,
bere ondoan zu gabetandik zeñek dauka atsegiñik?
Gizatasunez bete-betea, ez du txarrerako griñik,
apalagorik ez da izango Jaunak mundura egiñik.

Lazkano:

Xalbador maite, gure agurrak pozikan dituzu entzun,
alde batera negarrez dago, badu zenbait estuasun.
Baiñan guztiok azaltzen degu emen oinbeste maitasun,
aurrera ere badakizu zuk anai onak nun dauzkazun.

Gorrotxategi:

Ene Xalbador biotzekoa, lertzen zaude pozan pozez,
egun guztiko omena eta gaur emengo txalo-otsez.
Alkarrengandik urrun gaude gu lur maite ontan zorigaitzez,
gorputzez urrun bizi zerade ta Donostian biotzez.

Txomin Garmendia:

Gaur Xalbador jasoko ote da ain merezi duan neurritz?
Gaur ori egiten ezpadegu etorri dedilla berriz.
Oraindikan e gure zeruan izar batzuk dute dizdiz,
Euskal Erri're arlotego da seme bat oroi ez balitz.

Joxe Agirre:

Xalbadorrentzat gaur izan dira une latz eta estuak,
eta gu berriz bere inguruan pozez biotzak piztuak.
Ain bertsolari ona zerala denok gaude sinistruak,
ta egun baten izan zirala bide gabeko txistruak.

Patxi Larrañaga:

Ikusi zaitugu asko alditan nola egon zeran negarrez,
dudarik ez det egiten oiek zirala pozaren pozez.
Ainbeste biotz zuregana ta ixilik egoten ez da errez,
gaurko txalruak izan dituzu lengo txistuaren ordez.

Imanol Uranga, Itziar:

Frutu berria gaur eldua da leno zeguana berdian,
Xalbadorrentzat nik maitasuna daukat biotzen erdian.
Gaur Donostian ikusten dira euskaldun onak nor dian,
urrengoan e junta gaitezen *Astoria*-n ta *Urbia*-n.

Biktor Agirre, Brinkola:

Begira dagonak jakiten du emen gauza askon berri,
berriro ere beste bertso bat emendikan Xalbadorri.
Xalbador bera, andrea ta alaba egin zerate etorri,
ta galdetzen det zuen semea
ta galdetzen det zuen semea nola ez dezuten ekarri.

X. X.:

Ara Xalbador agurtutzian nik nahi nuke graziko,
merezi dezun beste badakit etzaitutela jasoko,
Zure gorputza Gernikako arbolen zuk bazenduke utziko,
aingeru bearrik ez luke izango zeru zabalaren sartzeko.

Xalbador:

Geiegi ere aipatua da egun Xalbador gaixoa,
luzegi baita baten gainian pasatzen egun osoa.
Min haundirekin iragaiten dut gaur dabilan eraso,
nihaur apala baldin banaiz e badago zeinek jaso,

Xalbador

Doinua: Maite bat maitatzen det maitagarria...

Orañ berrogeitamar urte inguru,
euskal mendi-tarte bat biurtu zero;
 au argi printza!
Ai, argi onen diña banintza,
 ain da bikaiña!
Ez naiz bere aurrerako aiña;
 begiraturik,
argiak uzten nau itxuturik.

Gure lur maite onek Prantzi aldetik
lore bat agiri du Urepeletik;
 ain da usaitsu,
Euskal Erri dana zoriontsu,
 ari begira;
lili txuri politak badira,
 baña ain fiñak
gutxi ditu Jainkoak egiñak.

Ikusi loretxua mendi tartian,
irripartsu ta bigun ardi artian;
 ori dizdira!
Eguzkia, berari begira
 lilluraturik,
maitasun gozoz inguraturik,
 dana poztuaz,
arditxoen laztanak artuaz.

Urepelen sortu zan lore gaxuak,
jasorik arditxuen bee goxuak,
uzten du lurra;
entzun bere egada xamurra;
txori biurtu,
euskal anima nai du xuxpertu,
beraren berdiñ
ameslari, aske izan dediñ.

Kantari asitzian basorik baso,
biotz menperatuak nai ditu jaso
eta bizkortu:
itxaropen indartsu bat sortu
bere abestiz;
zoragarria izanik guztiz
aren jarduna,
jeiki da arraza euskalduna.

Bere izate artan nai du gelditu,
baña arantzak ere arkitzen ditu
kabian sarri,
gizonak baidizkiote jarri
arintasunez;
ezin zapaldu ego bigunez,
ta, arturik miñ,
len txori zana gizon da egiñ.

Orra gure txoria gizon jantzian,
maitasuna dario itz bakoitzian
mardul, ugari;
askok eziñ ulertu berari;
ain da sakona
biotz zabal aundidun gizona:
txit maite gaitu,
baña guk ez degu ezagutu.

Beste grazi bat ere badu oraindik,
gañez egiñaz beste guzien gaindik,
gu txoratzeko:
biotzak maitasunez sutzeko
bertso-doaia,
Jaungoikoaren sari alaia
sortu zanari
lore, txori, gizon, bertsolari.

Bikaintasun zale dan Euskal Erriak
goxo babesten ditu lore berriak
bere kolkuan;
frutu ematen asitakuan,
izen bat eman,
gure berri nunai eman dezan
garbi ta jator;
ortarakoxe degu Xalbador.

Euskal arraza dago erdi ill, lotan;
esnatzearren artu dezu besotan;
nai dezu piztu,
baña guk egin dizugu txistu
buru ariñez;
zuk bezela sakontzen jakiñ ez
pentsamentuak.
Zer egin duan esker gaiztuak!

Zure itz sakon aiek eskeñitzián,
eta lur legorrean eroritzian
erne ezinda,
biotz xamur orretantxe min da;
baña berriro
sortu zenduan maitasun-giro
negar egiñez,
gu geiago maitatu eziñez.

An azaldu zan zure gizatasuna,
anaiongana dezun maitetasuna
 bero ta xamur;
malkoak ixurtzen etziñan zur;
 lan da sinisten
antsi au nola zitzaizun irten
 biotz barrendik:
«Baina maite zaituztet oraindik».

Zure nortasun orrek igorik gora
danok urbildu gaitu zure ondora;
 bene-benetan
sartu zera gure biotzetan
 beti-betiko;
maitasun au ez da iñoiz ilko,
 nere ustian,
euskaldun bat bizi dan artian.

Egiak beti bere bideak ditu,
aiek arkitu arte ezin gelditu;
 ene, Xalbador,
arrazak erantzun dizu jator;
 orra omena
anaiak eskeintzen dizutena;
 artu ta gorde
egiñdako iraiñ aien orde.

Atoz, atoz, Xalbador, ez izan kezkek,
gu ez gaitu nekatzen zenbait eguzkek;
 biotzez gabiltz;
ai, sarritan gurekin bazebiltz,
 ezer geiago
naiko ez genduke, ziur nago;
 sinistu zazu:
gure maite kuttuna zera zu.

Inozentzio Olea, *Goierriko lorak*, Auspoa 98-99, 1970

Xalbadorri agur bat

Airea: Nere herritik izan ditudan paper batzuek diote

Martxoko hogoi eta lauean pertsutan nago hastera,
Xalbadorri're egin nahian neure pertsuzko agurra;
Eskual Herrian emanik dago eskuarari sail ederra,
hori bezala beste bat nundik behar ginduke atera?

Jainkoak eman dautzu kuraia eta talendu bat gaitza,
gu ere zerbait egin nahian gaztedanikan gabiltza;
zuk baitakizu lagun guziak bihotzez nola zerbitza,
otoi gazteri emaguzu zuk talendua eta hitza.

Zure hitzekin huntaratu naiz, aitortzen dautzut egia,
zure gisan nik desira nuke hartzea pertsu plegia;
egundaino ez zira zu izan tranpetan gizon nagia,
pertsuari're bazinakien emaiten zuzen bidia.

Eskualdun seme, Urepelen hor hazia izan zirena,
betidanikan segitu duzu Jainkoak eman dohaina,
hegoan eta iparran ongi ezagutu dautzutena;
ez dadiela sekulan ixil merezi duzun omena.

Egia frango erraiten duzu zure pertsu guzietan,
hortakotz gaude zuk utziz geroz jarriak denak penetan;
zure beharra baginuen guk pertsuen edertzekotan,
Jainkoak laster senda zaitzala berriz ere hastekotan.

Bidarrai hortan gertatu ginen zurekin lehen aldian,
elgarri pertsu emaiten arizan ginen plazer bat handian;
multxo pollita denetarik han gertatu ginen ordian,
geroztik hunat pertsua baizik ez daukat nere burian.

Erramundeian baiginuen guk plazerrez egin bilkura,
oraino ere usu buruan dut orduko egun hura;
berriz e banu zuekin xantza gertatzeko're ardura,
gogotik etor nindaike berriz galdatzen nauten lekura.

Idea gaitza badut ordutik hunat pertsuarendako,
eta zuk erran zinautan hitza nehoiz ez dut ahantziko:
bakartasuna zela hobena pertsuaren ikasteko,
froga horiek egiak dira, orai dautzut aitortuko.

Zonbait eginik baduzu segur Eskual Herriko xokotan,
zure talendu hori ezagun zen hoberena denetan;
Eskual Herriko bigarrena're zira pertsuko lanetan,
Jainkoak dohain beraz sustenga gaitzala behar ordutan.

Bururutzen dut zuri erranez hemen azken parabola,
neure pertsuak ta goraintziak igortzen dauzkizut hola:
ez dezagula utz makurtzerat xuxenik dagon arbola,
behar litake garbi atxiki pertsularien odola.

24.03.1970

Joanes Arrossagarai, Aintzile
Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1970.04.23

Xalbadorri agur on

Airea: Ikusten duzu goizean...

Hemen aipatu nahia
Xalbador pertsularia,
Urepeleko semia;
aurten duzula irabazia kurtsan Xenpelar saria,
hori dudarik gabia
zinduen merexitia
ukan duzun ohoria.

Xalbador, zure izena
aspaldi nuen entzuna
koblaritan hoberena;
ofizio hortan kurritu duzu Euskal Herri gehiena;
zu anitzen jostakina,
eman dezu atsegina,
hori da nahi zutena.

Xalbador, zu mintzatzian
sort etxearen gainian
sendimendu hobenian:
zu bezalako etxe umiak balira mundu guzian,
estima ginio ordian
gure arbason bizian
zer utzi zauten joaitian.

Arbasotarik ukana
lehenik gure dohaina,
bai eta gero izena;
gainera utzi ere zaguten mintzairetan ederrena,
hori orok dakiguna,
ezin ukatu duguna;
baita gure euskalduna.

Xalbador, zure pertsutan
sort etxeain ohoretan
zaude amodio handitan;
zure ideiak plazaturikan zeure haurren eskuetan,
ontsa jarraikitzeotan
zuk eman etsenpluetan
ez dukete dolurikan.

Batek bere etxeari
behar luke erakutsi
amodio zoin den handi.
Ez balinbada hau jarraikitzen eskasak dira ageri:
pentze landak sasu jarri,
aterbeak hor erori;
hori da desgustagarri.

Gurasok kusi baluzte
anitzak nola gabiltze,
estonatuak litazke:
hoien izerdiz ontsa gostaiak guk abandonatuz fite;
oroitu behar ginduke:
mundurat eman gaituzte,
zor dugu heier hainbeste.

Pagatzeko gure zorrak
ditugun egin beharrak
lauda guraso xaharrak.
Xalbador zure pertsutan ditu hortaz etsenplu ederrak;
nola auzo herritarrak
inguratzen nau plazerrak,
zuri milaka eskerrak.

Ikusi dugu askotan
nola euskaldun herritan
berdin hemen Amerikan:
gure gurasoak utzi presentak anitz estimu txarretan,
menturaz pentsatu faltan
edo sartuz urgulutan,
alegia ahantzirikan.

Hau dut nik azken pertsua
zuri, Xalbador prestua,
besten herronkan sartua:
gaur hemen Chinon zu ezagutuz dauket plazer arrarua;
dutan desira osua
zuri bizitza goxua,
zerurat azken pausua.

Estimu onez Xalbadorrek bere sort etxeari eman dituen pertsu ederrez
1972 ko azaroan.

Juan Cruz Arrosagaray
Herria, 1973.03.08
Príncipe de Viana, 1973.II
California-tik kantuz, Auspoa 163, 1983

Xalbadorri omena

Alde batetik eurixka hotza, seinale negua da hor,
bainan halare Urepelekoz gaur ez da beldurtu nehor,
zeren eta hemen guk baitaukagu berotasun eta leihor.
Gauden gaur hemen, anai arrebak, beti horrelaxe gogor!
Arratsalde on deneri eta eskerrak zuri, Xalbador.

Xanpunen esku idatzietan aurkitu bertua.

Xalbador bertsolaria Ameriketan

(«Aire hau Chino'n aditua dut, jaun bat ari zen kantatzen» dio Pedro Juan Etchamendy-k lehen bertsoan. Jaun hori Xalbador zen.)

Aire hau Chino'n aditua dut, jaun bat ari zen kantatzen,
aurpegiz triste, begiak apal, etzuen nehoi behatzen;
triste iduri izana gatik barnetik alegera zen,
egon nindaike berriz, Salbador, gogotik zure aditzen.

Gure etxian gelditu zaizte ez ginelarikan nehor,
geroztik hunat penetan nago, sinist nezazu, Salbador;
desertu huntan euri guti da, bazterrak kusi tzu idor,
ojala horgo soberakinak hunat bazintzate igor.

Gu munduaren bi bazterretan gare edo urrunago;
estakuru bat pentsa ahal balai, jar gaitezen hurbilago;
mutil bat behar bazinuke zuk, nik banuke asti frango;
eztuzula zuk hola nahiko beldurak harturik nago.

Eskual Herrirat beste urtian jinen naiz oraiko ustez,
aro hunetan ziek lanian, asti soberakinik ez;
hemen paisolaik eztut ibili hogoi eta zonbait urtez,
batto hartu ta jinen naiz horrat, euria ari den batez.

Munduan ezta izaten nehor konple dagonik orotaz,
denbora ezin hilez ari naiz, arta hartzen kantu hotaz;
konkurrantzarik eztautzut inen, segur izan zaite hortaz,
nik bi astez baino gehiago pentsatzen zuk bi minutaz.

Aire horiek kopiatu itut, Fernando Aire, burian,
zerbait zuk aterako duzula horietarik agian¹;
gehienak gogoz ikasiak tut lehen Eskual Herrian,
begiratu zuk xoko batian soiteko bien artian.

Orai nik uste badutan hemen aski espantu eginik,
Pedro Juanen jakitatia kusia duzu jadanik;
negozio huntan kusten baduzu deus nik egin diotanik,
galda guztian zuk, Salbador, ein ahala eginen dut nik.

Pedro Juan Etxamendy, Ondarrola, Arnegi
California'ko bertsolari eta musikari, Auspoa 288, 2004

¹Pedro Juan Etxamendy zenak kahier bat igorri zion Xalbadorri, dena solfeoz idatzitako airez beteta. Aire hoiek honako liburu huntan aurkitu dituz irakurleak: Pedro Juan Etxamendy: *California'ko bertsolari eta musikari*, Auspoa 288, 2004.

Xalbadorren ondoeza

Bolara batean ekaitzaldi gogorra izan genduen, bertsolari aundi batzuen ondoezak zirala-ta. Lenengo Uztapide zanari gertatu zitzaion bertso kantatzeari utzi bearra. Ondoren Manuel Lasartek egin zuen ixilaldi bat naiko luzea, gaur zorionez berriro Euskal Errian zear kantari baldin badabil ere. Eta geroxeago Xalbadorri etorri zitzaion ondoeza. Biotza gaixotu zitzaion. Ori aski ez dala, zugaitz-adar batek begia zauritu, eta naiko beldur betiko galduko ote zitzaion. Ori zala-ta, nik bertso auek eskeiñi nizkion:

Berriro ere badet neregan bertso jartzeko bidia,
ta orain ere bertso illunak, auxen dago komeria!
Beartsuentzat sarritan dago era ontako saria,
begi batekin gelditu zaigu Xalbador bertsolaria.

Joan dan asteko *Goiz-Argi*-tikan jaso nitun albisteak,
bertsolaria maite duntzat benetan berri tristeak.
Euskaldun danok goibeldu gaitu zuri begia ixteak,
ez dizu noski-miñik emango ni bertso jartzen asteak.

Beraz gaizkille izandu dana arbola baten adarra,
txarkerirako edozer gauzek beti badauka indarra.
Zer naigabea emango zizun betiko gorde bearra
ainbat urtean zuri argia egiten zizun izarra!

Ezbear ori aski ez dala orain biotzetik eri,
ene, Xalbador, zure gorputzak badauka naiko komeri.
Al dan azkarren uxatu dedin zure gaixotasun ori,
beso zabalik eskatzen diot zeru-lurren Jabeari.

Euskal Erria ainbat urtean zuk serbitu dezu jator,
zu maitatutzen etzaituanik lur ontan ote da iñor?
Gertakizun au entzun ondoren auxe galdetzera nator:
len Uztapide, gero Lasarte ta orain berriz Xalbador?

Gure biotzak nola poztuko jarririk zenbait enpeiño,
aundinai eta arrokeririk etzenduan egundaiño.
Ixilik egon naiago dezu ezer gaizki esan baiño,
goxoa eta xamurra zera burutik oiñetaraiño.

Euskal Erriko anai-arrebok, entzun guztiok batean,
gaixorik dagon anai orretaz, arren!, erruki gaitean.
Gure morrontzan ibili zaigu ez dakit zenbat urtean,
bere biotzan ondasun dana guretzat eman artean.

Emen aurpegi eman bearra dago datozkigun gauzei,
zaitu ditzagun geure buruak, utzi deiegun jolasei.
Agur, Xalbador, al dezunean zatoz guregana lasai,
zu ainbat maite zaitugun danok emen egongo gera zai.

Martzelino Manterola

La Voz de España, 1976.08.29

Goiz-Argi, 1976.09.11

Lore apal bat, Auspoa 166, 1983

Xalbador Urepelekoari

Mendi gainetik beha Euskal Herriari,
Parabisuko auzo nork zaitu ezarri?
Mintzo naiz Urepele herri maiteari,
bai ta zuri, Xalbador, hango semeari;
zure nortasunean hartzen dut hazkurri.

Zuri eskaintzen ditut oraiko bertsuak,
xumeak dira, bainan zintzo ta kartsuak;
nere goresmenekin har nere musuak,
hasieran gintuen hoztasun sasua
erre bitza betikotz bihotzeko suak.

Gorputz mehar batean zer bihotz larria!
Etsituen aurrean izar gidaria.
Sendatzen badakizu ahul ta eria,
nigarraren lekuan ezarriz irria,
hain da zure mintzoa kontsolagarria.

Eskuara eman duzu mailik gorenean,
aberria altxatuz denen aintzinean;
izpiritua duzu mundu zabalean,
batean amodio, Jainkoa bertzean,
ezin erranik ez da zure mingainean.

Hitz sarkor berekilan guziak aipatzen,
egizko iturria ez zaitzu agortzen;
haur bat sortzen delarik edo hura hiltzen,
zure solasek dute zeruetan sartzen,
zoin sailduak zaitute horrela argitzen?

Bertsutan entzun zaitut jada asko aldiz,
Euskal Herri orotan noiz nahi ibiliz;
beti zure erranak samin eta bortitz,
bihotza zabaldua, aurpegia zoin hits,
iduri gutarterat jin zaukula Mois.

Justizia, bakea ta zuzentasuna,
Jainkoa ere usu, berdin maitasuna;
izpiritua zonbat aberats duzuna,
muga gainetik doa zutaz oihartzuna,
bi aldetan baituzu egin batasuna.

Sortzetikan bertsuak izan ditut maite,
ahal guti dut, bainan badut borondate;
barkatu, zuk, Xalbador, egin badut kalte,
zuhauri mintzatzeko amentsa dut bete,
zu iduririk ez da sortu orai arte.

Ernest Alkat
Herria, 1976.09.30
Goiz-Argi, 1976.10.30

Herria-k bertsuen aitzinetik honela zion:

«Bertsu hok emanak ditu Ernest Alkat Iholdiar gazteak. Hola du ardietsi Eskualzaleen Biltzarrak moldatu sariketan lehenbiziko prima. Hazparnen bildu direlarik eskualzaleak, bertsu hok irakurtuak izan dira. Geroztik ere entzun ditzuzue menturaz, radio edo irratitik eman baitituzte igande goiz batez. Atseginekin ezartzen ditugu hemen, gure irakurlek ere hazta ditzaten...».

Xalbador

Urepeleko adiskidea, ni lagunen billa nator,
galdetzen dizut ote zabiltzan lenago bezela jator.
Len bezelako alaitasunik aldi ontan bai al da or?
Zu burutikan kendu eziñik emen nabil ni, Xalbador.

Zu bezelako gizon batekin lagun egiten danian,
nai ez duela ibiltzen da bat beti umore onian.
Zurekin ala ibilli nintzan ni Euskal Erri danian,
eta betiko partitu giñan gaixo jarri nintzanian.

Gu oso lagun izanak giñan biok ogei urte pasan,
da perlesiak jo ninduen ni bein Anoetako plazan.
Berriz kantatuko ez nuela ezin zitekien esan,
baña ez dago zer egiñikan, onela komeni bazan.

Xalbador, zure gogoramenak izaten ditut sarritan,
garai batian biok ibilli giñan amaika erritan.
Zurekin amets ere egin det nik makiña bat alditan,
esna naizela ezin ikusi zaitut baña aspalditan.

Juan daneko aspaldi ontan ibiltzen gera itxusi:
nai ez diranak beti aurrian, nai danik ezin ikusi.
Seguru dakit etzabiltzala zu neregandik igesi,
esi bat degu erdi parian, ezin alkarrekin bizi.

Zu ikusteagatik gaur ere eman nezazke pausuak,
bai eta pozik besarkatu're zabaldurik bi besuak.
Oraindik ere gogoan ditut zuk botatako bertsuak,
Gabon onduan ganbaran diran sagarrak bezin gozuak.

Zuk badakizu zer izan diran emengo bertsolariak,
edo dauzkazu irakurrita aurrekuen istoriak.
Zure bertsuak len ere ziran onak eta ugariak,
urte auetan zuk damazkitzu gure Xenpelar sariak.

Parisen ere izanak gera gu orain baño lenago,
bein juatia ondo da baño nik ez nuke nai geiago.
Gerran igesi juandakua ta euskaldun asko dago,
baña ura baño toki oberik bertsoarako badago.

Erri askotan ibilli giñan da ez Parisen bakarrik,
Xalbadorrek ez zuen egiten ateraldi bat zakarrik.
Aserretu nai izanda ere arekin alper-alperrik,
oraindik izan gabiak gera itz erdi baten okerrik.

Iñoiz iritxi izan gerade ala moduzko kasuan,
beñere asarre izatekotan pranko motibo bazuan.
Kristo bezela areriuak masail batian jo zuan,
alare etzun gorrotorikan, bestia eskeintzen zuan.

Lau urte laste eldu dirade nik bertso-lana utzirik,
bitarte ortan nere buruak etzuen artu etsirik.
Orain ez daukat len bezelako ibillitzeko antsirik,
osasanakin ere ez baidet batere segurantzirik.

Irurogei ta sei urte ditut, laste etorriko zazpi;
bitarte ortan bertso-lanian egiña badegu aski.
Lantegi onen ezkutu danak Xalbadorrek ondo dazki,
umore ona ibiltzen gendun baño gorputza txit gaizki.

Danak kontatu izan balira guk zenbat bertso abestu!
Ni eziñean gertatutzian ez nazu gutxi babestu.
Zuk lagunduko zenduke gaur e baldin balitz zure esku,
Xalbador nere biotzekua, zure lagunik ez aztu.

Zu bertsoetako beti ederki egoten zifan gatzian,
baita jarraitu ere itxuran orretarako jartzian.
Nik ura poza zurekin ala asten nintzan bakoitzian!
Gaur ere negar egiten det nik gauza oiek oroitzian.

Xalbador, biok bertsolariak gifan gu gere izatez,
gutxiago ezin bildu gifnezken lotu bagiñuzte katez.
Gaur biotzetik agurtzen zaitut juan dan aspaldiko partez,
emen aurrian arkitzen diran bertso ale auen bitartez.

Manuel Olaizola, Uztapide
Sasoia joan da gero, Auspoaren sail berdea, 1976
Uztapide berriz plazara, 2001

Lagunari agur

Bertsu hauk jarri nituen Xalbadorrentzat. Jarri ez; gogoan pasatu. Mixel Itzainak erran zautan, ni beti laguna izana ta bortzpasei bertsu bear niozkala kantatu, lagun gisa.

Buruan ibili nituen; idatzi batere ez. Ta gan nintzenean Urepelera, Xalbadorren omenaldi egunean, haren aldean bazkaldu nuen. Xalbadorri erran nion, bortzpasei bertsu kantatuko niozkala, eta zer bertsu ziren ere bai, juxtu-juxtu ez, bainan zerbaitu.

Bertsu batean erraten nion bazuela bulta bat elgarrekin genbiltzala; ni haren aldean beti umil egoiten nintzala; hura zela iguzkia ta ni, berriz, haren itzala.

Ta hunela erran zautan:

–Hoi ez diat nahi kantatzea.

Sobera famatzen nuela ta ez zuela nahi. Ta bertzeak kantatu niozkan.

Egun agurtu nai nuke hemen Xalbador nere laguna, guk hain maite dugun harendako gaur bildu bait gira huna. Hoita hamar urtez horrekin nabil, aspaldiko ezaguna. Gaur Urepelek eskaini dio merezi zuen eguna.

Biak bertsutan ibili gira aspaldi Euskal Herrian, hemendik kanpo ere gu biak izanak Kalifornian. Hau beti gizon seriosago, ni berriz arrailerian, besta batean bikote ona biek egiten ginian.

Ni beti trankil ibiltzen nintzen hunekilan nintzenian,
hauxe bainuen nere gidari beti edo geienian.
Eta bidetik pixka bat kanpo zeharkatzen naizenian,
hunek ezarri izatu bainau beti bide zuzenian.

Batzutan ere ikusten zuten gu zeharkatzen ginela,
ta zonbeit aldiz hunek erran nau: «Deabru mutiko ergela!».
Ez pentsa gero karraixurikan ni baitan utzi duela,
neonek ere ikusten nuen arrazoina bazuela.

Bertsu lanetan hoi etzen aitzen baserriko bulegoan,
baizik lotarik atzarri eta kanpora beira leihoan.
Horren bertsuak hantxen zabiltzan buruan edo gogoan,
ta paperian ezartzen ditu ongi hausnartu ondoan.

Euskal Herriak izatu ditu len ere gizon haundiak,
bainan nik uste gutixko ziren Xalbadorren iduriak.
Hegoaldian nunai badira halako orroit-harriak,
monumenta bat merexi luke holako gizon argiak.

Nik ezagutu ez banu izan enindaike hola mintza,
hunek herria maite zuen ta bai bere herriko plaza.
Bainan Jainkoa gogoan dauka, hori dezagula pentsa,
oroz gainetik maite baitzuen bataiatu zen eliza.

Akabatzeko agur goxo bat nere lagun Xalbadorri,
ta ber-denboran otoitz umil bat zeruko Jainko Jaunari:
arimendako leku ttipi bat gorde gaitzala bieri,
zeruan ere ar gaiten biak bertsutan euskalduneri.

Mattin Treku: *Etxe xokotik kantari*, Auspoa 151, 1981
Mattin et Mari Treku: *Mattin bertsularia*, Auspoa 298, 2006

Omenaldi eguna

Urepele, 1976.11.7, Xalbadorren omenaldia.
Hona meza hastean Mattinek eman zuen bertsoa:

Deneri agur egin nahi dut aldaretikan umilki,
errespetua zor baitiogu horrelako leku bati.
Denak serio egon gaitezen ez ote laike egoki?
Gure Jainkoak lagunt gaitzala meza entzuten debotki.

* * *

Baskans jaun erretorak:

Egungo jende ostea ikusiz, nik ere erran dezaket: Urepele ez da herri ttipi bat. Ongi etorri egin dautzue bertsulariak; ongi etorri nik ere Jaungoikoaren izenean.

Igande oroz nahi dugu Jaungoikoa agurtu. Nola agurtu, ez badugu egun haurride bezala elgar agurtzen, elgar ezagutzen, elgar maitatzen? Aintza zeruetan Jaungoikoari...

* * *

Bihotz eta gogoz fededunak hori dugu hastapenean kantatzen. Eta egina izan zaukun lehen irakurgai hortan agertu izan zauku lehenbiziko giristino edo fededunen batasuna. Guk ere egun Urepelen batasun ederra egiten dugu. Fedeak batetatzen gaitu. Misione egunetan gira. Fedea eta Eliza aipatu eta entseatu gira barnatzerat. Zinez aitor dezagun, bai, fede berak eliza huntan elgarretaratzen gaituela.

Bainan ere, Xalbador, zure omenetan gare elgarretaratu. Eta nola ahantz orduan zure bihotzeko kezka eta arrangura? Fededun zira, fededun eskualduna; eta eskualdun fededun gi-

sa badituzu zure arrangurak eta galdeak. Eta preseski zure liburu hortan, zure poesi eta bertsuen artean agertu dauzkigu-zu. Irakurtzen nuen.

Gure erran zaharra, “eskualdun fededun” ,
bere erran beharraz gabetu da egun;
zonbait eskual eliza bisita ditzagun,
han adituren dugu “fededun erdaldun”.

Bai; zure arrangura eta kezka eskuara duzu. Iduritzen zautzu, eta hori duzu salatzen, ez ote den sobera aise bazter-tzen zonbait elizetan. Bai; zonbaitetan, ez baitituzu denak zaku berean sartu nahi. Diozu:

Ez ditut oro zaku berean sartuko;
bainan zuk, arrotz bat hor ikusi orduko,
herri bat osoari egin duzu uko,
Jaungoikoaren hitza harturik lekuko.

Eta, fededun gisa, egiten dituzu zure galdeak apezkeri. Az-ken urte hotan aipatu dira frango, laikoak, giristino xumeak. Eta erraiten hek ere badutela beren hitza erraiteko fede obre-tan. Zuk, deretxo eta eskubide hortaz jabeturik, galde hau egi-ten duzu eskual Elizari: arrotzen arima argitu nahi eta Jaun-goikoaren hitza lekuko hartuz, ez dezagun herri baten arima bazter eman.

Zinez, ote da zure eginbide mina,
ala hortan ote da zure atsegina?
Arimen artatzeaz duzu zin egina,
eta euskaltasuna ez dea arima?

Bai; bertsolari dohain haundi ta eder hori baduzulakotz, entseatua zira. Eta, hain xuxen, entzun dugun ebanjelioak

aipatu dauku talenduen parabola. Eta diot ukan duzun dohain edo talendu horrekin entseatu zirela lan egiten. Ez duzu nahi izan ukan talendua gorde edo beiratu, mutil alfer edo gaiztoak bezala.

Bai; kantatu duzu Eskual Herria eta gure hizkuntza eder xoragarria. Bainan kantatu duzu ere zuzentasuna. Jakin zinuelarik egun batez Ezpeletako mendi batean atxeman zituztela hiru gazte beltz goseak hilak, bertsu hauiek kantatu zinituen:

Ezin bertzea berekin dauka betitik herri pobreak,
hango jendea tirriatzen du bizi modu bat hobeak,
haren ondotik zabiltzalarik hil dira dohakabeak...
Ai, Ezpeletan aurten nolako primaderako loreak!

Dirua deno gure nagusi ikusiren da holako:
aberatsentzat atekak zabal, hertsi pobrearendako;
iduritzen zaut, gizona bada erreprotxurik gabeko,
bidea libro behar lukela nahi lekurat joaiteko.

Aunitzetan kantatu duzu bakea. Bertsu xoragarriak eskaini dauzkozu, nun neke baita hautu bat egiterakoan zoin bertsu hautatu:

Denek dugu bakea gure mingainean,
nahiz herra bazkatu bihotzen barnean;
betidanik bezala, gaurko egunean,
hameka giristinok lur hunen gainean
gerla egiten dugu zure izenean.

“Borondate oneko gizoner bakea”
zuk erran hitzak dira, o Jesus maitea:
guk borondate onik ez dugu ordea,
gurekoikeriaz bai bihotza betea,
gure nahirat hesten diogu atea.

Kantatu duzu amodioari. Kantatu haur galtzearen aldeko legea dela, eta zoin hunkigarriak ez dira *Ortzirale Saindu baretako gogoetak, Otoitza, Jainkoa eta ni*, aunitzek ezagutzen ditugun bertsuak!

Bainan denak ezin aipa; eta orduan nik ere erran beharko bertze gauza eder aunitz kantatu ere duzula.

Eta hemen bertze bertsulari lerro ederra bada, horiek ere bertsulari dohain ederrez beztituak. Eta hemen gauden guziek, denek baditugu Jainkoa ganik gure gisako dohain edo talenduak ukanak.

Zerbitza ditzagun eta balia gure Nagusiak nahi duen bezala. Eta ez gaitezela izan mutil gaizto eta alferra.

Zelebra ditzagun Jainkoak eman dohain horiek, talendu horiek; eta eskerrak bihurtuz eskain diezogun Jaungoikoari guziek zor diogun omenaldia, amen.

* * *

Fededunen otoitza:

Xanpun:

Nola daukagun mundua
nigar penez apaindua,
herra ta gerla izan ditela amodioz ordaindua,
eta berdin zabaldua
ebanjelio saindua.

Ezponda:

Gure egungo mezara
Urepeleko elizara,
egun ospatu nahi baitugu lagun bat partikularra,
bertsu emaile zilarra
eta eskualdun suharra.

Mattin:

Herritar baten ohoratzeko huna bildu gera egun,
Jainkoarentzat e ez baita gauza ederragorikan nehun.
Denen otoitzak batetaratzuz Jaunari galde dezogun,
gure herri hau begira dezan euskaldun eta fededun.

* * *

Urepeleko jaun meraren hitzak:

Jaun andereak: Ongi etorri bihotzetik. Omentzen dugun herriko seme Xalbadorrek, egun huntan erraiten dauku, eta aitortzen, dela urepeldarra.

Urepeleko herriaren izenean, ene izenean bezala, uros niz sort herrian ukan dezan omenaldia. Agurtzen ditut zure omenaldian parte hartzerat etorri diren bertsulari lagunak. Agurtzen ere zazpi probintzietarik nonbre haundian jin diren zure adixkideak. Euskaltzaleen Biltzarraren babesean Urepelek eta Euskal Herri osoak eskaintzen dautzu ongi merezi duzun omenaldi hau. Bakean eta bozkarioan iragan dezagula eguna. Bestaren alegantzia sar dadila gure gorputzera, eta bertsuen hedadura eta barnatasuna gure bihotzean.

Gora Xalbador! Biba Urepele!

* * *

Euskaltzaleen Biltzarraren lehendakari bezala Mixel Labeguerie jaunak egin hitzak:

Jaun andereak, adixkideak, bi hitz labur bakarrik. Bainan zueri zor ditut hitz horik Euskaltzaleen Biltzarraren izenean. Batasun horrek Urepeleko merarekin eta kontseiluarekin eta herriarekin muntatua baitu egun hau.

Eta zergatik egin du hori Euskaltzaleen Biltzarrak? Egin du ezen Xalbadorrek erakutsi duen talenduan, dohainetan, Euskaltzaleen Biltzarrak parte ttiki ttiki bat badu. Bainan

menturaz baitezpadakoa, ezen batasun xahar horrek, aurten hiruetan hogoi ta hamabost urte dituen batasun horrek, ez balu hastapen hastapenean, duela hogoi ta hamabost urte, Xalbador nola Mattin, nola gero Ezponda eta Xanpun eta beste eza-gut arazi, atera arazi beren etxeetarik, beren herrietarik, menturaz ez ginuen egun agurtzen dugun olerkari zabal haundia ukanen Euskal Herrian.

Bainan nolaz jin baitzaukun mugaz beste aldetik asko jende, bainan ere norbait Naparroako Diputazionearen izenean jin zauku hunat Iturralde jaun diputadua, ofizialki Diputazioneak igorririk, Naparroaren izenean heldu da, beraz, ohore egiterat Xalbadorri.

* * *

Mixel Itzaina:

Orai Aranalde jaun argi eta jakintsunak agertuko dauku, beraz, orai Xalbadorren liburua.

Joxe Mari Aranalde:

Bederatzi urte dira ni lehenengo aldiz Urepelera etorri nintzala. Eta ez nuen asko usteko gaur orduan herri hontara ekarri ninduen izar horren berri euskalzaleei ematen nik ari be-harko nuenik. Egia aitortzen det lan hau pozik hartu nuela. Lana ez-ezik, ohore ere haundia dalako. Badakit nik Euskal Herria bizi deno, Euskal Herriak irauten duen arte, nik hemen aitatzen dedan hau biziko dala. Eta gu ere, horren itzalean agertzen geran izen bakarrak, horrengatik biziko gerala.

Liburu honek, zuek denok inbiriz behatzen duzuten liburu honek, ez du inork ager dezan beharrik. Ez du. Liburu honek aski du hor daramakien izena: Xalbador. Ez nere ez beste inoren beharrik ez du, Euskal Herrian bidea egin dezan, liburu honek.

Hala ere, esan dezadan zerbait. *Odolaren mintzoa* du liburuak izena, norbaitek ez badaki. Liburu huntan bi zati daude,

bi parte, nagusiki. Berak hemen jartzen duan bezala hitz laxoan, edo guk hitz lauz, lehenengo zatia. Berrogei ta hamar bat orrialde edo paxina. Eta hoiien aurretik Emil Larrereren aintzin solas bat; hitzaurre bat, Emil Larrerena, ederra, ederki egina, norbaitek bertsoak kantatzen eta irakurtzen hasi aitzin, irakurri nahi badu.

Eta gero datoz Xalbadorren bertsoak. Zer erran dezaket bertso hoietaz? Bertso hoietaz lehenik esan behar dut biziak, bizitzak jo duan Xalbadorren bihotz horren oihartzuna dirala. Zuek ondo dakizuten bezela, biziak era askotara jotzen du. Jotzen du pozkarioz, jotzen du minez. Eta hemen ere era guztietako bertsoak aurkituko dituzute.

Hasi, hasi etxetik eta etxekoetatik hasten da. Gero, etxetik herrira. Urepelek bere denboran zorko dio Xalbadorri holako bertso andana zoragarria; bertso sail paregabe hori.

Bainan Xalbadorren herria ez da Urepel bakarrik. Urepel sort herria du, bainan Urepel herri zabalago bateko zati bat da. Eta hor dator herri hori.

Baditeke beste gai guzietan ere ona da ta, bainan baditeke onenean herri maitasun horrek sort arazi izatea bertsorik onenak, hoberenak.

Bainan Xalbadorren herria, kidetasuna, haurridetasuna, ez da ez Urepelen ez Euskal Herrian mugatzen; mundura ere zabaltzen da.

Nik Xalbadorren bertsoetatuz dutan iritzia eta liburu hontaz dutana, hitz batean esateko, esango det senditzen dedan bezela, eta barka dezatela bestela uste dutenak. Nere ustez, Euskal Herrian ez da pertsona bakar baten bertso libururik au hainakorik idatzi.

Bukatzeke esan behar dut, Xalbadorri egiazko omenaldia egitekotan, ez dala naikoa gu hemen biltzea, bildu geran bezela. Hau beharrezkoa zan. Bainan Xalbadorri egiazko omenaldia egingo diogu, nik azkenean irakurriko ditudan bertso hoi-ek egi bihurtzen diranean, Euskal Herriko sukalde guzietan.

Zerbait aukeratu behar nuen liburu hontatik, eta hemen bertso sail bat irakurri egingo det eta bestea kantatu.

Irakurtzekoak, nori eskeiniak hauta nezazke? Haur batek bere amari. Hoi en doinurik ez dakit. Hemen dakarren doinua arrotza da; neurriak ere ezezagunak ditut. Beraz, irakurri egingo ditut. Zer da Xalbadorren bihotza? Norbaitek esana du espeziala da. Zer da orain irakurriko ditugun bertso hauek sortzen zaizkion bihotza?

Ama, zuretzat ekarri ditutu liliak...

(Ikus: Xalbadorren *Odolaren mintzoa*, Auspoa 290, 251 or.)

Eta, bukatzeko, eskeintzarekin bukatzen dut. Eskeintza hontan “emazte eta haurrak zaituztet gogoan” esaten du eta ez da dudarik. Bainan hau bere sukaldarako dan bezela, bada Euskal Herriko sukalde guzietarako ere. Hargatik, berak egi ten duen eskeintza kantatuz bukatzen det. Ez du jartzen doinurik eta nik gustoko dedan batean emango ditut.

Nik liburu xume hau idazterakoan...

(Ikus: Xalbadorren *Odolaren mintzoa*, Auspoa 290, 19 or.)

* * *

Mixel Itzaina: Hemen diren bertsularieri, aratsaldean ari behar ez direneri, galdatzen diotet igaitea bertsu bat eman dezaten Xalbadorri.

Jean-Pierre Mendiburu:

Omenaldi hau ongi merezi duzu, Xalbador gaizoa, jaun eskualzale suharra eta herri maitale zintzoa.

Fede argia hedatzailea, apez guzien auzoa, berrogoi urte huntan hedatzen da zure *odolaren mintzoa*.

Nork ez du jada xurgatu zure bertsu ederren gozoa, bertsu ederren gozoa?

Ernest Alkat:

Xalbador, zutan badirelako azkarrik euskal erroak,
gaurko egunak ez zaitu aztu, ezta egingo geroak.
Alkartu tuzu Bizkai, Alaba, ta Gipuzko, Naparroa,
heiekin ere Lapurdi eta Baxenabar, Xiberoa,
eskaintzen dizut zuri, Xalbador, zazpien esker beroa,
zazpien esker beroa.

Abel Enbeita:

Muga faltsoa lenengo aldiz igarorik ona nator,
nor ez poztuko gaur ikustean ainbeste euskaldun jator?
Emen badira bestetan legez bertsoz ainbat urretxindor,
gaur denen aita goratutzen det ta zorionak, Xalbador!

Klemente Ezkurdia:

Aizu, Xalbador, zure omenian euskalduna nola dabilen,
zure izena Euskal Herrian ez da inoiz ere hilen.
Bertsolari ona, gizon aipatua sortu ziñan Urepelen,
beste Xalbador bat herri maite onek eman dezala lenbailen.

Balendin Enbeita:

Etorri gera Urepeleko urretxindorra omentzen,
bertso jartzaillen txapelduna ta berdin bertsoak kantatzen.
Bizi guztian errien alde gure euskera zabaltzen,
ez da erreza daukagun zorra Xalbadorreri ordaintzen.

Elgetzu:

Kanta kantari pozez beterik zugana nator, Xalbador,
ego aldetik zorion bete zuri eskeintzera nator.
Iparraldean euskaldun beti jarraitu oain bezin jator,
Egoaldean ere bagabiltz, askatasuna badator.

Mitxelena:

Xalbador auxen sortu zan, jaunak, frutu bat gue denborako,
beste gizaldi batzuk joanda're zaiotena gogorako.

Euskal Erria zuk ainbestian ez du, ez, iñork lorako,
gure Xalbador izan zagula urte on askotarako.

Mixel Itzaina: Eta huna Uztapidek, egun ezin etorri dena
eta Xalbadorri igortzen dion bertsua:

Omenaldia egiten zaizu Urepelen zorionez,
jaioterriak eskeintzen dizu eta borondate onez.
Zure neurriko beste bat nun da bertsolariz ta gizonez?
Ni're zurekin nago bihotzez, beste lekutan iñon ez.

* * *

Arratsaldean, Mixel Itzainak: Orai Mattinek eta Ezpondek
hiruna bertsu emanen dituzte lehenik Xalbadorrez.

Ezpondak:

Urepeleko mendi zokotan iturri onak badira,
hau jakiteko ez gira egon gaurko egunaren begira.
Bertsularirik ederrenaren ospatzeko etorri gira,
holako guti gure Jainkoak eman du Euskal Herrira.

Hunen ahotik entzunak tugu beti bertsurik onenak,
horren aditzen ohar gabeen pasa ditazke orenak.
Nola hortako oraino azkar derauzkan beti moienak,
ainitz bagira zure bertsuak entzun nahian gaudenak.

Bertsutarako iturriak zuk, Xalbador, baituzu haundi,
zure omena zabaldua da Euskal Herritikan gaindi.
Beti beharrez han dagolakotz euskalduna ta Euskadi,
guziendako malur bat laike kolpez isildu baledi.

Mixel Itzaina: Orai Mattinek emanen ditu hiru bertsu, edo
nahi badu gehiago ere, denen izenean, ezenez aspaldiko bi
izen ezin bereziak dira Mattin eta Xalbador.

Ondoren Mattinek bertsu sail bat kantatu zuen. (Ikus liburu huntako 259. orrialdea).

* * *

Mixel Itzaina: Orai bertze bertsulari guziek emanen dute bertsu bana Xalbadorren gainean.

Xanpun:

Nola arrano bat pausatzen den mendi haundien gainean,
bertzeak baino gorago dabil dabilalarik aidean.

Xalbador, berdin ezartzen zaitut bertsolarien mailean,
bainan badaki berdin pausatzen gure aldaxka berean.

. asten zaitut zeren hau zor baidut egun,
gure Xalbador anaia eta haren ospea daukagun.
Beti izan da gizon argia, eskualdun bezen fededun,
anai arrebak, hori zor dugu, etsenplutzat har dezagun.

Joxe Agirre:

Lendabiziko arratsalde on biotzez, gazte ta zarrak,
ta eskertzen ditut Xalbador eta baitare urepeldarrak.
Nere biotza alaitutzen du atsegin batek bakarrak:
gaur au dalako bildu gerala arbola baten adarrak.

Egileor:

Euskal Erria gora altxatzen zu saiatu zera jator,
esker bero bat eskeiñi naian Gipuzkoatikan nator.
Guk zuretzako badadukagu aitortu ezin ala zor,
ala pentsatzen ez badezu're maitatzen zaitut, Xalbador.

Lazkao-txiki:

Beste guztiak emen dira ta ni're zuengana nator,
nere biotzak senti duena al badet nai nuke aitor.

Geuk ez dakigu seme on oni zenbaitu dioguen zor,
bertsolarien olerkaria baita emengo Xalbador.

Lazkano:

Ene Xalbador, artu ezazu besarkada anaikorra,
bertsolariak ezin du aztu ain iturri emankorra.
Zeu biotz bigun baldin bazera erriak ez du gogorra,
gaurko onetan eman nai dizu aspalditik zuen zorra.

Joxe Lizaso:

Barrunbe eder au ikusitzen det euskaldun fiñez betia,
eta, Xalbador, zailla duk emen ixilikan egotia.
Eta aberi alperrikan duk ire izena erraitia,
eginkizun bat bakarra neukan: zorionak ematia.

Azpillaga:

Egun berezi bat bazela gaur giñaden iragarriak,
alde danetatikan onuntza izan dira etorriak.
Zazpi probintzi berdingabeak badauzka Euskal Erriak,
bere inguruan bildu ditu gaur Xalbador maitagarriak.

* * *

Mixel Itzaina (bertsulariak gaia emanda zenbait bertsu kantatu ondoren): Lazkanok orai bi bertsu Urepeleri. Urepelen bada Xalbador. Bainan ere Urepele Lazkanok ez baitu menturaz hala ezagutzen, bertze gauza bat behar diot erran: Urepelek baditu ehun eta hogoi ta hamasei urte aurten uste dut, parrokia egin zela. Eta Urepelen oraino laugarren apezengan dira. Beraz, hiru apezekin iragan dituzte ehun eta hogoi ta hamasei urte. Urepeleri bi bertsu.

Imanol Lazkano:

Gure Itzainak esan duana gogoan daukat jasua,
esan diteke Urepel dela munduko paradisua.

Gaurkoan beintzat arkitu degu xamurra eta gozua,
ta dirudiñez olakoxea du onek urte osua,

Erri berri bat zail izaten da ezagutzen egun baten,
baiñan Itzainak iragarri dit nolako fama daukaten.
Onuntz noizbaiten apaiza sartu eta iñoiz ezin irten,
hoiek paraje txarran zaleak iñoiz ez dira izaten.

* * *

Mixel Itzaina: Xalbadorri kantatu dutenean bertsulariek,
batek ez du kantatu eta hura da Lopategi. Orduan Lopategiri
gai hau ematen diot: Xalbador, poeta.

Lopategi:

Ni bezelaxe zuek sarritan arritu bear ziñazten,
pentsatuz nola poeta orren bertsoak neurtu ditezken.
Gauza sakonak asmatu eta gauzak sakon adirazten,
Urepeleko maisuagana ez gera iñor irixten.

Sarri dardaraz jartzen baigaitu Urepeleko maisuak,
Naparroako erresumaren sustraitik dakartz mezuak.
Poesi-bidez batu nai ditu zazpi seniden besuak,
poesiarik ez baitu iltzen indarren amenazuak.

* * *

Antton Aranburuk usurbildarren izenean eskerrak emanez
kantatu zuen bertsoa:

Gaurko egunak berekin ditu ainbat ta ainbat aipamen,
Urepel ontan gaur Xalbadorri egiten diogu omen.
Usurbildarrek, Xalbador maite, badugu zure oroimen;
aien eskutik artu dudana eskaini nai dizut emen,
izan dedilla usurbildarron esker onaren aitormen.

* * *

Mixel Labegerie-k Urepeleko jaialdiaren amaieran Xalbadorren ohorez kantatu zituen bertsoak:

Euskalzaleak, bertsulariak, denak bilduak daude hor,
zuri ohore ekarri nahiz, oi adiskide Xalbador.
Zuri ohore ekarri nahiz denak bilduak daude hor,
ni ere, eskuak hutsik izanagatik, present batekin banator.

Edertasunak, egiazkoak, ez du xingola beharrik,
ez eta ere zure bertsoek edergailutzat doinurik.
Bainan usoak den ederrenak ez liro egin bidairik,
urrutitarat eremaiteko berak ez balu hegalik.

Zure bertsoer hegal pare bat eskeintzen doinu hunetan;
gauza guti da, ezta pizua, heldu da bihotzetikan.
Zoraturikan egon nindaik, erraiten dautzut egitan,
zure bertsoak aira balite soinu hunen hegaletan.

Orai, Xalbador, itzuliren naiz zure andrearengana,
bi uso xuri eskain diotzotan ukanik zure baimena.
Izan ditela zure etxean egungo oroitzapena,
bai eta zuen maitasunaren seinalerik eztieta.

* * *

Mixel Labegerie (bukaeran): Badakizute Xalbador eri izana zela ta gaur alditxartu da. Beraz, ez da honarako. Ez da zuen nahiz, ez da gure nahiz, ez da bere nahiz ere.

Beraz, nik uste behar dugula halere ederki bururatu, eta egin hor balitz bezala. Eta erranen ditugu, eta erakutsiko bederen, zer erregalo, zer present nahi ginituen eman Xalbadorri. Present ederra zuen jada egun hau. Behin ere, Iparraldeko

Euskal Herrian ez da izan egun bezalako egunik bertsolari-kin. Xalbadorren bidez ukan dugu hori, eta hori du omenaldi haundiena Xalbadorrek ukana. Desiratzen diogu laster sendatzea; eta, Mixel Itzainak erran duen bezala, ixtantean, bertsolari bakotxa hemen iraganen da bere bihotz bihotzetik desiratuz Xalbadorri laster gutartera berriz itzultzea.

* * *

Mixel Itzaina:

Erranen dautzuet nola finitu, bururatu edo bukatu nahi nuen omenaldi hau. Banituen ekar araziak zazpi probintziatarik haurrak. Eta zazpi probintzietakoa haurrak igan arazi gogo nituen hunat, eta Xalbadorrek zuen bukatzen eta agurtzen. Berak baia emana zautan, harek zuela bukatuko zazpi haur haien aitzinean Euskal Herriaz kantatuz. Ikusten duzue zer bertsuak galtzen ahal ditugun.

Dena den, orai bukatuko dugu bertsolari bakotxak bertsu bat emanez Xalbadorri, eta opatuz osagarri ona.

Azpillaga:

Egun batean eskeini ginen ta emen gera itzeko, egun zein dugun mundu guzian Urepel onen antzeko? Xalbadorrek bi gaitz kendu bitza begi eta biotzeko, urte askoan izan dagigun Euskadiren serbitzeko.

Joxe Lizaso:

Egun onen ametsa genduen aspaldi, orra borda eder bat Euskadiz estali. Egun ederra zan baiñan oraintxe itzali, agur Xalbadorri ta agur Urepeli.

Imanol Lazkano:

Gu zatitu nai gaituzte baiñan Euskadi degu bakarra, Xalbador eta gure erriak badauka bere piparra.

Beti-betiko luzatu bedi gaurko poz eta irriparra,
beti anaiak izan gaitezen Hegoa eta Iparra.

Lazkao-txiki:

Agur, Xalbador, agurtzen zaitut, lagun zar biotzekoa,
ta zure lagun izan dedilla zero ta lurren Jainkoa.
Ni banijoa emendik baiña emen utzirik gogoia;
besarkadatuz agurtzen zaitut, Urepeleko txokoa,
beste seme bat sor zazu laster Fernandoren antzekoa.

Lopategi:

Gaur Xalbadorrez jaso ditugu gure Euskal Erri zarrak,
Iparraldeko aberri egun zirudin gure biltzarrak.
Gukin otoika gora so daude aritzak eta lizarrak,
osasun berriz argi ein dezan Urepeleko izarrak.

Joxe Agirre:

Nik eskari bat egiten dizut, zeruetan zauden Jauna:
komeni bada eman zaiozu Xalbadorri osasuna.
Ainbat eta ainbat aldiz emendik gu bisitatzeraz juna,
ain degu lagun maitea eta ain degu lagun kuttuna,
gure inguruan dagon guzian pozez jantzitzen gaituna.

Ezponda:

Naiago nituen bertsuak entzun berari,
domaia da hunarat ezin da etorri.
Hauxe galdatzen diot zeruko Jaunari:
osasun on bat emakozu zuk Xalbadorri,
luzaz ibili dadin euskaraz kantari.

Xanpun:

Gure Xalbador gaizkitu dela zabaldu dute berria,
nola gaur hartu gertakariak utzi daukun negurria.
Jainko maitea, emozu otoi lehen zuen osagarria,
luzaz ohora dezan oraino zu eta Euskal Herria.

Mattin:

Hoi t'hamar urte eginak ditut inik horren ezagutza,
geroztik gure amodioa bein e ez da izan hotza.
Gaur zure partez agurtzen ditut ezaguna ta arrotza,
Jainko Jaunari guzien partez eskainiz gure otoitza:
lehen bai lehen senda dezala, Xalbador, zure bihotza.

* * *

Jaialdia bururatzeko *Gernikako arbola* kantatu zan. Jende guzia hartan ari zala eman zuen Xalbadorrek azken arnasa, pilota lekuaren ondoko eskoletan. Aunitz eta aunitz gertatuaren berri jakin gabe joan ziren beren etxeetarat.

Xalbadorren ehorzketak

Urepele, 1976.11.10

Baskans jaun erretoraren hitzak:

Haurrideak, aratsalde huntan bilduak gira Urepeleko elizan, nahigabetan direneri gure amodioaren erakusteko, ta ere parte hartzen dugula heien penetan. Erakusteko bizi huntako gorabeheretan bat egiten gaituzten lokarriak ez dituela herioak hausten; eta bildutasunean otoitz egiteko; Jainkoaren hitza entzuteko; Jesus Jaunaren sakrifizioan parte hartzeko.

Eta horiek guziak sinesten dugulakotz Jainkoa orroitzen dela Xalbadorren bizian zer izan den eder, haundi eta goresgarri. Eta Hari galdatzeko bere ondoan har dezan.

Jesus Jauna, orroit zaite heriotzeraino maitatu gaituzula. Kurutze hau izan bekigu Xalbadorrentzat eta gu guzientzat duzun amodioaren ezagutgarri.

Bazko argi hau piztu dugu Xalbador gure haurridearen ondoan. Argi hori Zu ganik heldu zauku, Jauna, gure ilunpeen argi. Jainko gure Aita, Xalbador gure adixkidearen heriotzeak orroit arazten gaitu deus guti dela gizona; eta biziki laburra haren bizia.

Bainan zure amodioan sinesten dutenentzat herioa ez da denen bururapena. Hor dugu Jainko semeen esperantza, eta guretzat argi egiten du Kristo piztuaren argiak, herioaren garaile den Kristoren argiak.

* * *

Egin dezagun otoitz: Jesus Jauna, ikusten duzu gure nahigabe ezin jasana, ez dugularik on hartzen ahal ere Xalbadorren hola joatea. Zu ganat itzultzen gira. Zuk ezagutzen baigaituzu, eta Zuhaur iragan baitzira konpreni ez ditaken kurutzeko he-

riotzean barna. Egizu konpreni dezagun zure amodioaren aberastasuna, heriotzetik eremaiten baigaitu bizira menderen menderetako. Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez...

* * *

Hemendik joan baino lehen, elgarrekin azken agur bat eginen diogu Xalbador gure haurrideari. On har dezala gure maitasuna; ezti gure bihotz mina, finka gure esperantza. Egun batez berriz aurkituko dugu Jainkoaren bozkarioan, Kristoren maitasunak gaitz guziak errautsirik, herioa ere osoki garraituko duenean.

Gauden apur bat ixilik, gogoan ditugularik Xalbadorrekin iragan ditugun urteak. Nor izan den guretzat, nor den Jaungoikoarentzat.

Penetan da etxea, penetan auzoa,
Horiekin batean herri bat osoa;
gizon baten galtzea ez baita goxoa,
guziz gizona baitzen zu bezalakoa.¹

Bai. Penetan da etxea, penetan herria, penetan Euskal Herria. Igandean bozkarioak elgarretaratu gaituen bezala, egun saminak eta penak gaitu elgarretaraten. Bai, Xalbador: bazinakien aspalditik zorion eta penak direla elgarrekin dagozinak. Erraiten zin aukun:

Gozatzen ginaudela emana zitzaukunaz,
ez ginuen pentsatzen asko biharamunaz.
Nor ez da urrikalduko guk pairatzen dugunaz?
Galdu duguna gogoan gauaz eta egunaz!

¹ *Mixel Monako* sailaren bigarren bertsoa.

Hunela gabetzeko guhauren ontasunaz,
Jauna, dudatzen ari naiz zure zuzentasunaz².

Bai; gure bihotzetan ere sortzen da holako oihua. Kasik dudarazten baitauku Jainkoaren zuzentasuna. Izan ere, gozatzzen ginaudela omenaldiaren ederra, bet betan jin baita bihotzetarat pena eta mina.

Eta orai, Jainkoaren aintzinean agertu zirelarik, egin diozu zure aiterra, gizon guziek egin beharko dugun aiterra. Etzinen lotsa, bizi zinelarik, gizonen aintzinean egiteko, kantatu zinuellarik:

Entzuleeri behar diotet hau erran haste hastetik:
errexenerat nintzan lerrakor gauza guzien gainetik;
ahulezia ene nagusi izan da egundainotik;
ukan aholku guzien eta Jainko beldurraren gatik,
ez nau, ez, deusek nehoiz beiratu bekatoros izaitetik.³

Bainan zeruari so ezartzen zintuen fedeak, ait'amen ganik ukan fedeak:

Nik ere mundu hits hau utzi behaut laster,
orai zeruari so ez naiteke asper.
Aita, ez nau utziko Jaunak hortik bazter,
zuk eni helarazi fedeari esker.⁴

Eta fede hortan, Xalbador, bizi zinelarik, Jainko onari aiterra hau egin zinakon:

Zure laguna eginez geroz enetzat ez da nekerik,
zure behako samurrak eman nau fidantziaz beterik;

² *Agertu orduko gorde iduzkia sailaren bostgarren bertsoa.*

³ *Jainkoa eta ni sailaren bigarren bertsoa.*

⁴ *Ene aita zenari sailaren laugarren bertsoa.*

deusen galderik ez dautzut bada egiten ene baitarik,
ez gaztigua urrun dezazun, ez eta sari eskerik,
gaurkotz ez dautzut deusik eskatzen amodioaz besterik.⁵

Amodio horri esker uste dugu eta fida gira kantatzen ari
zirela Mixel zure lagunari, bizi zinelarik hitzeman ziniozkan
bertsuak:

Horra bertsu berriak zur'amodioan:
moldatau ditut, Mixel, zu joan ondoan;
oraino gehiago badituz gogoan,
ekarriko daukitzuz horraratekoan.⁶

* * *

Eta orai bertsulariek eginen dute beren azken agurra beren
bertsulari lagun eta langile Xalbadorri.

Etxahun:

Bizi halaber hortxe probara zuretako
nork sinets dügularik zuer hunat ikusiko
izarra zinen aitz ederregi mündü huntan zahartzeko,
ez adiorik, gaizo Fernando, etzitügü ahanzteko.⁷

Lopategi:

Agur tristea egin ziguzun omenaldiko egunez,
ta ona berriz inguratua gizon, andere ta umez.
Bizkaiak ere ditu, Xalbador, zure zenbait azken amets,
sortuko diren lore ederrakin gaur egiten dautzut promes:
urte guztitan etorriko naiz Urepelera erromes.

⁵ *Jainkoa eta ni* sailaren seigarren bertsoa

⁶ *Mixel Monako* sailaren hamargarren bertsoa.

⁷ Bertsu hau Etxahunek kantatu zuen. Baina guk ezin izan degu haren bertsoa osorik ulertu ahal izan.

Joxe Lizaso:

Euskal Erri guzia zuela testigu.
Xalbadorrek mundutik alde egin digu.
Gipuzkoar lagunak agurtzen zaitugu;
baldin zeruko Jaunak laguntzen badigu,
egun aundian alkar ikusiko degu.

Lasarte:

Izar eder bat igesi joan zera menditxo batetik,
berriz piztuko zinduzket pozik nik nere borondatetik.
Zeruko Aitak aska zaitzala pekatuaren katetik,
Xalbador maite, agurtzen zaitut napar guztien partetik.

Mattin:

Hoinbertze ibiliak biak herriz herri,
azken agurra egun in bear Xalbadorri.
Jauna, zure aintzinian nihor ez da garbi,
zerua ikus dezan egiozu argi.

Bazuen amodio, bazuen bertute,
Jainkoaren legea nahiz ongi bete.
Aingeruek arima ereman diote.
Agur, lagun Xalbador, eta ikus arte.

Lapurtarren partetik azken adioa,
hauxe kantatzen daiat tristerik gogoia.
Jesukristo bezala mundutik bahoia,
ondokoeri utziz ebanjelioa.⁸

⁸ Hirugarren bertsu hau buruan ereman bai, bainan ez zuen Mattinek kantatu.

Xalbador zenari

Gure herriko patroia San Martin dugu, eta herriko bestak San Martinetan izaten dire, azaroaren 11n.

Bainan urte hartan, Xalbador orduan hil berria eta hura ibilki nuen buruan, nola galdu ginuen eta bertsu batzu jarri behar niozkala.

Eta, besta izan arren, bertsu hoik jarri nituen. Besta baino gehiago laguna nuen gogoan.

Nehor ezin gintazke munduan gelditu,
deia etorritz geroz behar obeditu.
Jainkoak kristau denak berdin egin gaitu,
hoberenak gazterik erematen ditu.

Urepelen bilduak bederen bi mila,
ospatzerat joan eta utzi dugu hila.
Nahigabetan dena kontsola dadila:
Jesus bera zerutik etorri da bila.

Bataiatu elizan, igande goizean,
hire kartsutasuna komuniatzean!
Bihotza pizten zautak huntaz orroitzean:
mundutik joan haizela Jesus bihotzean.

Bihotza urtzen zeraut huntaz orroitzian:
berek in jar arazi bainau bazkaltzian.
Zonbeit aldiz egona hire sahetsian,
azken aldikotz zela nork erranen zian?

Batzuek joanak eta bertziak joaitekuak,
han gelditu ginenak mutu harrituak.
Bildu ziren apezak eta medikuak,
denen artetik dauku ereman Jainkuak.

Egun orroitgarria han ginen denentza,
ohartu gabe ere jin baitzen arratsa.
Xalbadorrez orduan nork zezaken pentsa
ematen ari zela bere azken hatsa?

Orai gelditzen zaukuk hire liburua,
Euskal Herriarentzat dote arrarua.
Jesukristok bezala utzi duk mundua,
ondokoeri utziz ebanjeliua.

Atzo ehorzketa zen, gaur biharamuna,
gure herriko bestak, San Martin eguna.
Kantu hauk idatzi tut harturikan luma,
ezin ahantziz nere Xalbador laguna.

Mattin Treku: *Etxe xokotik kantari*, Auspoa 151, 1981

Donostiako hileta elizkizuna

Donostiako Artzai Onaren eliz nagusi edo katedralean, 1976.11.12an, Xalbadorren animaren alde egin hiletan kantu bertsuak.

Joxe Lizaso:

Lagun Xalbador, aldegin digu guregandik urrutira,
aren anima atera zaigu illunpetatik argira.
Lore garbi bat nor dan munduan Jainkoa zegon begira,
aukeratu ta eraman digu zeruko jardín aundira.

Patxi Iraola:

Agur, Xalbador, erri maitale, bertsolari fin, txukuna,
beti-betiko atsedenera gure artetikan juna.
Hor gelditzen da zure nortasun, istori edo ituna,
zera gizon bat, il zera baiñan lurrak jango etzaituna.

Kosme Lizaso:

Gaurko egunak nere barrena illunpetatu du ia,
gauden mundutik joan baitzaigu Frantzian zan gidaria.
Agurtzen zaitut beti-betiko, Euskal Erriko txoria,
zintzoa eta zuzena ziñan, ta abestitan ezta...
Jaunarekin bat igaro zazu betikotasun guztia.

Aittola:

Ene Xalbador, bukatu zaizu mundu ontako bizitza,
orain bestean aingeruekin kantu kantari zabilta.
Zure animan alde dijoa gure bertsozko otoitza,
errian alde nola entzun gendun zure azkeneko itza,
orain zerutik sendatu zazu guk emen daukagun gaitza,
guk emen daukagun gaitza.

Igarzabal:

Goguan degu gure Xalbador, oroigarria baita,
gizon bezela laguna nuen, bertsolarietan aita,
ark erakutsi baitzidan erri au nola bear zan maita;
saiatuko naiz kontseju aiek al dala ondo bete naita.

Txomin Garmendia:

Asko aurreratu dun gizonak ezin kendu eriotzik,
orregatikan gure Xalbador gaur or daukagu illotzik.
Sentimentuak aitortutzeko nik ez dadukat biotzik,
berriz ez degu entzungo emen aren kantu ta abotsik,
zeru aldetik lagun zaiguzu, ez daukagu beste pozik.

Sebastian Lizaso:

Uste baiño len Xalbadorrentzat azken ordua itzuli,
erria eta Jauna serbitzen beti egin zan ibili.
Gizatasuna elburutzako zuelako erabili,
Jaunak zerua eskeiñi dio omenaldiko erregali.

Lazkao-txiki:

Erriarentzat orrenbeste lan egin da ondorenean,
denok umezurtz emen utzita joan zaigu lengo batean.
Zerutar Jauna, bertso-otoitz au doa bere izenean:
gure Xalbador gorde zaiguzu betiko zorionean.

Santi Zabala:

Xalbador, zure omena eta hiletak dauzkat goguan,
gizonen muga dela medio ez nuen al izan juan.
Baiña muga hoiek hautsitzen dira heriotzeko orduan,
mugik gabeko erresumetan goza Artzaiaren onduan.

Egileor:

Lagun Xalbador, zu agurtzeko biotzez ez nago gogor,
eriotzako kate ortatik ezpaita libratzen iñor.
Dakiguna da jaio ezkeru nola degun iltzea zor,
gu ere laster bagatoz eta ordura arte, Xalbador.

Mendizabal:

Maitasuntsua izan da gutzat Xalbadorren eriotza,
ta ara emen erriak dion maitasun orren aitortza:
naiz ta mingaiña geldi eduki, indar gabe eta otza,
aztuko ez diran bertso kantari ari da zure bihotza.

Gorrotxategi:

Gure Xalbador Jaunan onduan falta geranon zai dago;
gure artean izan bagendu askozaz gendun naiago.
Bizi zalarik maiteak giñan, eriotzan anaiago,
mundu onetan lagun bat falta, ta zeruan bat geiago.

Murua:

Euskaldun jator izan zerana, erriak asko dizu zor;
zazpi anaien alde lanean beti aritua jator.
Gazteok ere ase ginduzun naiz zuretzat izan gogor,
batasunaren irudi ona zera guretzat, Xalbador.

Azpillaga:

Lengo jaiean Urepelen zan omenaldi bat mardula,
au naigabea, azkenerako malkoz estali gendula!
Bertsozale ta bertsolariak auxe sinistra daigula:
Fernando Aire hil dala baiño Xalbador bizi zaigula,
liburuetan gelditua da ta ezta ilko sekula.

Imanol Lazkano:

Denok bezela, jaio zanetik iltzea zuen sententzi;
baiñan Jaunari eskuak utsik ez dizkio erakutsi.
Liburu bat zun azken aitortza ta eriotza penitentzi...
Santu bat geio bada zeruan iñork nai badu goretsi.

Lasarte:

Zu agurtzera gatoz, Xalbador, maitasunez ta ondradu;
lagun bat galdu zaigualako tristura aundiak dauzkagu.
Guk ere zure bide ortatik pasa bearra daukagu,
zeruan berriz bilduko gera Jainkoak ala nai badu.

Jon Enbeita:

Urepeleko euskal lurreen sustraitu ziñan lizarra,
Jaungoiko zale, erri maitale, euskaldun trebe, giarra.
Erri zaindari ziñan lurreen, orain zeruan izarra...
Zure gorpua lur biurtzean, berakin gure negarra,
euskal lur ontan izan daitela zugaitz berrien indarra.

Amuriza:

Il da Xalbador eta entzun da iparraren asperena,
joan da Xalbador eta galdu da aundietan aundiena.
Aren abotsa ondo gabeko biotzaren sentimena,
gizonei eta arriei ere negar eragin diena,
goiko izarrek gordeko dute Xalbadorren oroimena.

Joxe Agirre:

Xalbador, bazekizun zuk gizon izaten,
gauza on pranko egin, baita ere esaten.
Aingeruak bidera irtengo zizuten,
zuretzako tokia edukiko zuten.
Ia guretzat ere gordetzen dezuten.

Lopategi:

Umildadezko soinekoekin zugaratu zendun plaza,
erronka bage jaso zenduen bertsularien arraza.
Berriz entzungo ez dugun arren, Xalbador, zure solasa,
zeru ta lurrez hedatzen baita poeta baten arnasa,
gogoz gurekin kantako duzu, soinez deskantsatu lasa.

Patxi Etxeberria:

Ara, Xalbador, agurtzen zaitut: gure artetik joan zera,
betiko Aitak dei egin eta pozikan bere etxera.
Aingerutxoen tartetik guri begira egongo zera...
Zorionak or goza ditzazu artzai onaren antzera.

Balendin Enbeita:

Agur, Xalbador, agur ta erdi, baiña ez il zeralako;
Euskal Erriak bizi zerala beti dizu aitortuko.
Zure bertsoak, zure abotsak jarraituko du betiko,
Urepeleko urretxiñola ez da iñoiz itzaliko.

Rufino Iraola:

Denbora justu eman diozu, Jauna, gure Xalbadorri,
baiña behingoz etorri bazen etzan alferrik etorri.
Au egia den ikusi, beraz, *Odolaren mintzo* orri,
bere medioz elkartzen gaitu euskaldunon bi jatorri.

Arozamena:

Begiak negarrez dauzkat eta pena berriz biotzian,
negarra nola eztegu egingo Xalbadorrez oroitzian?
Santu bezela bizitu ziñan ta il aingeru-antzian,
orain zeruan gozaten dago zoriontsuen etxian.

Xalbador adixkide zenari

1976.11.7an, bere heriotzaren biharamonean,

Doinua: Kantoreño hauk gure herrian...

Lau aste huntan euriek zuten itotzen hasia lurra,
ez ginakien noiz geldituko zen zeruaren nigar hura.
Azaroaren zazpian zaiken denbora txarra burura,
iguzkiak e bota zeraukun bere behako samurra,
zuri, Xalbador, hark ere nahiz eskaini bere agurra.

Urepeleko zeru gainean gora zitazken urtzoak,
haize ezti bat ekartzen zuen mendi artetik hegoak.
Zer ote zuen izpirituan gure Xalbador gaizoak?
Bozkarioa dudarik gabe gordea bihotz xokoak,
eguna zuten horri eskaintzen herriak eta Jainkoak.

Parerik ez du nehoiz izanen, Xalbador, zure biziak,
zure alderat zordun gelditzen dira euskaldun guziak.
Horren ordaintzen igande hortan xumeki ginen hasiak,
bainan Jainkoak nahi zauzkitzun eman zeruko graziak,
hemen nigarrez utzi ondoan zazpi euskal probintziak.

Xalbador, zure omenaldia nork ez du bere gogoan?
Egun handia izango zela ageri zen zure soan.
Apostoluen artetik Kristo nola zerurat zen joan,
halaber zira zu ere sartu betiko bakezko loan,
Euskal Herriko haur ta anaiak zintuelarik ondoan.

Zure lagunen bertsu ederrez orroitzen naiz arras ontsa,
denek zioten Jainko Jaunari egina beren otoitza
senda zezala lehen bai lehen, Xalbador, zure bihotza.
Bainan bertzela zeruak dautzu helarazi bere botza,
hango sailduak ta aingeruak zutaz zitazkela goza.

Ez ditut hemen nik aipatuko zure lan miresgarriak,
zure liburu xoragarrian asko dira ezarriak,
nahiz oraino gelditzen giren gose eta egarriak.
Akabo zure ezpainez zuzten bertsuak eta irriak,
dolutan daude Euskal Herriko mendi eta iturriak.

Urepeleko izar argia joan zauku beraz ihesi,
egia dela onhartu behar, alta ezin da sinetsi.
Begiak goiti altxatu eta otoitzean nintzan hasi,
ilargia zen bete betean, Xalbador ez du achantzi,
hau nahi zuen: bere argian zeruraino helarazi.

Egun ederra egun txarrerat kanbiatu da bet betan,
zure bihotza ezin zaiteken senda ahal ohoretan.
Uzten daukuzu zer etsenplua *Odolaren mintzo* hortan!
Euskal Herria ahuspez dago, Xalbador, zure oinetan,
zure izena sartua baita euskaldunen bihotzetan.

Egin ziloa ezin da estal, iduritzen zeraut eni.
Euskal Herritik hola joaitea nola ditaikete komeni?
Lehen erranak oroi obretan: zure *Jainkoa eta ni*;
bainan etxean daudenak ere Jaunak ditzala konpreni.
kotsola bitza familia ta laguna zuen Leoni.

Betiereko bake ta pausu, Xalbador, dautzut opatzen,
zeruko alki ederrenean zaudela ez dut dudatzen.
Guziz zorretan izana gatik hau derautzut nik eskatzen:
Euskal Herria hortikan ere lagunt dezazun salbatzen,
bai eta ere gure nigarren zure bihotzaz xukatzen.

E. A.

Herria, 1976.11.18

Urepeleko eskolan...

Urepeleko eskolan hil zaiku hil Xalbador,
hain pertsulari sarkorrik ez zen nehun ez nehor.
Harek ederki zakien, erortzean hil gogor,
azken hatseko pertsua emaiteko nun eror.

Ez dugu azken hitz hori adituko sekulan,
nahiz bizitze guzian haren ontzen zabilan.
Argi ta garbi derrauku bere azken hil koplan:
euskara behar dugula sar arazi eskolan.

Mattinek erran bezala xuti zaite. Xalbador,
suzko pertsuak Jaunari zeruetara igor:
zu bezalako gizonak gutartean diton sor,
ez diezogun gaur eman erdarari guk amor.

Goiko indarraz deneri egin araz funski lan,
euskaldungoa nausituz, irakituz dabilan.
Xede hau barna finkaraz euskal bihotzen zolan:
euskara behar dugula sar arazi eskolan.

Iratzeder
Herria, 1976.11.25

Segurako omenaldia

1976ko azaroaren 7an, Urepelen hil zen Fernando Aire *Xalbador* bertsulari maitea, bere *Odolaren mintzoa* (Auspoa sail nagusia) liburuaren aurkezpen eta omenaldi egunean. Baina albiste txarra jakiteke itzuli zen bertszuale asko Urepeletik etxera. Eta jakinik ere, zaila zen sinestea zinez. Hileta elizkizuna, zegokion bezelaxe, doluz eta penaz egin zen Urepeleko elizan, azaroaren 10ean, asteazkenean.

Gero, azaroaren 27an, Xalbadorren gorazarrezko bertsu jaialdia, meza santua aurretik zela, antolatu zuten Segurako parrokian, eta Basarri, Lasarte. Lazkao Txiki, Lazkano, Martín eta Gorrotxategik kantatu zuten. Lehenik, meza denboran, hiruna bertsu kantatu zituzten Basarrik eta Lasartek:

Basarri:

Bere omen egunez azkena etorri,
ori gertatu zaio lagun Xalbadorri;
pozikan komeni ez biotz aundi ari!
Begi ondoak malkoz, biotzak ler zori,
luto beltzez jantzi da gure Euskal Erri.

Urepeleko izar dizdiratzaillea,
bertsolari, poeta aundi ta trebea;
sentipenak agertzen berdiñik gabea
gure euskera zarraren egizko abea...
Zeiñek bete bear du zure utsunea?

Euskal baratzak zuen lore indartsuena
kolpez agortu zaigu, au naigabe, pena!
Baiña, Jauna, zu zera jaunik altsuena,
badakit nik Xalbador maite zenduena.
Emaiozu betiko pake ta atsedena!

Lasarte:

Artu dezagun goguan
gizonak zenbat zor duan.

Zu eskertzea zailla da, Jauna, merezi dezun moduan;
lagun zaiguzu bizitzan eta eriotzeko orduan.

Xalbador dago illotza,
ixildu zaio itz otsa.

Omenaldiko egun aundian izan zuen eriotza,
maitasunaren indarrarekin lertu zitzaion biotza.

Entzunik bera il zala,
bai ni arritu nintzala!

Xalbador, guri utzi diguzu tristura aundiko itzala,
Jaungoikoari eskatzen diot berekin artu zaitzala.

* * *

Meza bukatutakoan, Joxe Mari Iriondo:

Gabon. Beraz, elizkizun berean sartzen degu bertso saioa ere. Eta behin behar zuen sartu, iruditzen zait bata bezain elizkizun badala bestea. Giro eta toki berezi honetan, nik badakit, batetik, betondoak gorri eraztea erreza dala. Beste aldetik ere badakit otz otzeko saio bat egitea zailla dala; eta bietatik iges egiten egin ahalak egingo ditut neri dagokidanez. Bertsolarien aldetik berdin pentsatzen dut, bestalde. Saioa oso giro berezian egiten dala zalantzarik ez dago. Hori begien bistan da.

Bestalde, nik, hemen esan dan eta hainbat alditan entzuna dedan zerbait, nere aldetik nere iritziz argitu ere nahi nuke. Esaten baida sarri, milla bider esana da, Xalbadorri gipuzkoarrok txistu egin genioela egun batez. Eta ni horretan inoiz ez naiz egon eta momentu honetan ez nago bat. Egun hartan Xalbadorri ez baitzitzaien txisturik jo. Egun hartan txistua gauzak hala epaitu zituen taldeari jo zitzaion. Beraz, gipuzkoarrok

geren erorialdiak izango ditugu, bainan ez gera hain aztazakillak Xalbador hori ta horrenbestez txistutzeko.

Uste dut, beste alde, Xalbadorri ongi baiño hobeki merezitako fama eta sona beti eman izan diogula. Eta hemendik aurrerakoan fama horrek iraungo duela zalantzarik ez daukat.

Badakit ere, beste alde, Xalbadorren bertsoa ulertzea ez zala eta ez dala hain gauza erreza. Zuetako askoak haren liburua, argitaratzen ari dan liburua, ikusten baduzue, eta haren bertso paperak behin baiño gehiagotan esku artean izan ditugunok, eta bertsoak entzun ditugunok ere, lehenengo irakurraldian, eta bigarrenean eta hirugarrenean eta laugarrenean eta gehiagotan, beti zerbait berria jasotzen genduen. Eta horregatik ez da harritzeko bat bateko saioretan gauzak beti ez ondo konprenitzea. Hala ere, hau nere iritzi bat da, bego garbi, Xalbador beti aitortu izan dugula eta aitortzen segitzen dugula, zalantzarik gabe.

Eta orain ondoren beste ohar bat ere bai. Gaur Seguran bezelaxe, beste erri askotan bazetozen, eta diot bazetozen, Xalbadorren omenezko jaiak. Gipuzkoan ez dira herri asko izango Xalbador bertso kantari izan ez denik. Gaur bertsolari gehienak bezela, hura ere hemen izaten zan sarri; eta herri bakoitzak bere esker ona nola hala erakutsi nahi lioke. Bizi baita Xalbador; eta erakutsi nahi lioke esker on hori hari eta bere familiari.

Hala ere, bertsolarien artean billera egin berri da eta hurrengo hillaren lehenetan egingo da beste billera bat, omenaldiak herriz herri bakoitzak bere kontura antola ez ditzan. Omenaldi bat hemen, han beste bat, han beste bat, azkenera oitura edo grina bihurtzen baita; eta, oitura danean, oiturak hozten joaten dira; grinak hotzagotzen.

Beraz, Euskal Herri osoaren maillan Xalbadorri hurrengo otsail edo martxo aldean omenaldi bat egingo zaio. Baiña guziz omenaldi haundia, gaillena. Hori nahi litzake.

Eta orain haren omenaldiak antolatu nahirik dabilzan herri hoiek nahi baldin badute, kontu eman dezakete; eta omenaldi hura antolatzerakoan, denak kontuan izango dira, denen laguntasuna beharko da eta laguntasun hori eskatuko ere da.

Beraz, nik ez dakit Xalbadorren fameliari hau esana zegoen edo oraindik esateko zegoen. Beraz, honenbestez jakin dezala asmoa zer dan. Hemen baidago Xalbadorren familia. Besterik ez. Nere berritsualdia luzea zan.

Orain bertso saioa hasiko da. Eta bertsoetan Gorrotxategi, Lazkano, Lazkao-txiki eta Mattin ditugu lehenengo. Giro berezi honetan jakingo al dute aurrera irteten. Bertso saioa esan nai det benetan labur egingo degula.

Hasteko, hala ere, Xalbadorren bertsoa ulergaitza edo sakona zen bezelaxe, Xalbadorren bizitza eta heriotza ere horrelakoxeak gertatu ziran, Urepelen izan giñanok, eta ni, esate baterako, seirak eta hogeit hamar inguruan handik etxera abiatu banintzan ere, berria jakiteke etorri nintzan eta bertsolari asko ere bai..

Beraz, bertsolarietako egun hartako beren esperientzia galde-tuko diet, beren gertakizunak nola izan ziran, bana edo bina bertsoetan konta dezaidaten.

Lazkao-txiki:

Pozaren pozez joanak giñaden Urepeleko herrira, aurreko egun askotatik geunden alde artara begira. Pozez joan eta negar-malkotan giñaden etxera jira, neguko egun da gizonarenak olako motxak baidira.

Lazkano:

Maitasunaren geiegizkoak biotza zion zauritu, gure Jainkoak jakingo al du guzia nola saritu. Biotz on ura lertzearekin ez gaitezela arritu, ainbat maitasun biotz batean ezin ziteken kabitu.

Mattin:

Inor ezin gintezke munduan gelditu,
deia etorritz geroz behar obeditu.
Jainkoak kristau danak berdin maite gaitu,
hoberenak gazterik ereman oi ditu.

Gorrotxategi:

Nai eta ala ere ezin ba kendu barreneko penik,
ainbeste maite nuan laguna joan zitzaigula jakinik.
Omenaldiko ordu aundian ez bainuan agurtu nik,
ez nuelako mugaz aruntza pasatutzeko baimenik.

Lazkao-txiki:

Gure ondotik joan ziñan, bai, orrelako egun aundiz,
zure biotza lertu zitzaizun ango atsegin geiegiz.
Pena bat daukat: ikusitzerik ez dadukagula berriz;
baiñan gauza bat: ikusten zaitut nere biotzaren begiz.

Lazkano:

Beste munduko gauzak badira guri esan zaigun era,
emen txaloka agurtu genun ta an txaloka arrera.
Aingeru denak irtengo zuten zeruko ate aldera,
aidean artu ta eramateko bertsolai zarren taldera.

Mattin:

Hari begira egona nintzen hango meza nagusian,
harek zeraukan kartsutasuna hantxe komuniatzian!
Nere bihotza piztutzen da gaur gauza hortaz oroitzian,
bertze mundura joan da Xalbador Jesus bere bihotzian.

Gorrotxategi:

Agur egin zun egun aundia nola ez izan goguan?
Bere bearra bagenun baiño bera da igesi juan.
Jaunak eraman Euskal Erriko martiri baten moduan,
orain izar bat geio badegu Euskal Erriko zeruan.

* * *

Joxe Mari Iriondo: Lazkanok eta Mattinek egingo dute orain saioa. Lehenago sarreran entzun detan zerbait da. Zioen norbaitek, segurarren batek: «Gaur aspaldiko urteetan bete ez dan bezela beteko dek Segurako eliza». Eta erantzuna horrelakoa ikusi degu. Zergatik ote da?

Lazkano:

Ene entzule biotzekoak, bete dezute eliza,
eta norbaitek esan duenez gutxitan oi dan gisa.
Bakoitzak berak ikusi bear nola dabilkin kaliza,
gaurko eguna berezia da ta horrek digu abisa.

Mattin:

Nik pentsu nuen zuen eliza gaur zala ondo beteko,
Segura aldeko jende jatorra baitago borondateko.
Bai eta ere Xalbadorrentzat otoitz baten egiteko,
gizon jatorra eta eskualdun oso zintzoa zalako.

Lazkano:

Gaur Segurako erriai zaio elizara eragiña,
ta ikusten da lorez beterik Jaungoikoaren jardiña.
Eleiza sarri etortzen dana ez da kristaurik aundiña,
datorrenean ekarri bear bere sentimentu fiña.

Mattin:

Gaur jende asko bildu da hemen apezaren ingurura,
hau ikustean gauza bat neri gaur etorri zait burura.
Bihotzetikan otoitzean aitu da arrats huntan Segura,
purgatoriotan bazagon ere ereman degu zerura.

* * *

Joxe Mari Iriondo: Orain Lazkao-txiki eta Gorrotxategiren txanda. Gorrotxategi, Esaera zahar bat bada Euskal Herrian, beste asko badiran bezela, honela dioena: Odeien ondotik eguzkia.

Gorrotxategi:

Jaio orduko sufritze ori gizonak dauka berekin,
alde danetan degu tristura, alde danetan degu min.
Baiño jokatu gaitezen danok geroko itxaropenakin:
egun obeak izango dira, etzagun negarrik egin.

Lazkao-Txiki:

Beira dezagun, anai-arrebak, esaeraren esanean:
illuntasun bat beti sortzen da bat pozik bizi danean.
Ta gauza bera ikusi degu guk Xalbadorren etxean,
berriro poza sortu dedilla tristura ondorenean.

Gorrotxategi:

Naiz ta gaiñean sarritan izan ekaitza-odei illunak,
ondorioan itxaropena badauka fedea dunak.
Negarran faltik santa sekulan ez daukagu euskaldunak,
gu al gerade len eta gero sufritu bear degunak?

Lazkao-txiki:

Jaio giñanok il bear degu, jaiotzeak ori du zor;
bide ortatik aldegiteko ez giñaden jaio iñor.
Biar guretzat etorriko da, orain il zaigu Xalbador;
penak aztuta zeruan baita ta bizi umorez ta jator.

Xalbador

Airea: Denbora batez banindabilan

Hemeretzi ehun hiru hogeitaz hamaseieko hazila,
berri triste bat zabaldu zaiku ortzi ximizta bezala:
denek hoinbertze maite ginuen Xalbador jauna hil dela,
berri latz horrek deneri dauku hunki bihotzaren zola.

Heriotzeak garraitu zaitu orainon gizon gordina,
Jainkoak beretza hautaturik bildu zaitu bere gana.
Bizi guzian Jesusi duzu atxiki anaitasuna,
hemen iragan duen bizian zu bezala zen artzaina.

Mundu huntako bizia labur eta hiltzea segura.
lege horri eskapatzen denik ez da etortzen mundura.
Jesus maiteak guretzat hilez ekarri dauku mentura
Jainko legean ongi jarraikiz denak heltzeko zerura.

Hoinbertze jende zahartu gabe joaiten baita mundutik,
zaharrak orok beren aldian partitu behar hargatik.
Ainitz ahaide ta adixkide inguru izanak gatik,
norberak hale piaia hortan partitu behar bakarrik.

Gazte gazterik ukana zuen horrek dohain berezia,
beti hobeki moldatu nahi haundi ere gutizia.
Nola estima Euskal Herrian horrek in duen ongia?
Gure Jainkoak eman dezola merezi duen saria.

Euskal Herriak horrentzat zuen estimu ta laudorio,
hori pertsutan ai zen lekuan haundi baitzen bozkario.
Geroan ere Xalbadorrentza atxik dezan amodio,
bere biziaz liburuño bat ondorioz uzten dio.

Ainitz barna sartuak zituen fede eta sinestia,
pertsutan ari zelarik maite Jainkoaren laudatzia.
Zeru gain hortan Jaunari zazu guretzat galda grazia,
pertsulariak sor araz ditzan ordaintzat bat edo bia.

Hogoita zortzi apez aldarean, hoinbertze lili ta lore,
zenatur, deputatu, auzapez, ezin kokahala jende.
Uste gabeko partitze horrek denak uzten gaitu triste;
Mattinen gisa nik ere dautzut erran nahi ikus arte.

Panpilli
Herria, 1976.12.02

Aireko lagunak Xalbadorri

Airea: Lili bat ikusi dut...

Orai lau urte xuxen gu Amerikarat
gomitua jin zaukun egiteko tur bat-
Sahetsean Xalbador aireko laguntzat,
oroitzapen hoberik ez daiteke hanbat.

Noiz izaiten ahal da holako laguna?
Hak azkartu derauku euskaldun omena.
Oroz gainetik maite hak xinpletasuna,
horrek egiten baitu maiz handitasuna.

Egunaz egin eta ainitz itzulika,
euskaldunak atsetan bilduak trumilka.
Arrunt zainen gainean gure Amerika,
Xalbadorren bertsuak ezin igurika.

Miresgarria zaukun jaun horren dohaia,
sustatzen gindakola kantuko enbeia.
Harritu nahiz haren bertsuen kofoa,
denak bertsulariak gu hartako doia.

Mundu hunen uztea iduriz lan gaitza,
orai arte trixtatzen zerautan bihotza.
Zu partituz geroztik ez zeraut hain latza,
zure hor ikusteko baitut esperantza.

Euskaldun anai zazpi probintzitakoak,
eta urrun zarezten Amerikakoak,
otoitzez bil ditzagun guk bihotz gogoak,
gora beira dezaukun Xalbador Jainkoak.

M. S.

Herria, 1976.12.09

Xalbador zenari

Doinua: Goizian goizik

Hemeretzi ehun ta hirutan hogoi t'hamasei garrena,
azaroaren zazpian zaikun zendu Xalbador laguna.
Bihotz guziaz nigar egin dut, trixtea zen larrazkena,
Euskal Herrian bertsolaritan Xalbador zen hoberena.

Gure herriko zeruak ziren haizearekin goibeldu.
Gernikan zazpi hosto arbolan emeki dira zimeldu.
Zeruko Jaunak zerbitzaria bere ondorat du bildu,
Urepelen gaur aingeruekin Xalbador baita ixildu.

Auhen kantuz bihozminaren orai kantatzerat nator:
hitza're zutan errege zagon, zinen olerkari gogor.
Euskal Herrian ez zinuen, ez, zuk lotsatzen inoiz nihor,
bertsu umil hauk zuretzat ditut moldatuak gaur, Xalbador.

Fernando Aire, Urepeleko Xalbadorrenean sortia,
bertsutan hasi zen gazte gazte, gerlaz geroz hobetia.
Laket zituen artzain etxeak, bai ederra zen mendia.
Ez dut bekatu orai ertea: «Xalbador ene maitia!».

Urepeleko mendi xokotan betea nuen amentsa,
omenaldia oso eder zen, bertsuez hain aberatsa.
Nola besta zen bururatuko nehork ez zezaken pentsa,
bainan urtxoak gau apalean eman zuen azken hatsa.

Hainbertze aldiz, Mattin, harekin zu ibilia zarena,
liberti zadin zuek biekin denetan bai euskalduna.
Ta *Odolaren mintzoa*-n duzu uzten zur'erakaspena,
mundu guzirat haize hegoak hedatu du zur'omena.

Xalbadorrentzat egin dezagun zazpiek bat ortzadarra,
xuri, gorri ta urdin ta berde erakutsiz gur'oldarra.
Zure boza're izanki eder, mundu huntan zen azkarra,
euskaldunaren auhena zen, ba, ta fededunaren karra.

Zure bertsoa Jainkoarentzat iturri egon dadila;
hemen gabiltza aska bideen Euskadirendako bila.
Zure itxura gogoetan ez da, ez, sekulan ez hila.
Ekia zira guretzat, beti argi ta bero gaitzala.

I. Borda
Herria, 1976.12.16

Xalbador zanari

Azillak zazpi, igande gaba, triste mendi ta ibarrak;
errekatxoak marmarioka zotiña eta negarrak.
«Xalbador il da» esaten zuten bai gazte ta bai zaarrak.
Argirik ez du berriz egingo Urepeleko izarrak.

Esaten dute sortu zindula Urepeleko jardiñak,
baiña Euskadiko lur guztira zabaldu zenitun zaiñak.
Onartzen zenitun erriaren algarak eta zotiñak,
zure bertsoak iñoiz etziran txepelak eta ariñak.

Euskera ain maitea zenduan, ezer etzenion uko.
Beraren alde beti lanean goizean jeiki orduko.
Zu ezagutu zaitugun danok nola ez degu aitortuko
Euskal Erriak bear bezela etzaitula eskertuko?

Euskera zendun zure ametsa, euskera zure kutuna;
bera izan da zure biotza erabat ustu dizuna.
Izan ere, ainbestekoa zan zenion maitetasuna!
Berari eskeiñi zenizkion bizitza ta osasuna.

Burua oso argia zendun eta biotza xamurra;
ematen zunez, txalo zaratak etzitzaizkizun ardura.
Zure maiteek txistu jota ere, Anoetako modura,
mindu bai, baiña etzan zapuzten zure biotz aundi ura

Euskal lurreko ainbat erritan ta ez dakit zenbat auzotan,
Jaungoiko Jauna aitortu zendun zuk zeure bertso gozotan.
Orain eternidade guztian, Jesus onaren besotan,
kanta ta kanta jarrai ezazu Aita Onari bertsoetan.

Kristok etzuen alperrik eman zure alde bere odola;
ain kutuna zuan bildots ura ezin zigortu iñola.
Zu il ezkeru, gau oskarbian gora begira nagola,
iruditzen zait zeru sapaian izar berri bat dagola.

Izartxo kolore moteleko, nunbait osasun makala;
baiña begira ezin aspertu, ain da umil ta apala!
Xalbador, iruditutzen zaida zure irudia dala,
ta milloika izarren artetik bertotan ari zerala.

Modan dauzkagun txorakeriei etzenien egin kaso;
benetako senar izan ziñan, ta benetako guraso.
Euskaldun berdiñikan gabea ta kristau jatorra oso,
Xalbador, nik ezin zintzaket zu merezi ainbeste jaso!

Euskadi onek bere semetan milla martiri baditu:
erria ilda ez ikustearren odolustuta gelditu.
Xalbador, zuk ere badaukazu martirik ainbat meritu:
aiek gorrotoak il zituan, zu maitasunak il zaitu.

Bertan ainbeste negar utzita joan zera zu emendik;
emaztea ta seme-alabak negarrez daude oraindik.
Aita maitea dute goguan, pozik ez dute iñundik.
Xalbador, zuk zeuk lortu zaiezu Zeruko Aitarengandik.

Urepeleko eliza artan otoitz egiten zenduan,
begiak umil, biotza xamur eta siñismen senduan.
Zure illobiratze egunean guk ere eskatu genduan
Zeruko Aitak gorde zaitzala beti beraren onduan.

Nikolas

Aranzazu, 1976.12

Hondarribiko omenaldia

Hondarribi, 1977.01.06. Errege egunean, Xalbador eta Arozamenari omenaldia, bertsolari hau ere hil berria zanez, abenduaren 23an Azpeitiko herrian bat-batean azken arnasa emanda.

Kosme Lizaso:

Migel, mundutik joan zerala iruditzen zait gezurra,
bañan egia biurtu zaigu lendabiziko susmurra.
Izate onek gure biotzak dizkigu erditik urra,
nik otoitzetan lagunduko'izut al nezakien apurra,
erdi negarrez egiten dizut munduko azken agurra.

Joxe Agirre:

Urte zarraren azken aldera berri txarrak zetozenak,
gure biotza goibeltzen dute mundutik dijoazenak.
Ta batez ere bi bertsolari lagun jator ta zuzenak,
begietako argia baiño geio maite ginduzenak.

Lazkano:

Negarrez dago Euskal Erria, negarrez dago Lesaka,
ikusirikan aldi ontako bertsolari-entresaka.
Zeruan ere nunbait gogozko bertsolariaren saka,
Eguarri-jaiak igarotzeko eman dituzte presaka.

Gorrotxategi:

Ene eriotz bildurgarria, gauza gogorra zera zu,
bertsolarien familixotik bi seme kendu dituzu.
Aien lagunak besteik ezinda emen negarrez dauzkazu.
Jainko aundia, zure arpegian argitan gorde itzazu.

Mitxelena:

Jaunan eskuan dagon gauzakin bestek indarrik ez daka,
esan laitake bi batera jua dirala naiz-ta banaka.
Luzarorako etzenduzkazun, eraman ttuzu presaka,
luto beltzian jantzi dituzu Urepel eta Lesaka.

Txomin Garmendia:

Ordu triste ta mingotsak dira sarri etortzen diranak,
ari batetik txintxilik gaude munduan bizi geranak.
Arozamena, egin ziñuzen zuk lur onetako lanak,
baiñan ez gera iñoiz aztuko lenago maite giñanak.

Mattin:

Arozamena joan da, Xalbador lenguan,
meza hau entzun degu lagun hoik goguan.
Jainko ona, Zurekin harzkitzu zeruan,
loriaz goza diten alkarren onduan.

Xanpun:

Sendi maitea, dakigu ordu hauk bada zoin latzak diren,
zuen doluan parte hartzekotz alkaturik gaude hemen.
Ta zuri, Migel, ez dautzugu, ez, guk adiorik eginen,
zeren-ta gure bihotz barrutik sekulan ez zera hilen.

Joxe Lizaso:

Jauna asarre dago oraingo bolaran;
jakingo nuke pozik zergatik ote dan.
Gorputzak lurperatu ta animak egan,
ni're pronto naukazu nai badezu eman,
lenbailen Mikelekin itz egin dezadan.

Patxi Etxeberria:

Nik beste gauz bat daukat zuei esateko,
ala ere utsunerik ez baidet beteko.

Zeureak ziñun len e Zuk eramateko,
gizona ez baida beti emen izateko,
opa diet gure zai luzaro egoteko.

X. X.:

Naparru zarrak bi alderditan bertsolari bana galdu:
Xalbador eta Arozamena, gizon jatorren eredu.
Len bertsolari asko etzen emen ta ola ez da ugaldtu;
aziak frutu ematekotan lurpean erein bear badu,
zuen aziak frutu ugari, Jauna lagun, emanen du.

Azpillaga:

Juan den urtean Arozamena eta Xalbador jua dia,
Zeruko Aita, emaezue beti-betiko argia.
Asi berri dan urtearentzat orra nere eskaria:
bertsolaiantzat izan dadila jua dena baiño obia.

Iruñeko omenaldia

Ez dakigu zein egunetan egin zen beste omenaldi hau.

Lasarte:

Biotz oneko anai-arrebak alkartutzean onela,
ezagutzen da bertsolaria erriak maite duela.
Iñoiz pentsatzen egoten gera, bakar ta ixil gaudela,
Xalbador eta Arozamena biak zeruan daudela.

Lazkao-txiki:

Badakizuzte, illik ditugu len bi gure adiskideak,
eraman zitun bere aldera zeru ta lurren Jabeak.
Baiñan oraindik goratu nairik gu eldu pozez beteak,
biotz barrendik besarkada bat, Naparroko senideak,

X. X.:

Gora Naparroari, jo txaloak gogor,
Santxoren gerizea gugana baidator,
Aurrelari dakarzki bi profeta jator:
Mikel Arozamena, Fernando Xalbador.

X. X.:

Nere agurra eman bearke napar guztioi lenbizi,
Xalbador eta Arozamenan izena adierazi.
Euskal Errian eman ziguten ainbat poz ta ainbat grazi,
omenaldi bat baiño geiago ez ote dute merezi?

Etxahun:

Erran ta aidian heldü nizala bortxatü niz aitortzera,
ene lagünek hart'itzazue
Bi adixkide zenen gostuan
eta Xuberoko agurra heldu niz zuer egitera.

Mattin:

Zerbeit seinale badauka gure honuntz etortziak,
euskal bihotzak hunkitu bi anaiaren galtziak.
Karia hortaz bildu girade hemen zazpi probintziak,
Iruñatarrak, on harzkitzue Lapurdiko goraintziak.

Xalbador il zan

Bizia diogu guk Jaungoikoari zor,
ordaindu gabe ez da geldituko iñor.
Zu, bai, iritxi ziñan zerura, Xalbador,
gu ere joan gindezke baldin bagera nor.

Urepelgo semea, ain biotz biguna,
Jaungoikoak beretzat eraman ziguna.
Bolara bat igaro degu txit illuna,
berriro argitzera dijoa eguna.

Argitasunak datoz Xalbadorrendik,
zeruan dago eta bialtzen du andik,
Iruditzen zait atzo il zala oraindik,
beragan mintzatzea gogoak eman dit.

Urepelen jaioa, ume bezela aur,
gizon giar sakon bat epaitzen dute gaur;
alakoa izaten ez da oso samur.
itz batetik bestera ixilduaz labur.

Berez urepeldarra, poeta apaiña,
barrendik ausnartua izkuntzaren zaiña.
Euskera zeïnek maite Xalbadorrek aiña?
Atsekabe orrekin il zan, alajaiña!

Xalbador, Donostitik egiten dizut ots,
zu maite zinduztenak apenas dauden otz;
noiznai omenaldiak eskeñiaz zorrotz,
Euskal Erriak ez du gelditu naiko motz.

Euskal lur maitatzaille txit egiazkoa,
arrunt egizalea ta arrazoizkoa.
Bera izanagatik mugaz arunzkoa,
asko maitatzen zuan gure Gipuzkoa.

Alkarri josi nairik Euskal Erri dana,
au zan Xalbadorrek txit maite zuan lana.
Notak eraman ditu Jaungoikoangana,
ez dakit lortuko dan ark asmo zuana.

Ametsak nere baitan egin ditut nik bart,
Xalbadorren asmoak oroiturik ainbat.
Zazpi puska alkarri josi ta berri bat,
au ez ote digute epaituko txartzat.

Euskal Erriak daukan muga ta ainbat ertz,
lotu ote leizkean bart egin det amets.
Askok ipintzen dute kopet-ezurra beltz,
arrazoi duanari nekez esan baietz.

Aspaldi asi ziran askatasun billa,
gauz ori egongo da aspaldian illa.
Korapilloz lotuta joan dan urte-pilla,
demokrazirik bada askatu dedilla.

Euskaldunok maitatu bear degu alkar,
aurkitzen geralako zazpi anai bakar.
Bakoitza bere alde ez ibili zakar,
bestela ondamendi beltza onek dakar.

Segundo Kalonje, Aiete, Donostia
La Voz de España, 1977.01.30
Loreak udan intza bezela, Auspoa 255, 1998

Xalbador zenari

Airea: Ttiki ttikitik ait-e'amak

Euskak Herritik ukan kaseta Paris aldean leitzean,
lur ikararen pareko zerbait iragan zait bihotzean,
berri trixtea hedatu baita izkiriozko botzean:
nola Xalbador itzali zaikun betikotz heriotzean.

Ezin sinetsiz nindagolarik etortzen zaitan burura
nola pertsutan biltzen gintuen maixu harek ingurura.
Zonbat euskaldun ez du ezarri bere denboran gostura?
Ez da dudarik gure Jainkoak hartu duela zerura.

Omenaldiko egun ederraz baliatu da Jainkoa,
zeren ordua jina baitzen zu bere ganat hartzekoa.
Doi bat denbora utziz bizirik guk zorren ordaintzekoa,
eskaini dautzu Nausiak hortaz ainitzez goragokoa.

Denbora gutiz gure artean ibili den artizarra,
toki ilunen argitzailea hori izan da bakarra;
euskalzale bat nehor bazagon argia eta suharra,
goizegi joan zaukun laguna, ginuelarik beharra.

Euskal mintzairan nehor ote da Xalbador zen bezein trebe?
Zakien dena erakusteko nehoiz ez baitzen herabe;
errient onak kitatu gaitu eskolako haurren pare,
oso gogoan zituen gauzak guri erakutsi gabe.

Dohain handiez beteak zauzkan arima eta gorputza,
talendu gaitza ta beti presta nola den ur onen surtsa;
haren pareko uzta ederrak berriz nunbait beza pusa,
zerbait gisetaz estal dadien Xalbadorrek egin hutsa.

Odolaren mintzoa utzia dauku orroitzapenetan,
hori dutenek beti Xalbador dabilate eskuetan;
haren dohainak kutsa balitza leitzen duten bakarretan,
atseginetan maitekorrena laike gure bihotzetan.

Xalbador gure adixkidea, zaude zerutik begira,
artetan igor aguzu zure iguzkiaren dirdira;
gu're pertsutan noiz edo behin berdin tronpatzen bagira,
lagun gaitzazu beti jalitzen zuzena dagon tokira.

Gogoan dutan pena bakarra: zure azken egunetan
ez bainintzan hor omenaldian eta zure ehortzetan;
Euskal Herritik urrun nindagon leku galdu batzuetan,
bainan halare ezin ahantzi zaitut ene otoitzetan.

Laster pasako baitzaiku guri ere munduko denbora,
sendimenduzko kartsutasunak etortzen zaizkit gogora;
Zeruko Jaunak eman bazaitu bere alde hortan gora,
azken hatsean tira gaitzazu, Xalbador, zure ondora.

Joanes Arrossagaray, Aintzile
Urtarrileko 7-an, 1977
Egilearen andreak idatzi kahierra
Herria, 1977.02.10

Hoikin zor dugun omena

Zein herri eta zein egunetan ez dakigularik, Joxe Mari Iriondok: Orain Mattin, Xanpun eta Azpillaga. Zuen bertsoak, txandaka, Xalbador eta Arozamenari eskaini.

Mattin:

Gaur senide bat galtzen denian denek dadukagu pena,
ta horixe da urte azkenian gurekin pasatu dena.
Xalbador lenik galdu ginuen eta gero bigarrena,
hura bezala berdin joan baita Migel Arozamena.

Xanpun:

Zoin bortitza den bi anai hoiek ukanik azken orena!
Hogoita seian egiten dugu hoikin zor dugun omena.
Batto Xalbador ginuen eta bertzia Arozamena,
ukan bezate zero gainean bakearen gozamena.

Azpillaga:

Munduan sortu diran guziak bukatzekoak baitia,
bertsularitzan sartua dago gure Jaungoiko maitia.
Esaera da: kunpli dezagun Jaunaren borondatia...
Haien bitartez zabaldu zazu Euskal Herrian atia.

Mattin:

Bi anai hola galduarekin gelditu gera penetan,
geroztik honuntz bertszuzaleak hor dagozi nigarretan.
Eta hil hunen hogoita seian, dela frontoi Galarretan,
egun haundi bat egingo degu omentzeko biak betan.

Xanpun:

Iturri baten ura bezala zerabilzkaten bertsuak,
izan zitezen gai alai edo serioz hoik dohatsuak.
Bainan eraman ditu alderat Jaungoiko boteretsuak,
egin detzala bere alboan bertsulari dohatsuak.

Azpillaga:

Xalbador eta Arozamenak egin diguten galtzea!
Orain besterik ez degu: otoitz egin eta oroitzea.
Askok diote ederra dala Euskadirentzat iltzea,
baiñan aiekin obeki gendun Euskadi serbitutzea.

Mattin:

Hiruogoi urte orain baditu bizi naizela munduan,
hameka bertsu kantatua naiz lagun hoiengandik.
Eta gaur ere kantatutzen det lagun on hoiek goguan...
Neretzat ere toki txiki bat gorde zazute, zeruan.

Xanpun:

Denek dakigu anai horien galtzea zoin idorki zen;
nehork eztaiki beren espos ta haur on hoiek bezen zuzen.
Zeruko Aita, zuk badakizu aldaparen ordokitzen,
lagundu atzu bihotz horiek penari ihardokitzen.

Azpillaga:

Euskal Herrian zaitu zituzten ez dakit zenbat jatorri,
guk ere segi bear lendikan dadukagun bide orri.
Omenaldia Arozamenai eta berdin Xalbadorri,
bertsozalea sentitzen dana Galarretara etorri.

Bertsolariek bertsolariei

Ernaniko *Galarreta* pelotalekua, Xalbador eta Arozamena omenaldia, 1977.02.26.

Imanol Lazkano: Bertsolariek bertsolariei. Honen histori pixka bat egin nahi nizueteke, gure jaialdia hasi aurretik. Dakizuten bezela, Xalbador zanaren heriotzaren ondoren, hain maitea izaki Euskal Herri osoan, han-hemenka hasi ziren jaialdi batzuk, omenaldi batzuk antolatu nahirik. Eta, hori ikusi ondoren, bertsolariok denok bildu ginan halako bilera batean, eta komisio bat egin zan lehendabiziko bilera horretan, jaialdi hau aurrera eramateko eta batik-bat herriz herri ibiltzeak beharbada inportantzi edo garrantzia kendu lezaiokeela Xalbadarren omenaldiari; eta egun bat, Euskal Herri osoak eskeinitako egun bat, egun oso bat, egiteko egin zan komisio hori.

Eta, hain zuzen, Arozamena bera ere komisio hortako bat zan, eta Donostian egindako bi bileratan behintzat Arozamena ere tartean genuen. Gero, tamalez, Arozamenaren heriotza ere uste gabean etorri zitzaigun, eta batentzat egitea uste genuen heriotz ondorengo omen hau bientzat egin beharra izan degu. Hori du gaurko jaialdi honek bere helburu bakarra: bieri omenaldi haundi bat Euskal Herri osoaren izenean eskeintzea.

Iñaki Murua: Omenaldia bertsolariek bertsolariei egina da, eta Euskaltzaindiaren on-irritiz antolatua. Izan ere, Euskaltzaindia euskeraren alde lanean ari bada, bertsolaria ere halaxe ari da. Bere bizitza euskeraren eta Euskadiren alde darama. Beraz, bertsolaria eta herriaren kurpilen ardatz bezela zetorren Euskaltzaindiaren laguntza.

Imanol Lazkano: Eta bertsolariek bertsolariei eskeinitako omenaldi honek ez uste izan Euskal Herri osoa eta gaineran-

tzeko bertsozaleak bazterten dituenik, baizik-eta antolaketa osoa, gai eratze osoa bertsolarien esku joan bada ere, Euskal Herri osoan une honetan esku-erakutsiren batekin edo zerbaiten laguntzekin azaldu nahi badu, alargun bateri ala besteari esku-erakutsiren bat egin nahi badio, ez du hemen aurrean ikusten duen bertsolari hauetako edozeinengana etorri besterik, eta izango du era alargun hoietakoren batengana edo bien-gana bere erakutsi hori irixteko.

Iñaki Murua: Beraz, gure hitz-saio hau luzegi izan ez dedin, esango dizuegu zein eratan moldatua dan gaurko jaialdia. Euskadiko bertsolari denak, hemen etorri diren denak, kantatuko dute.

Hasieran, bertsolari izan direnak; orain arteko bertsolari eginak, kantatuko dute; zaharrenak.

Gero, tartean, hogeitabi edo hogeitahiru bertsolari, nahiz banaka, binaka, hirunaka arituko dira. Eta bukaeran gazteek, bertsolaritzaren etorkizun horrek, egingo dute beren agurra.

Imanol Lazkano: Orduan, besterik gabe, lagun bertsolariok, hurbildu, eta bertsolari helduak, Muruak esan digun bezela, bertsolari helduak, zortzi edo hamarrek, egingo dute beren agurra. Eta gainerantzekoak beren garaia iritxi arte hemen izango dituzute gure nola eskubi ala ezkerretik. Bizkaitik datorren Balentin Enbeitak egingo du lehendabiziko agurra:

Omenaldi au ospatzen dogu haundi, txiki, gazte, zarrak,
horretarako egiñak dira zazpi probintzin biltzarrak.

Xalbador eta Arozamena egunsentiko izarrak,
esnatu eta jaiki zituzten Naparruako bazterrak;

bildurrik gabe egia esanaz baztertu etsai-guzurrak.

Herrian aurrez jarri zituzten napar ziñopen azurrak.

Gaur bi oneixen eriotzeak lutuz gaituz euskotarrak;

baiña naparra zutikan dago izar bi onei eskerrak.

Gora Xalbador ta Arozamena! Gora gure anai naparrak!

Ondoren, mugaz harunzko Ezponda:

Xalbador eta Arozamena, gure bi lagun gaizoak,
sobera goizik mundu huntarik hartu ditu herioak,
Gu ere noizbait harturen gaitu ez bai gira hemengoak...
Bi familia gelditzen dira dolumin haundiak joak,
egun idortzen hasi ditela horien nigar malkoak.

Iturri:

Euskadik beti izan du zuen bioren premina.
Bi seme hola guk galdutzea au benetako lastima!
Nere otoitza beteko al dezu, gure Amatxo Berjina:
zaindu ta gorde erleji baten santu bi orren arima,

Patxi Iraola:

Kantari nator, oroimen gozoz badut ainbat borondate;
Xalbador eta Arozamena ain mereziak zerate.
Zuek erria maite zenduten ta zuek erriak maite...
Guk ere zuzen jarrai nai degu bizirik geran bitarte,
Euskal Erria beti euskaldun izan dedin nolabaite.

Deunoro Sardui:

Zorigaiztoan alkartu gera samiña mintza bearrez.
Hemen guztiok aurkitzen gera maitasun baten indarrez.
Maite ginduzan ta joan ziran, zein ez dago aien bearrez?
Kantuz jarraitu daigun soiñekin naiz ta biotzak negarrez.

Basarri:

Xalbador eta Arozamena gogoan ditu Basarrik:
erruz balio zutenak ziran, ez dago esan bearrik.
Aiek galduta kalte aundia izan du gure Euskal Errik.
Gogotsu lana egin zenduten ta etzan izan alperrik:
erein zenduten azi bikaiñak eman du frutu ederrik.

Uranga:

Emen juntatu gera millaka euskaldun.
Egun au antolatzeko ordua gendun.
Xalbador anai maite mundu ontatik jun,
Arozamenak ere berdin egin zigun.

Fameliak illun,
jornalik ez iñun,
biotzetik bigun
jokatu dezagun,

alargun maite auei lagun deiogun. (*bis*)

X. X.:

Allegatu da aspalditikan itxaro gendun eguna,
Galarret ontan gure maixu bi omendu bear genduna.
Ta nik zerurantz bialdutzen det bientzat besarkada bana;
agur zeruan alkartu arte, Xalbador ta Arozamena!

Eta hasierako agurrak bukatzeko, Lasarte:

Lengo urteak eman zizkigun naigabe triste illunak,
Xalbador eta Arozamena baiziran mundutik junak.
Galdu giñuzen bertsolariak, galdu ditugu lagunak,
lur ontan bizi geran artean aztuko etzaizkigunak.

* * *

Orain Patxi Etxeberria. Honentzat gaia, azkenengo urteetan Arozamena zanarekin gehiena ibilitako bertsolaria danez, Arozamenari bi edo hiru bertso.

Etxeberria:

Kantatzeko diozu Arozamenari,
neretzat gai astuna jarri dezu ori.
Baiñan osatuko'itut bertso bat edo bi,
orrenbesteren zorra baidiot nik ari.

Maiz alkartutzen giñan mendiz eta erriz,
gozatu asmoz biok bertsoaren neurriz,
ta entzulea jarri txaloz eta irriz...
Geiago egiterik ez daukagu berriz.

Mikel gizarajoa gizon gaztea il,
eta bere lagun bat nola bizi trankil?
Geroztikan onera ni jarri naiz umil,
ardi galduen gisa beti emen nabil.

Imanol Lazkano: Ondoren Xanpun. Honek ere hain laguna
zuen Xalbadorri bi edo hiru bertso.

Xanpun:

Xalbador, zutaz mintzatutzeko gaur eman naute ohorea,
guretzat hil den, bai, anai on bat, segurki paregabea,
ta bertsutako, erran dezagun, zer dohainaren jabea!
Ta gizon gisa haundi izan arren umila eta gordea,
gizonak behar dituen dohain on guztien aterbea.

Euskal Herria maite zinuen beti ororen gainetik,
ta ikusi nai ere zinuen garbi, haundi eta zutik.
Lagun gaitzatu kontseilu batzuk hartuz zure liburutik,
atera gaiten herrian egun giren ateka estutik,
lurrean hasi zinduen saila burura azu zerutik.

Zeruko Aita, arima hoiek betikotz dira zeuriak,
egin dituzu behin betikotz dohatsuak, zu iduriak.
Hoi en galtzeak ba zenbat nigar hargatik gaur ixuriak!
Igorri atzu zero gainetik goxamenaren euriak,
sendatu dit en doluan dauden bihotz horien zauriak.

* * *

Imanol Lazkano: Oraindik gauza gehiago ere badaude, bai-
ñan orain lehen kantatu ez duten bertsolari gazte denak beren

agurra egingo dute. Beraz, etorri ditezela denak. Hauek agurra egin ondoren, Xalbador eta Arozamenaren alargunei sari ematea izango da. Eta, horren ondorenean, lehenbizi Xalbadorren semeak bat edo bi bertso botako ditu; eta gero, baita ere, Hondarribiko neskatila gazte batek bertso bat bota nahi du.

Santi Zabala:

Eragin batek bultza arazi digu gaur onuntza denoi,
ta Galarreta ikus diteke gainezkaturik be ta goi.
Bi gizon haundin oroitzapenak bazuen ainbat arrazoi,
bat bertsolari eta poeta, bestea bertsolari soil,
bainan gauz baten biek berdiñak: abertzale ta errikoi.

Juan Narbaiza:

Mikel eta Fernando bi lagun batera,
ziran mundu ontatik betiko atera.
Gaur oroimenez gatoz agur egitera,
ta beren alargunai esku ematera;
al degunean beintzat saiatuko gera.

Telleria:

Albizurtarren partetik nator aiei omen egitia,
ta bide batez lureko berriak zerukuai ematia:
Arozamena eta Xalbador, au izakera tristia,
oraindik ere sufritzen gabiltz ez fuero ta ez amnistia.

Argiñarena:

Neretzat izan balitz ere ez nun sentituko ainbeste poz;
bizi zirela maite giñuzen, orain gehiago askoz.
Nafartarren malko samiñak poz berri zuri dagoz,
zugaitz zarraren ondotik berriz mendu berriak badatoz.

Mañukorta:

Gure artean ezbear asko olaxen gertatzen dira,
bi bertsolari oso jatorrak beste mundura juan dira.

Ta eskari bat nik egiten det gaur zeruaren erdira:
zeru gaiñetik gerta ditezen Galarretari begira.

Elgetzu:

Nere apurra eskeintzekotan nik irten det Mallabian,
Xalbador eta Arozamenaz oroitu naiz bat-batian.
Zeruetara begiratu det aiek galdezka nun dian,
uso txuri bi ikusi ditut Galarretara bidian,
Xalbador eta Arozamena ditugu gure artian.

Bitor Agirre:

Arozamena eta Xalbador zeñek ez dauzka gogotan?
Euskeran alde lan ona ugari egiñak erri askotan.
Bertsoz erriak poztutzen ziran, beti kantari auzotan,
berriz ez dira aiek inñontzat inñun jardungo bertsoan,
Zeruko Jaunak artu baizitun betiko bere besotan.

Zelaia:

Entzule danai, illen sendiai agurrik biozkorrena,
zeru goiera goratzen ditut Xalbador, Arozamena.
Zuek santu eitea Jaunaren naia, guretzat itxaropena,
Euskadin larri gabiltzan ontan emaignuzute almena.

Zelaia, beste anaia:

Xalbador gure artzaia,
Arozamena txoria.

Euskadi, euskaldun, osa dezagun alargun oien saskia,
aiek zeruan izan dezaten betikotasun guztia.

Ernest Alkat:

Negarrez euskalduna ta mendi bizkarra,
oihaneko xoria, haitz eta lizarra.
Bi bertsularik hartu gaitzaren indarra,
heien bihotz urrea ta ezpain zilarra,
ez ditzagun guk aztu nun diran izarra.

J. P. Mendiburu:

Zer dolamenak jasan ditugun bat bertzeari hoin hurbil!
Lagun galtzeak ezarri gaitu lotsa, triste eta umil.
Bainan jarraitu beti bezala, elgarretarat bai gu bil,
heiek bezala hil artinoan egonez bertsuen mutil.

Amurizaren anaia:

Nere barruak eztu almenik gizon oik goraldutzeko,
bainan bertso bat sentikorra zuei gaur eskeindutzeko.
Naiko motibo guk izan degu gaur emen bildutzeko,
eta emendik eskatuaz askatasuna lortzeko.

* * *

Imanol Lazkano: Eta orain, gazte hauen agurrak entzun ondoren, mesedez, nola Xalbador hala Arozamenaren alargunak etorri bitez; eta bertsolarien izenean Joxe Lizasok eman-go dio Arozamenaren alargunari plaka bat; eta Mattinek, Xalbadorrenari.

Iñaki Murua: Plakan jartzen duen idatziak honela dio: «Xalbador eta Arozamena, Euskal Herriak eta bertsolariek ez zaituzte ahazten».

Mixel Xalbador:

Xalbador eta Arozamena, Euskadi maite zinuten,
lur huntan beti ari zinezten guri horren erakusten.
Nola dakigun zerutik orai gaituzuela ikusten,
begira bada Euskadik ere zuek zein maite zaituzten.

Imanol Lazkano: Eta, amaitzeko, hemen ikusten dezuten lore-sorta hau ez da sobrante ekarria; baizik-eta Txapel zanaren emaztearentzat. Bainan, etorri ez danez, bere etxera eramango zaio,

Hemen bada Hondarribiko neskatxa bat, nexka ttiki bat, bertso bat eskeini nahi diona herri osoari.

Nik ezagutzerako joan zera betiko,
zuk esan omen zendun: «Ikasi, mutiko.»
Zutaz oroitutzen naiz nola belauniko,
zuzenen sartu ziñan zeruan betiko.

Agur, Xalbador, agur

Udazkeñeko edozein egun eguzkitsuren antzera,
egunez argi egon ondoren doan eran illuntzera,
Xalbador euskal olerkaria, zu're gugandik joan zera,
Euskal Erriko omena artu ta Jaunari eskeintzera.

Zuretzat ezin onartu nunbait zuk orrenbeste oore,
zure buruaz ezin sinetsi zegonik ainbat balore.
Urepeleko erri xarmanta maiz biurtu zendun lore;
erleak lore ezti gai badu, zuk Jauna zendun amore.

Zeuk bakarrik ez nai gozatu orrenbesteko omena,
eta Jaunari egin zenion oparirikan onena:
izan zezala zure pozaren egitazko oroimena,
erri bat zutaz batu bai zendun, ta bera batasunena.

Esan zenduen: «Jende gaxo hoik ez ditut eskertu ahal».
Azken orduan ere biotza guretzako zendun zabal.
Bein ola Kristo errukitu zen jendetza ikusiz argal
bere atzetik, ta jaten eman, bidean etzitezen gal.

Zuk ere jaten eman diguzu eta gindezke mantendu,
zuk utzi zendun mana gozotik gogotsu jango bagendu.
Maitasunaren indar bereziz eragozpen denak kendu,
batusunean dagon erriak gauza asko egiten du.

Batusunezko maitetasunez batutzen badago lan bat,
maitasunezko batasunean maitatzen dagoen ainbat.
Batusunaren maitasun ortan itxaropen bat badaukat.
Oien gañean, Xalbador zaldun, ikus zaitut ametsez bart.

Fameli, fede, gizatasun ta maitasun sutsuen jabe,
olerki bertso eta euskeran opariazko aldare.
Mendi, basoak, itsas, ibaiak, berdin baserri ta kale,
mugarik gabe maite zenitun, izanik ain abertzale.

Zure alboan bildu zenitun banatutako indarrak,
ori lortzeko doai dutenak izaten dira bakarrak.
Denen eredu zu izan nunbait naiz ta gu izan zabarrak.
Lastima berriz banatutzea zuaitz bereko adarrak...

Egun orretan zure biotza derriorrez bear poztu,
batzuek diote poztasun orrek zezakeala gaiñeztu.
Nere erara agertzekero iritzi bat, da ez aztu:
maitasunezko tanta ixurtzez zearo egin zen ustu.

Poeta baten bizi modua izan oi da berezia,
bihozkadaren mintzoz agertuz indar edo aulezia.
Edozer gauzaz lortzen duzute bertso edo eresia,
zuk heriotza bera're zugar egin zendun poesia.

Xanti Zabala, "Lexo"
Zeruko Argia, 1977.02.06

Agur, Xalbador maitea

Airea: Goizean goizik jeiki ninduzun

Orai artean kantuz hasteko galdua nuen indarra,
gaur iduri zaut kemena berriz jautsia dela nitara.
Ez dakit aipa zitzaiketanez hartze zinuken gisara,
hain zinitugun paregabea, neurri gabeko izarra!

Neurri gabeko pentsalaria ikusi zaitut bertsutan,
nundik zinaukan hoinbertze argi gogoan nuen batzutan.
Apostoluer izpiritua jautsi zen zerutik sutan,
nago ez zenetz ber mixterio haundia gertatu zutan.

Eskaini nahi izan dautzugu omenaldi bat ederra,
«Biba Xalbador!» besterik ez zen eletik eta elera.
Egun haundia zoragarria jina zen Urepelera,
dolamen trixte izigarria ez balauku jin gainera.

«Eta ez ditut eskertzen ahal!» zinion azken hitzean,
gu gintutzula kausitzen zuhaur ez bezain molde hitsean.
Eskerrik asko bazineraukun bihurturik bizitzean,
bizian bezain zintzoa ere agertu zira hiltzean.

Hazirilaren zazpian gira sartu zinezko negura,
zure galtzeak ereman gaitu doluminaren plegura.
Zuri sobera galdatu dugu, hori da gauza segurra,
gure besotan joan zaitugula lurretik eta zerura.

Gizona nola kanbiatzen den doluminez gabetzean,
maite dituen adixkidetaz betikotzat gabetzean!
Jainko maiteak hartu izana gatik bere babesean,
zazpi probintzi nigarrez daude orai zure sahetsean.

Zer erakaspen zuhurrak ziren zure ezpainen hegian!
Bazinakien gure moldatzen fedean eta egian.
Zu joanez geroz nork ez du izan nigar xorta bat begian?
Zure ondoan ginen sobera jar-alki ederregian.

Zinen arbolak bere ondoan bazauzkan zonbait landare,
eta geroztik umexurtx batzu bezala trixterik gare.
Toki guzietz ere gai zinen: plaza, gaztetxe, aldare...
zure bertsua bihurtzen zela otoitz kartsu baten pare.

Edozoin pesta zu han izanez nola ez zen apaindua!
Gure mintzaira maitea bera nork du hobeki zaindua?
Zuk utzi hutsa hain da haundia, nehork ezin ordaindua.
Jaunak lurreko profetaz egin beza zeruko saindua.

Bihotz urrezko euskaldun kartsu ta euskaltzale suharra,
sendatu nahi zinuen gure herriak duen sukarra.
Dohain hoi jautsi zaitzuna nola apostoluer su garra,
ozka bat ezin berdinduzkoa bazen gutarik zutara.

Euskaldun garbi, kristau fermua, hoi zer aberastasuna!
Beti hobeki egin nahia, ez maite erreztasuna.
Fede argian xoratzen eta arnegatzen belzetasuna,
nundik zinaukan batzuk ordenaz daukaten apeztasuna?

Behin ta behin ez dut sinetsi zure mundutik joaitea,
holakoetan hobe da bizi baino hila izaitea.
Hargatik badut esperantza bat zuri esku emaitea.
Zeruan berriz ikusi arte, agur, Xalbador maitea!

J. P. Mendiburu
Herria, 1977.04.07
Zeruko Argia, 1977.10.23

Xalbador zenarentzako

Zalgize, Irure eta Lexantzüko elizetan, Bazko-mezan Xalbador koblakari zenaren xedetarat eman koblak.

Koblakari bat bazen Xalbador deithürik,
zazpi probintzietan hanitx auphatürik;
larrazkenin hil zaikü ustegabetarik...
Harentzat otoitzian girade bildürik.

Etzütügü ahazten, Xalbador maitia,
zure orhitzapena haiñ beita bizia!
Koblakari ondoko hor düzü semia;
gaztek jarraik dezela zure etsenplia!

Egün da zure besta, oi Uskal Herria,
Xalbadorren kobletan üsü kantatia.
Goguan har dezagün txütik ezartia,
zazpiek bat eginik gure aberria.

Xalbador, zunbat artzaiñ düzün ezagütü...
Haiekila biga bost ahaide khantatü.
Ligin ere koblakan zütügü gozatü...
Artzaiñ hunak zelian auz bildüko gütü!

R. I.

Herria, 1977.04.28

Urepeldarrak Xalbadorri

Airea: Ttiki ttikitik...

Bertsu hauek beste urepeldar bati igorriak izan dira duela zenbait hilabete, ustez eta zinta batetan argitaratzeko bide bat izanen zuen. Hunek biderik ez du kausitu eta *Herria* kazetari hel arazi ditu, galdatuz hemen argitara eman genitzan. Horrela bertsu hauen idazleak ikusiko du egin dituen bertsuak ez direla galdu. Bertszaleek, berriz, gogoz ikasteko parada berdin izanen dute.

Dolu triste bat gelditu zaiku Urepeleko herrian,
Xalbadorren egun ederra zen izan haren omenaldian.
Meza denboran haren lagunak hor ziren haren aldean,
haren ohorez eliza bete bat baitzen ederrenean.

Agur kartsu bat zor baitiogu galdu dugun maiteari,
xoraturikan ginauden oro haren pertsu ederreri.
Haren dohainak Jaun Zerukoak ez ditu eman nehoi,
bainan sobera plazer zitzaion jende ospe haundi horri.

Eguna pasatu zen iduriz omere ederrenean,
nahiz haizea bipila zagon gure plaza barrenean.
Haren lagunek pertsu ederrak elgarri han emaitan,
Xalbador triste zagon gaizoa bere pena bihotzean.

Besta artetik solas triste bat: «Baderamate Xalbador».
Toki ttipi bat bazen emana barne horitan nunbait hor.
Sendatzaileak, sustatzaileak, han ez zuen falta nehor,
baina triste haren gorputza hoier dener zagon gogor.

Bururatu zen besta ederra orok nigarra begian,
bere laguna ta familia han zituen sahetsean.

Zonbait hitz labur etxekoeri memoratu zutenean,
hirur hats kolpe eman ondoan Jainkoa zuen aldean.

Nol'airekoek udazkenean husten daukuten lekua,
gisa berean senditzen zuen, oi, haren azken negua.
Alabainan ba ez ote zuen hor minaren medikua?
Manera hortan egina dauku guzier ber'adioa.

Egin dezogun guziek otoitz, urosik dagon zeruan,
berak denboran Mixel zenari emana zuen pertsuan:
«Banuke zuri erraitekorik oraino aunitz gogoan,
orai ekarri nahi dauzkitzut, mundu hau utzi ondoan».

Etsenplu on bat guzier dago kasu horretan emanik,
herioak ez du begiratzen ez zaharrik, ez gazterik.
Gure Jainkoak ez du berexi ez egunik, ez orenik,
gisa hortan du Xalbador hartu beretzat on zuelarik.

Pertsua frango eman izan da zuretzat Euskal Herrian,
ez ote zauzun Urepelek zor zonbait hitz bere aldian?
Kantu ximple hok ezarri ditut penarik haundienian,
ezarri nahiz gure Xalbador beste guzien gainean.

Urepeldarra
Herria, 1977.05.19

Odolaren mintzoa

Airea: Zuk xarmaturik nago

Kantu hauk lehenago pasatu beharrak ziren, azken pertsuek dioten bezala. Halere uste dugu ez dutela beren balioa batere galdu geroztik: *Odolaren mintzoa*, Xalbadorren liburu harrigarria, oraino eskuratzekoa dutenek jakin bezate.

Euskaldun liburu bat, *Odolain mintzoa*,
berrikitan nik ere dut eskuratua.
Fama haundia nuen hortaz aditua,
kanporaino senti dut lan horren beroa,
behala egin diot barne horri soa.

Liburu horrek duen barneko mamia,
dena kantu ederrez gaindika betea.
Xoratua hor dago irakurtzalea,
sarkor eta garbiak hitz eta elea,
jakintsun haundi bat zen horren egilea.

Obretarik jendea juja baititake,
kantu hoiek garbiki erakusten dute
etxeko ta herria zoin zituen maite,
denetan ta goraki euskararen alde...
Holakorik bertze bat nehun bada ote?

Beti kontseilu onak, nehor ez kondena,
mespreziorik gabe arrazoin zuzena.
Zerbitzatzia maite zeren bihotz ona,
beti errespetatuz Jainko ta laguna,
gutarik ainitzentzat zer erakaspena!

Egunaz unaturik betiko lanetan,
etxerat bildu eta afal ondoetan,
zer plazerra hartzia hori eskuetan!

Denetaz ahantzia nola ametsetan,
denbora pasatzen da hor ustegabetan.

Euskal Herria zer den nahiz erakutsi,
obra ederra dauku ondorioz utzi.
Hizkuntza gure baitan nahi zuen hazi,
gu euskaldun egoiten nahiz leiarazi,
hala sortua dena hola dadin bizi.

Liburu haundi horri barnean behaka,
gure izpiritua berekin damaka.
Batian erregura, bertzean pereka,
barnean beti zer bait arraro badauka,
idurik egilea hor dagon eleka.

Liburu eder horrek eder du azala,
barneko mamiari zor zaion bezala.
Gero ere gaztetzat on izanen dela,
euskara mintzatzeko behar den bezala,
eskuratu duenak kontserba dezala.

Egun hautan berria ikusi dudana,
besta muntatzen dute Kanbon ikastolaz.
Konkur bat izanen da ere kantu hoitaz,
kantuz gustu duenak betza denak ikas,
gerore kantatzeko ahal bezen luzaz.

Panpilli

Herria, 1977.07.28

Han, Urepelen

Airea: Oilanda gazte, moko fier bat...

Bertsu batzuek kantatzen ditut bi begietan nigarra:
han Urepelen iragan eta aratsalde bat ederra,
orai urtea zerurat joan zen Xalbador Urepeldarra,
aingeruekin kantuz artzerat gure euskaldun izarra.

Goizean meza eder omen zen: otoitz, prediku ta pertsu,
denek kartsuki Jainkoa dute Xalbadorrentzat otoiztu.
Euskalzaleek haren hobian harri bat dute pausatu,
olerkari bat horrelakoak orroit harri bat behar du.

Lurden bezala jendea bazen sorro ta kantoin guzitan,
aroa ere eder zen eta ari ziren bazkaritan.
Anaitasun bat hor senditu dut eta nago gogoetan
gure euskara biziko dela bederen baserri hautan.

Aratsaldean jendez bete zen pilota plaza guzia,
pertsulariak zortzi baziren, Itzaina zen gidaria.
Andre auzapez maitagarriak egin zuen mintzaldia,
pena galdurik bere herritar gure Xalbador haundia.

Oi zer pertsuak eman zituzten lehenik han Xalbadorrez,
bihotza zuten denek betea solas serio sarkorrez.
Aditzaleak ixil ginauden, ari zenbaitzu nigarrez;
artetan aldiz Mattinekin ta han lehertzen ginen parrez.

Sariketa bat egina zuen aurten *Zeruko Argia*-k,
han Urepelen eman zituzten nor nori beren sariak.
Lehen hiruak hego aldeko pertsulari gizonkiak.
ipar aldetik Itxaro Borda neskaxa pertsulariak.

Gure Xalbador pertsularia, gizon bihotz haundikoa,
bai horrek utzi etsenplua da izan paregabekoa.
Bere pertsuez ixkribatu du jaz *Odolaren mintzoa*,
oi zonbat argi eskutan dugun, milesker, gure Jainkoa!

8.11.77

Larreko

Herria, 1977.12.01

Urteburukari...

Nik betidanik maitatu dut, bai, lurrak deraukan arnasa,
eta errekan doan marruma argi batean ur basa.
Euskal Herrian ez dugu nehoiz ukanen lurrez eskasa,
zeren «lurran naiz ekai izango» euskaldunak bait derasa.

Amikuzetik, erdi atzerri, agur zuri, Urepele,
jakin dut laster ba duzula zuk asko jende maitatzale.
Hegoaldean, iparraldean, dira denak euskaltzale,
zuri mintzatuz ez naiz ariko debalde ele ta ele.

Herri bateri hitz egitean uzten dut nere bihotza,
partikulazki Urepeleri, ez dutalako arrotza.
Kanpotiarren eztena bait da faltsua eta zorrotza,
gure Euskadi garai honetan doa urtxo hegal motza.

Nik Urepele nere herria bezenbat maite dut egun;
nahiko nuke mendi zelaiak ba ginezazkegu legun,
Amikuzetik begiratzeko Urepele gure lagun,
sustenga gaitzan gu ere bertan bid'egitera euskaldun!

Baigorri alde hortako lurra agertu zait gorri hola,
beste tokitan ez da ikusten kolore hori nehola.
Hemengo lurrak desafiatzen du egunero arbola,
hartua bait' du koloretako izerdia ta odola...

Xalbador horgo seme haundia Euskadirentzat itxura,
haren bertsoen libertatea ginezakea eskura?
Baina batzutan hari're sortzen zitzaikon hor etsidura,
halere beti ederrez in du askatasun arrangura...

Xalbadorreri egin diote merezi zuen harria,
harri sinbolo hori neretzat da zinez altxagarria.
Harria bait' da betiko gure munduan gogor jarria,
Xalbadorrek e maiteko zuen harriz egin zedarria...

Gernikan dago haritz maitea, bake agiri zaharra,
ta Urepelen lorez jantzia iparraldeko abarra.
Xalbadorrekin denak batera xahu sasi ta laharra,
ez dadin gure begietarik ixuri beti nigarra...

Itxaro Borda
1977.11.6-an
Herria, 1977.12.15

Eskerdun

Airea: Xarmegarria zira

Urepeleko lurrak, o zer balioa!
Pagorik ederrenak hor egin erroa.
Negu beltzean ere berde du ostoa,
dohain berezi hori zoin den arraroa!

Ardura gan nindaik e arbol horren pera,
bihotz xukatuaren berriz freskatzera,
hazkurri azkarrean odol berritzera.
Euskaldun asko bada ene arabera.

Zuri otoitzez nago, Xalbador maitea,
zorionez har azu gure elgartzea.
Samina izan zauku zutaz berextea,
orai orroitzapenez bihotza betea.

Zure pertsuak ziren herri mezulari,
seme eginbidea minbera ezarri.
Odolaren mintzoa-n eman duzu argi,
dohatsuen taldean gu nahiz ezarri.

Odolaren mintzoa-k fedezko dohaina,
mendek kanta bezate pertsuez errana.
Oihartzunak harturik gogo hain barna,
Euskal Herria dadin betiko egina.

Eskerdun gaiten izan gure Xalbadorri,
bihotz bat eman baitu Euskal Herriari.
Elgartuz dugun atxik karstsu eta garbi
etorkizun ederra gure gozagarri.

M. E. Berro, Baigorritik. *Herria*, 1978.07.06

Bigarren urteurrena

Urepele, 1978.11-05, Xalbadorren heriotzaren bigarren urteurrena.

Mixel Itzaina: Lazkao-txiki eta Alkat. Xalbadorrek dio: "Amodioa gauza tristea, bihotzen higatzailea". Bi bertsu.

Alkat:

Amodioa gauza tristea, bihotzak ditu higatzen;
Xalbador zenak bere bertsutan horixe zuen aipatzen.
Xalbador maite, hola daikela ni ere nauzu ohartzen,
bertze guziak maitatu nahi hementxet hura hil baitzen.

Lazkao-txiki:

Xalbador zena maitasunean ain gendun aundi ta fiña,
Euskal Erriko maitetasunez lana ugari egiña.
Orregaitikan azal zitzaion azaldu zitzaion miña,
amodioa biotzarentzat baida gauzarik aundiña.

Alkat:

Gure mundu hau nik ikusten dut ardura triste ta ilun,
Xalbador zenan erakarpenik jendeak ez baitu entzun.
Nik uste dut gaur: maitatzekotan jendea bildur da egun;
bihotzak asko hobe laitezke balitz geiago maitasun.

Lazkao-txiki:

Xalbador baiño biotz geioko gizonik al da munduan?
Euskal Erria maitatu zuen bere bizitza osuan.
Ta ara gero zer pasa zitzaion, ta azkeneko orduan:
maitasun geiegi zuelako biotza lertu zitzaian.

* * *

Mixel Itzaina: Xalbadorrek dio Urepelerentzat: «Zu maite etzaituen herritarrik ez da». Bainan Urepelen, nahiz lehen asko haur sortzen zen, orai bat edo bida dira omen bakarrik sortzen urtean, Bat eta erdi hobeki kontuak eginez. Xanpun, nahi nitek hortaz bi bertsu eman itzakan Urepeli.

Xanpun:

Itzainak galdegin nauen horri hau diot nik arrapostu:
Urepelerat biltzea dela guretzat bai zinez gustu.
Hain da leku maitagarria ta odolik ezin da hoztu,
beraz, herritar maite maiteak, leku horiek ez hustu.

Jaiotze edo sortze horretan omen da zerbeit arrasta,
lehen usatuak bataiatzen hemen haur andan parrasta.
Xalbadorren hitza gogoan har ta zaindu gostaiak gusta,
gure Urepele maite ez duen umerik oraino ezta.

* * *

Mixel Itzaina: Lazkao-txiki, Xalbadorren liburua, *Odolaren mintzoa*, irakurri duzu. Zer sentimendu, liburu hori irakurtu eta, iragan da zure baitan?

Lazkao-txiki:

Nik Xalbadorren liburu ori irakurria det dena,
esan leiteke badu jakintza Espiritu Sainduena.
Euskaldun danak ezin konpreni, orrek ematen dit pena;
oi da, gizonak, Euskal Erriko erregalorik onena.

Liburu orren balore dana oso zail da esatea,
Xalbadorrek an utzi baitzuen izana ta izatea.
Euskera eder-ederra eta bestela ez da arlotea,
ain da gauza bat aberatsa ta guztia mamiz betea.

Lendabiziko agur bero bat

Urteoro bezala, bertsulari pila handia bildu zen Urepelen, 1979ko azaroaren 4an, Xalbadorren heriotzeko urteurrena zela eta. Alkat bertsularia aurkezle zela kantatu zuten bertsulari denek. Oñatin bertsutan izan eta berandu samar heldu zen Xanpun, eta hark bota zituen hiru bertsu hauek jaso nahi izan ditugu bilduma huntan.

Lendabiziko agur bero bat hemen zareztenak denak,
ezin jasanak ziren barnean nauzkan kezkek eta penak.
Batzu badira nere kasuan menturaz hemen daudenak.
Bide gainean pasatu ditut eskuin ta ezker orenak,
bainan halare Urepelera bildu nau haren omenak.

Erran dezaket, esku zartarik ere gaur eztut merezi,
bainan halare ohartu zaizte, nehor ez dut nai ahantzi.
Oñati hartan izana gatik kantatu soiñuz poz garrantzi,
iduri zuen paradisuari kasik gindela han bizi,
bainan halare Xalbador ona gogotik ezin nun utzi.

Ahalgetua bezala nabil egungo nere buruaz,
urrikal zaizte aurrean dagon oraingo ardi galduaz!
Ez naiz, ez, gero urguiluz ari hartua dutan graduaz.
Barkamendu bat galdatu nai dut egungo ne'beranduaz,
eta eskerrak bihurtzen ditut zuek eman barkamenduaz.

Ate hegitik mendietarat

Xalbadorri erran ninduten omenaldia egin behar ziotela urte oroz bezala, eta ni ere deitu ninduten. Bainan eri nintzen eta ez nuen joaterik, eta penatua nintzen horregatik. Eta pentsatu nuen etxean egin eta bizpahiru bertsu bialiko nituela. Halaxe egin eta biali nituen. Eta han Mixel Xalbadorrek kantatu omen zituen nere partez.

Ate hegitik mendietarat beira egon naiz goizean,
nere lagunak hor zirela ta ni berriz hemen etxean.
Geiago kantuz ezin naiz ibil osagarri eskasean,
horri pentsatuz zimiko batzu senti ditut bihotzean,
nigar malkoak etortzen zaizkit lagun onez orroitzean.

Nere burua kontsolatzeko gero hasi naiz kantari,
bertsu pare bat behar nuela Urepelerat igorri.
Onbore ona begiraten dut egona gatik gaur eri,
otoitz umil bat eskaintzen diot zeruko Jainko onari,
urteburua seinalatzeko Xalbador lagun zenari.

Zuen bertsuak joanen dira zeruetara menditik,
eta ni berriz umil umila hasi naiz itsas hegitik.
Xalbadorren orroitzapena ez zait joaten burutik,
mundu hau uso pasaia bat da, hoi ere ongi badakit,
Mattinen partez agur deneri bihotzain erdi erditik.

Xalbador hil zeneko laugarren urteburua 1980ko azaroaren 2an ospatu zen. Mattinek, berak joaterik ez eta bertsu hauk igorri zituen. *Deia*-k 1980.XI-an argitaratu zituen; *Herria*-k, 1980.11.06an; *Diario de Navarra*-k 1980.11.14an. Eta Auspoa-k, *Etxe xokotik kantari* liburuan, 151, 1981.)

Urepeleko artzai zanari

Euskal Erria arbol bat degu, adarrak ditu erriak,
adar oietan kantatzen zuen len Ahetzeko txoriak.
Urte askoan lagundu zion il zan Xalbador aundiak,
arbola zutik dagoen arte ez dira aztuko biak.

Bi txori auen kaiolak daude Urepelen da Ahetzen,
andik irtenda adar oietan aritzen ziran kantatzen.
Txoriak il da kaiolak utsik, iñork ez ditu betetzen,
ez baita errez, nai izanda're, alakoak berriz sortzen.

Adar oietan izaten ziran bi txori oien kabiak,
kabi oietan sortu zitezen geroko txori berriak.
Bertsoak eta oitura zarrak galtzen baditu erriak,
gero ikusi bearko ditu bere ixtilu gorriak.

Xalbador, izar bat izan ziñan argia egin zenduna,
zerbait aparta bazenduen zuk Jaunak ematen zizuna.
Gaixo dagoen izkuntza oni eman naian osasuna,
biotza lertzeraiñokoa zan zenion maitetasuna.

Zure esanak ezpatak ziran, argatik daude goguan,
maisua aundia izandu ziñan bertsolarien munduan.
Gu bearrena giñan garaian ziñaden emendik juan,
sinistatu're eziñik gaude nola aldegin zenduan.

Odei artetik aingerutxo bat an azaldu zan zeruan;
mirariren bat ote zekarren kezkatu ziran orduan.
Urepeldarrak il arteraiño izango dute goguan,
eta Xalbador Jaunarengana aretxek eramán zuan.

Geiago zure oiartzunikan ez du entzungo mendiak,
geiago zure txistu-soiñurik ez du entzungo ardiak.
Len egunero ogi-koxkor bat izaten zuen ariak
galdetuko du: «Nora joan dira artzaia eta sariak?».

Ari gaixoak eguneroko ogi-koxkorra buruan,
mundu tristean goseak iltzen dauden askoren moduan.
Arek ez jakin beste Artzai bat ere badala zeruan,
Xalbador zana berarengana Aretxek eraman zuan.

Pablo Zubiarrain, Ernani-Txikia
Ia kantatuz bezela, Auspoa 190, 1985

Xalbador zana

Urepelgo mendian zenduen lenbizi
gure Euskal Erriko argia ikusi,
Bertsoak etzizkizun iñork erakutsi,
zor diozu amatxo, aita ta Jesusi.

Aingeru bat mundura sortu ziñanean,
erri apal artantxe, garaia zanean,
nork esan bear zuen zuk ondorenean
argi eingo zendula euskera danean?

Urepelko elizan an dago ponteoa,
bataiatu zuena Xalbador maitea.
Geroztik izandu zan mirariz betea,
Jaunak nai zuelako ala izatea.

Kolejioan gutxi ibilli zan baiña,
alare bazekien maixu danak aiña.
Edozeiñi ta errez artzen zion gaiña,
Jaunak egin baitzuen kantari bikaiña.

Gu negarrez utzita joan ziñan emendik,
aparta baitziñaden beste danengandik.
Jaungoikoak doai au eman zizun lendik,
ezta au erosi ta saltzen zuen dendik.

Bular bedeinkatua zuk artu zenduan,
amaren besoetan, suaren onduan.
Eta artxek poeta biurtu zinduan,
aztuko etzerana geiago munduan.

Guztiona dan Aitak bazekien ongi
danen gaiñetik eingo zenduela argi.
Orain il zeranean ikusi da garbi
nola izandu ziñan gorputz batekin bi.

Plazetan kantatu ta paperean jartzen,
zuri bi aldetara zitzaizun etortzen.
Urte batzuk joan leizke zure lana partzen,
beste Xalbadorren bat ezpazaigu sortzen.

Izandu ziñalako poeta argia,
Urepelen ikusi nai degu jarria
danen oroimengarri zure iduria:
eskuetan librua, oiñetan ardia;
au izandu zan gure Xalbador aundia.

Pablo Zubiarrain, Ernani-Txikia
Ia kantatuz bezela, Auspoa 190, 1985

Xalbador bertsularia

Doinua: Urtxo xuria, errazu

Huna Xalbador zenaren 10 garren urteburuko egunean, Mayi Treku, Martin aheztar zenaren andreak oroit harriaren aintzinean eman bertsuak.

Agur urepeldarrereri
ta entzule guzieri!

Hamar urteak aurten baititu Xalbador zela itzali,
harri honetan haren itxura egonen da oroitgarri.

Ezarria den harria
gauz bat espantagarria.

Oroitzapen hau higatu gabe dagon eternitatia,
sainduen pare ikusiko da Xalbador bertsularia.

Urepeleko Xalbador,
adio bat zaitugu zor.

Zure bizitzan zure izena aipatu gabe zagon nor,
zure izana liburuetan irakurtzeko bego hor.

Herria, 1986.10.02

Hamar urte

Urepelek badu omen,
Euskal Herrian aipamen,
Xabier Letek olerki batez eskaintzen goresmen.
Fernando bat poeta zen,
denek hor Xalbador deitzen;
hamar urte iraganik nehork ez duke ahantzen.

Orain hamar urte aintzin
berri txarrak ekarri min:
bertsulari olerkariena zendu zela jakin.
Bainan egun egiten zin
koblakari izan dadin,
hola zeruan Xalbadorrentzat milaka atsegin.

Mattinekin lagungoa,
elgarren amodioa,
bat irringarria bezainbat zen bestea zintzoa.
Mattinek zalu bertsoa,
Xalbadorrek gogokoa,
horiek moldatu bikotea paregabekoa.

Balin badira kantari
bertsulariak ugari,
aitor dezagun Xalbador zela horien gidari.
Haren haziak ekarri,
erein ordu bezain sarri:
artzainaren ondotik gazteak oro koblakari.

Xalbadorrentzat su garra.
Ama bezala Nafarra,
orai bilakatua ikusiz ixurtzen nigarra.
Izanikan hain zaharra
ez da oraindik eiharra,
zuhaitz horren sei abarrek dute ondoain beharra.

Urepeleko artzaina,
itzal haundiko gizona,
harek kantatu bertsuak sartu gogoetan barna.
Amesten ahal duguna
zeruetan dabilana
kobla pollitez alaitzen duke Jainko guziz ona.

Uste ginuen hil zela,
egun ohartzen hor dela,
haren hitzek gure bihotzeri poz deramatela.
gogoa jartzen epela,
berotzen ere sabela,
Odolaren mintzoa betiko gure xaramela.

Herria, 1986.10.16

Xalbadorren 15garren urteburuko mezan, Urepeleko elizan

Eliza bezain gauza ederrik mundu guzian badea?
Jainko Jaunari hel arazten dut Urepeletik galdea:
beti euskaldun atxiki dezan Euskal Herriko jendea,
sekula santan ez ditezen gal euskara eta fedea!

Erizain eta artzain ta bertze, giroa da sumindua,
ezin bizia ta pobrezia, mendea da samindua.
Iduri luke, Jainko maitea, nunbeit zauden urrundua.
Hobeago ta zuzenagoa eizu langilen mundua.

Eri ta xahar eta ixtripu bada munduan askitsu,
mundu huntako berri guziak, Jainko ona, badazkitzu.
Gure galde ta gure otoitzen dei suharra hel bekizu:
gaurko mundua ederrago ta hobeagoa egizu.

1991.11.03

Jean Pierre Mendiburu

Xalbador

Mixel Itzaina gai emaileak:

Jean Pierre, badakiat horetako zer lekua atxikia duen Xalbadorrek hire bizian; badakiat. Nahi nitek hiru bertsutari gai hau erabil diezaigukan: Xalbador.

Jean Pierre Mendiburu:

Hiru bertsutari Xalbador aipa egin dautazu galdea, gutarik eta hartarat bada izigarrizko alde.

Egia erran, bera baitzagon dohain ederren jabea, Giputz, Bizkaiko ta Nafarroko guziak baino hobea, bertsulari bat zoragarria, nihun parerik gabea.

Xalbador zenak bazuen zentzu, ausartzia ta kopeta, bere herrian joko dut pozik goresmenezko tronpeta. Bertsularien artean baitzen hura zinezko profeta, bat batekoan arraroa ta bertso idazten perfeta, berdingabeko bertsulari ta neurri gabeko poeta.

Euskaraz ere aberatsa zen ta dohatua talenduz, haren bertsuak barnakor finak ta barna zauden zimenduz. Bere dohaina lantu zuen ta bete zen merezimenduz, gaur esker onez hemen gaude gu beraren atxikimenduz, haren parerik nehor ez gaude zentzun eta adimenduz.

Herria, 1989.12.21

Urepeleko elizan

Urepeleko elizan, 1996ko azaroaren 3an, Joxe Mari Aranaldek idatzitako *Xalbador pertsularia* liburuaren aurkezpena egin zen, eta Xalbadorren heriotzeko 20gn. urtemuga ospatu. Bertsu jaialdiaren une batean, Xalbador goralduz bertsu hau kantatu zuen Xanpunek:

Hunkigarriak dira, bai, zinez egun doatzin orenak,
eta uste dut ni bezelaxe hunkitu zaituzten denak.
Naiz hogoi urte pasatu diren berritzen ditugu penak,
eta hor dauden gauza batzuek ezin ahantzi direnak.
Oraindik luzaz batu gaitzala gu Xalbadorren omenak,
gu Xalbadorren omenak.

Eta bertze mementu batean, Mixel Itzaina sujet emaleak bakarka jarri zuen Xanpun, Urepeleko elizako saio hartan, gai hauxe emanik: Eliza huntan asko ikasi du Xalbadorrek. Eliza huni, bi bertsu.

Xalbadorrentzat haundi ta garbi sakratua zen eliza,
eta hemendik kasik zabaltzen gintuen Jaunaren hitza;
eta gainerat Jauna ere bai zakien nola zerbitza,
eliza hauxe zaukan beretzat Euskal Herrien geriza.

Nola ibili zaukun Xalbador kantuz herriz herri beti,
bai eta ere ibili zauku hego ta iparran gaindi.
Gaur ez ditake hau erran gabe Xalbadorrez hemen geldi:
egun goxo hau zerukoz ere sakratua izan bedi.

Anima eta biotza

Joxe Migel Iztueta *Lazkao Txikik* Euskal Telebistan behin batez kantatutako bertsuak:

Xalbador, iñoiz mindu bazaitut barkamen eskean nator.
Euskal profeta obeagorik berriz ote liteke sor?
Euskerak eta bertsolariak zenbat ote dizugu zor,
bizi ziñala zeure ordaiñik jaso gabeko Xalbador?

Bertso ederrik idatzi zenun, etziñan geldi egona.
Bertso lanean gaillurra ziñan ta olerkitan sakona.
Txistua jotzen zutenentzako etziñan gaur bezin ona...
Usteldutzean ondu oi dira mizpera eta gizona.

Unkitzen gera entzun orduko zure bertsoaren otsa.
Omenaldiko egun aundian izan zenun eriotza;
arrezkerotik etzaigu azten ain oroitzapen mingotsa,
zu bai zindugun bertsolariok anima eta biotza.

Xalbadorren heriotzean

I

Teilatuan elurra,
herrian ekaitza,
bihotzean azken agurraren beldurra...
Udazkenean hotza,
lotsatzeko ezinak
bizitzaren garraisia heriotz egina.

Eskuak luzatzean
bizitza jasotzeko asmoz
eta lurra bakarrik behatzetan sentituz,
zeinen beltza den ekaitza,
zeinen hotza elurra,
zeinen deigarri bizitza heriotza hontan!

II

Adiskide bat bazen orotan bihotzbera,
poesiaren hegoek
sentimentuzko bertsoek
antzaldatzen zutena.


Plazetako kantari bakardadez josia,
hitzen lihoa iruten,
bere barnean irauten,
oinazez ikasia.

Nun ago? Zer larretan,
Urepeleko artzaina,
mendi hegaletan gora,
oroitzapen den gerora
ihesetan joan hintzena?

Hesia urraturik libratu huen kanta
lotura guzietarik,
gorputzarem mugetatik
aske sentitu nahirik.

Azken hatsa huela bertso-rik sakonena,
inoiz esan ezin diren
estalitako egien
oihurik bortitzena.

Nun ago? Zer larretan,
Urepeleko artzaina,
mendi hegaletan gora,
oroitzapen den gerora
ihesetan joan hintzena?



A-dis-ki-de bat ba - zen o-ro-tan bi-hoz-be-



ra po - e - si - a - ren he -



go - ek sen - ti - men - tuz - ko ber -



tso-ek an - tza - da - tzen zu - te - na.




Pla-ze-ta-ko kan-ta - ri ba-kar-da-dez jo-si-



a, hi-tzen li - ho - a i -



ru-ten be-re bar-ne-an i - rau-ten oi-na-zez i-ka-si-



a, i-ka-si - a. Nun ha -



go, zer la-rre - tan, U-re-pe-le-ko ar-



tzai - na, men - di he - ga - le - tan

go - ra o - roi - tza - pen den ge -
 ro - ra i - he - se - tan joan hin - tze - na?
 Nun ha - go, zer la - rre -
 tan, U - re - pe - le - ko ar - tzai - na,
 men - di he - ga - le - tan go - ra o - roi - tza - pen den ge -
 ro - ra i - he - se - tan joan hin - tze - na?

Musika eta hitzak: Xabier Lete.

Xalbadorren nortasuna

Ni ere entzuleetako bat nintzan egun artan, 1967ko txapelketa nagusiko azken saioan, Donostiako Anoeta pilotalekuan.

Bertsoak entzuteko egarri aundia zegoen orduan. Batetik, txapelketa batek duen arrakasta eta, bestetik, Lazkao Txiki goraka zetorren garaiak ziran. Eta asko ta askoren ustea zan Uztapide aundiarekin txapela jokatuko zuela; oraindik geiago, txapeldun ere izan zitekeela. Entzuleen burutan ori zegoen egun artan.

Baiña neurketa neurketa izaten da nunbait; eta an, esaten dana neurtzen da.

Juraduaren erabakia ematerakoan, Alfonso Irigoien mikrofonora gerturatu zanean, jendearen isilla. Aurkezleak onela dio:

–Uztapiderekin txapela jokatu duena izango da... Xalbador.

Zegoen isiltasunetik an sortu zan otsera dagoen alde da gasolina-ontzi batera poxpolo bat piztuta botatakoan gertatzen danaren antzeko zerbait. Tiro-sirena bat zirudien.

Egun ura eguraldi lainotsu edo illuna bazan ere, arratsalde artan baziran odei-etenetan eguzkiaren agerraldiak ere . Zazpi minutu inguruko txistu edo oiualdia izan zan.

Nion bezela, eguzkiaren argialdietako bat zazpi minutu aietan bazan.

Xalbador, bere jarraulcian beera begira: oraintxe anka bat beste belaun gainean zuela; oraintxe, bi ukalondoak belaun gainean, bi eskutako beatzak elkarri gurutzatuta; oraintxe, gora begiratualdi bat; oraintxe, aldamenekoari begiak zuzendu...

Bere sudur luzexka arekin, okillaren zenbait egoeratako antza artzen nion. Bai. Okilla zugaitzean *kas-kaska* txulo egi-

ten ari danean tarteka beera begiratzten duenean edukitzen duen antza zeukan orduan Xalbadorrek.

Txaketa illun bat zuela uste det. Alkandora txuria, oker ez banago. Txapela, artzai aundiek jazten duten moduan jantzia. Aurpegi zorrotza, sudurrez luze, antziñako euskaldunen argazki berbera... Eguzkiak ere argi egin zigun, Xalbadorren irudia edo Xalbador nolakoa zan ikusteko.

Luze eta lotsagarri iruditu zitzaidan une aspergarri ura.

Naikoa asti izan zan jendearen jokaera ikusteko. Geienak, zutik; askok, esku bat goian; beste askok, beatzak aoan, txistu aundiago jo zezaten; pilla batek «fuera, fuera»; beste asko ta asko txalo ta txalo; leenengo txistuka asi ziran asko, gero txaloka... Baiña, bai, luze zijoan.

Alako batean, Irigoienek Uztapideri esana izango zion altza eta mikrofonora urbiltzeko mesedez. Bai azkar altza ere gure Manuel! Baiña mantso-mantso an dijoa mikrofonora. Zarata baretzen, gutxitzen, isiltzen...

Asi da Uztapide bere agurra egiten. Leengo isillera biurtu da pilotalekua. Amaitu du Uztapidek bere agurreko bertsoa. Irigoienek:

–Xalbador, etorri mesedez.

Ura txalo-zaparrada!

Ireki du aoa Xalbadorrek. Ura isiltasuna! Euli bat pasata ere, entzungo zitekeen bere ego-otsa. Bi eskuak atzean elkarri josita, txapela uste det kaskoraiño joan zitzaiola.

Tenteka antzean, begiak itxita bezela, jipoitutako txakurra berriz nagusiarengana buru-makur joan oi dan bezela, Xalbador, txistu jo zion jendearen aurrera.

Benetan, bizitzeko unea. Badijoa bere bertsoaren erdialde-ra. Jendeari egoneziña sortu zitzaion. Errudun ez zala ere irten zitzaion gure Xalbadorri. Zutitu zan jendea, ekin zion txaloka... Ez zuen bertsoa amaitzerik izan.

Mikrofono aurrean an dago gure Xalbador artzaia, geldi, mugitu ere egin gabe. Pixka bat txaloak baretu zirala iruditu

zitzaionean, jarraitzen du bere bertsoarekin. Esan bazuen, esan zuen:

Txistuak jo dituzute baiña
maite zaituztet oraindik.

Zer zan ura! Eskutako miña egin arte txalotu genuen. Ura zan jendeak barkamena eskatzea, eta bide batez eskertzea gizon aren dintasuna.

Beti esan oi da: Xalbadorri txistu jo zitzaion. Ez dakit zergatik aitatzen dan txistua bakarrik. Xalbador iñoiz ez zan txalotu egun artan baiño geiago.

Zer egin genion Xalbadorri arratsalde artan? Ba, auxe: bere onrari txistuz muzin egiten asi, eta gizon aundi ta bertsolari aundi biurtu genuela zazpi minututan, beti, beti, betirako

Iparralde, Gipuzko, Bizkai eta Napar,
txapelketak giñuzen denok erakar.
Leendabizitik utzi nai zindugun bakar,
argatik asi giñan txistu joka azkar,
itsusi ta zakar,
gizalegez kaskar.
Geroak zer dakar?
Aitortzera nakar:
erakutsi zigula maitatzen alkar

Isekazko txistuak lan on baten truke.
Lotsik bagenu, senti bear genuke.
Gaizki egin bazenu, galdetuko nuke:
entzulego arek zer epai ote luke?
Zure ainbat neke
txalotuaz merke,
nora joan gindezke?
«Au ezin liteke».
Berandu eldu giñan barkamen eske.

Gizatasun leialen erreñu-itzaia,
olerki sakon sorle, zintzo alai.
Zirrara-eragille beti zure gaia,
egokiago iñor ezin da mintza ia.

Ez ziñan lasaia,
bazenun nun saia:
ardien artzaia
eta bertso-zaia...

Krabelin-ale aiek dute usaia!

Xalbador, bazenitun irri-umoreak,
disimuluz egiñak ta dotoreak.
Baiña gai sakonetan askozaz obeak,
belarritan dauzkagu aien zaporeak.

Olerki-aleak
ziran landareak.
Ai, zer ondoreak
ditugun zureak,
gero ta ezeago dauden loreak!

1997ko iraillean

Nikolas Zendoia

Beranduko birigarroa, Auspoa 254, 1998



T. Hernandez, Mattin, Xalbador eta Uztapide Parisen - 1958.



Mattin eta Xalbador, Parisen 1958an.



T. Hermadorena, Mattin, Xalbador eta Mitxelena Parisen - 1968.



Mattin eta Xalbador, Parisen 1958an.



Mattin eta Xalbador... karakola eta barca.



Mattin eta Xalbador, mamia eta azala.



Xalbador, Labegerie eta Mattin.



T. Hernandorena, Xalbador, Zubikoa.



Mattin saria jasotzen Arrueren eskutik. Eskubian Mitxelena.



Bordari eta Mattin, Ahetzeko baserrian.



Mattin Anoetako pilotalekuan - 1968.



Mattin Anoetako pilotalekuan - 1968.



Mattin eta Uztapide Oiartzunen, 1981ean.



Mattin, emaztea eta semearekin. Oiartzun 1981.



Matxin Oiarzango omenaldian, 1981ean.



Eskolarteko bertso txapelketaren ondoren, Ahetzen, 1981ean.



Mattin jaialdi batean.



Mattin Segurako omenaldian - 1976.



Mattin umore handiko bertsularia.




J.M. Lekuona eta Mattin Oiartzungo omenaldian, 1981ean.



Mattinen omenezko jaialdia Oiartzunen, 1981ean.



Leoni eta Mayi, Xalbador eta Mattinen alargunak.



Xalbador bere sortetxeaz harro.



Xalbador eta Leoni ezkontza egunean.



Xalbador Donostian - 1968.



Xalbador saria jasotzen Donostian - 1967.



Uztapide eta Xalbador, 1967.06.11n.



Uztapide, Bordari eta Xalbador Donibane Lohizunen 1976.06.20an.



Xalbador eta Uztapide Donostian - 1967.



Xalbador bere *artzain etxolan*.



Xalbador, bertsulari sakona.



Xalbador saria jasotzen Donostian - 1968.




Xalbador, Lazkao txiki eta J. Berasategi, Urepelen.



Xalbador, beti pentsakor.



Xalbador Karmelo Baldan, Donostia.



Mattin, Xalbador eta Mitxelena Donostian 1968an.



Xalbador Ameriketán, 1960ko udan.



Mattin eta Xalbador Ameriketán 1960ko udan.



Lasarte, Leoni eta Xalbador.



Azpillaga, K. Lizaso, Lopategi, Uztapide, Lasarte, Mitxelena eta Mattin.

Aurkibidea

Aitzin solasa	7
----------------------------	---

Mattin eta Xalbador elkarrekin

Bertsularien sariketa Parisen	13
Xahakua ta kaikua	17
Senar emazteak	18
Ezkondua eta donadua	20
Esneketaria eta ostalerra	23
Kontseilari hautatua eta baztertua	26
Boto eske	29
Astronautari deia	31
Aita semeak ito beharrez	33
Aita semeak	35
Parise, 1969ko abendua	38
Monagilloa ta apeza	44
Jostuna eta neskatilla	45
Haurrik ez edo haur sobera	47
Herriak hustutzen	49
Mattin neskatxa batekin	50

Mattin (bakarka)

Banaka	55
Herriko beztitzailea	60
Andre zekena	61
Munduko ogibiderik zaharrena	62
Lanera hastera doan semeari	63
Haurrak nola datozen mundura	64
Bildurra	65

Emazte hil zenaren soñekoa	66
Urrezko eztaietan	67
Penizilina	68
Sudur haundia	69
Andregai beltza	70
Gona motx edo minifalda	71
Gaurko mundua	72
Kalean nahiago	73
Euliak	74
Kapitala	75
Bakezko urtxo maitea	76
Kalabazak	77
Herriko bestak	78
Oillo ederra galdua	79
Hiru penitentzi	80
Lana	81
Jan ta lo	82
Egundaino ez txapeldun	83
Ama	84
Zer kendu edo zer jarri	85
Nun da zure laguna?	86
Oiartzungo omenaldia	87

Xalbador (bakarka)

Banaka	91
Gernikako arbolari agurra	95
Soroetako mamua	96
Sorgina	97
Itsasoa	98
Bildurra	99
Doairik premizkoenak	100
Adixkide ona	101
Amaizuna	102
Emazte zenaren soñekoa	103

Izkirimiri bat, txiste bat	104
Erromako zubia edo ortzadarra	105
Ortzadarra	106
Salatzaile bati	107
Kontzientzia	108
Irria	109
Negarrez jaio	110
Ijitoa, Bankuko kobradore	111
Ohatzea	112
Orreagako Ama Birjinari otoitza	113
Txistua	114
Etxahun	115
Itsuari	116
Lanera datorren mutil bati	117
Gizona	118
Andregaiaren aita	119
Mingaina, mihia	120
Eskerrak	121
Odol emalea	122
Maita beharrak	123
Amaren sabela	124
Donostiari	125
Lur emalea	126
Arnasa, hatsa	127
Xoria	128
Ametsa	129
Lazkao-txikiren malkoeri	130
Ametsa	131

[attinen omenez

Mattin eta Xalbadorri	135
Mattini bi pertsu	136
Mattin Aheztarra	138
Persulariak Parisen	139

Mattin eta Xanpun	141
Mattinen omen eguncan	143
Ahetzeko Mattin	145
Donostiako omenaldia	147
Mattinen omenaldia	150
Mattin Aheztarra	152
Mattin bertsolariari	154
Xalbador eta Mattin	155
Ahetzeko Mattin	157
Mattin Aheztarra	159
Mattin nigarrez ikusi dut	161
Mattinen omenaldia Miarritzen	166
Ahetzeko Mattini	168
Ahetzeko omenaldian	170
Hori aitortu behar zen	172
Mattini	173
Zorionak, Mattin	174
Mattinen omenaldiaz	176
Gora Mattin!	178
Ahetzeko bertsolariari	180
Mattin bertsolariari	182
Oiartzungo omenaldian	183
Oiartzungo omenaldirako	184
Hileta elizizkuna	185
Mattin il zaigu	191
Ikus arte, Mattin	193
Mattin lagun zenduari	195
Mattin izar berria	197
Mattin bertsulari zenari	199
Mattin zendu zenean	200
Hodei guzien artetik izar	201
Mattin zenari	202
Liburu berria	203
Mattinekin amets	204

XV Xalbador egunean	205
Beso jakina	207
Agur, Ahetzeko Mattin	208

Xalbadorren omenez

Xalbador	217
Xalbador bertsolariari	218
Zumarragako omenaldia	219
Xalbadorren omenez	222
Xalbadorren omenaldian, Donostian	223
Xalbador	224
Xalbadorri agur bat	238
Xalbadorri agur on	240
Xalbadorri omena	243
Xalbador bertsolaria Ameriketara	244
Xalbadorren ondoeza	246
Xalbador Urepelekoari	248
Xalbador	250
Lagunari agur	253
Omenaldi eguna	255
Xalbadorren chorzketa	272
Xalbador zenari	277
Donostiako hileta elizkizuna	279
Xalbador adixkide zenari	284
Urepeleko eskolan	286
Segurako omenaldia	287
Xalbador	294
Aireko lagunak Xalbadorri	296
Xalbador zenari	297
Xalbador zanari	299
Hondarribiko omenaldia	301
Iruñeko omenaldia	304
Xalbador il zan	306
Xalbador zenari	308

Hoikin zor dugun omena	310
Bertsolariek bertsolariei	312
Agur, Xalbador, agur	321
Agur, Xalbador maitea	323
Xalbador zenarentzako	325
Urepeldarrak Xalbadorri	326
Odolaren mintzoa	328
Han, Urepelen	330
Urteburukari	332
Eskerdun	334
Bigarren urteurrena	335
Lendabiziko agur bero bat	337
Ate hegitik mendietarat	338
Urepeleko artzai zanari	339
Xalbador zana	341
Xalbador bertsularia	343
Hamar urte	344
Xalbadorren 15garren urteburuko mezan	346
Xalbador	347
Urepeleko elizan	348
Anima etas biotza	349
Xalbadorren heriotzean	350
Xalbadorren nortasuna	354

Auspoaren azken liburuak:

- 292-293: F. Apalategui
*Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak * Relatos de guerra de carlistas y liberales (I) eta (II)*
- 294: Manuel Lasarte
Plaza-Gizonak
- 295: Nikolas Zendoia:
Egan dioa.
- 296: Basarri:
Bat-bateko bertsoak.
- 297: Pepe Artola:
Ustez laguna detan
- 298: Mattin eta Mari Treku
Mattin bertsularia
- 299: Antonio Zavala
Oñez eta jakin miñez III
- 300: Antonio Zavala
Auspoaren auspoa IV
- 301: Antonio Zavala eta Joxemari Iriondo
Mattin eta Xalbador

Donibane Lohizunen, orroitzen naiz arras ontsa;
hamazazpi bertsulari harat bildu zen laguntza.
Denak zerbeit arizan ginen gaizki edo erdi ontsa,
egun hartan egin nuen nik Xalbadorren ezagutza.

Geroztikan izan gira segur gu lagun handiak,
Ameriketan barnaka ere gira ibiliak.
Bizkaiara ta Gipuzkoara joaiten ginen beti biak,
hameka pertsu entzuna dauka gurekin Euskal Herriak.

Horrela dio Mattinek bere sail batean. Ederki adierazten du
Xalbador nun ezagutu eta adixkide minak nola egin ziren. Hona
beste sail batean ere zer dion Donibane Lohizuneko txapelketa
hartaz:



Oroitzapen bat badut nik egun harekin,
besteak nola ziren ikustearekin,
Hoberenak ginela bertzek erranakin,
adixkide ein ziren Xalbador ta Mattin.

Ondotik hasi ziren gure komediak,
lagun haundi eginik Xalbador ta biak.
Ikasi Euskal Herriak daduzkan bidiak,
Ameriketan ere gira ibiliak.

Geroztik bi izen ezin bereziak izan ziren Euskal
Herrian, eta egun ere hala dira. Bainan bikote horri
eskeini libururik ez zen. Horixe da Auspoa-k bere
ale huntan egin nahi izan duena, Mattin eta
Xalbadorren bertsu mordoska bat azalduz gainera,
bertsuzale jendeak haietaz zer irizten zion ere
erakutsiz.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

ISBN: 84-7907-528-



9 788479 075286